

- IKER 28 *Itzulpenari buruzko gogoeta eta itzulpen-praktika Joseba Sarrionandiaren lanetan.* Aiora Jaka Irizar. 2012.
- IKER 29 *Koldo Mitxelena-ren zinema- eta liburu-kritiketako diskurtso-estrategiak: enuntziatu parentetikoak.* Agurtzane Azpeitia Eizagirre. 2012.
- IKER 30 *Lehen Mundu Gerra «Eskualduna» astekarian.* Eneko Bidegain. 2013.
- IKER 31 *Approche textologique et comparative du conte traditionnel basque dans les versions bilingues de 1873 à 1942.* Natalia Mikhaïlovna Zaïka. 2014.
- IKER 32 *Gorbeia inguruko etno-ipuñ eta esaundak II.* Juan Manuel Etxebarria Ayesta. 2016.
- IKER 33 *Piarres Larzabalen antzerkigintza: 1950-1982.* Isabelle Echeverria. 2016.
- IKER 34 *La politique linguistique de la Révolution Française et la langue basque.* Egoitz Urrutikoetxea. 2018.
- IKER 35 *Gerraosteko Euskaltzaindiaren historia kulturala (1936-1954).* Anton Ugarte. 2018.
- IKER 36 *Le Dauphin: 1757ko gutuneriari buruzko osagarriak eta gogoetak, «othoi çato etchera».* Xabier Elozegi. 2018.
- IKER 37 *Eñaut Etxamendiren obra narratiboa (1964-2011): burbilpen kritikoak.* Itziar Madina Elguezabal. 2019.
- IKER 38 *Euskal literatura itzuliaren egiturak eta islak 1975-2015.* Miren Ibarluzea Santisteban. 2020.
- IKER 39 *Euskal onomastika aplikatua XXI. mendean.* Roberto González de Viñaspre (arg.). 2020.
- IKER 40 *Arantzazutik mundu zabalera (1968-2018).* Andres Urrutia (arg.). 2021.
- IKER 41 *Anitzasuna: bizkeren berba-mintzoak. Euskaltzaindiaren II. Nazioarteko Dialektologia biltzarra.* Adolfo Arejita (arg.). 2021.
- IKER 42 *I. liburukia: Jose Ramon Minondo goizuetarraren gutunak. Olaberria (Oiartzun). 1790-1807. Edizioa.*
II. liburukia: Jose Ramon Minondo goizuetarraren gutunak. Olaberria (Oiartzun). 1790-1807. Hizkuntza azterketa.
Patxi Salaberri Zaratiegi, Juan Jose Zubiri Luxanbio eta Iker Salaberri Izko. 2021.
- IKER 43 *Bertsolaritzaren historia soziala: Oihartzuna, eragiletza eta gakoak (1823-2018).* Antxoka Agirre Maiora. 2021.
- IKER 44 *Territoires, Langues, Littératures & Cultures : Confrontations, Lectures, Tradlations.* Sous la direction de Herve Le Bihan & Aurelia Arcocha. 2022.
- IKER 45 *Ingurune digitala, hizkuntzen estandarizazioa eta euskara.* Andoni Sagarna & Miriam Urkia (argk.). 2022.
- IKER 46 *Creación, traducción, autotraducción.* Olga Anokhina & Aurelia Arcocha (eds.). 2022.
- IKER 47 *Mendealdeko Euskara Zaharra: ezaugarriak, kronologia eta geografia.* Eneko Zuloaga. 2022.
- IKER 48 *I. liburukia: Ignazio Bergara goizuetarraren gutunak. Arranbide (Arano) eta Elama (Artikutza). 1787-1811 Edizioa.*
II. liburukia: Ignazio Bergara goizuetarraren gutunak. Arranbide (Arano) eta Elama (Artikutza). 1787-1811 Hizkuntza azterketa.
Patxi Salaberri Zaratiegi, Juan Jose Zubiri Luxanbio eta Iker Salaberri Izko. 2023.



Elamako burdinolaren hondakinak



Arranbideko benta



IGNAZIO BERGARA GOIZUETARRAREN GUTUNAK. ARRANBIDE (ARANO) ETA ELAMA (ARTIKUTZA). 1787-1811. EDIZIOA

IGNAZIO BERGARA GOIZUETARRAREN GUTUNAK. ARRANBIDE (ARANO) ETA ELAMA (ARTIKUTZA). 1787-1811.

EDIZIOA

Patxi Salaberri Zaratiegi
Juan Jose Zubiri Luxanbio
Iker Salaberri Izko

Iker - 48



Gobierno de Navarra  Nafarroako Gobernua

ISBN 978-84-126313-8-8



iker
48



PATXI SALABERRI ZARATIEGI (Uxue, 1959). Filologia Hispanikoan lizentziatu zen lehenik (UN, 1982) eta Euskal Filologian gero (EHU, 1986). Doktore tesia EHUen egin zuen, Eslaba aldeko toponimiaren eta euskararen inguruan. Beti euskara irakaslea izan da, Zaragozako Unibertsitateko Nafarroako Irakasle Eskolan lehenbizi (1984-1990) eta Nafarroako Unibertsitate Publikoan ondoren (1990-). Filologia eta Hizkuntzaren Didaktika Saileko zuzendari eta zuzendariordea izan da, Giza eta Gizarte Zientzien

Fakultateko idazkaria eta Errektoreari Atxikia hizkuntza plangintzarako. Hamahiru urtez Nafarroako Gobernuaren FLV aldiakariaren zuzendari izan da, pare bat aldiz Nafarroako Euskararen Kontseiluko kide eta luzaz NUPeko Hizkuntza Plangintza batzordeko kide. NUPeko «Nafarroako Ondare Materiagabea» katedraren zuzendari ere izan da, bi urtez (2014-2016). Euskaltzain urgazle izendatu zuten 1996an eta euskaltzain oso 2005ean, eta Onomastika batzordeko buru izan zen bost urtez (2013-2017). Ikerketa gehiena onomastikaren gainean egin du, eta hein txikiagoan dialektologiaren (batez ere dialektologia historikoaren), testu zaharren eta hizkuntzaren historiaren gainean. Hogeita bi liburu idatzi ditu, bakarka eta lankidetzan, eta hamar argitaratu. Bestalde, ehun artikulua, liburu atal eta txosten tekniko karrikaratu ditu, gehienak Euskal Herriko aldiakari eta liburuetan.



JUAN JOSE ZUBIRI LUXANBIO (Donostia, 1961) Euskal Filologian lizentziatu zen Deustuko Unibertsitatean (Donostiako EUTG-ESTE, 1984) eta doktore tesia Euskal Herriko Unibertsitatean egin zuen (1997), 0-3 urte arteko haurren ama-hizkuntzaren jakokuntzari buruz. Geroztik ikerketa-lerro hau bera lantzen jarraitu du, gaiaren inguruko hainbat proiektutan parte hartu eta zenbait artikulua argitaratu ditu. Ikerketa-lerro honetaz landa, dialektologia arloko datuak bildu, deskribatu eta jorratzen

ere aritu da, bereziki Goizueta-Arano herrietakoak, eta honen fruitu dira, besteak beste, *Goizueta eta Aranoko hizkerak* (1998), *Biraoak. Nafarroan bilduak* (2007) eta *Goizuetako etxeen izenak* liburuak (2011). Urte luzez irakaskuntzaren aritua da, lehenik Zaragozako Unibertsitateko Nafarroako Irakasle Eskolan (1984-1990), eta gero Nafarroako Unibertsitate Publikoan (1990-2023). Hemen Filologia eta Hizkuntzaren Didaktika saileko idazkari (2002-2010) eta zuzendari (2010-2018) izan da. Gaur egun, Giza, Gizarte eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko dekanordea da. Bestalde, euskaltzain urgazlea da 2006az geroztik.



IKER SALABERRI IZKO (Iruñea, 1989). Ingeles Filologian lizentziatu zen 2012an eta Aleman Filologian graduatu 2017an, Euskal Herriko Unibertsitatean. Hizkuntzalaritzan doktorea, 2017an saxoiera zahararen sintaxiaren inguruko tesia defendatu zuen EHUen. 2018-2019an Nafarroako Unibertsitate Publikoko Giza eta Hezkuntza Zientzien Sailean irakasle aritu ondoren, 2021etik Euskal Herriko Unibertsitateko Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketak Saileko kidea da. Hainbat lan argitaratu ditu Euskal

Herriko eta atzerriko aldiakarietan, bereziki tipologia linguistikoaren, hizkuntza aldaketaren, morfosintaxiaren eta onomastikaren inguruan, euskarari zein munduko mintzari begira, besteak beste “Grammaticalization of nouns meaning ‘head’ into reflexive markers: a cross-linguistic study” (Natalia Evseevarekin batera, 2018) *Linguistic Typology*-n, “The word order of negation in the history of Basque: a linguistic and sociolinguistic approach” (2021) *Diachronica*-n eta “A cross-linguistic study of emphatic negative coordination” (2022) *Studies in Language*-n. 2020tik Association for Linguistic Typology eta Societas Linguistica Europaea erakundeen batzorde exekutiboetan egiten du lan, eta 2019tik *Aziti Bibia* Hizkuntzalari eta Filologoen Elkartearen parte hartzen du.

PATXI SALABERRI ZARATIEGI
JUAN JOSE ZUBIRI LUXANBIO
IKER SALABERRI IZKO

**IGNAZIO BERGARA
GOIZUETARRAREN GUTUNAK
ARRANBIDE (ARANO) ETA
ELAMA (ARTIKUTZA)
1787-1811**

EDIZIOA

IKER 48

2023

Argitalpen honen fitxa katalogafikoa eskuragarri duzu Euskaltzaindiaren Azkue Bibliotekako katalogoan: www.euskaltzaindia.eus/azkue

La ficha catalográfica correspondiente a esta publicación está disponible en el catálogo de la biblioteca de la Real Academia de la Lengua Vasca: www.euskaltzaindia.eus/azkue

Les données bibliographiques correspondant à cette publication sont disponibles sur le site de la Bibliothèque Azkue de l'Académie de la langue basque: www.euskaltzaindia.eus/azkue

A catalog record for this publication is available from the Azkue Biblioteka, Royal Academy of the Basque Language: www.euskaltzaindia.eus/azkue



Eskubide guztiak jabedunak dira. Ez da zilegi liburuki hau osorik edo zatika kopiatzea, ez sistema informatikoekin beronen edukia biltzea, ez inongo sistema elektronikoko edo mekanikoz, fotokimikoz, magnetikoz, elektrooptikoz, fotokopiaz, erregistratuz edo beste bitartekoz berau transmititzea, aipamenetarako izan ezik, argitaratzailearen edo copyrightaren jabearen alde aurreko eta idatzizko baimenik gabe.

Argitalpen hau Euskaltzaindiaren eta Nafarroako Gobernuaren arteko elkarlanaren emaitza da.

Hizkuntza-orraketa: Euskaltzaindiaren Hizkuntza Kalitatearen Behatokia zerbitzua (HIZBEA)

Kontrazaleko argazkien egileak:

Elamako burdinolaren hondakinak: Xabier Taberna

Arranbideko benta: Xabier Taberna

© Euskaltzaindia / R.A.L.V. / A.L.B.

Plaza Barria, 15. 48005 BILBO

© Patxi Salaberri, Juan Jose Zubiri eta Iker Salaberri

ISBN (obra osoarena): 978-84-126313-7-1

ISBN (Edizioarena): 978-84-126313-8-8

Lege-gordailua: BI 00943-2023

Inprimatzea: IMPRESIÓN Tecnigraf, S.L.L.

Erletxe industriagunea, C1 pabiloia 25 zk. – 48960 GALDAKAO (Bizkaia)

AITZINSOLASA

2019. urtean Goizuetako Paskualuzenea etxeko kutxa batean aurkitu zen orain dela bi mende pasatuxe idatzitako liburu, eskuizkribu, agiri eta gutun sail ederra, bertzeak bertze, burdinoletako gorabeherak mintzagai zituztenak, hala nola kontabilitateak, merkataritza harremanak, salerosketak eta abar. Gehienak erdaraz idatziak baziren ere, ez ziren gutxi osorik edo zatika euskaraz eskribitutakoak eta, espero zitekeen bezala, azken horiek sortu zieten interesik handiena eskura izan zituzten Patxi Salaberri, Juan Jose Zubiri eta Iker Salaberri ikertzaileei.

Ikertzaile zehatzak eta langile porrokatuak izaki hirurak ere, denbora falta izan zitzairen aurkitutako altxor hura lantzen hasteko. Horren seinale izan zen jadanik 2021. urtean prestatu eta Euskaltzaindiaren Iker bildumako 42. zenbakian argitara eman zituzten *Jose Ramon Minondo goizuetarraren gutunak. Olaberria (Oiartzun). 1790-1807* izeneko bi liburuki mardul eta oparo. Lehen liburukian, “Edizioa” izenekoan, Goizuetako J. R. Minondo *Olaberria* burdinolako olagizonaren gutunak bildu ziren eta, bigarreanean, izkribu haiei eskainitako “Hizkuntza azterketa”.

Bi urte bertzerik pasatu ez direnean, hemen datozkigu aipatutako hiru aztertzaileak berriro ate joka bertze bi libururekin. Oraingo honetan ere Goizuetako olagizon bat dugu gutunen idazlea, Ignazio Bergara. Bi tokitan aritu zen lanbide horretan, lehendabizi Aranoko *Arranbide* burdinolan eta geroago Artikutzako *Elaman*. J. R. Minondok *Olaberria* burdinolatik egiten zuen bezala, aipatutako gutunetan lantegi horietako gorabeherak igortzen zituen *Goitzarina*, han bizi zen Juan Bautista Minondo burdinola horietako olajaun nagusiari.

J. R. Minondori buruzko argitalpenean erabilitako estruktura bertsua jarraitu dute aztertzaileek I. Bergararenean ere. Lehenbiziko liburukian “Edizioa” izenekoan, izkribuetan aurkitu dituzten alderdi guztiak izan dituzte aztergai, hala nola I. Bergararen idazteko modua, hizkiak, hitz elkartu eta bereziak, puntuazioa, laburdurak eta abar. Baina egungo irakurlea kontuan

hartuz, testu horien transkripzioa, salbuespenak salbuespen eta zailtasunak zailtasun, egungo grafiara egokitzen saiatu dira, interesatuei inola ere kendu gabe edizioari gehitu dioten USB txartelaren bidez originalak bere horretan irakurtzeko aukera.

Aipatzekoa da, halaber, aztertzaileek 368 gutunen transkripzioetan aplikatu duten zehaztasuna eta zorrozatasuna. Horren seinale dira, bertzeak bertze, oin-oharretan gehitu dituzten 2.230 argibideak, horietan ematen diren aipu zehatzek, iturriek, erreferentzia argigarriek, iradokizun lagungarriek eta abarrek izugarri erraztu eta aberasten baitute testuen edukia eta ulermena.

“Hizkuntza azterketa” izeneko bigarren liburukian, 2021eko aitzineko argitalpenean aplikatutako ordena eta hurrenkera bera jarraitu badute ere, oraingo hau aberatsagoa da gehitu dizkioten zenbait berezitasuni esker. Horietako bat da J. R. Minondoren eta I. Bergararen izkribuen arteko konparaketa, bai bat datozen ezaugarrietan, bai desberdin jokatzten dutenetan, hala nola kasuetan, aditzetan, joskeran, hitz hurrenkeran eta, bereziki, lexikoari dagokion “I.B. eta J.R.M.ren hiztegien alderaketa” izeneko atalean, non modu praktikoan azaltzen dituzten bi olagizon horien arteko berdintasunak eta ezberdintasunak. Erraterako, biek *hagitz* erabiltzen dute, aldiz, batek *bana beste* izkiriatzen du eta bertzeak *bataz beste* edo *batez beste*. Konparaketak direla eta, aipatzekoak dira, bertzalde, lanean zehar, orain dela bi mende pasatuxeko bi goizuetar horien eta gaur den eguneko goizuetarren hizkera erkatuz eta kontrastatuz egiaztatzen diren aldeak.

Bada gehitu duten bertze berezitasun bat, “Euskara-gaztelania ukipenaren eraginak” izeneko atala, hain zuzen ere. Gutun aunitz elebidunak direnez gero, aztertzaileei aproposa iruditu zaie bi hizkuntza horien ukipenak egituran eta aldaketan izan dezakeen eragina, hala maileguetan nola bertzelako alderdietan, ikertzeko ematen duen aukera aprobetxatzea.

Interesgarriak, era berean, hiztegia eta onomastika aztertzen dituzten atalak. Hiztegiari eskainitako zerrenda luzea da, eta kontuan izatekoa, batik bat, ezagutzen ez den edo gutxi ezagutzen den burdinolen inguruko lexikoaren erakusleihoa ere badela. Bertzeak bertze, *Euskaltzaindiaren Hiztegian* oraingoz sarrerarik ez duten *arialdi* ‘jardunaldia’, ‘lanaldia’, ‘saialdia’, *berga* ‘iltzeak egiteko burdina mota’ erranahiarekin, *espensa* ‘gastua’, eta horrekin batera, *espensa egin*, *espensa pagatu*, *taia* eta *taia txikia* ‘kontuak eramateko makilatxoak’ eta abar, baita ere aipatutako hiztegi horretan g. er. marka daramaten zenbait hitzen lekukotasunak, erraterako *maira* ‘orea egiteko erabiltzen den aska modukoa’ eta abar.

Onomastikari eskainitako atalean ere ageri dira intereseko lekukotasunak. Horien artean, adibidez, *Iruñerako*, *Iruñetik* kasuak Nafarroako hiriburuari euskaraz *Iruñea* (ez *Iruña*) deitzen zitzaiola egiaztatzen dutenak, bai eta

Aranazko Danboliñaren, Aranazko meakari, aranaztar Danboliñaren, Santiago de Ubitzi aranaztarrarena kasuak ere, mugakide duten herri horri *Arana(t)*z deitzen ziotela (ez *Arantza*) adierazten dutenak. Bertzelakoen artean, aipatzekoa, erraterako, aspalditik eta nahiko zabaldua zegoela genioen *etxe > itxe* aldaeraren presentzia egiaztatzen duten *Itxagoien, Itxalar, Itxeberría, Apezitxea, Erdikoitxeko, Tellitxea, itxera, itxerako* gisako lekukotasunak.

Eskertzekoa da bi mende baino gehiagoz lo eta ezkutatua egon den altxorra aurkitu eta lau urteren buruan zatirik gehientsuena argitaratua ikustea. Ikertzaileak lanean buru belarri eta ordu aunitz sartuz aritu diren seinale ezin argiagoa. Espero zitekeen baino aunitzez denbora gutxiagoan gauzatutako lana da, baina ez horrengatik presaka eta poteka egindakoa, hagitx ongi antolatua, argi estrukturatua eta zehazki eta sakonki aztertua baizik. Euskararen aberastasunerako material baliagarria. Zorionak, bada, Patxi, Juan Jose eta Iker, eta izan kuraia aurkitutako material erraldoiaren azterketa akitzeko; espero dugu laster gure eskuetan izatea.

Andres Iñigo
euskaltzain emeritua

AURKIBIDEA

Aitzinsolasa	V-VII
--------------------	-------

IGNAZIO BERGARA GOIZUETARRAREN GUTUNAK. ARRANBIDE (ARANO) ETA ELAMA (ARTIKUTZA) 1787- 1811. EDIZIOA

1. Ignazio Bergara, gutunen idazlea	1
1.1. Sarrera	1
1.2. Ignazio Bergararen zaizkia	2
1.3. Ignazio Bergararen lanbidea	6
1.4. Ignazio Bergararen izenpea	8
2. Gutunen zertarako, sistema grafikoa, fonetika-fonologia gaiak eta transkripzioa	11
2.1. Eskutitzen helburua, testuingurua, testu banaketa eta pun- tuazioa	11
2.2. Gure transkripzioa, grafia-fonologia erlazioa eta Ignazio Ber- gararen idazteko ohiturak	19
2.2.1. Gure transkripzioa	19
2.2.2. Ignazio Bergararen idazteko ohiturak	20
3. Ignazio Bergararen gutun zerrenda (368)	31
4. Gutunak	37

1. IGNAZIO BERGARA, GUTUNEN IDAZLEA

1.1. SARRERA

Goizuetako *Paskualuzenea* (*Paskòltzene*) berritu behar zutela-eta, 2019. urtean, barrenean zeuden tresna guztiak ateratzen eta etxea husten hasi ziren. Aspaldiko kutxa zahar handi bat miatzean, gaineko arropak eta maindireak atera ondoren, azpiko aldean aspaldiko liburu, koadernotxo eta izugarritzko paper zahar pila zegoela ohartu ziren.

Liburu eta eskuizkribu gehien-gehienak burdinolei buruzko kontuak ziren, zehazki esan, kontabilitate liburuak, merkataritza harremanak, salerosketa kontuak eta gutunak, gehienak erdaraz idatziak. Paper zamote haien guztien artean, ordea, batzuk euskaraz zeuden, eta haiekin eta haietan murgildu gara. Dokumentazio guztia XVIII. mendearen bukaerakoa eta XIX. aren hasierakoa da, gutxi gorabehera 1785ean hasi eta 1811ra bitarteko liburu, agiri eta gutunak.

Dokumentazio hori dena eskura izateko erraztasunak eman dizkiguten guztiei eskerrak eman beharrean gaude: lehenik albistea jakinarazi zigun Dabid Anaut euskara teknikariari, gero etxearen jabe ziren Juan Loiarde «Paxkol» zenari eta honen emazte Rita Narbarteri, eta, azkenik, denbora guztian aurrez aurre, gurekin batera, dokumentazioaren babesean ibili den Pilar Untxalori. Eskertu beharrean gaude, baita ere, lana bera hobeki osatzen lagundu diguten guztiak: Goizuetako elizako artxibategiaren datuak eman dizkigun Felix Loiarde, leku izen batzuen inguruko informazioa eta burdinolei buruzko zenbait xehetasun eta argazki helarazi dizkiguten Antton Mari Mitxelena eta Xabier Taberna, herriko hitz frankoren adiera argitzen lagundu diguten Javier Etxegia «Beltza», Joxe Mari Xubiri, Ximon Apezetxea «Untxari», Ixtanix Perurena «Olaso» eta beste hainbat.

Duela bi urte, 2021ean, eman genion hasiera kutxa hartan aurkitutako altxor preziatuaren euskarazko zatia aztertu eta argitaratzeari. Egindako lanaren ondorioa izan zen Euskaltzaindiak kaleratutako *Jose Ramon Minondo goizuetarraren gutunak. Olaberria (Oiartzun). 1790-1807* bi alez osatutako ikerketa. Lehen liburukian, *Edizioa* eranskina daramanean, egilearen biografiaren inguruko kontuak, sistema grafikoa eta gutunak berak –318 denetara– azaltzen dira, gure hainbat ohar eta iruzkinekin, eta bigarren liburukian, *Hizkuntza azterketa* luzakina daukanean, izkribuetako hizkeraren azterketa dago.

Orduan material asko gelditu zen lozorroan geroago aztertzeke, eta oraintxe etorri zaio argia ikusteko tenorea. Gaurko hau aurrekoaren nolabaiteko segida da. Lehengo hartan Jose Ramon Minondok (JRMk) idazten zion Oiartzungo *Olaberria* burdinolatik Goitzarinen bizi zen Juan Bautista Minondo (JBM) olajaun nagusiari, hango kontuen eta goiti-beheitien berri emateko. Oraingo honetan ere eskutitzen jasotzailea burdinolen nagusi berbera da, JBM, baina bidaltzailea, burdinoletako kontu-emailea, Ignazio Bergara (IB) izenekoa da. Honek hasieran Aranoko Arranbide burdinolatik errendatzen dizkio kontu guztiak olajaunari, eta gero, 1804ko uztaitetik aurrera, Artikutzako Elama olatik.

Aurreko argitalpen hartan eman genituen hainbat xehetasun JBMren bizitzaz, ahaideez eta ingurukoez. Ez dugu hemen berriz errepikatuko han esandakoa. Argiago geldi dadin, beharbada, azpimarratu beharko litzateke Juan Bautista zela Oiartzungo Olaberria, Aranoko Arranbide eta Artikutzako Elama eta Goitzarin burdinoletako olajauna. Goitzarinen bizi zen eta beste oletatik hara, Goitzarina, bidaltzen zizkioten gutunak.

Jakina, JBMren harreman sarea askoz zabalagoa zen. Aintzat eduki bedi minondotarrak, Juan Bautistaren senide eta ahaideak, inguruko burdinolen jabeak zirela, eta hartu-emanak bazituztela aldameneko beste olekin. Goizuetako Paskualuzeneko kutxa zahar hartan aurkitutako idazkiek garbi adierazten dute JBMk hainbat tokitatik jasotzen zituela gutunak: Olaberritik, Arranbidetik eta Elamatik ez ezik, Lapurdiko Ainhoa, Donibane Lohizune eta Ziburutik ere iristen zitzaizkion. Era berean, kutxan zeuden liburu, agiri eta bestelakoei esker, badakigu harreman sarea franko zabalagoa zela, eta, esaterako, anaiak eta biek Zuberoako Larrainen burdinola bat zutela hartua (Perurena, 2010: 182).

1.2. IGNAZIO BERGARAREN ZAIZKIA

Gutunen egilea, Ignazio Bergara, Goizuetan jaio zen, 1742ko ekainaren 15ean,¹ eta bertan hil 1819ko martxoaren 26an.² Gurasoak ere herrikoak zituen: Fermin Bergara Uhalde zen aita (ez dakigu noiz jaio zen) eta Serafina Loiarde Alfaro ama (1703ko ekainean sortua³). Goizuetan ezkondu ziren, 1737ko ekainaren 9an,⁴ *Juandereenea* (< *Juandearanonea*) etxera, gaur egungo *Yandene*-ra hain zuzen.

¹ GEA, fal., 10. lib., 133 binp.

² GEA, def., 14. lib., 162 aurk.

³ GEA, bat., 3. lib., 21 binp.

⁴ GEA, fal., 10. lib., 52 binp.

Aitaren aldetik, Fermin Beltran Bergara (1682-10-13⁵) zen aitona eta Maria Margarita Uhalde amona (ez dakigu noiz jaio zen). IBren birraitona eta birramona Juan Martin⁶ Bergara eta Margarita Uhalde izan ziren; noiz sortuak ziren ziur ez jakin arren, badakigu Goizuetan ezkondu zirela, 1680ko apirilaren hamabostean.⁷

Amaren aldetik, berriz, aitona-amonak Juan Migel Loiarte eta Dominika Alfaro zituen IBk. Goizuetako artxibategietan ez dira horien agiriak agertzen, seguruenik Leitzakoak zirelako (Dominika bederen bai) eta herri horretan ezkonduko zirelako.

Lau senide ziren, laurak ere Goizuetan sortuak eta Andre Maria elizan bataiatuak, hiru anaia eta arreba bat: zaharrena Juan Antonio zen (1740-03-26/1803-05-05⁸), bigarrena Fermin **Ignazio** bera (1742-06-15/1819-03-26), hirugarrena Paskual Antonio (1744-09-??/??⁹) eta, azkena, Josefa Ignazia (1746-07-08/1812-05-12¹⁰).

Ignazio hogeita lau urterekin esposatu zen Katalina Frantziska Eraso Nogerarekin, Goizuetan bertan, 1766ko urriaren 20an.¹¹ Katalina emaztea 1736ko ekainaren 6an sortua zen, hau ere Goizuetan,¹² eta beste hiru haurride gazteago zituen: 1740-02-24an¹³ jaiotako Juan Bautista, mundu honetara 1744-03-25ean¹⁴ etorri zen Jose Antonio eta, azkenik, 1748-03-25ean sortutako Margarita,¹⁵ ikusten den bezala aurrekoaren egun eta hilabete berean.

Emaztearen aita-amak Juan Bautista Eraso Urrotz (1711-01-17an¹⁶ jaioa) eta Frantziska Nogera Urrutia ziren (jaiotza agiriaren aztarnarik ez dugu aurkitu), biak Goizuetan bertan ezkonduak, 1737-02-12an,¹⁷ Zinkoenera («Casa Cincoenea»).

Katalina Frantziskaren aitona-amonak, aitaren aldetik, Pedro Eraso eta Maria Magdalena Urrotz ziren, baina artxiboetan ez dugu haien inolako aztarrenik aurkitu. Juan Bautista semearen sortze agirian aipatu baizik ez dira egiten: «*hijo natural de Pedro de Erasso y Mar^a Mg.^{da} de Urroz*».¹⁸ Amaren

⁵ GEA, bat., 2. lib., 229 binp.

⁶ *Juan Martinez* idatzita dago agirian.

⁷ GEA, bat., 2. lib., 374 binp.

⁸ GEA, fal., 10. lib. 115 aurk. / def. 14. lib., 14 binp.

⁹ GEA, fal., 10. lib., 53 aurk.

¹⁰ GEA, fal., 10. lib., 53 binp. / def. 14. lib., 116 aurk.

¹¹ GEA, 6. lib., 82 binp.-83 aurk.

¹² GEA, fal., 10. lib., 132 aurk.

¹³ GEA, fal., 10. lib., 133 binp.

¹⁴ GEA, fal., 10. lib., 133. aurk.

¹⁵ GEA, fal., 10. lib., 133 binp.

¹⁶ GEA, bat., 3. lib., 46 binp.

¹⁷ GEA, ezk., 6. lib. 47 aurk.


¹⁸ GEA, bat., 3. lib., 46 binp.

aldetik Jakobe Nogera eta Maria Magdalena Urrutia ziren aitona-amonak, Goizuetan ezkonduak 1692-07-20an.¹⁹ Bestelako daturik ez izan arren, badakigu aitona Jakobe 1746-01-17an hil zela.²⁰

Katalina Frantziskarekin 1766an esposatu eta hurbilen urtean izan zuten lehenbiziko semea, Matias (1767-06-24²¹). Ondotik jaio ziren Agustin Ignazio (1769-02-16²²), Maria Frantziska Antonia (1771-10-05²³), Maria Ignazia (1775-03-09²⁴) eta Maria Josefa (1779-10-07²⁵).

Ondoko koadroan begiratu batean argiago ikusiko da segur aski Ignazio-
ren zaizkikoak zein diren, bai bere senideak, bai bere aurrekoak (aitaren alde-
tikoak) eta bai bere ondorengoak ere.

Ignazio Bergararen familia



Ediren dugun 1726ko erroldaren arabera, Ignazioren gurasoak Goizuetako *Zapataritxonea* etxean bizi ziren, garai hartan etxe horren jabea baitzen aita:

¹⁹ GEA, bat., 2. lib., 283 aurk.

²⁰ GEA, fal., 10. lib., 134 binp.

²¹ GEA, fal., 10. lib., 134 aurk.

²² GEA, fal., 10. lib., 134 binp.

²³ GEA, bat., 11. lib., 31 binp.

²⁴ GEA, bat., 11. lib., 76. aurk.

²⁵ GEA, bat., 11. lib., 114. aurk.

«*Fermin de Bergara dueño de la cassa vezinal llamada Zapatarichonea*» (Goizueta, 1726²⁶).

Ignazio Bergararen lehenbiziko aztarnak, elizako agirien ondoren noski, eta artxiboetako dokumentazioan sakonki murgildu gabe, 1771n ageri dira (Perurena, 2017: 18). Garai hartan herriko *zirujabei*, hau da, barberuei, herriak berak ordaintzen zien, baina ordainketa horretaz gainera, bertako jendeak ere zerbait paratu behar izaten zuen haien soldata osatzeko. Urte hartan udalak zerga hori ordaindu behar zutenen errolda osatu zuen, etxeka, eta zerrenda horretan *Pedrozubinea maior y menor* etxean agertzen da Ignazio Bergararen izena, beste seirekin batera, eta bi dukat ordaindu behar zituela esaten da.

Bestalde, 1777. urtean «*alistamiento general*» deitutako beste zerrenda bat osatu zuten udalean «*leva*»rako, hau da, herrian zenbat jende zegoen jakin nahi zen, edozer gauza gertatuta ere, soldadu joateko. Berriz ere etxeka ordenatuta ematen da zerrenda, eta *Ygnacio de Bergara Madola* etxean ageri da (*ibid.*, 228). Errolda horretan bertan, ondoren, etxekako zerrenda bukatu ondoren, «*Lista de vecinos del estado llano, sujetos al sorteo para el reemplazo del exercito*» zerrendan azaltzen da berriz Ignazio Bergara (*ibid.*, 231).

Lehen aipatu dugun 1726ko etxez etxeko erroldaz geroztik izan dira antzeko saioak, herri bakoitzean zenbat jende eta non bizi zen jakiteko. Goizueta 1786ko erroldan berriz ere etxe bakoitzean nor bizi den zehazten da, eta zenbait aldiz baita bizi direnen lanbidea zein den ere. Ignaziorena dela eta, «*oficial de herrería*» agertzen da dokumentuan. Hona nola bildu zen etxez etxeko kontaketa horretan: «*Loydi. Ignacio de Bergara oficial de herrería de 45 años y Cathalina Francisca de Eraso su mujer de 50 años, y tienen dos hijas llamadas Maria Ygnacia de 9 años y Maria Josepha de seis*» (*ibid.*, 251; letra lodia gurea da).

Ikusten den bezala, Maria Frantziska alaba, 15 urtekoa, eta Matias, semerik zaharrena, 19 urtekoa, ez dira jada *Loidinea* etxean bizi, etxetik kanpora alde eginak izanen ziren orduko. Agustin Ignazio, 17 urteko beste semea ere, ez zen Loidinean gurasoekin bizi, Artikutzako Goitzarin olara eta etxera joana zen lanera, morroi. Hona nola jasotzen den errolda horretan berean: «*Goizarin: en esta herrería y su casa avitan [...] y tienen por criada a Pasquala de Erviti de 21 años, y por criados: Agustin Ygnacio de Bergara de 17 años [...]*» (*ibid.*, 268-269; letra lodia gurea da).

Ogibideak direla eta, egia esan, bizilagun asko dira «*oficial de herrería*» errolda horretan, baina ez da zehaztapen gehiagorik ematen, ez da agertzen burdinoletako zein lanbide mota betetzen zuten zehazki. Errolda horretan bertan arreba Josefa Ignazia «*de 40 años Mantxintxa*»-n, herrian dagoen etxean

²⁶ NEAN, Estatistika saila 4, 31.

–ez baserrian– bizi dela esaten da: «*Manchincha. Ygnacio de Erbiti oficial de herrería de 49 años y Josepha Ygnacia de Bergara su mujer de 40 años con su hijo Fermin Antonio de 7 años y Francisco Ygnacio de 9 meses*» (*ibid.*, 252; letra lodia gurea da).

Ignazioaren beste anaien berririk ez da inon ageri zerrenda luze horretan ez bestetan. Dena dela, azpimarratzekoa da IBk idazten duen eskutitzetako batean, 1810.07.05ekoan hain zuzen ere, JBM Elama olako nagusiari bidali eta honek gutun horretan honako ohar hau zuela idatzia: «*Renta de 2 años casilla de Loidi por estar 8 meses vacio, cargo un año...2 pesetas 6 reales*». Hortaz, dirudienez, *Loidi* etxea ere Juan Bautistarena zen eta errentan utzia zion Ignaziori.

Bestalde, 1825ean bizilagunen errolda egiten denean *Domingotxoenea* etxean IBren alaba **Maria Frantziska Bergara** (54 urte) bizi zen, Domingo de Zala (55 urte) bere senarrarekin eta hiru seme-alabarekin: Juana Antonia (23 urte), Josefa Juakina (18) eta Juan Joserekin (16). Etxe berean bizi zen, baita ere, Domingoren arreba Frantziska Zala (53 urte) (*ibid.*, 294).

Urte horretan, errolda egin zen azkeneko urte horretan, *Loidi* etxea (hau da, Ignazio Bergara bizi izan zena) bitan zatitua ageri da: *Loidi mayor* lehenik eta *Loidi menor* ondoren. Azken honetan ez da bergatarrik agertzen, baina lehenbizikoan Frantziska Ignazia Bergara (19 urte) eta Juan Frantzisko Bergara (15 urte) bizi zirela ikusten da. Elizaz bestaldeko auzoan dagoen *Etxeberria*-n Frantziska Antonia Bergara (29 urte) bizi zen, Jose Frantzisko de Uitzirekin (29 urte) eta beren bi semeekin (*ibid.*, 295). Baina egia esan, ez dugu asko arakatu azken horien eta IB gutungilearen arteko ahaidegoa zein zen; ez, nolana ere, oso zuzenekoa.

1.3. IGNAZIO BERGARAREN LANBIDEA

Lehen aipatu dugu 1786ko erroldan, 45 urterekin, «*oficial de herrería*» lanbidea zuela Ignaziok eta Goizuetako *Loidinea* etxean bizi zela. Hemen argitaratzen diren euskarazko gutunak, Arranbidetik Goitzarina bidaltzen dituen euskarazko idazkiak, 1787ko urtarrilaren 19an hasten dira, errolda egin eta hurrengo urtean, alegia. Horrek esan nahi du orduko, seguruenik, urteak zeramatzala burdinoletan lanean. Toki batean edo bestean ariko zen, inguruko burdinolaren batean, baina kontuan izan, adibidez, Goizuetatik Arranbidera –gutunak bidaltzen hasi zen burdinolara–, gaur egungo errepidetik joanez, zazpi bat kilometro badirela ipar aldera, Hernani aldera.

Horrela, 1787tik aitzina behintzat Arranbideko burdinolako martxa guztia eramaten duena da IB: zenbat langile diren, zein diren, zer egiten duten,

zer behar duten, olan berean zenbat burdina ekoizten den, nolakoa, tresnak ongi dabiltzan edo ez, burdinazko pezak garraiatzeko behar ziren itzainek zer zioten, langileek janean eta edanean egiten zituzten gastuak zenbat eta zein ziren...

Aurrekoaz landara, kontabilitatea ere bere gain zeukan IBk: kontuen berri ematen zion JBMri Goitzarina bidaltzen zizkion eskuizkribuetan, baina azken erabakiak nagusiak hartuko zituen, noski. Hona zer agertzen den 1808.06.02ko gutunaren binperrean Juan Bautistak berak idatzia: «1807 Ignacio Bergara Contador de Elama». Pentsatzekoa da baldin 1807an Elaman kontularia bazen, hoguei urte lehenago antzeko zerbait izanen zela Arranbideko burdinolan.

Lantegiko gorabeheren kariaz, hainbeste urte lanean olan igarotzearekin, gertakari franko ikusia izanen zen Ignazio. Hauetako zenbait biltzen dira eskutitzotan. Esaterako, 1800.11.19koan Arranbiden izandako uholde izugarri batek burdinolan egindako txikizioen berri ematen dio olajaunari:

Hemen ez dago gauza onik [...]. [Uholdeak] eraman du zubia, bi arku bitarteko zurak, guziek arraso, eta hirugarren arku bitartekoak utzi ditu zur prinzipalak; karela guziek eraman diozka.

Olako errudak eta ardatzak eta estolda guziek beteak daude zakarraz eta harez, antaparako soleraraño, kabi dezaketen guziak; haspoak atererik, altxatuak zauden mairaren nibeleraño, baña ez da probetxurik izandu. Hartu zituan urak gorago eta busti dira larru guziek hagitz. Eta presan ezin sumatu degu ongi zernola dagoan, estanka aldetik mugitua dela dirudi. Enfi[n], ura bajatzera ezagunen da. Ziargillza, presakoa, dena bere zur guziekin atererik, aldamanean garaiko aldera arrimaturik, hau bertan utzi du; azeki guziek egurrak eta zakarrez bete ditu [...]. Hemen egiteko txarrak daude.

Hau eta hau bezalako makina bat ezbehar igarora izanen zen Ignazio. Geroago, 1804ko uztailean Arranbidetik idatzi beharrean, Ignaziok Elamako burdinolatik errendatzen dizkio kontuak Juan Bautista olajaunari. Beraz, Arranbidetik Elamara joan zen lanera. Aldaketa horren arrazoiak eta zergatiak zein izan ziren, ordea, ez dakigu.

Hara nola dioen Ignaziok berak 1806.06.30eko gutunean: «*Ni etorri niñzan Elamara 1804an maiatzaren azkenean*». Ondoko beste eskutitz batean (1810.07.05) honela dakar gogora olajaunak IBren lekualda: «*1804. Ygnacio Bergara vino a Elama fines maio de este presente año*». Data horretatik aitzinako gutunak Elamatik igortzen dizkio IBk JBMri. Iritsi zaizkigun euskarazko izkribuak miatuta ikus daiteke Arranbidetik idatzi azken eskutitza 1804.01.31koa dela, eta Elamatik idazten duen lehenbizikoa, aldiz, urte bereko uztailekoa, (1804.07.06). Tarte horretan burutu zen lantoki aldaketa.

Egia esan, gutun guztiek Arranbideko eta Elamako sinadura dutela esan badugu ere, egiazi zor, badira bi IBk Goizuetatik bildatzen dituenak: lehena

1803.12.08koa da, Ignazio oraindik Arranbiden zegoeneko, eta bestea 1805.06.24koa, Elamara joan ondokoa. Ez dakigu zergatik sinatu zituen Goizuetan, baina arrazoiren bat izanen zen, zalantzarik gabe.

Elamatik bidaltzen duen azkeneko eskutitza, euskaraz idatzia eta guri iritsi zaiguna, 1811ko irailaren 30ekoa da. Gutunetan agertzen diren datak aintzat hartuta, esan daiteke gutxienez hamazazpi urte igaro zituela Arranbiden (1787tik 1804ra), eta gero Elaman beste zazpi urte gutxienez egin zituela (1804tik 1811ra). Kontuan har bedi Arranbideko lehen gutuna agertu zeneko, 1787an, IBk 46 urte zituela eta «*burdinolako ofizialea*» zela orduko. Azkeneko eskutitza idatzi zuenean, berriz, 1811ko irailaren hogeita hamarrean, 69 urte zituen, eta zendu zenean 76.

Bitarte horretan gertatutakoaz ez da gauza handirik atzematen euskarazko idazkiotan, han edo hemengo oharñoez landara. Esaterako, 1810.07.05eko gutunean olajaunak IBrenean oharra egiten dituenean (esan dugun bezala, ia beti gaztelaniaz) Ignazio gaixorik egon zela dakusagu: «*1808,, 1809,, 1810,, Ygnacio Bergara [...] Abono desde 1 junio de 1808 asta 1 de junio de 1810 dos años de soldada a 142 pezetas 4 reales en cada un año, con la reuaja de la yndisposición que estuvo sangrado en su casa y algunos otros dias de falta nada le revajo y abono todo por entero*». Baina ez dakigu nolako eritasuna izan zuen edo zer agitu zitzaion zehazki, zenbat egun igaro zituen gaixorik, edo zenbat egunetan zergatik ez zen lanera joan. Dakiguna da olajaunak, gutxienez, ordaindu zizkiola egun horiek denak.

Beste gutun batean, 1809-07-18koan, IBk olajaunari adierazten dio zenbat diru hartu zuen berak batarengandik eta bestearengandik, eta ondoren honelaxe dio: «*Horiek dira leneko kontua nik egiñ ezker hartu ditudan diru guziek. Eta kontu guzia ajusta beza, alabarena eta guzia beurrek deritzan bezala*». Hor «alaba» bat aipatzen da, baina ez dakigu zehazki noren alabaz ari den; uste izatekoa da IBrena berarena izanen zela (gazteenak 30 urte zituzkeen gutuna idatzitako garai horretan), baina ziur esaterik ez dago.

1.4. IGNAZIO BERGARAREN IZENPEA

Eskutitzetan ageri den sinaduraren kontua dela eta, xehetasun gehiago eman nahi ditugu, IBk beti modu berean izenpetzen ez duelako. Horrelakoetan gertatu ohi den bezala, abizenaren grafia ez da beti bera: IBk gehien-gehienetan *b*-rekin izkiriatzen du (ikus, konparaziorako, 1787.01.19), baina batzuetan, *g*-txitan egia esan, *v*-rekin ere agertzen zaigu (ikus 1796.02.26).

Bestalde, eta hau munta handiagoko kontua da, izen-abizenak erdal preposizioarekin edo gabe emateko ohitura aski hedatua eta arrunta zen garai hartan, eta geroago ere bai. Lehenbiziko izkribuetan, 1787an hasi eta 1788ra bitarteko ia guztietan, *Ygnacio de Bergara* ezartzen du akabailan (1787.01.19koan, kasu). Ondoren *Ygnacio Bergara* izenpetzen du, hau da, *de* erdarazko preposizioa kenduta (ikus 1792.03.10). Azkenik, 1796ko martxokoetatik aitzina, beti *Ignacio* huts-hutsa ibiltzen du, baita Elamara tokialdatzen denean ere.

Izen-abizenak preposizioarekin edo gabe emateko joera hori dela eta, adierazgarria da, esaterako, egun berean idatzitako 1795.08.08ko bi gutunetan agertzen dena: batean *Ygnacio Bergara* sinatzen du, preposiziorik gabe, eta bestean berriz *Ignacio de Bergara*, preposizioarekin.

Bukatzeko, hain garrantzizkoa ez den beste gai bat ere ukitu nahi dugu. Kontu grafiko hutsa da, berez, baina aipatu beharrekoa. Jatorrizko testuetan –eta eman diren grafia originaleko transkripzioetan halaxe egin da– sinaduraren ondoren, izenaren alboan, askotan *berdin* (=) ikurra agertzen da, mezua bukatu dela nolabait adierazteko. Zeinu hori gutun bakanen batean agertzen ez bada ere (1787.01.19, 1794.02.04), gainerako guzti-guztietan bada, bai IBk izena bakarra ematen duenean eta bai izen-abizenak ematen ditenean ere. Antzeko joera zuen, halaber, JRMk Oiartzungo Olaberritik JBM olajaunari eskutitzak bidaltzen zizkionean (Salaberri, Zubiri eta Salaberri, 2021a). Lehen liburuki honetan argitaratzen ditugunak gaurko grafiarekin emanik daudenez gero, ez da aipatutako *berdin* (=) zeinu horren –ez beste zenbaiten– aztarnarik eman, eta, beraz, horrelakoen berri izateko jatorrizko testuetara (PDF-etara) edo hauen grafia originaleko transkripzioetara jo beharra da (ikus liburuki honen bukaeran den txartela).

2. GUTUNEN ZERTARAKOA, SISTEMA GRAFIKOA, FONETIKA-FONOLOGIA GAIAK ETA TRANSKRIPZIOA

2.1. ESKUTITZEN HELBURUA, TESTUINGURUA, TESTU BANAKETA ETA PUNTUAZIOA

Ignazio Bergararen gutunak kontu-errendatze testuak dira, 1787ko urtarrilaren hemeretzitik 1804ko hil beraren hogeita hamaika arte Aranoko Arranbide burdinolaren kontu ematen dutenak, eta 1804ko uztailaren seitik 1811ko irailaren azken eguneraino Artikutzan dagoen Elama burdinolako gauzez dihardutenak, Ignazio Bergara lehenik Arranbideko arduraduna izan baitzen, eta Elamakoa gero. Orain kaleratzen ditugun gutunen xedea hau zen: bi burdinola horietan izaten ziren gorabeherak Artikutzako Goitzarin bizileku zuen Juan Bautista Minondo olajaunari jakinaraztea, honek Oiartzungo Olaberria, Aranoko Arranbide eta Artikutzako Elama eta Goitzarin bere ardurapean baitzeuzkan, olak alokairuan, errentan hartuta, dirudienez.

Eskutitz hauetan *ola haundia* edo *olaundia* eta *olaxoa* (bigarren honi erdaraz *martinete* esaten zaio) agertzen dira bai Arranbiden eta bai Elaman; ez da, Oiartzungo Olaberrian agitzen zenaren kontra, *olaitxea*, *olaxea* edo *olaetxea* –*Olaetxea* aipatu herriko baserria da egun– inon azaltzen, oker ez bagabiltza holakorik ez zegoelako. Honek geure buruari Ignazio Bergararen familia non bizi ote zen galdetzera garamatza (ikus IBren bizitzari eskaini atalean dioguna). Egia da Goizuetan egindako bi gutun badirela (1803.12.08koa eta 1805.06.24koa), baina honek ez du esan nahi familiaren egoitza hor zegoela.

Eskutizetan ukitzen diren gaien kariaz, soño bat egitea aski da horiek zein diren ohartzeko. Ia euskara hutsean idatzirik dagoen lehenean (1787.01.19ko data dauka) *ikaztogia*, *taia*, *cargas* eta *burnia* dira gako hitzak, eta gehienik erdaraz izkiriaturia den hondarrekoan (1811.09.39(E)) *razón* ‘kontu ematea’, *fierros*, *ferrería*, *cuenta*, *tiradores*, *expensas* eta *expensa* ‘gastua’, *quintales*, *reales*, *semana*, *arroba* eta *lagun* ‘laneguna’ ditugu, hurrenkera horretan. Bi mintzairetan idatzitako erdialdeko beste eskutitz bat hartzen badugu, 1799.06.22koa adibidez, hauek dauzkagu: *razón*, *carbones* eta *ikatz hoiek*, (*suerte*) *propia castañal*, *cargas*, *portea* eta *ondu* ‘ordaindu’.

Horietaz landara, usu edireten ditugu diru izenak (*diru* bera, *erreal*, *kuarto*, *pezeta(s)*, *urretxiki zar - orillos viejos...*), garraioarekin lotu lanbideenak (*itzai*, *karraiadore*, *mandazai - buyerizo*, *carretero buyerizo*), olako bestelako ogibideenak (*igele - tirador*, *ikazgille - carbonero*, *mealle - prestador*, *maisú*

- *maestro, urzalle - fundidor...*), kontabilitatearekin erlazionatutako hitzak (*asentua, derecho, espensa - expensa, kontua, garbitu, partida...*), oletan-eta ezinbesteko ziren ekaiak adierazten dituztenak (*egurra, iduriak, ikatza, itxola, mea, mea belza, mea zuria...*), mota bateko eta besteko heinak eta neurgailuak (*arroa - arroba, karga - carga, kintal - quintal, kostal, lakadi, otsabeharri, lepalotu, zaku...*), lehengaiak erdiesteko lekuen izenak, arruntak (*ditxidü, mendi, gaztañadi, lantegi...*) eta bereziak (*Añarbe, Aranako basoa, Erbizañgo erreka, Surua, Yakomeaka...*).

Orobat, era bateko eta besteko langileen izenak eta jatorria, herria edo jaiotetxea agertzen dira (*Agustin Itxerria Mutua, Anbrusio Ansanekoa, Bordaxarkoa, Elduiñ, Gorgorio Arotzandikoa, Juapatxikuren semea, Martxaren suña, Patxiku Malet beratarra...*), tresnak (*borra, kabia, mea zare, palanka, tobera, zepo, zerra...*), animaliak (*abere, ardi, aretze, behi, mando, zaldi...*), jatekoak (*ardizar, arto, baba, haragi, ogi...*), edatekoak (*ardo, txiki ardo*), janariak prestatu eta ontzekoak (*katz, olio*) eta, jakina, burdinoletan ekoizten zirenak (*buztandu, elzaburni, perra, sulla burni, taloburni, tretxu, txabal, ustai...*).

JRMrenetan agitzen den eran, hemen ere IBk olan edo olarako ari ziren langileekin zituen arazoak agertzen dira. Esaterako, Astigarragako itzainekin ez zegoen hagitz kontent, eskutitz batean baino gehiagotan ikusten den moldean: «*Astiarratarrik atzo iñor izandu ez da, ez dakigu gaur; etorriko al da nor edo nor!*» (1794.02.04), «*Astiarragako itzaiak denbora ona denean enbarguaren aitzakia dute, eta euria denean denbora txarrarena. Bada, nik ez ongi esanarekin eta ez gaizki esanarekin ezin baliatu naiz, eta nik ez dakit zer eg[il] dezakedan*» (1794.05.27(A)), «*Atzo ere hemen ez da itzairik agertu, eta ni banoa Astiarragara, iñor erakarri al badezat. Eta bial bitza itzai horien kontua eta diruak; hemen dirurik ezipadago etzaku iñor etorriko, eta bial beza horien kontua, eta dirua zerbait gehiago honara; orañ etorriko denak dirua berela nahiko du. Bestela, iñor gutxi izanen degu*» (1797.11.07). Hau 1803.11.20ko gutunean are argiago ikusten da, IBk dirurik gabe ez zebiltzala, ez zutela lan egiten baitio: «*Egun hemen izandu dira Astiarragako itzaiak; hill honetako beren irabaziak behar dituzte [...]. Eta bialdu behar ditu hoiak diruak. Lotsagabe gaiztoak ez dabillza!*».

Halaber, usaiakoak dira gutunotan IBk olajaunari egiten dizkion janari eskaerak, olarendako nahiz olarako lanean ari zirenendako, jateko-edatekoak (eta olioak) iritsi direlako jakinarazpenak eta horien unean uneko egoera zein den erakusten dutenak: «*Etziko beharko ditugu olioak eta katzak, eta baba ere bai, laster. Atzoko ogietan, baten ya erdia jana ekarri zidan mealle honek; Santiagok apenaz (sic) jango zuen bada. Arotzandikoa Anbrusioaren semeak entregatu zuen gaitziru baba*» (1793.11.19), «*Ostiralean ekarri zituen Tranpak zorzi ogi, eta egun ekarri ditu Josepe Ignazio horrek hogeit eta hamaika ogi. Eta*

horra Tranpak ekarri zuen kostala. Bigar goizean bial bitzate baba eta olioa. Ez dago oliorik batere» (1796.08.28), «Etzi bialdu behar dituzte ogiak eta baba eta olioa goizean goiz [...]. Bialdu bitzate ogiak fundamentuz» (1796.12.14), «Bigar goizeko olakoanzat ez da ogirik gelditzen gaur, eta mutill horrekin gaur bial bitza hiru edo lau ogi, eta bigar goizean besteak, baba ta olioa» (1796.12.15), «Gaztigatu nion Buruzuriak anega bat baba nola eman zidan; abitu da guzia, ez dago lakadi bat besterik. Etzi bial bitza mutill horiekiñ ogiak eta baba» (1801.09.27), «Mutill horrek entregatu ditu hamar ogi, eta ardoa, eta tobera, eta baba» (1801.10.09), «Paskual de Loperena Itxazurikoak esan dit ez dutela artorik batere eta, arren, egiñ diozala arto pixka baten txartela» (1802.04.28), «Hoietaz gañera, badira lau gurbill ardo» (1803.01.11).

Garrantzikoa zen, berebat, langile bakoitzak zenbat jan eta edan zuen adieraztea, edo nondik egin behar zuen argi uztea, hori sosa baitzen azken batean. Horretarako taia eta taia txikia erabiltzen ziren oletan: «Oran esaten diot, maisu honek jaietan hemen gelditzen denean espensa nola behar duen gaztigatu behar du, edo olako taiean jan behar duen edo berak bere taiera jan behar duen» (1792.10.30), «Horiek dirade horren egunak, eta taia txikiko ardoak ditu... 8 pintas» (1801.05.02), «Bada, Pello maisu ^{lrun} (sic) horren taia txikiko ardoak dira, leneko kontua egiñ ezkerokoak, 41 pintas» (1803.02.10), «(Martxaren suña...) espensak txiki ardoakiñ...4, txiki ardoak...6 txiki, ogi laurdenak...6» (1803.01.08_1803.06.23).

Ignazio Bergarak, Jose Ramon Minondok eta gainerakoek bezala, papera ongi baliatzen zuen, ongi betetzen, nonbait ez baitzen egun den bezain ugari eta eskuragarria. Juan Bautista Minondo olajaunak ere ez bide zuen orritan sos anitz xahutzen, beti edo ia beti IBk eta JRMk igortzen zizkieten eskutitzetan idazten baitzuen, menturaz hola kontuak argiago gelditzen zitzaizkiolako, nahiz orain zenbait aldiz gauzak nola diren zuzen ulertzea, gutunetan ageri denak zer esan nahi duen jakitea, ez den oso erraza, hein batez toki ezagatik. Dena dela, badirudi JBMk beste asentu edo erregistroren bat bazuela, beste koadernoren bat.

IBren idazkietan, hastapenean, *Nagusi jauna* kausitzen dugu, eta akabailan lekuaren izena (*Arranbide* edo *Elama*; bitan *Goizueta*, esan bezala), data eta *Ignazio Bergara* izen-abizenak (aurrenekoetan *Ignazio de Bergara*) edo *Ignazio* ponte izen hutsa. Gutunaren gibelego aldean *A Juan Baupstista de Minondo* agertzen da gehienetan, baita *Goizariñ* helbidea ere, azpimarraturik, dena erdal grafiarekin, bistan da. Eskutitza idazten bukatu ondoren IBk hura lakrearekin itxi eta zigilatzen zuela nabari da, paperean zenbaitetan gelditu diren orban gorrikarek salatzen dutenez. Ikus, esaterako, 1793.09.09ko hau:

Ignazio Bergararen idazmoldea dela eta, lehen begiratuan ikusten da silabak ardura beharrik gabe bereizten dituela (*bial du*), letra larria eta xehea usu irizpide argirik gabe ibiltzen ditu («*Ala Cargazeco lecura Atera rezizeco*»), gehienetan ele hasierako lekunean, batez ere *E-* (*Esaten diot*) eta *C-* (*Contua*) direnean, baina baita hitz barnean ere, *C* delarik partikulariki (*eCarrico, dio z Ca*). Nolanahi ere, izen bereziek frankotan larria ohi dute («*Cuenta Nueva de Juan Josep de Apezichea fundidor*»), eta baita lerro hasierako hitzek ere («*Razon de los fierros de la ferreria de Elama*»).

Puntuazio marka gutxi ditu IBk: koma izanen da, hain segur ere, gehienik ibiltzen duena, batzuetan puntuaren balioarekin, bere izenaren edo izendeituren ondoan, adibidez. Behin edo beste orain egiten dugun moduan darabil koma, eta inoiz guk deus ezarriko ez genukeen lekuan («*Nagusi Jauna Joseantonio olaizola, orreq Ezdu / Emen diru arturiq*»). Puntua ere maiz erabiltzen du, baina laburtzapenetan, *qq.* ‘quintales’, *R.^s* ‘reales’ eta *octub.^e* ‘octubre’-ren tankerakoetan. Bestela, puntua adierazteko koma ibiltzen du, esan bezala, edo *berdin* (=) ikurra.

IBren gutunetan galdera edo harridura markarik ere ez dago, eta pena da, batzuetan esaldiak zuzen interpretatzea zaila delako, batez ere komarik eta punturik ez denean, eta hori da araua eskutitzotan. Horregatik, oin oharretan, behin baino gehiagotan, delako esaldia edo lerroaldea beste modu batera ere konpreni daitekeela esaten dugu, koma edo puntua hemen ezarri, han ezarri, gauza oso desberdinak adierazten direlako (honetaz ikus Garzia, 2014: 30). Azpimarrak, azkenik, anitzetan edireten ditugu, baita marrak ere, batik bat faktura erako gutunetan, zenbakien aitzinetik.

Oro har, ongi irakurtzen dira IBren izkribuak, eta ez da gutxi, aintzat hartu behar baita sortu zen garaian, hemezortzigarren gizaldiaren erdialdean, alfabetatu gabeen kopurua handia zela (Soubeyroux, 1995-1996: 205-206), are handiagoa segur aski erdaraz ez zekitenen artean, eta zalantzarik ez da horietako franko zeudela Goizueta-Aranoetako inguru euskaldunean.

Bestalde, lan honetan testu originalek duten formatua errespetatzen saiatu gara, baina honek dauzkan arazo «teknikoez» gainera, batzuetan ez zaigu egoki iruditu hola jokatzea, laburdurak garatu egin ditugulako, luzatu eta osorik eman ditugulako, eta horrek, bistan da, zutabeen itxura asko aldatzen du. Beste batzuetan testu originaleko lerroak laburregiak dira, eta etorkizko hurrenkera ez, baizik egun onargarriagoa dena paratzea erabaki dugu. Gai subjektibo samarra da hau, badakigu, baina ongienik iruditu zaigun bezala jokatu dugu. Nolanahi ere, irakurleak jatorrizko testua eskura dauka, *Edizioa* liburukiak duen USB txartelean, eta jakin-minez badago aski du horra jotzea.

Laburtzapenez kestione, esan bezala ohikoak dira gutunetan, hitzak hola idatzirik denbora eta tokia aurrezten baitzen, eta ulertzea segurua baitzen,

igorlea eta hartzailea ogibide berekoak zirelako eta gauzok ongi baino hobeki zekizkitelako. Hauek dira IBk gehienik errepikatzen dituen laburdurak: @ (*arroa(k)*, *arroba(s)*), *B.^s* (*barras*), *dcho.* (*derecho*), *ma.^s* eta *m.^s* (*maravedís*), *q.^s*, *qua.^s* (*cuartos*), *qq.* (*quintal(es)*) eta *R.^s* (*reales*). Beste izen batzuk, ordea, osorik idazten ohi ditu: *carga(s)*, *dozenas*, *errugu*, *libras* (inoiz *lib^(s)*), *pellejo*, *cuartos* eta abar, eta badira, berebat, laburturik edo laburtu gabe ematen dituenak, *q.^s*, *qua.^s* eta *cuartos*, esaterako. JRMk bezala, IBk ere hilabeteen izenak laburturik ezartzen ditu, batez ere luzexkoak direnak: *febr.^o* (behin edo beste), *Ag.^{to}*, *Sep.^e*, *octub.^e*, *Nob.^e*, *decib.^e* (arruntean) eta *deciEnb.^e* (arteka).

Nolanahi ere, laburtzea edo ez laburtzea, eta era batera egitea edo bestera, hein handi batez paperean dagoen tokiaren mendekoa da, IBren kasuan eta JBMrean. Konparaziorako, IBk *m.^s* eta *ma.^s* (*maravedís*), *q.^s*, *qu.^s* eta *qua.^s* (*cuartos*) darabiltza eskutitz berean (1801.01.15_1803.12.31), idazteko duen lekuaren arabera. Horren ondorioa da, baita ere, hitz laburtua osoarekin uztartzea: «*R.^s fuertes*» (*reales fuertes*), aipatu gutunean, edo «*5 pesos o R.^s*» (1800.07.30).

Olajaunak gehiago ibiltzen ditu forma laburtuak, seguruenik toki gutxiago duelako, IBk igorri eskutitzetan idazten baitu. Honetaz landara, aintzat hartzekoa da IBk eleak osorik ematen ohi dituen ez gero, JBMren laburdurak aiseki konprenitzen direla, ondoan egoki eta: *Ab^o* (*abono*), *Al^{za}* (*alcanza*), *carbⁿ* (*carbón*), *carg^s* (*cargas*), *Comp^o* (*compañero*), *Comp^{oo}* (*compañero*), *Comp^s* (*compañeros*), *dho* (*dicho*), *di^s* (*días*), *Diz.^e* (*diciembre*), *Doz.^s* (*docenas*), *du^o* (*ducado*), *du^s* (*ducados*), *Espe^a* (*expensa*), *feb^o* (*febrero*), *Lab.^r* (*labor*), *lib.* (*libras*), *m^s* (*maravedís*), *Nob.^e* (*noviembre*), *Pezet*, *Pezet^s* (*pezetas*), *Pe^o* (*peso*), *Pe^s* (*pesos*), *Pe^s fu^s* (*pesos fuertes*), *q^s*, *qu^s* eta *quart^s* (*cuartos*), *qq^l* (*quintal*), *R* (*reales*), *Remient^s* (*herramientas*), *Restant^s* (*restantes*), *Sep^e* (*septiembre*), *Ympⁿ* (*importan*) eta beste. Guztiaz ere, olajaunaren laburdurak ez dira beti nahi genukeen bezain argiak, eta, adibidez, artetan zaila da *pezetas* eta *pesos* bereiztea, laburtuta (*P^{es}*) daudenean.

JBMk izen bereziak ere laburturik ematen ditu maiz: *Echev^a* (*Etxeberria*), *Fran.^{co}* *Ant^o* *Hubizi* (*Franzisko Antonio Ubitzi*), *Goizarⁿ* (*Goitzarín*), *Goizu^a* (*Goizueta*), *Ygn^o* (*Ignazio*), *Juan Jph* eta *Juan Jphe* (*Juan Josepe*), *Pach.^o* (*Patxiko*), *Pamp.^a* (*Pamplona*), *Sebⁿ* (*Sebastian*)... Normalean lagun eta toki horiek behin baino gehiagotan ateratzen dira izkribuotan, eta ez da neke laburtzapenak behar bezala ulertzea.

IBk gutunetan darabilen mintzaira dela eta, diogun eskutitz gehienetan euskara eta gaztelania kausitzen ditugula, *arrobas*, *cargas*, *días*, *quintales*, *pezetas*, *reales*, *semanas* eta beste hainbat hitz, laburturik edo ez, erdaraz ematen direlako, eta berebat hilabeteen izenak. Badira, egia da, bereziki eskutitza laburra denean, ia guziz euskaraz daudenak, hots, gaztelaniaren presentzia txikia dutenak, esaterako tarteka-marteka eskean igarotzen ziren fraideei

(frantziskotarrak edo karmeldarrak ohi ziren), olako langile bakoitzak zenbat diru ematen zien biltzen duten gutunak, baina horiek gutxienak dira. JBMk egindako ohar eta apunte guztiak erdaraz daude, ez dago hemen euskarazko testurik.

Oraingoan ere, JRMren gutunetan egin genuen moduan, euskaraz dagoena letra zuzenez ematen dugu, eta erdaraz dagoena letra etzanez, irakurleari gauzak errazteagatik. Dena dela, haren idazkietan agitzen zen bezala, honenetan ere gauzak ez ohi daude beti guk nahi genukeen bezain garbi, konparaziorako «5 qq.» badugu *bost kintal* irakur baitaiteke, baina, IBren usadioa ezaguturik, arruntean ez dago zalantzarik *cinco quintales* irakurri behar dela. Datak ere, eguna eta hilabetea jasotzen dituzten esalditxoak ere, gaztelaniaz egoten dira, nahiz eta gero euskarazko inesiboaren hondarkia eraman. Ikus bedi, esaterako, 1794.07.24ko gutuneko pasartetxo hau:

«9 marzoan hartuak 1 quintal, 3 arrobas
19 abrilean hartuak 2 quintales
11 julioan hartuak 1 quintal, 2 arrobas»

Argi ikusten da kontabilitate hizkuntza nagusia gaztelania zela, baina IB, JRM bezala bestalde, euskaldun garbia zen, euskara hizkuntza nagusi zuena esan nahi dugu, eta, beraz, ez da harritzeko datak, neurriak, diruak, pisuak eta beste holako batzuk alde bat utzirik, gehiena euskaraz adieraztea, ahotara zetorkiona etxean ikasitako mintzaira izatea.

Esan bezala, olajaunak (JBMk) eskutitza hartu eta gero oharrak, iruzkinak egiten zituen IBk idatzitakoaren aldamenean, azpian, gainean edo idazkiaren akabailan, noiz nola. Gehienetan ez ditugu transkribatu, ekarpen zerbait egin zezaketela iruditu zaigunean izan ezik, horiek testuan sartu baititugu, beste letra mota batekin hori bai, nahasmendurik izan ez dadin. Zernahi dela, holakoetan beti adierazten dugu, oin oharrean, olajaunaren apunteak badaudela, nahi duenak originalera joan eta dagoena ikusteko aukera ukan dezan. Hona esandakoaren etsenplua:

$\frac{67}{26} \quad \frac{59-18}{18-6} \quad \frac{1-21}{11} \quad \frac{211}{10} \quad \frac{10-5}{3-5-27} \quad \frac{14}{2-27}$
 Nagusi Jauna Sebastianeng vial duditu chartel
 onieg opuiag vadina Lu Luon oyta Codina
 Anarvida Junio 6 1803
 Sanzena Denacio =
 26 marzo 8 R 22^u mema lesaca Inglecorra
 16 Abril 85 Roo 7 mayo 3 q 20 - 12 5 Ab² 3 2¹ - 12
 26 Abril 68 Roo 1 Abril 3 1^o - 12 6 Ab² 3 1¹ - 12
 7 mayo 22 R 20 2 Abril 3 4² - 12 15 Ab² 3 2 - 12
 6 Junio 22 R 20 4 Abril 3 1^o - 12 16 Ab² 3 2¹ - 12
 21 Junio 21 R 9 5 Ab² 3 3^o - 12 26 Ab² 3 0 - 6
 237 R 35 1 Ab² 2 5¹ - 12 27 Ab² 1 1¹ - 12
 23 Ab² 1 4^o - 12 27 Ab² 1 1¹ - 12
 25 Ab² 3 1 - 12 17 20
 Sanzena 24 3¹
 18 Ab² 3 1 1¹ - 6 22 Ab² 3 2 - 18
 7 mayo 3 1 2 - 12 27 Ab² 1 1¹ - 12
 10 Junio 2 1 5 - 12 30 Ab² 3 1 - 12
 11 Junio 3 0 0 - 12 77 Junio 2 5 - 1
 37 0 87 Junio 3 0 - 1
 Sanzena 3 1 1¹
 El forma de la vida 237 R 35 m 16 Junio 1 2¹ - 12
 La Labor sacor de Esp^a 17 R 25 m 16 Gto 1 2¹ - 12
 1803 Junio 21 Sanzena 68 R 10 21 Junio 1 2¹ - 12
 29 Julio 4 R 28 35 3
 Ab² ena Carga 4 R 28 18 Junio 2 1 - 12
 1803 Julio 30 de venia 8 R 18 37 4

Bestalde, gutunetan azaltzen zaizkigunak behar bezala konprenitzeko, grafema bakoitzak aldian-aldian zer adierazten duen, zer irudikatzen duen jakiteko beharrezkoa da grafia sakonki aztertzea, hau maiz erraza ez bada ere, bereziki Ignazio Bergarak idatzitakoetan, esate batera euskarazko txistukarietan

hainbesteko garrantzia duen igurzkari / afrikatu bereizketarik egiten ez duelako. Ez dago zalantzarik bereizketa horrek munta handia duela euskararen historia eta bilakaera aztertzeko, eta sasoi eta inguru honetako testuetan arruntean baino garrantzi handiagoa segur aski, garai, herri eta lanbide berekoa zen Jose Ramon Minondok afrikatuak, grafikoki, ozen ondoan islatzen ez zituelako, salbuespen bakan zenbaitekin, nahiz eta gainerakoetan <ts> eta <tz> ibiltzeko, adibidez, arazorik batere ez ukan (ikus JRM, I, 23-30).

Gutunak eskuratu bezain azkar ohartu ginen IBk ez zuela, alderdi honetatik, JRMk bezainbesteko sentiberatasunik edo ezagutzarik (ikus bedi ukipenaren inguruko atalean dioguna), tamalez, biziki interesgarria bailitzateke IBk ere ozen ondoan igurzkariak eta afrikatuak neutralizatzen zituen ala ez seguru jakitea, baina, esan bezala, ez du grafikoki *s*-ren eta *ts*-ren, *z*-ren eta *tz*-ren artean inolako bereizketarik egiten eta, horregatik, JRMren lanak aztertu genituenean errandakoak pittin bat airean gelditzen dira, IBren berrespenik gabe, damurik. Hori ikusita, IBren izkribuak egungo grafian emateko tenorean JRM hartu dugu eredutako: honek afrikatuak non, zer testuingurutan erabiltzen dituen, eta han sartu ditugu IBren idazkietan, oker edo zuzen ez dakigu, baina seguruena jokabide horixe iruditu zaigu.

2.2. GURE TRANSKRIPZIOA, GRAFIA-FONOLOGIA ERLAZIOA ETA IGNAZIO BERGARAREN IDAZTEKO OHITURAK

2.2.1. Gure transkripzioa

Guk egindako transkripzioaren kariaz, egungo irakurlea aintzat harturik *h* sartu dugu, euskara batuan *h* ibiltzen denean: *aitu* → *abitu*, *amazazpi* → *hamazazpi*, *emen* → *hemen*, *eun* → *ehun*, *orreq arzeco* → *horrek harzeko*, *useguin* → *huts egin*... Baina ez dugu *h*-rik idatzi bokala errepikatu behar bazen: *al badu* ‘ahal badu’, *aztu* ‘ahaztu’, *gorabera* ‘gorabehera’, *lenagoko* ‘lehenagoko’, *nasteka* ‘nahasteka’, *zagi* ‘zahagi’... Edo bokala ondoko kontsonantearekin bat eginik dagoenean: *beñere ez* ‘behin ere ez’.

JRMrean egin genuen moduan, *otsabeharri* idatzi dugu IBk *osabearri* izkiriartzen duena (JRMk *otsabearri*), *h* eta guzi, Iparraldekoen erara, hango hizkeretatik hartu mailegua denetz argi ez badakigu ere (Goizuetan *belárrí* esaten da). IBk *asi* idazten duena *haxi* eman dugu, Olaberriko arduradunaren gutunetan egin genuen moduan (*assi* du JRMk; ikus I, 290).

Hitz barneko lekunean, originalean *y* dagoelarik *i* izkiriatu dugu guk: *carrayadoreaq* → *karraiadoreak*, ez *zayotela yñor etorrico* → ez *zaiotela iñor etorriko*, *guyenaq* → *gehienak*, *oyeq* → *hoiek*, *oyetaz gañera* → *hoietaz*

gañera. Hitz hastapenean ere bai, bokala denean: *ycaz* → *ikatz*, *yderoco ote duen* → *ideroko ote duen*, *yguele* → *igele*, *yraun* → *iraun*, *yru yzai* → *hiru itzai*, *yzanen* → *izanen*, etab. Ordea, kontsonantea den aldi bakanetan *y*- bere hola utzi dugu: *ya juandira* → *ya juan dira*, *Yacomeaca* → *Yakomeaka*, *yonen naiz* → *yonen naiz*. Soinu palatala zenbait aldiz *j*-rekin izkiriaturia dagoke, baina ez dakigu seguru, eta holakoetan beti originaleko grafema utzi dugu: *jarri* → *jarri*, *jasoaq* → *jasoak*, *jaten* → *jaten*, *jayetán* → *jaietan*, *jorrada* → *jorrada*, *juatenbada* → *juaten bada...*, nahiz Goizuetan horietako gehienak palatalarekin ahoskatzen diren egun ere.

IBk hitz bukaeran erabiltzen duen *-q* guk *-k* bihurtu dugu: *artoríq* → *artorik*, *beraq jasoaq ditu guzieq* → *berak jasoak ditu guziek*, *eguiñaq* → *egiñak*, *llevariq gave* → *llebarik gabe*, *meaq* → *meak*, *Pachicu Errotariaq* → *Patxiku Errotariak...* Hitz hasieran eta barrenean *c* grafemak [k] balioa duenean, *k* izkiriaturia dugu: *carga* → *karga*, *carreteroaq* → *karreteroak*, *conporta* → *konporta*, *eguitecoa* → *egitekoa*, *leneco ylleco asentua* → *leneko hilleko asentua*, *ycaz* → *ikatz*, *zacu* → *zaku...* Ele barnekoa *qu*- denean ere (*que*, *qui*), *k* erabili dugu: *asqui* → *aski*, *chiqui* → *txiki*, *eguin alvaliteque* → *egin al baliteke*, *ezquero* → *ezkero*, *jaquin* → *jakin*, *lagunarequiñ* → *lagunarekiñ*, *vete dezaquetenaq* → *bete dezaketenaq*, *zazquióten* → *zazkióten*.

IBk hitz barnean ibiltzen duen *gue*, *gui* guk *ge*, *gi* eman ditugu: *aguertu* → *agertu*, *eguiten dut* → *egiten dut*, *gueroztíq* → *geroztik*, *guelditu* → *gelditu*, *ogui* → *ogi...*

Sudurkari palatala originalean bezala utzi dugu, IBk JRMk baino are gehiago ibiltzen duen arren, soinu horren arrazoia (arrazoi fonikoa) azaltzea erraza ez den testuinguruetan ere: *aguiñzeco* → *agiñzeco*, *ayequiñ ecarrizuten* → *haiekiñ ekarri zuten*, *Domiño* → *Domiño*, *eguiñduen* → *egiñ duen*, *eguiñtaco meaq* → *egiñtako meak*, *Ervizañ* → *Erbizañ*, *Ervizaño* → *Erbizaño*, *gañera* → *gañera*, *Goizariñ* → *Goizariñ*, *orrequiñ* → *horrekiñ*, *quiñtal* → *kintal*, *vaña* → *baña*, *vavarequiñ* → *babarekiñ*, *yñor* → *iñor...* Alboko palatalarekin ere berdín jokatu dugu: *evilli* → *ebilli*, *meallecoan* → *meallekoan*, *mutillorrequiñ* → *mutillorrekiñ*, *Tellichea* → *Tellitxea*, *urzalle* → *urzalle*, *Ycazguille* → *ikazgille*, *yll onetan* → *hill honetan*, *ylleco* → *hilleko* eta abar. Ikus, nolani ere, beherago dioguna, palatalak aztertzean.

2.2.2. Ignazio Bergararen idazteko ohiturak

Orain euskararen soinuak Ignazio Bergarak izkribuz nola ematen dituen azalduko dugu, sailez sail:

2.2.2.1. Belarrak

/k/

Ondoan *a* eta *o* bokalak daudenean <c> ibiltzen du IBk, ikusi bezala: *astearen erdico* ‘astearen erdirako’, *carta, cavia, cocote, ecarri, erreca, escazen, naico dute, olaco lana* ‘olako lana’, *orretaraco*... Bokala *u* denean ere kontsonante bera ibiltzen du: *cuadroa* ‘kuadroa’, *cuartilluvat* ‘kuartillu bat’, *errecusaq* ‘errekusak’, *Escudero* (antrop.), *Ezcurdi* ‘Ezkurdi’ (antrop.), *ezcutu* ‘ezkutua’, *Franziscu, lecura, Pachicu, zacu* eta beste, baina hitz hasieran *qu-* ere badu *quarto* ‘kuartoa’ hitzean, *c-*rekin batean (*cuarto*). Ondoko bokala *e* denean ere *qu* erabiltzen du, ez *c*, hitz hasieran edo beste edozein lekunetan: *ditezquean* ‘ditezkean’, *ezquero, Luques, nuque, quendu*... Orobat bokala *i* denean: *batequiñ, gaizqui, nosqui, quintal* edo *quintala* eta abar.

/g/ (herskaria) edo /ɣ/ (igurzkarria)

IBk *ga, go, gu* silabetan <g> du: *Arragoa, dago, egunaq, gañera, gazte, guzia, nagusi, yganziarra*...

Aragoara ‘Aragoira’

Baina, ikusi bezala, <gu> dauka batuan *ge, gi* idazten dugunetan, gaztelaniaz *gue* eta *gui*: *aguiñzeco, araguitaco* ‘haragitarako’, *Basayanegui, eguiñ, Erreguerena, gueyago, Miguelcho, suteguia, yguele*.

/x/ (gaztelaniazko jota)

<j> ibiltzen du: *Jaquiñen, jauna, jayetan, jornal, Josepe, Juamiguel, travajazeco, vajazera* ‘jaistean’ eta beste.

Con Se JuraCo ‘Kontsejurako’

Gorago zehaztu moduan, ondareko hitza denean, zenbait aldiz bederen, hasmentako *j-* horiek palatala irudikatzen dukete, baina ziurtasunik ez dugu.

2.2.2.2. Txistukariak

/ʃ/ (egun s idazten duguna)

<s>: *abisatu, asentu, ecusi, esan, espensa, maisu, soldata*...

donostiara ‘Donostiara’

/ʒ/ (egun z idazten duguna)

<c>:

Aurreko erdiko bokalaren aitzinean *goicetaco* elean baizik ez dugu ediren.

Ondoan *i* bokala duten *lenvico*, *lendavico*, *Ignacio* ponte izena eta erdarazko *decib.* ‘diciembre’, ‘diciembre’ besterik ez dago. Egia esan, *Lorenzo* ere ageri da, baina iduri luke *Lorentzo*-ren moduko zerbait adierazi nahi zela, argi egon ez arren; aintzat har bedi *Lorencho de Elizondo* frankotan azaltzen dela, eta JBMk *Lorenzo* deitzen diola gehienetan. *Lorenchio de Alsua*-ri *Lorenzo Alsua* esaten dio, zenbaitetan behintzat, olajaunak.

<z>: *asirazi* ‘hasarazi’, *gauza*, *gazitigatu* *veza* ‘abisa beza’, *goiz*, *guzitara* ‘denetara’, *guizon*, *izandu* ‘izan’, *pezeta*, *prezio*, *vezala*, *zacuchoa*, *zazpi*, *zeñequin*, *zinzilu*, *ziran*, *zorraqiñ* ‘zorrekín’, *zorzi*...

IBk *ustai* ibiltzen du, JRMk bezala, eta iduri du kontu grafikoa ez, baizik hotsezkoa dela, alegia, *ustai* esaten zela, ez *uztai*.

/j/ (egun *x* idazten duguna)

<s>: *asiaq* ‘haxiak’, *asiduna* ‘haxiduna’, *Marti Josepeq* ‘Martijoxepeq’, *Mati Saq* ‘Matixak’...

Marti Josepeq ditu ... 14 dias ‘Martijoxepeq ditu ... 14 días’
Mati Saq 14 ‘Matixak 14’

Kasu batean, baina JBMren izkirio eta idazkia da hori, <ss> daukagu eskutitzean, IBren <z>-ren jarraian:

Zuvieta ‘Zubieta’, *SSubita* ‘Xubita’

<ch>: Gutxitan kausitzen dugu sabaiaurreko igurzkaria irudikatzeko, bakarrik era bateko edo besteko onimoetan:

Pepe luCambio Echurrenecaaq ‘Pepe Lukanbio Exurrenekoak (esan dit)’


JuanPello Bechinoq ‘Juan Pello Bexinok’

Beste batzuk ere badira, *Dixidu*, *dixidu* adibidez, IBk *dichidu* izkiriartzen duena (ikus 1793.09.18 eta 1793.10.04).


<h>

Arraroa da, ezbairik gabe, *h* letra sabaiaurreko soinu palatala irudikatzekeo erabiltzea, baina horixe da IBk zenbaitetan egiten duena. Pentsatzekoa da, gaztelaniaz ez baitzen holako soinurik, bakoitzak ahal zuena egiten zuela eta hemen sartu behar direla JRMren *s* azentudunak (ikus I, 24) eta IBren *h* hauek. Nonbait ikusitako <sh> dea iturria? Edo agian beste batzuetako <ch>? Ez jakinki guk.


Hona lekukotasun batzuk:




Axtiarragarequiñ ‘Axtiarragarekiñ’



Pepe Ehquerraq ‘Pepe Exkerrak’




Puh Ca gueyenaq ‘puxka gehienak’




Ycaz puhCaoyeq ‘ikatz puxka hoiek’



ArozandiCoaren Baso pihCa ori ‘Arotzandikoaren baso pixka hori’



(Dichi)duco Ubalde onetan eguiñzituen mea pihcabazu aq tranpari era Carri zion Carga bat eta emen [...] ‘(Ditxi)duko ubalde honetan egin zituen mea pixka batzuak Tranpari erakarri zion karga bat eta hemen [...]’



Manuel EcheBerria Mahterraq ‘Manuel Etxeberria maxterraq’

Kasuren batean *ch* eta *h* balio berarekin, ele berean, aurkitzen ditugu:




mo ho zarrag ‘Moxo za(ha)rrak’



Mo cho zarrari ‘Moxo za(ha)rrari’

Nabarmentzekoa da JBMk ss darabilela kasu honetan, batez ere IBren *Mocho* zekarren gutuna hartutakoan, horren gaineko eta azpiko aldean, *Mosso* idatzi duelako:




Josepe Mosso

Jos ep e Mo c horenaq Eta bere (Semeaq)

'Josepe Moxo / Joxepe Moxo

Josepe / Joxepe Moxorenak eta bere (semeak)'



Fermin Jose Mosso, y su herm. Josepe

'Fermin Jose Moxo y su hermano Josepe / Joxepe'

/ts/ (gaur *ts* izkiriatzen duguna)

<s>: *erasundarra* 'eratsundarra', *losagave* 'lotsagabe', *osavearriag* 'otsabeharriak', *usiq* 'hutsik'.




losagave gaiztoaq 'lotsagabe gaiztoak'




osavearriag 'otsabeharriak'

<is>:

Kasu pare batean iduri luke IBk <is> darabilela egun <ts> idazten duguna emateko. Hala dela dirudi, beste batean, hitz berean, <s> hutsa duelako, JRMk *eratsi* ibiltzen duelako eta egun Goizuetan *iràtsi* esaten delako:




El Carri Eratsi nai badioz Ca, 'Elkarri eratsi nahi badiozka.'



El Carri Erasi(Co dioz Ca) 'Elkarri eratsi(ko diozka)'

Ozen ondoan beti *s* ibiltzen du IBk (*ls, ns, rs* beraz), sekula ez *ts*, baita hitza egun Goizuetan (eta Aranon) afrikatuarekin ebakitzen denean ere: *Alsua, Ansanecoari (Antsanea Aranon orain), Ansusarovecoaq, Aranoco Consejuan, Consejutiq, pensamentu, Unsari (JBMk Onsari; Untxari egun Goizuetan), Ynsauspe, zersu (zertsu orain Goizuetan):*



*Niq Ezdaquit Meazean ZerSu
ote duten, 'nik ez dakit meatzean zer(t)su ote duten.'*

/tʂ/ (egun *tz* idazten duguna)


IBk ez du sekula <tz> digrama ibiltzen eta, beraz, gaitz da zenbait aldiz grafia baten azpian zer ebakera dagoen xuxen jakitea. Hori agitzen da, adibidez, *aztu eguin zizadan* 'ahaztu egin zitzaidan' adizkiarekin, ez baitakigu *zizadan* irakurri behar den ala *zitzaidan*. Goizuetan, orain, *zian* edo *zizian* da, eta Aranon *zizan* edo *zitzan*.

Ozen ondoan dagoenean ere, esan bezala, ez dakigu neutralizaziorik bazenetz. Gu gutun hauetan JRMren bideari jarraiki gatzazkio, eta beti igurzkaria sartu dugu, testuinguru horretan: *bialzeco* 'bidaltzeko', *bialzera* 'bidaltzera', *ebilzea* 'ibiltzea', *esninzan oroitu* 'ez nintzen oroitu', *ezdavillza* 'ez dabilta', *sarzecoa* 'sartzekoa', *Olaizola* (antrop.), *Olzorroz* (top.), *oyarzuar*, *Unzin* (top.), *urzalle* 'urtzailea', *yzandu ninzanean* 'izan nintzenean', *zorzi* 'zortzi', etab.


Bestelako lekuneetan ere eskuarki <z> ohi dago: *Arozandia* (oik.), *asizea* 'hasitzea, hastea', *azo* 'atzo', *bayez* 'baietz', *bazueq* 'batzuk', *cargazeco* 'kargatzeko', *escazenduena* 'eskatzen duena', *ezi* 'etzi', *ycaz* 'ikatz', *yru yzai* 'hiru itzain', *nerezat* 'niretzat', *ola asizeco* 'ola hasteko'... Orobat sandhi edo soinu elkarketetan: *aritu baizen* 'aritu baitzen', *eguinziran* 'egin ziren', *eman baizidan* 'eman baitzidan', *esanzidan* 'esan zidan', *ezaquin* 'ez zekien', *ezen burniriq joan* 'ez zen burdinarik joan', *ezuen* 'ez zuen', *ezuten* 'ez zuten'... Beste batzuetan zalantza dago, azpian zer ote dagoen: *ez zayotela* 'ez zaiela', *ez zela*, *ez zutela*...

<ch>

Kasu bakar batean aurkitu dugu, z-dun aldaerarekin batean: *Ubizi* vs *Ubichi*:



Agustin de ubizi



Eta Egondunaiz ubichiren Semezarrare
quiñ Eta Esandit Belaun diaq AviSatua (dau Cala)

‘Eta egondu naiz Ubitziren seme za(ha)rrare
kiñ eta esan dit Belaundiak abisatua (daukala)’

Beste batean ez dakigu afrikatu lepokaria ala palatala den: *prezio mocha dela* ‘prezio motza / motxa dela’.

Ch zenbaitetan sabaiaurreko igurzkaria irudikatzen erabiltzen da, *Moxo*, *Moxo zarra*-ren kasuan adibidez, *h*-rekin batean. Ikus gorago.

/t/ (egun *tx* idazten duguna)

<ch>: *Bordachoaq* (antrop.), *Charadico ondoti* ‘Txaradiko ondotik’, *chartela* ‘txartela’, *Pagochiqui* (oik.), *lau urre chiqui*, *trechuaq*, *ychera*...

<chi>: *Lorenchio* ‘Lorentxo’ segur aski; guk *Lorentxio* transkribatu dugu, baina zalantzarekin. *Cfr. Lorenzo* eta ikus gorago esan duguna.

2.2.2.3. Sudurkari palatala

/ɲ/ (euskaraz *in* idazten duguna, *mina* hitzean adibidez, edo ñ, *Iruñea* toponimoan, kasurako).

<ñ>:

Bokal artean edireten dugu: *añadimentu* ‘eranstea, gehitzea’, *baña* ‘baina’, *baño* ‘baina’ ‘baino’, *caviguña* ‘gabi iguna’, *eguiñen du*, *esamiña*, *gañera*, *Goizariña* ‘Goitzarina’, *jaquiñen du*, *onaraño* ‘honaino’, *yñon*, *zeñenaq*...

Hitz bukaeran ere <ñ> dugu maiz, komitatiboan, kasu: *Ansanecoarequiñ*, *ayequiñ*, *espensarequiñ*, *guizonaquiñ*, *lagunaquiñ*, *oriequiñ*, *vazuequiñ* ‘batzuekin’... Ez beti, halarik ere: *chiquiardoquin*, *espensarequin*, *guziequin*, *lagunarequin*, *semearequin*...

Bestelakoetan ere ibiltzen du IBk: *caviguñ vat*, *eguiñ gogo vadu* ‘egin gogo badu’, *erre dediñ*, *eziñ*, *Fermiñ*, *Juaquiñ*, *orañ*, *por fiñ*, *valdiñ* ‘baldin’... Ez beti, ordea: *ayequin*, *Juaquin*, *oran*, *orrequin*, *valdin*, etab.

Kontsonante aurean ere aurkitzen dugu: *burniñchoa* (eta *burniñchoa*) ‘burdina meharra’, *eguiñtaco burniaq* ‘egindako burdinak’, *etorri niñzan, Jaincoaq* (antrop.), *orañgoan, quiñtal, Yñgudea* ‘ingudea’... Baina <n> ere bada holakoetan: *burninchoa, Jaincoaq, joan ninzanean, quintal, oranche, yngudeari* eta abar.

2.2.2.4. *Alboko palatala* (orain *il* idazten duguna, *ile* hitzean adibidez, edo *ll*, *Olloibar* toponimoan, esaterako)

/ʎ/

<ll>: *allegatu, arrago errezalleriq* ‘arrago erretzailerik’, *cavillaq* ‘kabilak’, *evilli* ‘ibili’, *meallecoan* ‘meailekoan’, *Pello* (antrop.), *Tellichea* (antrop.), *urzalle* ‘urtzailea’, *votilla* ‘botila’, *yllean* ‘hilean, hilabetean’, *zopotillu* ‘zopotilua’...

Miguel antonio urzalleverria 1 *pezeta*
Meallearenzat Ere 1 *pezeta*
 ‘Migel Antonio ur(t)zaile berria. . . 1 *pezeta*
 Meailearen(t)zat ere. 1 *pezeta*’

Hitz bukaeran ere aurkitzen dugu, ondoan bokala dagoenean: *lau gurvill ardo, mutillau, mutill oriequiñ, yll ezquero* ‘hilez gero’, ‘hil ondoren’... Eta ondoan holakorik ez dagoenean ere bai: *gurvillvat* ‘gurbil bat’, *navill* ‘nabil’... baita *abrill* ere, erdaraz. Hitz barrenean ere kausitzen dugu, kontsonante aitzinean: *davillza* ‘dabiltza’, *eravillzeco* ‘erabiltzeko’, *evillzea* ‘ibiltzea’, *ziarguillzaq* ‘zehargiltzak’, baita inoiz hastapeneko lekunean ere, erdaratik hartu maileguan: *llevariq gabe* ‘llebarik gabe’. Ez beti, ordea: *ebilzea gatiq*.

2.2.2.5. *Igurzkari edo herskari palatala*

/j/ edo /j/ (igurzkaria edo herskaria, *j* idatzi ohi duguna, *jabe* edo *jan* hitzetan, Goizuetako hizkeran esate baterako)

<y>. Hitz hasieran (gutxitan): *ya* ‘ja, jadanik’, *Yacomeaca* (top.), *Yacua* (antrop.), *yonen naiz* ‘joanen naiz’ (behin).

YaCua labeCoaq ‘Jakua (Jakue) Labekoak’

Yonen naiz ‘joanen naiz’

Arruntean, halarik ere, *j-* aurkitzen dugu hitz hasieran, batzuetan hola ebakitzen zelako (edo zuelako), baina segurua da zenbait aldiz *y*-ren partez dagoela, JRMren eskutizetan gertatzen zen bezala (ikus I, 32): *jai ondoan, jan, janari, jaquiñen du, jarria, jasoaq, jauna, joan, jornala, jorrada, juan etorrian, jubizioa* eta abar.

Jonen naiz ‘joanen naiz’

Juanen naiz ‘joanen naiz’

Jorradavat ‘jorrada bat’

2.2.2.6 /j/ (irristaria, hitz barnean *i* idazten duguna)

<y>: *anayea* ‘anaia’, *ayeq* ‘haiek’, *bergamazoyaco pareta* ‘bergamazoiako pareta’, *carrayazen* ‘garraiatzen’, *eza edo baya* ‘eza edo baia’, *galvaya* ‘galbahea’, *guyeyago* ‘gehiago’, *guyeyenaq* ‘gehienak’, *jaya* ‘jaia’, *jayetan* ‘jaietan’, *mandazayaq* ‘mandazainak’, *mayazaren* ‘maiatzaren’, *taya chiqui* ‘taia txiki’...

2.2.2.7. *Herskari palatala*

/C/ (orain *tt* idazten duguna, *politta*-n adibidez, edo *pottoka*-n)


IBren idazkera, alderdi honetatik ere, JRMrena baino aise pobreagoa da, ez baitu grafema berezirik erabiltzen herskari palatala irudikatzeko, hots, herskari ez-palatala adierazteko ibiltzen duen <t> letra bera darabil honetan ere. Nolanahiko gisan, adibideak ez dira batere seguruak, eta bakarrik egungo ohiturari so egin diezaiokegu, alegia, egun Goizuetan ele bat *tt*-rekin ebakitzen bada pentsa dezakegu denboran ere hala ebakitzen zela, IBren *t*-dun forma batzuk *tt*-rekin ebakitzen zirela, baina hemen ziurtasunik batere ez dago, ez baitakigu xuxen hitz bakoitzean soinu palatala noiztik erabiltzen den.

Egia da JRMren *tiot* ‘ditiot’ ‘dizkiot’, *tio* ‘ditio’ ‘dizkio’, *tiogu* ‘ditiogu’ ‘dizkiogu’ (ikus II, 86) adizkien lehen kontsonantea, egun Goizuetan *tt*-rekin ematen dela jakinik, palatala zela susma daitekeela, partikulariki behin *ttio* ageri delako, egun esaten –eta izkiriatzen– den bezala-bezala. Ordea, zehaztu moduan, IBren gutunetan aieruetan gelditu beharko, segurtasunik


ez dagoelako. Konparaziorako, hurrengo adibide honetan ez dakigu palatalik (*tt-rik*) baden edo ez den:

– *Egun goizea eman tiot Barberoari atzoko diruak.*


Halaber, ondoko honetan *itturindar zurginäk* izan genezake, orain Goizuetan *itt[wi]ndar* esaten delako, baina ez dakigu segur hala den:



Beste kasuren batean segurua da <t>-ren azpian [c] zegoela:




Pellotiquirena ‘Pellottikirena’



Pello tiquirena ‘Pellottikirena’

Eta segurua dela diogu IBren *Pello tiqui* JBMren oharretan –baita JRMren gutunetan ere (ikus I, 34 eta II, 181)– *Pello Chiqui* delako:



Pello tiquirena Suerte de

Vuru gorria lo de goizariñ... 03... á 34 qu... 2 Pe^s 1 R 00

De Pello Chiqui trajo à Goizarin 2 Cargas 28 qs... 0..... 3 R 18

‘Pellottikirena. *Suerte de*

Burugorria lo de Goizariñ..... 03..... a 34 cuartos..... 2 pesos, 1 real, 00

De Pello Txiki. Trajo a Goizarin 2 cargas... 28 cuartos.. 0..... 3 reales, 18’

3. IGNAZIO BERGARAREN GUTUN ZERRENDA (368)

1787.01.19. Arranbide	1793.09.18. Arranbide
1787.10.Hasiera ingurukoa. Arranbide	1793.10. Arranbide
1788.05.31. Arranbide	1793.10.04. Arranbide
1788.06.25. Arranbide	1793.11.19. Arranbide
1788.06.26. Arranbide	1793.11.26. Arranbide
1788.07.04. Arranbide	1793.12.02. Arranbide
1788.07.22. Arranbide	1793. Arranbide
1788.09 ingurukoa. Arranbide	
1789.02.23. Arranbide	1794.01.14. Arranbide
1790.08.09. Arranbide	1794.02.04. Arranbide
1790.09.22. Arranbide	1794.05.27(A). Arranbide
1790.11.30. Arranbide	1794.05.27(B). Arranbide
1791.04. Arranbide	1794.05.31. Arranbide
1791.04.15(A). Arranbide	1794.07.01. Arranbide
1791.04.15(B). Arranbide	1794.07.05. Arranbide
1791.10.15. Arranbide	1794.07.24. Arranbide
1791.12.22. Arranbide	1794_1795. Arranbide
1792.03. Arranbide	1795.08. Arranbide
1792.03.10. Arranbide	1795.08.08(A). Arranbide
1792.06.06. Arranbide	1795.08.08(B). Arranbide
1792.06.11. Arranbide	1795.10. Arranbide
1792.06.25. Arranbide	1795.10.10. Arranbide
1792.07.06 ingurukoa. Arranbide	1793_1796. Arranbide
1792.07.18. Arranbide	1796.02.26. Arranbide
1792.08.07. Arranbide	1796.03.23(A). Arranbide
1792.10.30. Arranbide	1796.03.23(B). Arranbide
1792.12.07. Arranbide	1796.04. Arranbide
1792.12.10. Arranbide	1796.05.13(A). Arranbide
1792.12.17. Arranbide	1796.05.13(B). Arranbide
1793.02.07. Arranbide	1796.08.28. Arranbide
1793.02.16. Arranbide	1796.10.14. Arranbide
1793.09.09. Arranbide	1796.12.14. Arranbide
	1796.12.15. Arranbide
	1796. Arranbide

1792_1797. Arranbide	1800.08.06. Arranbide
1795_1797. Arranbide	1800.08.12. Arranbide
1797.01.05. Arranbide	1800.09.11. Arranbide
1797.01.16. Arranbide	1800.09.27(A). Arranbide
1797.02.25. Arranbide	1800.09.27(B). Arranbide
1797.04.11(A). Arranbide	1800.10.04(A). Arranbide
1797.04.11(B). Arranbide	1800.10.04(B). Arranbide
1797.04.12. Arranbide	1800.11.08. Arranbide
1797.05.06. Arranbide	1800.11.19. Arranbide
1797.05. Arranbide	1800.12.09. Arranbide
1797.05.20. Arranbide	1800.12.14. Arranbide
1797.07.06. Arranbide	1800.12.31. Arranbide
1797.10.01. Arranbide	1801.01.05. Arranbide
1797.11.07. Arranbide	1801.01.12. Arranbide
1797.12.13 ingurukoa. Arranbide	1801.01.16. Arranbide
1798. Arranbide	1801.02.27. Arranbide
1798.03.13. Arranbide	1801.04. Arranbide
1798.04.24. Arranbide	1801.04.27. Arranbide
1798.05.02. Arranbide	1801.05.02. Arranbide
1798.09.28. Arranbide	1801.05.08. Arranbide
1798.11. Arranbide	1801.05.23. Arranbide
1799. Arranbide	1801.07.09. Arranbide
1799.02.11. Arranbide	1801.08_09. Arranbide
1799.02.26. Arranbide	1801.10.09. Arranbide
1799.03.01. Arranbide	1801.10.23. Arranbide
1799.03.26. Arranbide	1801.11.10. Arranbide
1799.04.08. Arranbide	1801.11.17. Arranbide
1799.04.Bukaera. Arranbide	1801.12.15. Arranbide
1799.06.22. Arranbide	1801.12.23. Arranbide
1800. Arranbide	1802.01.05. Arranbide
1800_1801. Arranbide	1802.01.08. Arranbide
1800.01.14 ingurukoa. Arranbide	1802.01.12. Arranbide
1800.03. Arranbide	1802.02.26. Arranbide
1800.03.06. Arranbide	1802.03.06. Arranbide
1800.03.10. Arranbide	1802.03.19. Arranbide
1800.03.19. Arranbide	1802.04.12. Arranbide
1800.03.30. Arranbide	1802.04.15. Arranbide
1800.06.10. Arranbide	1802.04.23. Arranbide
1800.07.23. Arranbide	1802.04.25. Arranbide
1800.07.30. Arranbide	1802.04.28. Arranbide
1800.08.02. Arranbide	1802.04. Arranbide
	1802.06.05. Arranbide

- 1802.06.09. Arranbide
1802.06.18(A). Arranbide
1802.06.18(B). Arranbide
1802.06.21. Arranbide
1802.07.13(A). Arranbide
1802.07.13(B). Arranbide
1802.07.17. Arranbide
1802.07.21. Arranbide
1802.08.21. Arranbide
1802.08.28. Arranbide
1802.08.31. Arranbide
1802.09.05. Arranbide
1802.10.13. Arranbide
1802.10.15. Arranbide
1802.11.19. Arranbide
1802.12.15. Arranbide
1802.12.31. Arranbide
- 1803.01.11. Arranbide
1803.01.28. Arranbide
1803.02.01. Arranbide
1803.02.10. Arranbide
1803.02.17. Arranbide
1803.03.28(A). Arranbide
1803.03.28(B). Arranbide
1803.03.31. Arranbide
1803.04.07. Arranbide
1803.04.25. Arranbide
1803.05.03. Arranbide
1803.06.02. Arranbide
1803.06.06. Arranbide
1803.06.21. Arranbide
1803.01.08_1803.06.23. Arranbide
1803.07.05. Arranbide
1803.08.20. Arranbide
1803.10.13. Arranbide
1803.10.19. Arranbide
1803.10.29. Arranbide
1803.11. Arranbide
1803.11.05(A). Arranbide
1803.11.05(B). Arranbide
1803.11.15. Arranbide
1803.11.20. Arranbide
- 1803.11.21. Arranbide
1803.11.23. Arranbide
1803.11.26. Arranbide
1803.12.08. Goizueta
1803.12.22. Arranbide
1803.11.05_1803.12. Arranbide
1801.01.15_1803.12.31. Arranbide
1803_1804.01.05 inguru artekoa.
Arranbide
1804.01.27(A). Arranbide
1804.01.27(B). Arranbide
1804.01.28. Arranbide
1804.01.31. Arranbide
1804.07.06. Elama
1804.07.14. Elama
1804.09.22. Elama
1804.09.28. Elama
1804.11.23. Elama
1804.12.07(A). Elama
1804.12.07(B). Elama
1804.12.07(C). Elama
- 1805.02.22. Elama
1805.04.25. Elama
1805.05.28. Elama
1805.06.01. Elama
1805.06.22. Elama
1805.06.24. Goizueta
1805.07.13. Elama
1805.07.20(A). Elama
1805.07.20(B). Elama
1805.07.23. Elama
1805.07.27(A). Elama
1805.07.27(B). Elama
1805.07.27(C). Elama
1805.08.03(A). Elama
1805.08.03(B). Elama
1805.08.03(C). Elama
1805.08.10(A). Elama
1805.08.10(B). Elama
1805.08.10(C). Elama
1805.08.17(A). Elama
1805.08.17(B). Elama

1805.08.17(C). Elama
1805.08.24(A). Elama
1805.08.24(B). Elama
1805.08.24(C). Elama
1805.08.30(A). Elama
1805.08.30(B). Elama
1805.08.30(C). Elama
1805.09.07(A). Elama
1805.09.07(B). Elama
1805.09.07(C). Elama
1805.09.14(A). Elama
1805.09.14(B). Elama
1805.09.14(C). Elama
1805.09.21(A). Elama
1805.09.21(B). Elama
1805.09.21(C). Elama
1805.09.28(A). Elama
1805.09.28(B). Elama
1805.10.05(A). Elama
1805.10.05(B). Elama
1805.10.05(C). Elama
1805.10.19(A). Elama
1805.10.19(B). Elama
1805.10.19(C). Elama
1805.10.21. Elama
1805.11.09(A). Elama
1805.11.09(B). Elama
1805.11.16(A). Elama
1805.11.16(B). Elama
1805.11.19. Elama
1805.11.23(A). Elama
1805.11.23(B). Elama
1805.11.30(A). Elama
1805.11.30(B). Elama
1805.11.30(C). Elama
1805.11.30(D). Elama
1805.12.07(A). Elama
1805.12.07(B). Elama
1805.12.09. Elama
1805.12.14(A). Elama
1805.12.14(B). Elama
1805.12.14(C). Elama
1805.12.14(D). Elama
1805.12.20. Elama
1805.12.21(A). Elama
1805.12.21(B). Elama
1806.01.11(A). Elama
1806.01.11(B). Elama
1806.01.11(C). Elama
1806.01.11(D). Elama
1806.01.25(A). Elama
1806.01.25(B). Elama
1806.02.01(A). Elama
1806.02.01(B). Elama
1806.02.08. Elama
1806.02.15(A). Elama
1806.02.15(B). Elama
1806.03.01(A). Elama
1806.03.01(B). Elama
1806.03.12. Elama
1806.03.22(A). Elama
1806.03.22(B). Elama
1806.05.17. Elama
1806.06.30. Elama
1806.07.12. Elama
1806.07.24. Elama
1806.12.24(A). Elama
1806.12.24(B). Elama
1807.01.17. Elama
1807.03.31. Elama
1807.06.26. Elama
1807.09.28(A). Elama
1807.09.28(B). Elama
1807.09.28(C). Elama
1807.10.03. Elama
1807.10.29. Elama
1807.10.31. Elama
1807.11.14. Elama
1807.12.24(A). Elama
1807.12.24(B). Elama
1807.12.24(C). Elama
1808.01.08. Elama
1808.03.04. Elama
1808.03.20. Elama

1808.04.09. Elama
1808.05.16. Elama
1808.06.02. Elama
1808.06.18. Elama
1808.06.23. Elama
1808.06.25(A). Elama
1808.06.25(B). Elama
1808.06.25(C). Elama
1808.09.12. Elama
1808.09.30(A). Elama
1808.09.30(B). Elama
1808.10.15. Elama
1808.10.29. Elama

1809.03.17. Elama
1809.03.20. Elama
1809.03.22. Elama
1809.03.27. Elama
1809.05.29. Elama
1809.06.01. Elama
1809.06.14. Elama
1809.07.18. Elama
1809.08.03. Elama
1809.09.28(A). Elama
1809.09.28(B). Elama
1809.09.28(C). Elama
1809.09.28(D). Elama
1809.10.05. Elama

1809.10.07_20. Elama
1809.09.28_10.25. Elama
1809.11.08. Elama
1809.11.20. Elama

1810.01.18. Elama
1810.03.03. Elama
1810.04.07. Elama
1810.05.17. Elama
1810.06.28. Elama
1810.07.03. Elama
1810.07.05. Elama
1810.10.19. Elama

1811.04.04(A). Elama
1811.04.04(B). Elama
1811.04.04(C). Elama
1811.04.24. Elama
1811.04.29. Elama
1811.09.14. Elama
1811.09.28(A). Elama
1811.09.28(B). Elama
1811.09.28(C). Elama
1811.09.30(A). Elama
1811.09.30(B). Elama
1811.09.30(C). Elama
1811.09.30(D). Elama
1811.09.30(E). Elama

4. GUTUNAK

1787.01.19. Arranbide

Nagusi jauna:

Ez dago hemen ikaztogi berezirik, zergatik ez dute bigaldu beñere tairik.¹ Bada, hemen kontatzen ditudanak dirade, ezpadut huts egiten, ...245½ *cargas*; eta baldin huts egin bada, kontatuko ditu beurrek ere. Eta yonen² naiz Astiarragara, ekusiko ditut itxe guziak, eta abisatuko dut Migeltxo, eraman ditzan burniak.

Agur. Geldi bedi ongi. Arranbide,³ 19 de enero de 1787

Ignazio de Bergara

1787.10. Hasiera ingurukoa.⁴ Arranbide

1787 Arrazón de los carreteros buyerizos de Astiarraga.

¹ *Taia* ‘hozka edo koska bidez zor dena, gastatu dena, jan dena eta beste apuntatzeko erabiltzen den makila’ da, ezaguna oraindik ere Goizuetan (ikus JRM, II, 365). Etorkia Nafarroako erdararen erabili izan den *tarja* [tarˈja]-n du. Formari doakionez, hemengo *tairik* hau, eta geroagoko *tai txikian*, *tai txikiko* eta *hemengo taiekoa* ditugu eskutitzotan, baina gehien-gehienetan *taia honetan*, ez (*dago*) *taia garbirik*, *taia txikiko ardoa(k)* sintagmak edireten ditugu, eta artetan baita *taia txikira* eta *taia txikitarako* ere. Beraz, etimologiaz eta erabileraz hitza *taia* dela esan daiteke, alegia, bukaerako *-a* hori artikulua ez dela. *Taia txikia*-z ikus 1788.06.23ko gutunean dioguna.

² Goizuetan egun ere hola.

³ 1399koa da Arranbideko burdinola eraikitzeke baldintzak biltzen dituen agiria (Mugueta, 2009: 42): «*De huna otra ferreria que de nuevo es compuesto a edificar en el territorio et seynmorio del rey de Navarra, es assaber en el termino que se clama Aranoa, en un rio que es entre dos yermos de montes clamados a la una part Arrambide et a la otra Yburr, la qual dicta ferreria aura nombre la ferreria de Sant Martin d.Aranoa*». 1513an «*de la ferreria de Arranbide*» ageri da (NEAN, Comptos, erregistroak, 1. saila, 541-2 zk., 38. or.). *Arranbide* izenaren inguruan ikus P. Salaberri (2022: 393-394).

⁴ Orrialdea gurutze handi batzuekin baliogabetua dago.

*Derecho*⁵ Jose Manuel Arrieta Soldadua⁶ . . . 66 quintales ½ menas
fierros 18 quintales. *Expensas*...12½
Derecho hasta 9 julio 3 orillos viejos
Derecho hasta 25 septiembre 40 pezetas
Franzisku Zapiañen kontuan sobra emana, horrek harzeko:
Hamazazpi kuarto eta erdi.⁷

Derecho cuenta Franzisku de Zapiañ . . . 10 quintales menas
fierros 6 quintales. *Expensas*...2½
*Derecho le do*⁸ *hasta* 25 septiembre 1 orillo viejo.

1788.05.31. Arranbide

Nagusi jauna:

Zubietako menditik ekarri dute ikatza:

Franzisku de Lekunak 9½ cargas *Expensas* 6
Pelope Iparragerre 7⁹ *Expensas* 2½
*Hijo de Friu*¹⁰ 7 *Expensas* 2½

Arranbide, *mayo 31 de 1788*

Ignazio de Bergara

⁵ IBren gutunetan anitzetan agertzen den *dbo* laburtzapena ez dakigu beti zeri dago-kion xuxen. Gehienetan ematen du *derecho*-ren partez dagoela (ikus JRM, II, 249-250), baina inoizka *dicho*-ren orde z egon daiteke. Noiz den bata eta noiz bestea ez dago, erran bezala, beti argi, eta daitekeena da behin edo beste guk paratu *derecho* ez, baizik *dicho* izatea.

⁶ *Soldadua* hau goitizena da, bistan da. 1798.11ko gutunean «*Josepe Soldaduaarena*» ageri da, eta 1798koan «*Soldadua Estartakoak*». Aranoko etxe baten izenean oinarritu izengoitia dateke hau. 1707an «*el heredero de Soldadua*» edireten dugu, Aranoko eta Goizuetako etxe izenak aipatzen diren dokumentu batean (NEAN, 15605, 4, 23).

⁷ Ondoko lerroetan eta binperrean olajaunaren apunteak heldu dira. Hizkuntzaren aldetik interesgarriak izan daitezkeenak *Manuel Apumastegui* edo *Apuiñastegui*, *Bordacho* izengoitia, *Ygnacio Echanique* eta *Agustin Echeuerria Sordo* dira.

⁸ Iduri du *le di* ‘eman nion’ erran nahi duela, *le dio* ‘eman zion (berorrek)’ ez bada bederik.

⁹ Zerbaki honen ondoan eta azpiko lerroko zazpiaren ondoan zirriborro bana dago.

¹⁰ *Friu* izengoitiren bat izanen da.

1788.06.25. Arranbide

Nagusi¹¹ jauna:

Gorgorio Arotzandikoaren¹² ikatzak, gaztañadian¹³ eginak.

Kontua garbitua dago:

1786, hasta 13 de mayo 84 cargas. Geroztik ere bai

Derecho hasta 22 julio. 38 cargas de 1786

Orañ geroztik eginak Suruan¹⁴ baditu:

1787, hasta 25 septiembre 33½ cargas osoak eta lau lepalotu¹⁵

Eta espensak¹⁶ taia honetan¹⁷ daudenak...140

Horko asentuan izanen dira gehiago, eta diru hartuak baditu:

1787, hasta 3 de febrero 15 orillos viejos

hasta 20 julio 12 orillos viejos

1788, hasta 15 de febrero 3 orillos viejos

Hori da horren kontua, nik hemen arkitzen dudana.

Arranbide, junio 25 de 1788 Ignazio de Bergara.

Juapatxikuren semeak esan didate zerra behar dutala,¹⁸ eta bealdu beza¹⁹ gizon horrekin.

1788.06.26. Arranbide

Nagusi jauna:

Esteban Ansaren²⁰ espensak dira, taia honetan daudenak....1805

Eta horko asentuan ekusiko du zer duen gehiago. Eta diru hartuak ditu:

¹¹ Azken silaba hondar-aitzinekoaren gainean da.

¹² *Arotzauendi* Aranoko etxea da. 1791.04ko gutunean (ikus bedi) *Gregorio Arotzandia* da jaun hau.

¹³ Originalean *j*-rekin idatzia da hitza. Ez dakigu, bestalde, izen arrunta edo toponimoa den.

¹⁴ Aranoko aurkintza eta auzoa da *Suro*. Hemen *Surua* dago, eta gero *Surue* edireten dugu; ikus beherago 1792.03ko gutunean dioguna.

¹⁵ Zaku mota da *lepalotua*. Ikus JRM (II, 323).

¹⁶ *Espentsa* euskaraz eta *expensa* erdaraz ‘gastua’ da, ‘gastatu dena’, irteerek osatzen duten atala, nolabait esan, sarrerren, irabazien aurrez aurre. RAEren arabera *expensas* pluralean ibiltzen da gaztelaniaz.

¹⁷ Hemen, beste batzuetan *tairik* agertuagatik ere, bukaerako *-a*-rekin dago. Ikus 1787.01.09ko gutunean dioguna.

¹⁸ *Behar dutela* behar luke berez.

¹⁹ ‘Bidal beza (berorrek)’. Gorago *bigaldu*; *bialdu* ere bada (ikus hiztegia). Ohart bedi irakurlea partizipioa dagoela hemen, aginterako laguntzailea izanik ere.

²⁰ *Ansa*, *Antsa* deitura ezaguna da Aranon.

1787, hasta 3 de febrero 3 orillos viejos

1788, hasta 4 de febrero 3 orillos viejos y 20 pezetas

Hemen ez dut arkitzen gehiago. Eta iduriak²¹ joan den urtean ikazgilleai emanak izanen dira, hamabi lantegitakoak, edo ez dakit diran hamahirutakoak; hori esanen dio berak.²²

Eta horien portea egin beza abere baten jorna, edo launa erreal, edo beurrek daritzan bat.²³ Horiek dira horren hemengo kontuak. Eta biga[r]²⁴ Elduiñ²⁵ etorriko da. Gaztiga beza ola haundiko kabiaz zer egiñ behar den.

Arranbide, *junio 26 de 1788* Ignazio de Bergara

1788.07.04. Arranbide

Nagusi jauna:

Jose Antonio Olaizola²⁶ horrek ez du hemen diru harturik. Eta espensak baditu taia honetan.....86. Bada, hori da hemengo taiekoa,²⁷ eta ekusiko du horko asentua nola dagoen.

Arranbide, *julio 4 de 1788* Ignazio de Bergara.

1788.07.22. Arranbide

Nagusi jauna:

²¹ *Iduri* ikatz xehea da, erdaraz *ciscos* (IB), *ciesgos*, *cisgos* (JRM), baita gaztainondo mota baten izena ere (ikus JRM, II, 297).

²² 'Esanen dio berak berorri'.

²³ IBk *deritzena* eta *daritzan(a)* darabiltza, adiera berarekin. Hemen ikusten den eran, ergatiboa galdegiten du adizkiak, ez datiboa. Nolanahi ere, aitzinago (1799.03.26), datiboa darama lagun (*beurri*).

²⁴ Originalean *Biga* dago, bukaerako *-r* gabe.

²⁵ Gipuzkoako Elduaingo norbaiten goitizena izanen zen hau. Aintzat har bedi Goizuetak Elduainekin mugatzen duela, tarte txiki batez.

²⁶ Honetaz ikus JRM (I, 26 eta II, 192).

²⁷ Hemen garbixko ageri da hitza *taia* dela, beste gisan *taia*koa idatziko baitzukeen, seguruenik, autoreak. Baina esaldi berean, lehentxeago, *taia honetan* dago, *-a*-rekin, beste agerrialdi gehienetan bezala.

Martxaren²⁸ suñaren²⁹ espensak dira, taia honetan daudenak, 29. Eta ez daki[t]³⁰ horko asentuan paratuak ote diran hoiek ere, eta bi partidatan badago asentu horretan, hoiek izanen dira batean. Porfin, ekusiko du.³¹

Eta diru hartuak baditu:

1787, hasta 3 febrero.....15 orillos viejos

Hori da hemen arkitzen dudana.

Arranbide, *julio 22 de 1788*

Ignazio de Bergara

1788.09 ingurukoa. Arranbide

1788 hasias³² Buyerros de Oiarzun

4 septiembre. Josepe de Larramendi . . . 3 quintales, 4 arrobas ½. Expensa 1
— Josepe Lekuna. 5 quintales, 2 arrobas ½. Expensa 1

Horra! Atzo kartan bialzen nuela gaztigatu nuen txartela aztu egin zizadan,³³ eta bigar goizean jonen naiz nere beajejan.

1789.02.23. Arranbide

Nagusi jauna:

²⁸ *Martxa* Aranoko etxea da, eta etxe horretakoen izengoitia ere bai, azentuak-eta al-daturik (cfr. *Olásò* etxea / *Olásò* etxe izengoitia, Goizuetan; ikus Salaberri eta Zubiri, 2009: 827): «...que afronta con casa llamada *Marcha* [...] que afronta con la pieza sobre dicha que tiene *Marcha* y con pieza de *Lucienea*» (Arano, 1702; NEAN, 15604, 7, 57).

²⁹ *Suñaren* 'suhieren'.

³⁰ Originalean *ezdaqui* dago.

³¹ 'Tira, (berorrek) ikusiko du'.

³² Burdina puska soberakinak dira *haxiak*. Ikus JRM (II, 290).

³³ Ez dakigu ongi *zizadan* ala *zitzadan* irakurri eta idatzi behar den. Aranon (Zubiri eta Perurena, 1998: 80) *zitzan* eta *zizan* 'zitzaidan' jaso zituzten. Goizuetan *zian*, *zizian* esaten da.

Elduiñ itzaiak³⁴ eskatzen du hog[e]i³⁵ ezkutu behar lukeala.³⁶ Bada,³⁷ honen lana egiña: haxiak³⁸ eta meak Astiarragatik ekarriak ditu, guzitara 154 kintal, eta burniak Donostiara eramana 50 kintal. Espensak... 67½.³⁹

Diru hartuak ditu:

1788

Derecho hasta 28 marzo 4 orillos viejos

Derecho hasta 23 de junio 2 orillos viejos

Derecho hasta 21 julio 4 orillos viejos

Derecho hasta 18 octubre 14 orillos viejos⁴⁰

Horra. Horiek dira horren lana eginak eta diru hartuak...³⁸⁴¹

Saldagarbiren⁴² babaren txartela⁴³ eta Goierrenzat⁴⁴ anega biren bial dezala horrekin.⁴⁵

Arranbide, *febrero 23 de 1789*

Ignazio Bergara.

Letra hoiek egin ezkerro, etorri da Martin Okerra⁴⁶ eta erakarri ditut⁴⁷ Oiarzungo⁴⁸ haxiak.⁴⁹ Egun ez dakik (*sic*) noiz akabatuko diran haxi⁵⁰ eta

³⁴ *Elduiñ* itzainaren goitizena zen; beharbada Gipuzkoako Elduaingoa zatekeen.

³⁵ Parentesi karratuen arteko *e* hori hor ote den –IBk idatzi ote zuen– ez da segurua.

³⁶ Osagarri zuzena adieraz plurala da hemen (*hoge* *ezkutu*), baina aditza singularrean dugu (*behar luke*). Nolanahi ere, irudi du egileak, «*eskatzen d(it)u hoge* *ezkutu*» eta «*esaten du hoge* *ezkutu* *behar lukeala*» esaldiak nahasi dituela. Aintzat har bedi, bestalde, *hoge* *ezkutuko* diru baten izena dela, eta hemen *-ko* gabe agertu arren, IBk menturaz unitatea zeukala burutan.

³⁷ Bigarren silaba lehenaren gainean idatzirik dago, originalean.

³⁸ Originalean *asiaq* idatzirik dago.

³⁹ Honen eskuinaldean badira olajaunaren apunte batzuk.

⁴⁰ Badira olajaunaren apunte gutxi batzuk.

⁴¹ Olajaunak *en todo* ‘guzitara’ izkiriatu du zenbakiaren aitzinean. Hau da, ezbairik gabe, JRMk (ikus II, 258) darabilen *entoroko lana*-ren oinarrian dagoena.

⁴² Goitizen polita dugu hemen, *Saldagarbi*.

⁴³ Janaria lortzeko ibiltzen zituzten txartelak. Diruz zuzenean ordaintzeko partez, txartelarekin egiten zuten burdinolako langileek-eta.

⁴⁴ Beste norbaiten goitizena, hain segur ere Goierren sortua zelako.

⁴⁵ ‘Bidal dezala berorrek horrekin’. Ez dakigu *horrekin* horren pean nor zegoen.

⁴⁶ Martin Okerra ere goitzen modukoa da. Begibakarra edo begigaldua zatekeen Martin hori, eta hortik Okerra deizioa. Konkorduna ere izan zitekeen, ordea, besteak beste.

⁴⁷ ‘Ekarrarazi ditut’.

⁴⁸ Hau originalean *oyarrzungo* ere irakur daiteke.

⁴⁹ Testuan *asiaq* daukagu.

⁵⁰ Testuan *asi* dago.

zakar⁵¹ hoiek, eta abisatuko dut, edo bestela k[...]⁵² etorzen diranean⁵³ bialduko ditut horr[ara].⁵⁴

Egun goizea⁵⁵ eman tiot Barberoari⁵⁶ atzoko diruak. [Esan]⁵⁷ diot lauren eta bost karga dirala⁵⁸ eta nola etzakin⁵⁹ beurr[ek]⁶⁰ zenbat ziran⁶¹ segururik, eta konpon dezala, eta zenbat fal[ta diran]⁶² abisatzeko, eta esan dit baietz,⁶³ ez zela inporta (*sic*), zenbat ziran [...]⁶⁴ ezkerro, dirurik izan ezagatik,⁶⁵ baño⁶⁶ nahiago dira noski di[ruak].⁶⁷

1790.08.09. Arranbide

Nagusi jauna:

Horra Jaimeren denboran egiñ ziran burniak, astean astekoak, lenbiziko lau astetan tretxuan aritu baitzen, eta beste lau astetan burni zabal sillua⁶⁸ zuten hartan...1789an:

⁵¹ *Hasi* edo *haxiak* txatar puskak ziren, pezak egiteko tenorean soberakinak ziren burdina zatiak. *Zakar* ere ez da adiera horretatik urrun.

⁵² Ondoko lerroa ez da ongi irakurtzen ahal, baina argi dago lehen letra C dela: *Carra-yadoreaq* ‘garraiatzaileak’ menturaz?

⁵³ Ez da ongi irakurtzen ahal, zulatua dagoelako. Iduri du *etorzen diraneran* dagoela, egilea idaztean pixka bat nahasi delako.

⁵⁴ Zuloa dago hemen; hurrengo lerroa ere zulatua dago, eta ez da ongi irakurtzen ahal. Irudi du, nolana ere, «---quiñ ---» daukagula ondoko lerro horretan, soziatiboan dagoen sintagma, alegia.

⁵⁵ Ez dakigu inesiboaren marka jartzea aiantzi zaion, edo *arte* ‘artean’-en dugunaren moduko zerbait den, baina garbi irakurtzen da.

⁵⁶ Hau ere goitizena izanen da.

⁵⁷ Zuloa dago eta ez da ongi irakurtzen ahal.

⁵⁸ ‘Lau edo bost karga’ izanen da, baina ‘laurehun (*lareun* Goizuetan, egun) eta bost karga’ ere izan daiteke.

⁵⁹ ‘Ez zekien’.

⁶⁰ ‘Berorrek’.

⁶¹ IBk gehien-gehienetan *ziran* erabiltzen du, eta sei aldiz *ziraden* (ikus aditz morfologiari eskaini atala). JRMk (II, 80) gehienxkoenetan *ziran* du, eta inoizka *ziren*, baina *ziraden* ez du behin ere idazten.

⁶² Zuloa dago.

⁶³ Testuan *bayez* dugu.

⁶⁴ Zuloa dago. Irudi luke *d-z* hasten den hitza dela, aditza menturaz (*dakien* edo).

⁶⁵ ‘Dirurik ez izanagatik’? Ez dago garbi.

⁶⁶ Aitzineko hau ez da itzuli argia.

⁶⁷ Zuloa dago.

⁶⁸ JRMk (II, 380) *zigillua* ‘sutegiaren zolako burdinazko peza zabal-lodia’ darabil, eta hemen dugun *sillua* honen testuingurua ikusirik (*burni zabal sillua*), zalantza handirik ez dago gauza bera direla. Nolanahi ere, iduri luke «*burni zabal sillua zuen hartan*» behar lukeela.

Derecho hasta 14 agosto semana . . . 32 quintales, arroba ½. Expensas 46½ reales

Hasta 22 agosto semana 25 quintales. Expensas 35½

Hasta 29 agosto semana 34 quintales, 2 arrobas. . Expensas 54½

Hasta 5 septiembre semana 40 quintales, 1 arroba . . Expensas 55⁶⁹

Hoiek dira tretxuak, eta beste hoiek, sei lagunekoak,⁷⁰ izanen dira espensak.

Derecho hasta 12 septiembre semana . . 3 quintales, 1 arroba ½ Expensas 53½ reales

Derecho hasta 19 septiembre semana . . . 3 quintales, 1 arroba . . . Expensas 56½

Derecho hasta 26 septiembre semana . . 58 quintales, 1 arroba Expensas 65

Derecho hasta 3 semana⁷¹

Derecho hasta 3 octubre sema(na)⁷² . . 65 quintales, 3 arrobas Expensas 58⁷³

Hoietaz gañera, baditu Lorenzoren partez irabazia, aste batean, hamabost erreal, eta ola haundiko erremienta egiten ere bai, bi egun; eta joan den urtean egiñak ere bai, zazpi arroa, haxiak.⁷⁴ Eta ardoak, tai txikian⁷⁵ dituenak, zorzi pinta.

Hoiek dira horrek hemen dituenak.

Arranbide, agosto 9 de 1790

Ignazio Bergara.⁷⁶

1790.09.22. Arranbide

1790 septiembre 22.⁷⁷

Nagusi jauna:

⁶⁹ Honen azpian olajaunaren kontu batzuk daude.

⁷⁰ 'Sei lanegunekoak'.

⁷¹ Belztua, tatxatua dago.

⁷² Azken silaba falta da.

⁷³ Honen azpian olajaunaren kontu batzuk daude.

⁷⁴ Originalean *asiaq* izkiriatur da. *Hasiak* edo *haxiak* pezak egiten zirenean sobran ziren burdina puskak genituen. Ikus JRM (II, 290).

⁷⁵ Ikus 1788.06.25eko gutunean honetaz dioguna.

⁷⁶ Gutunaren atzeko aldean olajaunaren oharrak eta kontuak daude. Hor *Jaime Goizueta* eta *Lorenzo Bidasola* ageri dira, besteak beste. Lerroetako anitz gainmarraturik daude.

⁷⁷ Olajaunak idatzia da data.

Horra Lorenzo igelearen partida astean astekoak, joan diran moduan, burniak beren espensakin.

<u>Derecho 10 octubre semana</u>	6 quintales, 5 arrobas ½	expensas 64 reales
<u>17 octubre semana</u>	47 quintales, 5 arrobas ½	expensas 60½ reales
<u>24 octubre semana</u>	12 quintales, 1 arroba	expensas 63½
<u>31 octubre semana</u>	21 quintales, 1 arroba	expensas 59½
<u>07 noviembre semana</u>	16 quintales	expensas 60½
<u>14 noviembre semana</u>	16 quintales, arroba ½	expensas 51½
<u>21 noviembre semana</u>	22 quintales, 4 arrobas ½	expensas 65
<u>28 noviembre semana</u>	17 quintales, 2 arrobas ½	expensas 68
<u>5 diciembre semana</u>	20 quintales, 1 arroba	expensas 50
<u>12 diciembre semana</u>	128 quintales, 3 arrobas	expensas 60 ⁷⁸

1790

<u>16 enero semana</u>	Aste honetan etzen burnirik joan, eta espe[n]sak ⁷⁹ dira aste honetakoak	67½ reales
<u>23 enero semana</u>	3,8 quintales, 2 arrobas	expensas 64 reales
<u>30 enero semana</u>	18 quintales	expensas 65½
<u>6 febrero semana</u>	18 quintales	expensas 50½
<u>13 febrero semana</u>	31 quintales, arroba ½	expensas 53½
<u>20 febrero semana</u>	41 quintales, 3 arrobas	expensas 63
<u>27 febrero semana</u>	21 quintales, 3 arrobas	expensas 60
<u>6 marzo semana</u>	24 quintales, 4 arrobas	expensas 62
<u>13 marzo semana</u>	43 quintales	expensas 64½
<u>20 marzo semana</u>	84 quintales, 3 arrobas	expensas 53½
<u>17 abril semana</u>	26 quintales, 3 arrobas	expensas 51
<u>24 abril semana</u>	31 quintales, 4 arrobas ½	expensas 52½
<u>29 abril semana</u>	33 quintales, 4 arrobas ½	expensas 32½ ⁸⁰
<u>12 junio semana</u>	30 quintales, arrobas ½	expensas 51 reales
<u>14 agosto semana</u>	27 quintales, 1 arroba ½	expensas 47½
<u>21 agosto semana</u>	14 quintales, 5 arrobas	expensas 27½
<u>28 agosto semana</u>	14 quintales, 3 arrobas ½	expensas 24
<u>4 septiembre semana</u>	15 quintales, 3 arrobas ½	expensas 43
<u>11 septiembre semana</u>	9 quintales, 1 arroba ½	expensas 16½
<u>18 septiembre semana</u>	14 quintales, 1 arroba	expensas 51
<u>25 septiembre semana</u>	58 quintales	expensas 45½ ⁸¹

⁷⁸ Honen azpian olajaunaren kontu batzuk daude.

⁷⁹ Testuan *espesaq* daukagu.

⁸⁰ Peko aldean olajaunaren zenbait kontu daude.

⁸¹ Olajaunaren zenbait kontu ditugu honen azpian.

Horra Lorenzoren partida joan den asterañokoa, eta orañ geldituko dira joan den asteko burniak gehienak, eta aste honetan egiten diranak beren espensakiñ.

Egun baziran hiru itzai; bialdu ditut hamabi barra,⁸² eta gelditu dira hamalau barra, eta hoiiek egiñen dut bialzera alegiñ guziaz.⁸³

Ereñezuko haxiduna⁸⁴ hemen zen egun goizean, eta esan diot beurrek esan zidan bezala, kintala erreal batean,⁸⁵ baña esan du prezio motxa dela, ez zaiotela iñor etorriko, noski, baña halere saiatuko dela, iñor⁸⁶ al badu kuarto batzuek berak emanen batiozte⁸⁷ ere. Enfiñ, ageriko da zer egiten duen. Al badu pozik billatuko ditu karraiadoreak, bai, baña ez dakit iñor ideroko⁸⁸ ote duen.

Arranbide, *septiembre 22 de 1790*

Ignazio Bergara.

Tobera⁸⁹ galdurik dago txol;⁹⁰ beldurrak nago aste honetan irauñ ez dezan ere. Atzo ez⁹¹ ninzan oroitu esatea, eta egiñik ezpada har dazake (*sic*) egiteko modua. Ez da posible izanen datorren astean honekin hasitzea.

1790.11.30. Arranbide

Agustin Itxeberria Mutuaren itzai haren⁹² meak dira *34 quintales* eta [...] burniak *8 quintales*. . . Espensak11, eta diru hartua

⁸² Burdinazko hamabi barra.

⁸³ ‘Gostatzen dena gusta igortzera entseatuko naiz’, ‘kosta ahala kosta bidaltzen saiatuko naiz’.

⁸⁴ Originalean *asi duna* ‘haxiak erosten eta saltzen dituen’ dago. Ereñotzun burdinolak baziren, hiru, denboraz, Díez de Salazar-en arabera (1997: 70, 89 eta hur.).

⁸⁵ Kintal bat eramate (garraiatze) alde erreal bat ordainduko zaiela (itzainei).

⁸⁶ *Inor* errepikatu hau sobran da.

⁸⁷ ‘Emanen badizkie ere’.

⁸⁸ ‘Idoroko’, ‘edirenen’, ‘aurkituko’.

⁸⁹ Testua hurrengo orrialdean, azkenekoan, dago idatzirik, goitik behera, ez ezkereskuin.

⁹⁰ ‘Tobera txoil, erabat galdurik dago’. *Tobera* hauspoetatik sutegira zihon kono itzurako hodia zen. Ikus JRM (II, 367).

⁹¹ Originalean *Esninzan* daukagu.

⁹² Izengoitia dateke *Mutua*. Menturaz «*Agustin Itxeberria «Mutua» itzainaren meak*» esan nahi zuen IBk, baina testuan *Yzai aren* dago, erdian tarte bat duela, eta horregatik *itzai haren* irakurketa hobetsi dugu. Zernahi gisaz, tarte horiek aski ugariak eta halabeharrekoak izaten dira IBren gutunetan.

21 agosto 5 pesos fuertes, eta Belokik eskatzen duena bost pezetako bat.

Arranbide, *n[oviem]bre 30 de 1790*

Ignazio Bergara.⁹³

1791.04. Arranbide

1791 Cuenta en el mes de abril Abril

Carreteros. Sebastian Etxeberria

Carbonero Cargas

Juan Esteban Motelarena⁹⁴

*Propia.*⁹⁵ *Junto de Surue 8 a 3 1/2 maravedís...00 pesos, 7 reales, 00*

Anbrusio de Zabala Mitxelenekoa.⁹⁶

Propia. Castañal 9 a 1 real, 6 maravedís.....1.....2.....18

*Derecho por menas Yakomeakakoak*⁹⁷

. 6 quintales, 4 arrobas a 27 maravedís . . 00.....5.....00

*Derecho itxola*⁹⁸ bat eramana

Arranbidetik Tintopoloko⁹⁹

suertera Gregorio Apezekoari¹⁰⁰. 00.....2.....00

*Derecho iduriak*¹⁰¹ emana (sic)

Juan Fermin Iribarreni 00.....5.....00

1791 hasta 30 abril son los derechos.....03 pesos, 5 reales, 18

Abono en la cuenta 6 julio 1792

⁹³ Honen azpian olajaunaren eragiketak eta kontuak daude. *Leonet* eta *Saldagarvi* ageri dira, hots, *Leonet* deitura duena eta *Saldagarbi* deitzen zutena, goitizen hori zuena. Gero ere ateratzen dira lagun horiek.

⁹⁴ Goizuetan *Motelena*, *Motelenea* oikonimoa azaltzen da XVII-XVIII. gizaldietan (Perurena, Salaberri eta Zubiri, 2011: 148), eta badaiteke Juan Esteban etxe horretakoa izatea. Aranokoa zela dirudi, ordea. Ikus bedi onomastikari eskaini atala.

⁹⁵ Hemen *suerte propia* ulertu beharko da, alegia, zortea Juan Esteban Motelarenarena berarena zela. Berdin ondoko gutun guzietan.

⁹⁶ *Mitxelenea* Aranoko etxea da.

⁹⁷ Ez dakigu nongo aurkintza den. Haplologiaz lehenagoko **Jakobemeaka* > **Jakome-meaka* batetik menturaz? Ikus 1798.11ko eta 1800.07.30eko gutunak.

⁹⁸ *Itxola* 'etxola' izan daiteke, edo 'etxola egiteko ekaia'; hala dirudi behintzat. Erdaraz *choza* agertu ohi da. Ikus JRM (II, 304).

⁹⁹ Aranoko aurkintza dela dirudi. Ikus beherago.

¹⁰⁰ *Apezenea*, egun *Apezene*, Aranoko etxea da.

¹⁰¹ 'Ikatz xehea' da *iduria*, edo gaztainondo mota. Ikus gorago eta JRM (II, 297).

[...]102 C[uenta e]n e[l mes de] abri[l]

Carreteros. Juamartin de Ansa

Carboneros Cargas

Juamartin de Ansa

Propia. Castañal.....08 a 31 1/2.....00.....7 reales 00

Hasta 30 abril son

1793. Abono en su cuenta de carreteros

1[7]9[3] Cuen[ta en el m[es] [de] abril¹⁰³

Carre[tero]s. Gregorio Arotzandia¹⁰⁴

Carbonero Cargas

Juan Esteban Motelarena.

Propia. Junto de Surue 1

Juamartin de Ansa

Propia. Castañal 08]

Hasta 30 abril son los derecho[s].

1792¹⁰⁵ diciembre 31. Abono en su cuenta; comienza 31 diciembre

1791.04.15(A). Arranbide

1790 Paskoal Haundiarenak¹⁰⁶ izanen dira hoiek.¹⁰⁷

6 noviembre semana 21 quintales, 3 arrobas 1/2; expensas 45 1/2 reales

13 noviembre semana 27 quintales, 5 arrobas 1/2; expensas 49

20 noviembre semana 22 quintales, 3 arrobas 1/2; expensas 54 1/2

27 noviembre semana 43 quintales, 2 arrobas . . expensas 55

1791an (4 - (2¹⁰⁸

5 febrero semana 6 quintales, 5 arrobas expensas . . 47 reales

12 febrero semana 13 quintales, 5 arrobas 1/2 expensas . . 14 reales

136 quintales, 1 arroba 265 reales¹⁰⁹

¹⁰² Orriaren goiko aldea “jana”, puskatua dago eta ez da argi ikusten.

¹⁰³ Lehen lerroa ez da guziz ongi irakurtzen ahal.

¹⁰⁴ Etxe izengoitia da *Arotzandia*, artikulua atxiki badu ere. 1788.06.25eko gutunean Gorgorio Arotzandikoaren ikatzak daukagu (ikus).

¹⁰⁵ Azken 2-aren gainean 3 idatzi du olajaunak.

¹⁰⁶ Izengoitia izanen da *Paskoal Haundia* hau.

¹⁰⁷ *Hoiek* hau kataforikoa da eta, beraz, garbi dago ‘hauek’ adiera duela, ez ‘horiek’.

¹⁰⁸ Olajaunaren apuntea da hau.

¹⁰⁹ Olajaunak egindako apunteak dira hauek.

Hoiek dira Paskoal Haundiak hemen pasatu duen denborakoak, guziak.

Arranbide, *abril 15 de 1791*

Ignazio de Bergara.¹¹⁰

1791.04.15(B). Arranbide

1790

Gregorio Eskuderok Lorenzo igelearen¹¹¹ partez egiñtako burniak sei laguneko espensakin:

<u>26 junio</u> semana	20 quintales, 3 arrobas ½.	Expensas 46½ reales
<u>3 julio</u> semana	29 quintales, 5 arrobas ½.	Expensas 47½
<u>10 julio</u> semana	27 quintales, 2 arrobas ½.	Expensas 48
<u>17 julio</u> ..semana	33 quintales, 1 arroba.	Expensas 51
<u>24 julio</u> semana	32 quintales, 5 arrobas.	Expensas 51
<u>31 julio</u> ..semana	14 quintales, 5 arrobas ½.	Expensas 35
<u>7 agosto</u> semana	42 quintales, 1 arroba.	Expensas 55
<u>2 octubre</u> semana	23 quintales, 5 arrobas ½.	Expensas 49½ reales
<u>9 octubre</u> semana	23 quintales, 3 arrobas ½.	Expensas 51 reales
<u>16 octubre</u> semana	32 quintales, 1 arroba ½.	Expensas 47 reales
<u>23 octubre</u> semana	31 quintales, 3 arrobas.	Expensas 48 reales
<u>30 octubre</u> semana	32 quintales, 4 arrobas ½.	Expensas 48 reales
<u>6 noviembre</u> semana	21 quintales, 3 arrobas ½.	Expensas 45½
<u>13 noviembre</u> semana	27 quintales, 5 arrobas ½.	Expensas 49
<u>20 noviembre</u> semana	22 quintales, 3 arrobas ½.	Expensas 54½
<u>27 noviembre</u> semana	43 quintales, 2 arrobas.	Expensas 55
<u>1791</u>		
<u>22 enero</u> semana	18 quintales, 5 arrobas ½.	Expensas 42½ reales
<u>29 enero</u> semana	32 quintales, 5 arrobas ½.	Expensas 55 reales
<u>5 febrero</u> semana	6 quintales, 5 arrobas.	Expensas 47 reales
<u>12 febrero</u> semana	22 quintales, 3 arrobas ½.	Expensas 14 reales
<u>19 febrero</u> semana	25 quintales, 1 arroba.	Expensas 52 reales

¹¹⁰ Honen ondoren olajaunaren eragiketak eta oharrak heldu dira.

¹¹¹ Hau Lorenzo Igelearen ere idatz daiteke, *Igelea* lanbidea ez zikigibide hori duenaren izengoitia dela onesten bada.

<u>26 febrero semana</u>	24 quintales, 1 arroba.	Expensas 50 reales
<u>5 marzo semana</u>	44 quintales, 3 arroba.	Expensas 51 reales
Vuelta	635 quintales, 3 arrobas	1093 reales¹¹²
<hr/>		
<u>1791 Gregorio Eskudero 3/2</u>		
	Suma [a]trás 635 quintales, 3 arrobas	1093 reales ¹¹³
<u>12 marzo semana</u>	35 quintales, 2 arrobas ½.	Expensas 52½ reales
	Derecho más haragitako sei pezeta	
<u>19 marzo semana</u>	30 quintales, 2 arrobas ½.	Expensas 47 reales
<u>26 marzo semana</u>	21 quintales, 4 arrobas.	Expensas 35 reales
<u>2 abril semana</u>	30 quintales, 1 arroba ½.	Expensas 50½ reales
<u>9 abril semana</u>	33 quintales, 2 arrobas ½.	Expensas 49 reales
<u>16 abril semana</u>	25 quintales, 1 arroba.	Expensas 35 reales
	822 quintales, 3 arrobas	1362 reales¹¹⁴

Hoietaz gañera baditu Ignazio igeleak ondu beharrak...18 reales, eta ola haundiko erremienta egiten aritu zenean pasatuak baditu.....2 días, eta kabiguña sartutakoa bat.

Hoiiek dira ola haundiko horren lana egiñak.

Eta diru hartuak baditu:

<u>1788an, 19 enero</u>	8 orillos viejos
<u>1789an, 4 mayo</u>	12 pezetas
<u>21 julio</u>	7 orillos viejos
<u>1790an, 27 marzo</u>	10 pesos fuertes
<u>20 julio</u>	10 pesos fuertes
<u>21 agosto</u>	15 pesos zinzillus ¹¹⁵
<u>20 diciembre</u>	14 orillos viejos

Hoiiek dira hemen daudenak, eta tai txikiko ardoak ditu 8 pinta. / Estos dineros asenté; en el borrador de carreteros consta.¹¹⁶

Arranbide, abril 15 de 1791

Ignazio Bergara

¹¹² Izkirio hau olajaunarena da.

¹¹³ Olajaunak idatzia da.

¹¹⁴ Olajaunaren apunteak dira hauek.

¹¹⁵ Ez dugu inon ere kausitu *zinzillu* hau. Seguruenik, erdarazko *sencillo* euskaratzearen emaitza dateke, alegia, aitzineko *pesos fuertes* horri kontrajarririk dagoen *pesos sencillos*-etik atera dateke. Aurrerago, 1792.12.10eko gutunean, «*lau erreal zinzilu*» dugu.

¹¹⁶ Olajaunaren apuntea da hau.

1791.10.15. Arranbide

Nagusi jauna:

Iturindar zurgina¹¹⁷ dituzten egunak dira:

Martijoxepe¹¹⁸ ditu 14 días

Matixak. 14

Patxikuk 11

Espensak dituzte guziak 56 reales

Arranbide, octubre 15 de 1791 Ignazio Bergara.

1791.12.22. Arranbide

1791 Manuel Antonio por prestador

Manuel Antonio Ezkartikoak¹¹⁹ Arranbiden mealle¹²⁰ sartu dituen egunak:

30 julio semana 4 días

6 agosto semana 6

13 agosto semana 6

20 agosto semana 2

27 agosto semana 6

3 septiembre semana . . . 6

Hoietarako diru hartu duena:

16 agosto 4 orillos viejos

...Asento y debe dicho Manuel Antonio 27 diciembre 1 peso, 7 reales. 25¹²¹

Manuel Antonio honen koñadoak:

¹¹⁷ Iturendarrak, Iturengoak, bistan da. Gaur egun *itt[wi]ndar* esaten da Goizuetan.

¹¹⁸ Izen honetan eta ondokoan *x* ez da seguru-segurua, baina bai egiantz handikoa. Originallean *s* daukagu.

¹¹⁹ *Ezkarti* Goizuetako Alkasoaldea auzoko baserria da.

¹²⁰ Aurreko lerroko olajaunaren erdarazko *prestador* horren baliokidea da *meaile*. Ikus JRM (II, 331).

¹²¹ Lerro honetako lehen hitza *asento* ‘asiento’ ‘asentatzen dut’ dela iduri du, baina ez dago biziki argi izkiriaturik.

10 septiembre semana 5 días

17 septiembre semana 6

Diciembre 27 pagué con Antonio a su cuñado 14 reales, 24 maravedís

Manuel Antonio honen anaiek:

24 septiembre semana 6 días

1 octubre semana 4

Hoiek dirade hiruan¹²² artean mealte sartu dituzten egunak.

Arranbide, *deciembre 22 de 1791*

Ignazio Bergara.

1792.03. Arranbide

1792 Cuenta en el mes de marzo

Carretero A. Leonet

Cargas

Carbón de Le[o]net.¹²³ Propia

Bordal de Surue¹²⁴. 33¹²⁵

Derecho por menas 3 quintales, 3 arrobas

1792 Cuenta en el mes de marzo Marzo.

Carreteros Manuel Etxeberria

Carboneros

Cargas

Martxaren suña. *Suerte de*

Tintopolo, lo de Arano 03¹²⁶

¹²² 'Hiruren' (Manuel Antonio, anaia eta koinatua), genitibo mugatu plurala dugu hau.

¹²³ Testuan *Lenet* ageri da.

¹²⁴ Aranoko egungo *Suro* auzoa da hau; 1723an ere *Suro* ageri da (NTEM 47: 46). Iduri luke hemen *Suro* + *-ue* atzizki lekuzkoa ditugula. Erka bedi Uxueko *Sulue*-rekin (P. Salaberrí, 1994: 893-895). Ibiltzietan *Surore* ageri da 1687an (NEAN, Zaraitzuko pr., 5, 80, R. de Algarra), baina txanda batean baizik ez dugu aurkitu. Zernahi gisaz, Aranoko aurkintza *Suruan* da, inesiboan, 1788.06.05eko gutunean.

¹²⁵ Eskuinean eta peko aldean olajaunaren apunte batzuk ditugu. *Epela* aipatzen du bertan.

¹²⁶ Zenbakion eskuinean eta orrialdearen azpiko aldean olajaunaren apunteak daude.

Gregorio Apezenakoa. *Suerte de Tintopolo, lo de Arano*. 07

Pepe Lukanbio. *Suerte de Presaburua, lo de Arano*. 03

Etxeberria *viejo*. *Suerte de Olzorrotz, lo de Arranbide*. 08

Artxaia *viejo*.¹²⁷ *Suerte de Olzorrotz, lo de Arranbide*. 02

Derecho por menas
Yakomeaka. 4 quintales, 2 arrobas

1792 *Cuenta en el mes de marzo*

Carretero Sebastian Etxeberria

<i>Carboneros</i>	<i>Cargas</i> ¹²⁸
Mitxelenekoa. <i>Suerte de Tintopolo, lo de Arano</i>	10
Martxare[n] suña. ¹²⁹ <i>Suerte de Tintopolo, lo de Arano</i>	06
Gregorio Apezenakoa. <i>Suerte de Tintopolo, lo de Arano</i>	20
Pepe Lukanbio. <i>Suerte de Presaburua, lo de Arano</i>	10
Etxeberria <i>viejo</i> . <i>Suerte de Olzorrotz</i> , ¹³⁰ <i>lo de Arranbide</i>	08
Artxaia <i>viejo</i> . <i>Suerte de Olzorrotz, lo de Arranbide</i>	04

Derecho itxola¹³¹ eta iduriak eramana Artxaizarrari, Olzorrozko suertetik Gañzi[n]go¹³² errekarara.

¹²⁷ Artxaizarra zeritzana, aita, Sebastian zen berezko izenez, eta semea Juan Antonio. Ikus 1797.04.12 eta 1801.10.09ko gutunak.

¹²⁸ Ignazio Bergararen zenbakien ondoan, eskuinaldean, olajaunak idatzitakoak ageri dira.

¹²⁹ Originalean *Marchare suña* dago.

¹³⁰ Originalean *Olzorrozoz* idatzirik dago.

¹³¹ *Itxola* 'etxola' izan daiteke, edo 'etxola egiteko ekaia'; hala dirudi behintzat. Erdaraz *choza* agertu ohi da. Ikus JRM (II, 304).

¹³² Testuan *Gañzigo* dago, baina egun *Gaintzin* [gáɲn.tʃin] esaten da Goizuetako leku izen hau, eta iduri du, beraz, *Gañzingo* behar lukeela, tarteko *n*-a falta duela, alegia.

Itxola bat ekarria Tintopoloko suertetik Arranbidera, Gregorio Apezene-koarena.¹³³

Itxola ekarria Olzorrozko suertetik Arranbidera, Tranparena.¹³⁴

Vuelta

Itxola eramana Presaburutik Unzingo suertera, Jose Olaizola Marzane-koari¹³⁵

Itxola eramana Etxeberria zarrari, Olzorrozko suertetik Unziño suertera

Itxola eramana Arranbidetik Unziño suertera, Mitxelenakoari . . .

Iduriak emanak Jose Olaizola Marzaneari¹³⁶ . . .

Iduriak emana (sic) Anbrusio Arotzandiari

Iduriak emana (sic) Mitxelenakoari

Iduriak emana (sic) Ansanekoari

Derecho por menas 61 quintales, 3 arrobas

1792 *Cuenta en el mes de marzo*

Carretero Martin de Tellitxea

Carbonero

Cargas

Mitxelenakoa. *Suerte de*

Tintopolo, lo de Arano 12¹³⁷

Martxaren suña. *Suerte de*

Tintopolo, lo de Arano 04

Gregorio Apezanakoa. *Suerte*

de Tintopolo, lo de Arano 26

Pepe de Lukanbio. *Suerte de*

Presaburua, lo de Arano 10

Etxeberria *viejo*. *Suerte de*

Olzorrotz, lo de Arranbide 06

¹³³ Beste batzuetan *Apezanakoa* daukagu.

¹³⁴ *Anbrusio de Zubeldia* «*Tranpa*». Ikus 1793.10eko eskutitza. Nolanahi ere, geroago azaltzen den *Fermin de Zubeldia*, *Fermin de Zubeldia*, *Juan Fermin de Zubeldia* ere *Tranpa* zen izengoitiz. Ez dakigu aita-semeak edo anaiak ziren.

¹³⁵ Orrialde honetako eskuinean eta peko aldean olajaunak gutuna hartutakoan erdaraz idatzi zenbakiak eta oharrak daude.

¹³⁶ Jaun hau *Josepe Olaizola Marzanea* da 1802.08.28ko gutunean. *Martzene* Aranoko etxea da, seguruenik lehenagoko *Martitzenea*-tik atera dena («...piezas de Zapatari y *Martizenea*», Arano, 1702; NEAN, 15604, 7, 57).

¹³⁷ Zenbakion eskuinean olajaunak idatzitakoak daude, eta orobat orrialdean beheko aldean. *Epela* aipatzen du berriro.

Artxaia *viejo*. *Suerte de*
Olzorrotz, *lo de Arranbide* 04
Derecho por menas 59 quintales, 2 arrobas ½

1792 *Cuenta en el mes de marzo*

Carretero Gregorio Arotzandia

<i>Carboneros</i>	<i>Cargas</i>
Mitxelenakoa. <i>Suerte de</i> <u>Tintopolo</u> , <i>lo de Arano</i> 02 ¹³⁸	
Martxaren suña. <i>Suerte de</i> <u>Tintopolo</u> , <i>lo de Arano</i> 06	
Gregorio Apezenakoa. <i>Suerte de</i> <u>Tintopolo</u> , <i>lo de Arano</i> 26	
Pepe de Lukanbio. <i>Suerte de</i> <u>Presaburua</u> , <i>lo de Arano</i> 08	
Etxeberria <i>viejo</i> . <i>Suerte de</i> <u>Olzorrotz</u> , <i>lo de Arranbide</i> 06	
Artxaia <i>viejo</i> . <i>Suerte de</i> <u>Olzorrotz</u> , <i>lo de Arranbide</i> 02	
<u>Derecho por menas</u> 9 quintales, 1 arroba	

1792 *Cuenta en el mes de marzo*

Carretero Pepe de Lukanbio

<i>Carboneros</i>	<i>Cargas</i>
Mitxelenakoa. <i>Suerte de</i> <u>Tintopolo</u> , <i>lo de Arano</i> 05 ¹³⁹	
Martxaren suña. <i>Suerte de</i> <u>Tintopolo</u> , <i>lo de Arano</i> 02	
Gregorio Apezenakoa. <i>Suerte de</i> <u>Tintopolo</u> , <i>lo de Arano</i> 08	
Pepe Lukanbio. <i>Suerte de</i> <u>Presaburua</u> , <i>lo de Arano</i> 06	

¹³⁸ Ignazio Bergararen zenbaki hauen eskuinean eta orrialdearen peko aldean olajaunak idatzi zenbaki eta oharrak daude.

¹³⁹ Hauen eskuinean eta orrialdearen beheko aldean JBMk idatzitako zenbaki eta oharrak ditugu.

Etxeberria *viejo*. *Suerte de*
Olzorrotz, *lo de Arranbide* 02

Derecho por menas. . . 4 quintales, 4 arrobas

1792 *Cuenta en el mes de marzo*

Carretero Jose Antonio de Eskudero

Carboneros *Cargas*

Mitxelenakoa. *Suerte de*
Tintopolo, *lo de Arano* 05¹⁴⁰

Martxaren suña. *Suerte de*
Tintopolo, *lo de Arano* 03

Gregorio Apezenakoa. *Suerte*
de Tintopolo, *lo de Arano* 08

Pepe Lukanbio. *Suerte de*
Presaburua, *lo de Arano* 06

Etxeberria *viejo*. *Suerte de*
Olzorrotz, *lo de Arranbide* 02

Artxaia *viejo*. *Suerte de*
Olzorrotz, *lo de Arranbide* 01

Derecho por menas. . . 5 quintales, arrobas ½

1792 *Carreteros* Anbrusio de Eskudero

Cuenta en el mes de marzo

Carboneros

Mitxelenakoa. *Suerte de*
Tintopolo, *lo de Arano* 01¹⁴¹

Martxaren suña. *Suerte de*¹⁴²
Tintopolo, *lo de Arano* 02

Gregorio Apezenakoa. *Suerte*
de Tintopolo, *lo de Arano* 18

¹⁴⁰ Zenbaki hauen eskuinean eta orrialdearen peko aldean olajaunak idatzi zenbaki eta oharrak daude.

¹⁴¹ Eskuinean eta orrialdearen beheko aldean olajaunak idatzi zenbaki eta oharrak daude.

¹⁴² Bi aldiz idatzi du egileak *de* preposizioa.

Pepe Lukanbio. *Suerte de*
Presaburua, lo de Arranbide 04
Artxaia *viejo*. *Suerte de*
Olzorrotz, lo de Arranbide 02
Derecho por menas . . . 1 quintal, 3 arrobas ½

1791 Anbrosio Eskudero Txoanikenea¹⁴³

1792 E (*sic*)
Cuenta en el mes de marzo

Carreteros Juamartin de Ansa

Carboneros

Martxaren suña. *Suerte de*
Tintopolo, lo de Arano 03¹⁴⁴
Gregorio Apezenakoa. *Suerte*
de Tintopolo, lo de Arano 04
Pepe Lukanbio. *Suerte de*
Presaburua, lo de Arano 02
Etxeberria *viejo*. *Suerte de*
Olzorrotz, lo de Arranbide 03
Artxaia *viejo*. *Suerte de*
Olzorrotz, lo de Arranbide 02
Derecho por menas 2 quintales, 4 arrobas ½

1792.03.10. Arranbide

Nagusi jauna:

¹⁴³ Hau eta orrialde honetako beste apunteak olajaunak eginak dira; erdaraz daude. *Txoanikenea* Goizuetako baserria da (Perurena, Salaberri eta Zubiri, 2011: 183). Behiala herriko etxea ere bazen, orain *Aldapatxo* izena duena.

¹⁴⁴ Zenbaki hauen eskuinean eta orrialdearen peko aldean olajaunak idatzi zenbaki eta oharrak daude.

Kapero¹⁴⁵ gaizki egondu zen denboran haren partez ¹Manuel Antonio orañ Elaman¹⁴⁶ ari den urzalle horrek pasatu zuen aste bat, *14 enero semana*, eta aste hartan egin ziran burniak dira. . . *30 quintales, 3 arrobas*, eta espensak *52 reales*.

Corresponde a Manuel Antonio en líquido 14 reales, 7 maravedís.

*1792, diciembre. Me abona Juakin Apezetxea.*¹⁴⁷

Eta horren anaie Premin¹⁴⁸ horrek Kaperoren partez pasatu zituen denborakoak dirade burniak:

<i>21 enero semana. . .</i>	<i>25 kintal, 2 arroa; espensak</i>	<i>51½ reales</i>
<i>28 enero semana. . .</i>	<i>31 quintales expensas</i>	<i>55½ reales</i>
<i>1 febrero. Egun honetaraño</i>		
<i>egiñak</i>	<i>16 quintales expensas</i>	<i>28½ reales</i>
	<i>72 quintales, 2 arrobas</i>	<i>135½</i>

Arranbide, *marzo 10 de 1972.*

Ignazio Bergara.

Abonado 72 quintales, 2 arrobas fierro, expensa 135 reales los 6 compañeros desde 21 enero hasta 1 febrero corresponde a Fermin... 1792 diciembre 25; me abona Juakin Apezetxea 31 reales, 24 maravedís.

¹⁴⁵ Goizuetan *Kapero* edo *Kaperoaundi* etxea dugu orain. *Kapero* eta *Kaperottiki* baserriak ere badira egun (ikus Perurena, Salaberri eta Zubiri, 2011: 116-117; etxe izengoitien inguruan, berriz, Salaberri eta Zubiri, 2009 ikus daiteke). Zernahi gisaz, Oiartzunen ere bada *Kapero* izeneko baserria, Ergoien auzoan.

¹⁴⁶ Antzina bi ziren Elamako burdinolak, goikoa (*Elama de Suso* dokumentazioan) eta behekoa (*Elama de Yuso* agirietan), eta badakigu 1369 baino lehen abian zirela (Mugueta, 2009: 18). 1513an (NEAN, Comptos, erregistroak, 1. saila, 541-2. zk., 37. or.) «*De la ferreria de Elama*» ageri zaigu eta 1619an beste hau (NEAN, Ihabengo pr., 4, J. Labayen zaharra): «*en la erreteria de Elama [...] constituidos en persona Joanes de Sagardia heron de la dicha herreria [...] acogio por carbonero a Joanes de Olaçuregui veçino de Oyarçun y le linpiara ocho oios o carboneras en la endrçera de Gaztanadi*». *Elama* izenaren inguruan ikus Zaldua (2016: 188, 191-192).

¹⁴⁷ Beste izkirio batekin ageri diren hauek olajaunak, Juan Bautista Minondok, idatziak dira, gutunak hartu eta ondoan, batzuetan bukaeran, beste batzuetan lehen idazleak izkiriatu lerroen artean, nonahi.

¹⁴⁸ *Fermin* izenaren aldaera da hau.

1792.06.06. Arranbide

1792. Fermin Onsari fundidor

Nagusi jauna:

Horra Jose Antonio Arakiñenekoaren partez¹⁴⁹ Dendariren¹⁵⁰ senar Premiñ horrek edo horren denboran egin diran burniak beren espensakiñ:

1792an

<u>31 marzo semana</u>	27 quintales, 2 arrobas ½.	Expensas.	50 reales ¹⁵¹
<u>7 abril semana</u>	20 quintales, 3 arrobas.	Expensas	33 reales
<u>14 abril semana</u>	16 quintales, 4 arrobas ½.	Expensas.	40½ reales
<u>21 abril semana</u>	28 quintales, 5 arrobas.	Expensas	51 reales
<u>30 abril semana</u>	27 quintales, 1 arroba ½.	Expensas.	52½ reales
<u>5 mayo semana</u>	23 quintales, 5 arrobas.	Expensas	52½ reales
<u>12 mayo semana</u>	10 quintales, 2 arrobas.	Expensas	50 reales
<u>19 mayo semana</u>	38 quintales, 5 arrobas ½.	Expensas	47½ reales
<u>2 junio semana</u>	17 quintales, 2 arrobas ½.	Expensas	29½ reales
	211 quintales, 1 arroba ½		406½

Horra aste honetarañokoa.

Hoietaz gañera, baditu kabiguña sarzekoa eta ola haundiko erremienta egiten bi egun, eta ola konponzen egun bat.

Vuelta

Arranbide, junio 6 de 1792

Ignazio Bergara.¹⁵²

A Juan Bautista de Minondo.

Que Dios muchos años [guarde].

Goizariñ

¹⁴⁹ Arakiñenea Aranoko etxea zen. Goizuetakoa ere bazen eta bada (Perurena, Salaberri eta Zubiri, 2011: 40).

¹⁵⁰ *Dendari* hau norbaiten –emakume baten– etxe izengoitia dateke. Beste aukera lanbidearen izenean oinarritu goitizentzat hartzea da. *Dendariarena* (1678, 1726), *Dendarinea* (1864-1965) Ezkurrako etxea zen, 1895erako eroria zena (Etxeberria eta Sukunza, 2009: 38), eta badaiteke gure testukoa horko emaztekoa izatea. Ordea, Lesakan ere bada *Dendarinea* etxea, eta daitekeena da, halaber, gutunekoa horkoa izatea, ez Ezkurrako etxekoa.

¹⁵¹ 27-ren gainean 5 idatzi du olajaunak, eta 2-ren gainean 2.

¹⁵² Ondoko orrialdean olajaunaren apunte franko daude: «*abono por un mango...*», «*abono un dia conponiendo*», etab.

1792.06.11. Arranbide

Nagusi jauna:

Murgioko¹⁵³ itzai horiek biek¹⁵⁴ kontua garbitu nahi dutela diote. Jose Antonio Beloki horrek lenako¹⁵⁵ kontua garbitua duela dio, eta Jose Antonio Aroztegi horrena ere hor da, itzai guziena batean, eta orañ urte honetakoak dituzte:

1792

Jose Antonio de Aroztegi horrek ditu meak *125 quintales*

Eta burniak ditu. *15 quintales, 3 arrobas*

Espensak ditu. *31½*

Diru hartua hemen dituenak:¹⁵⁶

27 febrero *2 orillos viejos*¹⁵⁷

5 abril *2 orillos viejos*

Horiek dira horrenak.

Jose Antonio Beloki horrek ditu meak *140 quintales, 3 arrobas*

Burniak ditu. *17 quintales*

Espensak ditu. *34½*

Diru hartuak ditu:

27 febrero *2 orillos viejos*

5 abril *4 orillos viejos*

23 abril *1 orillo viejos (sic)*

Arranbide, junio 11 de 1792

Vuelta

Ignazio Bergara.¹⁵⁸

1793 Joseph Antonio Beloki¹⁵⁹

¹⁵³ Iduri du o dela onimo honen hondar letra, baina aintzat hartu behar da *Murgia* Astigarragako jauregia dela. Ikus aurrerago (1794.02.04) dioguna.

¹⁵⁴ 1800.07.23ko gutunean «*baiek biek*» agertzen da, eta bai bata eta bai bestea oraino ibiltzen dira Goizuetan, nahiz alderdi honetan *ikatza* > *iketza* edo *belarria* > *belarrie*-ren moduko asimilaziorik ez dagoen. Arruntean ez, baina *biek*-en kasuan bai, eta *guziek*-enean ere bai, testuok ikusirik. Orain *biek* eta *bik* erabiltzen dira, eta *guziek* bakar-bakarra. Ikus 1800.03.30eko eta 1800.07.23ko eskutitzetan dioguna.

¹⁵⁵ 'Lehenagoko'.

¹⁵⁶ Komunztadura berezia.

¹⁵⁷ Honen eskuineko aldean olajaunaren zenbait apunte daude: «*mas mena 41 qq.*», «*fierros...9 qq.*» eta beste.

¹⁵⁸ Ondoko orrialdean badaude olajaunaren apunte batzuk.

¹⁵⁹ Orrialde honetan olajaunaren apunteak ditugu, «*Jph. Antonio Aroztegui*» adibidez.

A Juan Bautista de Minondo.
Que Dios muchos años [guarde].

Goizariñ

1792.06.25. Arranbide

[1792]an *Buyerizo de Astiarraga*¹⁶⁰

Juan Antonio de Ujuenoa¹⁶¹

Meak ditu 44 *quintales*, 3 *arrobas*¹⁶²

Burniak ditu 06 *quintales*, 3 *arrobas*

Espensak ditu 8½.

Diru hartuak:

12 septiembre 1 *orillo viejo*

20 septiembre 2 *orillos viejos*

30 septiembre 2 *orillos viejos*

Nagusi jauna:

Itzai honen asentua hor da, beste itzai guzienekiñ, hau bera bezala izanen da,¹⁶³ eta lenago gaztigatu zidan kontua garbitu eta bialzeko, eta ni ez niñzan¹⁶⁴ oroitu lenago esatea, eta hemen izandu da larunbatean, eta honen kontua garbitu beza.

Lenagoko hor izandu ninzanean, Migel Josepe de Ezeizabarrena itzai baten kontua garbitu baitzidan¹⁶⁵ hor, haren kontuan gelditu ziran hogei kuarto sobra, eta gehiago [...]k ek[...]zen¹⁶⁶ bazuen ere, eman baitzidan b[...] [p]eze[...] ur[r]ezar bat,¹⁶⁷ eta etzuen orduan me[...] kar[...].¹⁶⁸ Eta hemen

¹⁶⁰ Goiko aldeko zatia gaizki dago, jana bezala, eta ez da ongi ikusten.

¹⁶¹ Onimo bitxi askia da hau, baina argi irakurtzen da, azken bokala salbu, -a dela zalantza egiteko arrazoi handirik ez badago ere.

¹⁶² Honen eskuinean eta azpian olajaunaren apunte bakan batzuk ageri dira.

¹⁶³ Ez dugu koma tarteko honen adiera garbi ikusten.

¹⁶⁴ Testuan «*es niñ zan*» dago.

¹⁶⁵ '(Berorrek) garbitu zidan'.

¹⁶⁶ Paper puxkak falta dira, baina [*meari*]k ek[*a*]r/zen dela iduri du. Testuko [...]q horren aitzinean *i* zatekeen, puntua ikusten baita, nahiz *i* bera ez den ageri.

¹⁶⁷ 'Bost pezetako urre zahar bat' dela dirudi, beheerako horiek aipatzen dira eta. Testuan *urre* idatzirik dago, baina *urre* (dirua) dela ezbairik ez dago.

¹⁶⁸ Segur aski *mea[ri]k ekar[ri]* izanen da, baina ez da txoil segurua.

daude bost pezetako urrea[...] hog[...] kuartoak, ¹⁶⁹ hoiien gañera¹⁷⁰ kontua garbitu [...] nahi baditu.¹⁷¹ Arranbide, *junio 25 de 1792* Ig[nazio Bergara]

1792.07.06 ingurukoa. Arranbide

[...] en el me[s...]

[Ca]rrreteros. Se[bastian de Etxeb]erria

Derecho carbón Juan Esteban Me¹⁷² Motelarena, *propia*¹⁷³ *junto de Surue lo de Arano*. 2. . . a 3 1/2 m. . . 00 . . . 1 real, 27¹⁷⁴

Iduriak¹⁷⁵ emanak

Martin Okerrari eta.

Artxaizarrari Olzorrotza¹⁷⁶ . . .

Etxeberria zarrari.

Lukas Iraolari.

Esteban de Ansari.

Juan Domingo Fundidorri¹⁷⁷. . .

eta itxola bat eramana

Tranpari¹⁷⁹ Presaburutik¹⁸⁰

Olzorrotza.

a 5 reales. . . . 03 pesos, 6 reales, 00

. . . 00. 2 reales, 12¹⁷⁸

Hasta 31 marzo son los derechos.

1792, julio 6, abono en su cuenta. 4 pesos, 2 reales, 3

¹⁶⁹ 'Bost pezetako urrea eta hogei kuartoak' izanen da hau.

¹⁷⁰ 'Hauen gainera' da hau berez. JRMk (II, 276) *-en gainera* itzulia '-ez gainera' adierarekin ibiltzen du, baina hemen esanahi hori ez da argi-argia. Ikus hizkuntza ukipenaren kapituluan honetaz dioguna.

¹⁷¹ Zulo handi samarra dago, eta ez dirudi *kontua garbitu* eta *nahi baditu* besterik gabe elkarrekin lot daitezkeen. Bestalde, *nahi* horren lehen letra ez da erabat argi ageri.

¹⁷² Belztua eta tatxatua dago.

¹⁷³ *Suerte propia* sintagmaren aldaera laburtua ohi da hau.

¹⁷⁴ Eskuinaldeko hauek olajaunaren erdarazko apunteak dira. Ez dakigu seguru *m* horren azpian zer dagoen, zer esan nahi duen.

¹⁷⁵ *Iduri* 'ikatz xehea' izan daiteke nahiz 'gaztainondo mota bat'. Ikus JRM (II, 297).

¹⁷⁶ Aranoko egungo *Ontzorrotz* toponimoaren aldaera zaharra (ikus NTEM 47: 4).

¹⁷⁷ *Fundidor* hau euskarazko *urtzaille*-ren erdarazko baliokidea da.

¹⁷⁸ Olajaunaren zenbakiak dira hauek. Ez dakigu *maravedis* edo zer diren.

¹⁷⁹ *Tranpa* goitizena zen; berezko izenez *Anbrusio (de) Zubeldia* zen. Ikus 1793.10eko gutuna. Nolanahi ere, aitzinago *Fermin, Fermin* edo *Juan Fermin de Zubeldia Tranpa* kausitzen dugu, haren anaia edo semea, antza.

¹⁸⁰ Aranoko toponimoa zen.

1792.07.18. Arranbide

Carreteros

Arranbide

1791 y 1792

Nagusi jauna:

Pepe Lukanbio¹⁸¹ Exurrenekoak¹⁸² esan dit bialdu diozala¹⁸³ 30 pesos hortik honara heldu den mandatari seguru batekiñ, eta bestela bialduko duela neskamea larunbatean, baldin bitartean honara heldu denik izaten ezpada.

Sebastian Etxeberriak karraiadoreak¹⁸⁴ esan dit kupelaren ustaiatako¹⁸⁵ behar dituela lau ustai. Ya¹⁸⁶ behar dute,¹⁸⁷ honek¹⁸⁸ eman duen neurrian, zorziña beso luzean.¹⁸⁹ Eta nik esan diot hor eta hemen olatxoko erremientak nola dauden, eta [o]la¹⁹⁰ haundiko kabiaren azpian ez dirala onak aterako, eta halere esan dit beurri¹⁹¹ gaztigatzeko ola haundian, hemen, atere¹⁹² al baditezke.¹⁹³ Eta gaztiga beza zer daritzan¹⁹⁴ edo zer egiñ behar den.

¹⁸¹ Aranon aspaldidanik *Luxanbio* etxea izan da (*Lujanbio* ere ageri da), egun *Lu[.]Janbi*, eta gaztelaniak eragindako *Lu[x]anbio* deitura ongi ezaguna da alderdi honetan aspaldidanik. Jakina da gaztelaniako belarrak ([x]-k) arazoak eman dizkigula euskaldunoi, eta hortik *Jesus* > *Jexux* > *Kexux*, *Jose* > *Joxe* > *Kotte* eta beste sortu direla. *Lukanbio*, bestalde, Arantzako deitura da egun. 1793.10eko gutunean *Pepe de Lu Can bio* ageri da, *Pepe de Lukanbio* alegia.

¹⁸² Aranoko *Ixurrenea* etxeokak.

¹⁸³ 'Bidal diezaiola' (berorrek hari).

¹⁸⁴ «*Sebastian Etxeberria karraiadoreak*» behar lukeela dirudi. Beste gisan ere uler daiteke, alabaina: «*Sebastian Etxeberriak, karraiadoreak, esan dit [...]*».

¹⁸⁵ 'Uztaitako?', 'uztaieta(ra)ko'?

¹⁸⁶ 'Orain(txe)'.

¹⁸⁷ *Behar ditu* edo *behar dituzte* izan behar luke.

¹⁸⁸ *Karriadorea* bide da honen erreferentea.

¹⁸⁹ Hau da, lau uztaietako bakoitzak zortzi beso luze izan behar du. 1717an hau ediren dugu (NEAN, 15603, 9, 21): «...*que se sacaren de la dicha antepara [...] es de largo dicha antepara sesenta codos poco mas o menos [...] se deben entender codos en quadro, como se estilá en las herrerías de Goyzueta y no como en las de la Urumea beso marchantatua*» (lodia gurea da).

¹⁹⁰ Paperari xati bat falta zaio ezkerreko ertzean.

¹⁹¹ 'Berorri'.

¹⁹² *Atere* eta *atera* batera, gutun berean; JRMk ere (ikus II, 226) biak darabiltza. Goizuetan, egun, biak daude bizirik.

¹⁹³ 'Hemen (Arranbiden) nahiago duela, atera ahal badaitezke'-edo ulertu beharko dugu hau. Beste aukera bat zehar-galderatzat hartzea da: '...hemen atera ahal daitezkeen'.

¹⁹⁴ 'Zer iruditzen zaion berorri'. IBk *deritzena* eta *daritzan(a)* darabiltza, adiera berarekin. Ikus hiztegian *iritzi* sarrera.

Horra Arotzandiko¹⁹⁵ haren¹⁹⁶ asentua,¹⁹⁷ larunbateko¹⁹⁸ guziak elkarri eraitsi¹⁹⁹ nahi badiozka.²⁰⁰

Arranbide, julio 18 de 1792

Ignazio Bergara.

1792.08.07. Arranbide

Nagusi jauna:

Itzaiak esan zidaten, bada, etorriko zirala ostegun goizen goiz,²⁰¹ zazpitako etorriko zirala; batzuek beñzat gabaz etorriko zirala esan zuten, eta besteak ere abisatuak dira goiz etorzeko. Pasaiarako burni hoietan hasirazi²⁰² ditut, eta bialduko ditugu al dugun lasterrena.

Arranbide, agosto 7 de 1792

Ignazio Bergara.

1792.10.30. Arranbide

Nagusi jauna:

Entregatu zituen²⁰³ maisu honek sei hogeiz ezkutukoak.²⁰⁴ Barberoa²⁰⁵ Oiarzunan da eta entregatuko diozkat datorrenean. Ostiral arratsaldean joan

¹⁹⁵ *Arotzaundi*–*Arotzandia* denboraz– Aranoko etxea da.

¹⁹⁶ ‘Arotzandikoaren’ ere uler daiteke, IBk silabak bereizten dituelako, hitzak elkarrekin lotzen...

¹⁹⁷ Erdarazko *asiento*-ren jatorrikide eta baliokide den *asentu* ‘apuntea’, ‘idatzizko oharra’ (eta *asentatu* aditza) ohikoa izan da kontabilitate kontuetan euskaraz. Cfr. Berako Juan Bautista Iturria olagizonaren 1676ko hau (Urrizola, 2006: 265): «...*eta bidelcen dizudanean burdiña len / zor dizudanaren alderat ecarcen / duben baba edo oguiaz ganiracoa / asentatuco duzu* [...]».

¹⁹⁸ ‘Larunbaterako’.

¹⁹⁹ ‘Erantsi’. Originalean *eraysi* daukagu; JRMk *eratsi* eta *añaditu* darabilta, egun ahoz *iratsi* Goizuetan. Ikus IBren sistema grafikoa aztertzean dioguna.

²⁰⁰ ‘Nahi badizkio’.

²⁰¹ Holaxe esaten da egun ere Goizuetan.

²⁰² ‘Lanean hasarazi ditut’.

²⁰³ Testuan *Entregazituen* agertzen da, dena batera; gainera, *tu* aurreko silabaren gainean idatzia dago.

²⁰⁴ ‘Hogei ezkutuko sei txanpon’.

²⁰⁵ Lehen ere (1789.02.23) atera da. Erran bezala, izengoitia dateke.

ninzan Astiarragara, eta zorzi barra gelditu ziran itzaien itxetan entregatzeko portura, eta haiek entregatuko ziran larunbatean. Eta Pello Garzitegikoa²⁰⁶ enkargaturik utzi nuen astelenean faltarik gabe entrega zitzala Donostiara. Esan zidan baietz.²⁰⁷ Eta beste guziak joan ziran larunbat goizean Donostiara. Eta zeñetatik zenbat behar den jakiten duen bezañ laster bialdu behar du²⁰⁸ honara, egiñ ez dezagun behar ez denik edo okerrik.

Astiarragako itzai Ignazio de Goikoitxeak eskatzen du ostiraleko edo larunbateko ea egiñen dion hog[e]i ezkutuko bat, estimatuko diola hañbeste egiteaz, eta pagatuko duela. Honek lana egiña du berrogei eta hamar kiñtal bezala guzia, eta diru hartua bi urretxiki. Eta orañ esaten diot ezik²⁰⁹ itzai honenzat asmoan hemen daude bi urretxiki aspaldian, eta beti nik eskeñzen nition eta ez ditu beñere hartu.

Eta Barberoaren semeak Pikoagan²¹⁰ egin zituen haxiak ziran guzitara 28 *quintales* zabalak,²¹¹ eta hoietarako beurrek, zer kontu heldu zen pagatzeko, bialdu zitidan hemezorzi urretxiki, eta nik hari bialdu niozkan hamasei urretxiki pezeta bat sopra zela, eta pezeta hura orañdik ez du bialdu. Eta diru haietan geldituak hementxe daude bi urretxi[ki],²¹² eta bi urretxiki hoiiek eta itzai horri eman nahi nitionak –bi– badaude, lau urretxiki,²¹³ eta nahi badu hoiien gañera edo zer nahi duen gaztigatuko du.

Oran²¹⁴ esaten diot,²¹⁵ maisu honek jaietan hemen gelditzen denean espensa nola behar duen gaztigatu behar du, edo olako taiean jan behar duen edo berak bere taiera jan²¹⁶ behar duen.

²⁰⁶ Iduri luke Astiarragako norbait dela, baina ez dugu daturik. *Garziategi*, egun, herri horretako mugan baina Donostian den sagardotegi baten izena dugu.

²⁰⁷ Originalean *bayez* dago.

²⁰⁸ *Beurrek* ‘berorrek’ bidali behar du.

²⁰⁹ Perpaua konpletiboari sarrera ematen dion hitza, besteren *ezen* bera.

²¹⁰ Oiartzungo burdinola zen *Pikoaga* (Díez de Salazar, 1997: 109-111). Ikus beherago, 1793.09.09ko gutuna.

²¹¹ Testuan *Cabalaq* idatzia dago, eta *kabalak* ere irakur daiteke, alegia, JRMk behin (ikus II, 213) darabilen *alkabala* zerga izenaren aldaera izan daiteke.

²¹² Hondarreko silaba falta du hitzak.

²¹³ Azken xatia bestela ere puntua eta uler daiteke, jakina. Honela adibidez: «...*eta bi urretxiki hoiiek eta itzai horri eman nahi nitionak, bi, badaude lau urretxiki*», alegia, ‘badira lau urretxiki’.

²¹⁴ Kontu grafikoa izan liteke, baina Goizuetan, egun, *o.án* ere esaten da.

²¹⁵ ‘Berorri esaten diot’.

²¹⁶ «*Olako taiean jan edo bere taiera jan*» ‘olaren kontura edo bere kontura jan’ da. *Taia*, berez, kontuak eramateko xiria da. Ikus hiztegia. 1793_1796ko gutunean, olajaunak egindako erdarazko oharretan «en la presa a su costa la comida» ageri da, eta euskaraz «*presan lanean sartua, berak jana zuela*». Beste gutun batean (1793.09.18) «*bemen taia txikira hartu dituen ardoak dirade [...]*» dago, hots, berriz ere adlatiboko sintagma, era edo modua adierazi nahi delako, jakina.

Jose Olaizola Marzaneokoak eskatzen du anega bat babaren txartela, jateko babatik.²¹⁷

Arranbide, octubre 30 de 1792

Ignazio Bergara.

1792.12.07. Arranbide

Nagusi jauna:

Olatxoko maisu hori etorri ezkeru egiñ diraden burniak dir[a]de:²¹⁸

3 noviembre semana . . . 19 quintales, 4 arrobas½ *Expensas* . . . 51½ reales

10 noviembre semana . . . 23 quintales, 3 arrobas 53½ reales

17 noviembre semana . . . 52 quintales, 2 arrobas 54½ reales

24 noviembre semana . . . 33 quintales, 2 arrobas½ 63 reales

1 diciembre semana . . . 35 quintales, 0 arrobas½ 58 reales

7 diciembre semana . . . 23 quintales, 3 arrobas 38 reales

Horra horren denboran egiñ diran burniak beren espensakiñ, eta diru hartua: 30 noviembre 1 orillo viejo

Eta taia txikiko ardoak ditu 11½ pintas

Arranbide, diciembre 7 de 1792

Ignazio Bergara.²¹⁹

A Juan Bautista de Minondo.

Que Dios muchos años [guarde].

Goizariñ

²¹⁷ Honek esan nahiko du jateko ez zen bestelako baba ere bazela, menturaz ereitekoa edo aziendei ematekoa.

²¹⁸ Originallean *dir de dago*.

²¹⁹ Orrialde honen bukaeran eta hurrengo bi orrialdeetan olajaunaren apunteak ditugu, erdaraz idatziak. Badira zenbait puntu interesgarri: «*Luis maestro martinete*», «*Luis Yribarren maestro Arranbide*», «*10 Julio pague al sastre de Ezcurra*», «*le di en Olaverria Oiarzun*», «*21 d[erec]ho con Pachº Salto*», «*frailes Aranzazu San franº y Carmen...00...4...Pezetas...2 Reales*», «*le di en Goizarin*», etab.

1792.12.10. Arranbide

Nagusi jauna:

Martin Tellitxeak geronako²²⁰ kontua bi hillabetekoa egiñ behar zuen, eta bi hillabete haietako kontualdi hura espensarik bage²²¹ egiña izanen duela gogoan jarria daukat, eta ekusi beza hala den. Eta kontua geronakoan²²² espensak sartuak baditu, orañ hiru hillabetekoak sarzeko izanen ditu, eta sartu gabeak badira, bost hillabete horitakoak izanen ditu.

Ttiki Añarbekoak²²³ esan dit badituela berrogei karga ikatz eta mandoak bialzeko, eta nik esan diot ea zer preziotan izanen diran, hemen ez dela len baño prezio gehiago, kargako lau erreal zinzilu.²²⁴ Eta honetan esan dit niri, len ere honi ematen ziola²²⁵ bi pezeta, eta orañ ere orobat bi pezetan emanen dituela, eta igandeko beharko dituela diruak. Orañ gaztiga beza erakarriko²²⁶ dudan edo zer egiñen dudan.

Añarbekoak berak badute ikatza franko, eta ez al dute esparik izanen!²²⁷ Porfiñ,²²⁸ beurrek nahi badu olajaunari esatea, nik esanen diot, eta gaztigatu beza zer egiñen dudan.

Juan Domiño Fundidor²²⁹ ikazkilleak esan dit bial diozala²³⁰ hamar ezkutuko bat.

Arranbide, *deciembre 10 de 1792*

Ignazio Bergara.

1792.12.17. Arranbide

1792 Razón de los fierros de Arranbide

²²⁰ ‘Geroeneko’, ‘azkeneko’. Bi lerro beherago berriz ageri da hitza.

²²¹ Bi lerro beherago *gabeak* daukagu.

²²² Iduri du ‘azkeneko kontuan’ dela, baina ‘kontua azkenekoan’ ere izan daiteke.

²²³ Originalen *tiqui* idatzia dago; izengoitia da, bistan da. *Añarbe* Oiarzungo aurkintza da (JRM, II, 198), eta bertako ibaiaren eta baserri zenbaiten izena. Burdinola ere bazen han (Diez de Salazar, 1997: 60-62).

²²⁴ Erdarazko *sencillo* euskaratzearen fruitu, itxuraz. 1791.04.15(B) gutunean «15 pesos *zinzillus*» daukagu.

²²⁵ Badirudi ‘berorrek ematen ziola’ ulertu behar dela.

²²⁶ ‘Ekarraraziko dudan’.

²²⁷ ‘Ez ahal dute esparik, liskarrik izanen!’. Ikus *espadun* sarrera (JRM, II, 268).

²²⁸ Gaztelaniatikako *enfiñ*-en adierakidea dela dirudi.

²²⁹ Iduri du izengoitia dela. Euskaraz *urzalle* izaten da hori gutunotan.

²³⁰ ‘Bidal diezaiola’.

Manuel *tirador de Arano*. Gregorio igelearen suñarenak²³¹ izanen dirade hoiek:²³²

13 octubre semana 08 quintales, 4 arrobas; expensas 46 reales

20 octubre semana 36 quintales, 4 arrobas; expensas 26½

31 octubre semana . . .

Egun honetarañokoa. . . 15 quintales, 2 arrobas; expensas 31 reales

60 quintales, 4 arrobas; expensa . . . 103½ reales

Hoiek dira Manuel igelearen denborakoak.

Nagusi jauna:

Horra igele horren denborako burniak beren espensakiñ.

Pago taia txikiko ardoak ditu 1 pinta que pague él mismo

Arranbide, deciembre 17 de 1792

Ignazio Bergara²³³

A Juan Bautista de Minondo.

Que Dios muchos años [guarde].

Goizariñ

1793.02.07. Arranbide

Nagusi jauna:

Salbador Mitxelena horrek ditu ikatzak, bere propioak, borda aldean egiñak,

1792an

²³¹ ‘Suhiarenak’.

²³² Lehen graduko erakuslea da, bistan da, hots, ‘hauek’ esan nahi du, katafora baitugu hemen.

²³³ Honen azpian olajaunaren oharrak eta apunteak heldu dira. Interesgarriena, ongi irakurri badugu, hau: «*Abono 60 quintales, 4 arrobas cacilla en Arranbide*». Eta interesgarria diogu menturaz JRMk euskarazko *itxola*-ren balokidetzat ibiltzen duen *choza*-ren adierakidea izan daitekeelako, oker ez bagaude. Hots, erdarazko *casilla* ezkuta daiteke horren azpian.

		<i>Cargas</i>	
<i>11 junio. Primera carbonera. . .</i>	14		
<i>31 julio.</i>	32		
<i>03 agosto.</i>	06		
	52		

Hoiek dira hor[r]en²³⁴ ikatzak, eta hoiien karretoa[k]²³⁵ hilleko asentuan paratuak dira, eta espensak ditu:²³⁶

*El mes de junio.*21
*El mes de julio*15
*El mes de agosto.*24
*El mes de septiembre.*22
*El mes de octubre.*29
*El mes de noviembre.*21
*El mes de diciembre*10
 142

Diru hartuak ditu:

18 junio. 4 orillos viejos

Hor dira ikatzen asentu guziak.

Arranbide, *febrero 7 de 1793*

Ignazio Bergara.

A Juan Bautista de Minondo.

Que Dios muchos años [guarde].

Goizariñ

²³⁴ Testuan *oren* dago.

²³⁵ Testuan *Carretoa* dago, baina garbi dago pluralgilea behar duela, geroko *paratuaq dira* ikusirik.

²³⁶ Eskuinaldean badira olajaunaren apunte bakan batzuk.

1793.02.16. Arranbide

Nagusi jauna:

Sebastian Etxeberria karraiadoreak esan du bial diozala²³⁷ dozena bat ezkutu. Atzo Saldagarbirena²³⁸ izandu zen, eta besterik iñor izandu ez da. Hemen daude egiñ ziran burnia puxka²³⁹ gehienak, eta honela bada, pasatuko ere ez al dira!²⁴⁰ Lohietan gauza den abere bat²⁴¹ iñork ez dauka ere, konparezioa[n].²⁴² Erremoni²⁴³ ere zaldi bat hill omen zaio. Astiarragako abereak ya²⁴⁴ ahitu dira²⁴⁵ orañtxe. Itzai horiek hasi artean ez dezakegu deus egiñ, denbora hau honela deño.²⁴⁶

Arranbide, *febrero 16 de 1793*

Ignazio Bergara.

1793.09.09. Arranbide

1793 Gabriel de Goizueta Igele Haundiaren²⁴⁷ partez, Lorentxio de Alsua²⁴⁸ Goizaringo igeleak Arranbide[n]²⁴⁹ egin dituen burniak, beren espensakiñ:

24 agosto semana 20 quintales; expensas 43 reales

1793. Igele Haundiaren partez, Ignazio de Ezponda Oiarzungo igeleak Arranbiden egiñ dituen burniak beren espensakiñ:

²³⁷ ‘Bidal diezaiola’.

²³⁸ *Saldagarbi* goitizena da, jakina.

²³⁹ Testuan *Pub Ca* dago idatzirik, eta garbi ikusten da hemen ere, beste zenbaitetan bezala, *b* grafema darabilela soinu sabaiaurrekoa (euskaraz <x> idazten duguna) irudikatzeko.

²⁴⁰ ‘Ez ahal dira pasatuko!’, ‘ez dira pasatuko, araz!’ Errepara bekio hurrenkerari.

²⁴¹ ‘Lohietan ibiltzeko gauza den abere bat inork ere ez dauka, adibidez’.

²⁴² Azken letraren erdia-edo ikusten da. Adiera ‘adibidez’ dateke, ‘konparazione’, ‘konparazio batera’.

²⁴³ Gutunotan ez da berriz *Erremon*, *Erramon*, *Erramun* edo *Ramon*-ik agertzen.

²⁴⁴ Hau, Goizuetako egungo hizkera ikusirik, ‘jada’ nahiz ‘ia’ izan liteke, biak berdin esaten baitira ([já]). Testuinguruari oharturik, ordea, iduri luke *jada* dugula hemen *ya* hori.

²⁴⁵ Badirudi ‘bukatu dira’ erran nahi duela, metaforikoki erabilita menturaz. IBk beti *aitu* dauka (ikus 1799.09.09, 1800.09.27(B), 1800.10.13 eta 1806.07.24); JRMk (II, 208), ordea, *ahitu* nahiz *attu* darabiltza, eta bigarrena da Urumeako herrian eta Aranon egun ibiltzen dena.

²⁴⁶ ‘Honela den bitartean’.

²⁴⁷ *Igele Haundia* goitizena dela dirudi.

²⁴⁸ Seguruenik *Lorentxo* adierazi nahi zuen Ignaziok. *Altxua* Oiartzungo baserria da (ikus JRM, II, 186), baina Goizuetan 1726an (NEAN, Estatistika saila 4, 31) *Fermin de Alsua* eta *Jacobe de Alsua* bizi ziren.

²⁴⁹ Originalean *-n*-rik ez du.

31 agosto semana 31 quintales, 3 arrobas; expensas 51 reales
07 septiembre semana . . . 29 quintales, 3 arrobas; expensas 54 reales

Nagusi jauna:

Horra Lorentxio igelearen eta Ignazio igelearen denborako burniak beren espensakin, horiei biai kontua garbitu²⁵⁰ nahi badite,²⁵¹ eta hemen ari den mealle Oiarzungo honi²⁵² larunbatean horrara etorri behar zuela zion, eta horra ez ebilzeagatik, beurrek gastatzeko eman zidan urretxikitik, sobratuatik (*sic*), eman nition hiru pezeta, eta [beurr]ek²⁵³ kontuan sar[tu]ko²⁵⁴ diozka²⁵⁵ mealle honi. *Vuelta*.

Orañ esaten diot larunbatean hemen izandu zela Pikoagako²⁵⁶ aleroa;²⁵⁷ Ereñezun²⁵⁸ dagoan mea hura ekarriko luketela berehala, eta Pikoagatik aranoar karraiadore hoiekiñ ekarri al baganazake (*sic*). [Jakin] nahi nuke mea haren ala²⁵⁹ kargatzeko lekura ateratzeko gastua gorabera [zein den].²⁶⁰

Arragoa laster erretzeko²⁶¹ modua harzeagatik gaztigatzen diot, baldin nahi badu. Alderdi guzietatik ez dago gastua besterik. Bada, nahi badu gisa hau egitea abisatu behar nau berehala, mea hura ala kargatzeko lekura aterarezitzeko²⁶² modua har dezadan len baño len.

²⁵⁰ *Kontua garbitu* ‘kontua ordaindu’.

²⁵¹ *Diote* ‘die’ da hau. Hemen garbi ikusten da, hutsa ez bada behintzat, 1793rako egun ibiltzen den forma laburtua sortua zela.

²⁵² ‘Oiarzungo meaile honi’. Maizxko ibiltzen ditu Ignaziok honelako ordenaketak. Nolanahi ere, testuingurua ikusirik, *honek* espero genuen, gero *zion* ‘zioen’ heldu baita.

²⁵³ Hitzaz da osorik ikusten, gutunak peko ezkerreko izkinan xati bat eskas baitu.

²⁵⁴ Originallean *sar co* dago.

²⁵⁵ ‘Dizkio’. Hemen *-zk-* pluralgilea darabil Ignazio Bergarak, baina aitzineko lerroan, iraganean hori bai, *nition* du, hots, *-it-* pluralgilea daukan adizkia. Beste batzuetan ere antzera; ikus beheitixeago, urte honetako gutunetan.

²⁵⁶ Hernaniko Pikoaga aurkintzan, egun, zentral hidroelektrikoa dago. Denboraz burdinola zegoen inguru horretan (Díez de Salazar, 1997: 109-111).

²⁵⁷ ‘Ala edo gabarra gidatzen duen pertsona’ (EH). Garbi ikusten da Urumea garraibide garrantzizkoa izan zela burdinolen munduan, mea ekartzeko eta burdina eramateko, besteak beste.

²⁵⁸ Ereñotzu Hernaniko auzoa da, Nafarroako mugan, Urumea ugaldearen ertzean dagoena. Hau *Ereñetzu* ere idatz liteke, menturaz. Denboran burdinola bat baino gehiago zeuden bertan.

²⁵⁹ ‘Gabarra’.

²⁶⁰ Parentesi karratu arteko hitz horiek ez dira testuan ageri, baina ulertutzat eman behar direla dirudi.

²⁶¹ ‘Arragoan errealdia egin’ esan nahi du, hots, ‘arragoan mea erretzea’, ez arragoa bera erretzea, hala iduri badu ere.

²⁶² ‘Aterarazteko’.

Santiagok ekarri ditu hamalau ogi eta bigarko²⁶³ beharko dira berriz ogiak, eta ardoa ere beharko da bigarko, eta baba ere ahitu da.²⁶⁴ Bigar bialdu beharko ditu hoiek guziak.

Arranbide, *septiembre 9 de 1793*

Ignazio

A Juan Bautista de Minondo.

Que Dios muchos años [guarde].

Goizariñ

1793.09.18. Arranbide

Nagusi jauna:

Oiarzungo mealle horrek hemen sartu dituen egunak dirade:

1793

31 agosto, semana 6 días

7 septiembre, semana 6 días

14 septiembre,²⁶⁵ *semana* 6 días

18 septiembre 3 días

Hoiek dira hemen horrek sartu dituen egunak, eta beurrek Astiarragara joan ninzanean gastatzeko eman zidan urretxikitik eman nition 7 septienbrean. 3 pezetas.

Eta Lubis²⁶⁶ maisua ere horrarako da²⁶⁷ noski, eta kontua egiñ nahi badio, horrek honara etorri ezkeroz hemen taia txikira²⁶⁸ hartu dituen ardoak dirade...

²⁶³ 'Biharko'.

²⁶⁴ 'Baba bukatu da'. Iduri du baba oinarrizko elikagaia zela oletan. Cfr. Berako 1674ko eta 1676ko pasarteño hauek (Urrizola, 2006: 264, 265): «*Ene jauna errezevitutu ditut lauetan oguey / eta lau errugu baba bidaldu ditidazunac [...]*», «*...cembait ogui ta babaren esque / otoy eguiten diçut egor deazadazun [...]*».

²⁶⁵ *Septiembre*-ren laburdura errepikaturik dago, originalean.

²⁶⁶ *Luis* erdarazko izena *Lubis* bihurtzen da, behe-rago *jubizioa* 'juizioa' dugu, eta beste gutun batzuetan *Ui(t)zi*-tik aterata diren *Ubizi* eta *Ubichi* formak dauzkagu.

²⁶⁷ 'Horra joanen da'. Geroaldiaren *-ko* morfema adlatiboari gehitu zaio, zuzen-zuzenean. Ikus JRM (II, 63).

²⁶⁸ Adlatibodun forma dago, era edo modua adierazi nahi delako. Alderatu 1792.10.30eko honekin (izkirio lodia gurea da): «*Espensa nola behar duen gaztigatu behar du (berorrek), edo olako taian jan behar duen, edo berak bere taiera jan behar duen*».

47½ *pintas*, eta hoietaz gañera, olaren lenako²⁶⁹ geldialdian hemen egondu zen denboran hartu zituen ogi eta baba eta olio, eta guzietara 5 *reales*, eta hoietarako *Dixiduko*²⁷⁰ ubalde²⁷¹ honetan egiñ zituen mea pixka²⁷² batzuak.²⁷³ *Tranpari*²⁷⁴ erakarri zion karga bat eta hemen berezi eta pisatu nuen kintal bat, eta nik ez dakit gehiago badu ere.²⁷⁵

Orañ esaten diot Lubis maisu honek Pagollagarako²⁷⁶ mandatua egiñ duela aditu dudalarik, solo ez dakit ziertoa den,²⁷⁷ eta baldin egia bada, naturalmente izan laiteke horrara agertu baño lenago hemendik hori Pagollagara agertzea. Porfiñ,²⁷⁸ nere jubizioa hau²⁷⁹ egiten dut honela, eta ageriko da. Maisu honek hemen hartu duen dirua da:

1792ean 30 *noviembre*. . . . 1 *orillo viejo*²⁸⁰

Orañ esaten diot: egun etorri da itzai berri bat, eta honek nahiko du dirua. Datorren astean egiñen duela beste jorrada²⁸¹ bat esan du, eta honela heldu diranenzat bialdu beharko ditu erreal batzuek.

Arranbide, *septiembre 18 de 1793*

²⁶⁹ ‘Lehenagoko’, ‘lehenago’, ‘aurreko’.

²⁷⁰ *Ixidua* edo *dixidua* herri lurra da, lantzen ez dena, herriko aziendak biltzeko ibiltzen dena. JRMren lanetan (I, 123, 449. oin oharra, eta II, 304) IBk *dixidua* zuela genioen, baina orain originaleko *dichidu*-ren azpian (forma hori bera dago 1793.10.04ko eskutitzean) igurzkarria dugula uste dugu, egun <x> idazten duguna, Goizuetako XIX. mendeko predikuan *dixidu* dagoelako eta *ixidu*-n iturri duten egungo *Ixibu*, *Ixibuko lepoa*, *Ixibuko mintegia* toki izenek igurzkarria dutelako. Beste kontua da *dixidu* horren «toponimotasun» maila zenbaterainokoa den zehaztea, hemen leku izena dela iduri baitu, baina 1793.10.04ko gutunean izen arrunta dela.

²⁷¹ *Ubalde* hitza *ugalde*-tik atera da, bokal ezpainkariak bulkaturik *g > b* gertatu eta gero. Inguru honetan *erreka* erabiltzen da, ez *ugalde*, batuko hein bateko edo besteko ‘ibaia’ adierazteko (*Urumea*-ri *Erreka haundia* esaten zaio Goizuetan). Hemen segur aski ‘erreka ertza’, ‘erribera’ izanen da *ubalde*. Ikus gorago ageri den *Gorriolako ubaldean*.

²⁷² Originalean *pihca* dago.

²⁷³ Bukaezan, aldiz, *batzuek*. Aldera bedi *guziak / guziek*-ekin. Jakina, *-ak* eta *-ek* duten formek absolutiborako eta ergatiborako balio dute, ez dago horretan alderik.

²⁷⁴ *Tranpa* gutunetan maiz agertzen den goitizena da. *Anbrusio de Zubeldia* eta (*Juan Fermin de Zubeldia* aita-semeak edo anaiak ziren «*Tranpa*».

²⁷⁵ Zehar-galdera dugu hau, ‘ez dakit gehago duen ere’.

²⁷⁶ Hernaniko burdinola zen (Diez de Salazar, 1997: 100, 117-118). Egund *Fagollaga* etxadia dugu ugaldearen ondoan eta *Fagollagako zubia* horren gainean.

²⁷⁷ ‘Baina ez dakit egia den’.

²⁷⁸ Ignaziok berak ibiltzen duen gaztelaniatikako *enfiñ*-en parekoa da hau.

²⁷⁹ Artikulua eta erakuslea batean. Ikus JRM (I, 3).

²⁸⁰ Diru baten izena dugu *orillo viejo*, euskaraz *urretxiki zaharra*.

²⁸¹ *Jorrada* hau ‘garraioaldia’ da (ikus JRM, II, 376). Hasieran, dena dela, soinu palatala du Goizuetan egungo egunean ere, ez belarra.

Maisu hau atzera gelditu da; ez dihoa lagunakiñ, zer pensamentu baitu ere.²⁸²

1793.10. Arranbide

<u>1793</u>	<i>Carretero arrieros de Leonet</i>
	<u><i>Cuenta en el mes de octubre</i></u>
<i>Carboneros</i>	<u>Octubre</u>
	<i>Cargas</i>
Anbrusio Martikaldenekoa. ²⁸³	
<i>Suerte de Basakaitz</i> , ²⁸⁴ <i>lo de Arano</i>	08 ²⁸⁵
Anbrusio Arotzandia. ²⁸⁶ <i>Suerte de</i>	
<i>Urriztixabal</i> , ²⁸⁷ <i>lo de Arranbide</i>	08
Gregorio de Ansa y su hermano	
Manuel Aragones. ²⁸⁸ <i>Propia</i>	
<i>castañal junto de Enazti</i> ²⁸⁹	04
San Juan ²⁹⁰ de Sagarzasu Txute. ²⁹¹	
<i>Suerte de Añarbe</i>	08
Franzisku de Insauspe. <i>Suerte</i>	
<i>de Añarbe</i>	10

²⁸² ‘Ez doa lagunarekin / lagunekin, zer pentsatzen baitu ere’, ‘ez doa langunarekin / lagunekin, zer ere pentsatzen duen’, hots, ‘ez doa lagun(ar)ekin, pentsatzen duena pentsa’. Balio kontzesiboa duen esamoldea da; ikus JRM (II, 135).

²⁸³ *Martikaldenè* Aranoko etxea da orain, *Marticaldene*a 1726ko apeoan.

²⁸⁴ Honen arabera Aranon zegoen *Basakaitz*, seguruenik Goizuetako mugan. Herri honetan *Basakain* eta *Basakatxiki* jaso ziren (ikus NTEM 47: 73), hain segur ere *Basakaitz*-etik eta *Basakaiztxiki*-tik ateratako formak.

²⁸⁵ Eskuinean eta peko aldean olajaunaren apunteak daude.

²⁸⁶ Egun *Aótzaundi* esaten zaio Aranoko etxeari. 1708an «*las casas de Echazuri, Zapatari y Arozandia* [...] *piezas de Belcho y Arozandia*» dauzkagu (NEAN, 15605, 5, 50).

²⁸⁷ 1705erako *Urriztizabal* ageri da: «*Primeramente en los parajes llamados de Burninondo y Malcorrondo* [...] *en el paraje llamado de Urriztizabal*» (NEAN, 15605, 2, 43).

²⁸⁸ *Aragones* hitza ondoko *propia*-ren gainean idatzia dago. Zalantza handirik gabe Aranokoa zatekeen hau, baina Aragoirekin harreman zerbait edukiko zuen, eta hortik goitizena.

²⁸⁹ *Enazti* Aranoko baserria da.

²⁹⁰ *San Juan* hauek, etorkiz segurik, *Santxo Juan*, *Santz(o) Juan* dira.

²⁹¹ *Txute* hau *San Juan de Sagarzasu* delako horren goitizena zen. *Sagarzazu* zen deitura, baina gehienetan *Sagarzasu* idazten du IBk, eta behin *Sagarsasu*, beheitxego.

Anton Paradisu.²⁹² *Suerte*
de Añarbe. 02
Hijo de Mundrago.²⁹³ *Suerte*
de Añarbe. 10
Juan Fermiñ Iribarren. *Propia*
*castañal junto de Agoña*²⁹⁴ 02
Derecho por menas de Ereñezu 14 quintales, 2 arrobas ½
Burniak Pikoagatik Ereñezura
eramanak 12 barras,²⁹⁵ 5 quintales, 1 arroba
Juan Josepe Arrantxalekoaren²⁹⁶
*meak Ubarrizetan*²⁹⁷ *egñiak*. . . . 14 quintales, 3 arrobas ½

1793 *Carretero* Manuel Etxeberria
Cuenta en el mes de octubre

Carboneros

Cargas

Anbrusio Lukanbio Martikaldenkoa.
Suerte de Basa[ka]itz,²⁹⁸ *lo de Arano*. 08²⁹⁹

²⁹² *Paradisu* hau *Anton* edo *Antton* horren izengoitia da, jakina. Biziki zaharrak dira honelakoak: *Martin Periz Uradisu, Toda Baradiso* (Arroitz, 1330; Carrasco, 1973: 278, 279). Orobat erdaraz: *Garçia Parayso* (Azkoien, 1330, *ibid.*, 254).

²⁹³ *Mundrago* hau lagun baten izengoitia da, bistan da. Arrazoiara Arrasatekoa izatea, hor bizi izana izatea, herriarekin harreman handiak edukitzea eta beste izan daiteke. *Mondragoe, Mondragoi, Mondragu, Mondrau* eta *Mondragoye* aldaerak jasoak dira (Salaberri eta Zaldúa, 2019: 71-72) eta *Mundrago* egotea ez da, beraz, harriztekoa.

²⁹⁴ Hau euskarazko *Agoña(ko) ondoan* baten itzulpena dela dirudi. *Agoña* hori, bestalde, NTEM 47: 31-n biltzen den Aranoko *Abaño* aurkintza bera da (*Abaño*ko *haltzadia* ere badago), belarritz *Aoño* jaso duguna. Oker ez bagaude, behialako *Abuyna* dugu: «*De la ferreria de Abuyna que esta en el termino de Arano*» (1513, NEAN, Comptos, erregistroak, 1. saila, 541-2 zk., 38. or.). Uxuen *Muñaga* aurkintza dugu orain, lehenagoko *Abuñaga*-tik (*Abuñaga* > *Buñaga* > *Muñaga*; Salaberri, 1994: 711). Aranoko eta Uxueko toki izenen arteko alde bakarra da bigarrenak lehenak eskas duen -*aga* atzizki leku ugaritasunezkoa daukala.

²⁹⁵ Originaleko *Bs* guk *barras* irakurri dugu beti, baina ez dakigu aldira horrela egin behar den. Zenbaitetan *varas* izan liteke, hau ere luzera neurria zelako. Edozein gisaz, *barra* hitza, esorik idatzita, 1790.09.22, 1792.10.30, 1800.07.23, 1800.12.31 eta 1803.12.08ko eskutitzetan daukagu.

²⁹⁶ *Arrantxale* etxea dela dirudi; gizonaren deitura *Sagarzazu* zen, 1800.08.06ko gutunean ikusten den eran.

²⁹⁷ *Ubarrizeta* ‘uharriztea’ da, ‘errekarria ugari dagoen alderdia, erribera’. Ez dakigu, dena dela, *Ubarrizeta* hau berez *ubarrizta* izen arruntaren plurala den ala toponimoa, biak hertsiki loturik egonik ere. Gutunetan eskuarki *Ubarrizetan* agertzen baita, pentsatzekoa da *Ubarrizeta* toponimoa dela. Ikus, alabaina, 1793_1796ko gutunean azaltzen den *ubarrizetan*-en kariatara dioguna.

²⁹⁸ Originalean *Basaiz* besterik ez da ageri.

²⁹⁹ Eskuinean eta peko aldean olajaunaren apunteak daude.

Esteban de Ansa. <i>Suerte de</i> <u>Urriztixabal, lo de Arranbide</u>	01
Anbrusio Arotzandia. <i>Suerte de</i> <u>Urriztixabal lo de Arranbide</u>	06
Gregorio de Ansa y <i>su hermano</i> Manuel Aragones. ³⁰⁰ <i>Propia</i> <u>castañal junto de Enazti</u>	02
San Juan de Sagarzasu Txute. <i>Suerte de</i> Añarbe.	04
Franzisku de Insauspe. <i>Suerte de</i> <u>Añarbe</u>	12
Anton Paradisu. <i>Suerte de</i> <u>Añarbe</u>	08
Hijo de Mundrago Galdeano. <i>Suerte de</i> Añarbe.	10½
Juan Fermiñ Iribarren. <i>Propia</i> <u>castañal, junto de Agoña</u>	01
<u>Derecho por menas de Ereñazu 11 quintales</u> Pikoagatik Ereñazura eramantako <u>burniak 6 buyeros, 2 quintales, 3 arrobas ½</u> <u>Derecho por menas Ttiki Añarbekoarenak</u> <u>Añarbetik ekarriak</u>	09 quintales, 2 arrobas
<u>Derecho más Juan Jospe (sic)</u> <u>Arrantxalekoarenak</u>	17 quintales, 5 arrobas

1793 Carreteros. Sebastian Etxeberria
_____ *Cuenta en el mes de octubre*

Carboneros

Cargas

Anbrusio Martikaldenekoa. <i>Suerte de</i> Basakaitz, lo de Arano	14 ³⁰¹
Esteban de Ansa. <i>Suerte de</i> <u>Urriztixabal lo de Arranbide</u>	02
Anbrusio Arotzandia. <i>Suerte de</i> <u>Urriztixabal lo de Arranbide</u>	12

³⁰⁰ Hau ere izengoitia da. Manuel Ansa zen gizon hau izen-deituraz.

³⁰¹ Eskuinean eta peko aldean olajaunaren apunteak daude.

Gregorio de Ansa y su hermano Manuel Aragonés. <i>Propia</i> <i>castañal</i> junto de Enazti	18
Franzisku de Insauspe. <i>Suerte</i> <i>de Añarbe</i>	14
Anton Paradisu. <i>Suerte de</i> <i>Añarb</i>	08
<i>Hijo de Mundrago. Suerte de</i> <i>Añarbe</i>	06
<i>Derecho por menas de Ereñezu 21 quintales, 2 arrobas</i>	
Burniak Pikoagatik Ereñezura <i>eramanak 12 barras, 5 quintales, 0 arrobas ½</i>	
Ttiki Añarbekoaren meak Ubarritzetan egiñak eta Añarbetik <i>ekarriak</i>	18 quintales, 1 arroba
Juan Josepe Arrantxalekoarenak	32 quintales, 4 arrobas

1793 Carretero Martin de Tellitxea
_____ *Cuenta en el mes de octubre*

Carboneros

Cargas

Anbrusio Martikaldenekoa. <i>Suerte de</i> Basakaitz, lo de Arano ³⁰²	07 ³⁰³
Esteban de Ansa. <i>Suerte de</i> <i>Urriztitxabal, lo de Arranbide</i>	01
Anbrusio Arotzandia. <i>Suerte</i> <i>de Urriztitxabal, lo de Arranbide</i>	07
Gregorio de Ansa y su hermano Manuel Aragonés. <i>Propia</i> <i>castañal</i> junto de Enazti	10
San Juan de Sagarzasu Txute. <i>Suerte de Añarbe</i>	04

³⁰² Aurreko silabaren gainean idatzia dago bukaerako *no*.

³⁰³ Eskuinean eta peko aldean olajaunaren apunteak daude.

Franzisku de Insauspe. *Suerte*
de Añarbe. 08
 Anton Paradisu. *Suerte*
de Añarbe. 04
 Hijo de Mundrago. *Suerte*
de Añarbe. 05
 Juan Fermiñ Iribarren. *Propia*
castañal junto de Agoña 01
Derecho por menas de Ereñazu 9 quintales
 Pikoagatik Erenezura eramantako
burniak 6 barras, 2 quintales, 0 arrobas ½
Vuelta

1793 Martin Telletxea³⁰⁴
Derecho por menas Ttiki
 Añarbekoarenak Ubarritzetan
egiñak, Añarbetik ekarriak 4 quintales, 4 arrobas ½
 Juan Josepe Arrantxalekoarenak
 Ubarritzetan egiñak 23 quintales, 1 arroba
Derecho Patxiku ardamandazaiak³⁰⁵ utzi eta
 Urraidetik³⁰⁶ zagi³⁰⁷ bat ardo erakarria.³⁰⁸

³⁰⁴ Olajaunaren izkirioa. Eskuinean eta orriaren azpiko aldean ere badira haren apunteak.

³⁰⁵ Ardoketari, ardo garraioan ibiltzen zen mandazaina zen *ardamandazaia*.

³⁰⁶ *Urraideko lepoa* Goizuetako aurkintza da. Nolanahi ere, *Urraide* burdinola ere bazen, Oiartzungoa, Díez de Salazarren arabera (1997: 73-74), baina autore honek ziurtasun handirik gabe dio hori. Aipatu herrian zegoela esateko duen arrazoi ia bakarra Oiartzunen *Urdaire* izeneko bi baserri egotea da, bata Ergoienen eta bestea Iturriotzen. Goikoetxeak eta Lekuonak (2007: 69) honela diote: «Bizpahiru zubi garrantzitsu izan dira Añarbe aldean: Añarbeko zubia, Añarbekoa baserritik oso gertu eta Goizueta eta Orereta arteko muga egiten zuena; Añarbepetrienekoa, Oronoz zubia izeneko, eta Urraidekoak, Urraideko zubizarra eta Urraideko zubiberria izenekoak. Garrantzi handiko zubiak izan ziren, bertatik igarotzen ziren Goizueta eta inguruetatik zetozen merkantziak eta jendea». *Urraide* izeneko baserria ere bazen Oiartzunen, Nafarroako mugatik hurbil (*ibid.*, 212, 239, 271). Aitzinago (311), *Urraire baserria* sarreran, honela diote egileok: «Udalerriko hegoaldeko muturrean kokatzen zen baserria da, Añarberen [Añarbe ugaldearen] ertzean. Gaur egun bertan, baserriaren hondakin batzuk baino ez dira geratzen. Gune estratagikoan zegoenaren adierazle dira Urraireko zubizarra eta Urraireko zubiberria. Inguru horretatik Nafarroara gurutzatzen zuten bi zubien izena. Bai eta Urrairelepo ere, Oiartzungo bidean dagoen muino txikia. Zenbaitetan Urraide gisa dokumentatzen bada ere, gehienetan -r- letraz agertzen da».

³⁰⁷ 'Zahagia'.

³⁰⁸ *Erakarri* 'ekarrarazi' da. Ikus JRM (II, 61-62 eta 259).

1793 Carretero Gregorio Arotzandia
Cuenta en el mes de octubre

Carboneros

Cargas

Etxeberria viejo. Suerte de	
Basakaitz, lo de Arano	02 ³⁰⁹
Anbrusio Martikaldenekoa.	
Suerte de Basakaitz, lo de Arano	10
Esteban de Ansa. Suerte de	
Urriztixabal, lo de Arranbide	02
Anbrusio Ansanekoa. Suerte de	
Urriztixabal, lo de Arranbide	02
Gregorio de Ansa y su hermano	
Manuel Aragones. Propia	
castañal junto de Enazti	14
San Juan de Sagarzasu. Suerte	
de Añarbe.	08
Franzisku de Insauspe. Suerte	
de Añarbe.	10
Hijo de Mundrago. Suerte de	
Añarbe	08
Derecho por menas de Ereñezu 18 quintales, 0 arroba ½	
Pikoagatik Ereñezura eramantako	
burniak 12 barras.	5 quintales, 1 arroba ½
Tiki Añarbekoaren meak	
Ubarritzetan egiñak	
Añarbetik ekarriak	9 quintales, 1 arroba ½
Juan Josepe Arrantxalekoaren	
meak Ubarritzetan egiñak	35 quintales, 3 arrobas

1793 Carretero Jose Antonio de Eskudero³¹⁰
Cuenta en el mes de octubre

Carboneros

Cargas

Anbrusio Arotzandia. Suerte de	
Urriztixabal, lo de Arranbide	01 ³¹¹

³⁰⁹ Eskuinean eta peko aldean olajaunaren apunteak daude.

³¹⁰ Goizuetan 1726rako *Pedro de Escudero* lekukotzen da (NEAN, Estadística saila 4, 31).

³¹¹ Eskuinean eta peko aldean olajaunaren apunteak dauzkagu.

Gregorio de Ansa <i>y su hermano</i> Manuel Aragones. <i>Propia</i> <i>castañal junto de Enazti</i>	08
San Juan de Sagarsasu Txute. <i>Suerte de Añarbe</i>	05
Franzisku de Insauspe. <i>Suerte</i> <i>de Añarbe</i>	03
<i>Derecho por menas de Ereñazu</i>	4 quintales, 2 arrobas ½
Burniak Pikoagatik Ereñezura <i>eramanak, 6 barras</i>	2 quintales, 3 arrobas ½

Ttiki ³¹² Añarbekoaren meak Ubarritzetan egiñak <i>Añarbetik ekarriak</i>	05 quintales
Juan Josepe Arrantxalekoaren meak Ubarritzetan <i>egiñak</i>	16 quintales, 3 arrobas

1793 *Carretero* Pepe de Lukanbio
Cuenta en el mes de octubre

<i>Carboneros</i>	<i>Cargas</i>
Anbrusio Martikaldenekoa. <i>Suerte de</i> Basakaitz, <i>lo de Arano</i>	07 ³¹³
Esteban de Ansa. <i>Suerte de</i> <i>Urriztitxabal, lo de Arranbide</i>	01
Anbrusio Arotzandia. <i>Suerte de</i> <i>Urriztitxabal, lo de Arranbide</i>	07
Gregorio de Ansa <i>y su hermano</i> Manuel. <i>Propia castañal</i> <i>junto de Enazti</i>	09
San Juan de Sagarzasu Txute. <i>Suerte de Añarbe</i>	05
Franzisku de Insauspe. <i>Suerte</i> <i>de Añarbe</i>	07
<i>Hijo de Mundrago. Suerte</i> <i>de Añarbe</i>	05

³¹² Testuan beti *tiqui* izkiriaturik dago.

³¹³ Eskuinean eta peko aldean olajaunaren apunteak daude.

<i>Derecho por menas de Ereñezu</i>	07 quintales, 5 arrobas ½
Burniak Pikoogatik Ereñezura <u>eramanak</u>	<u>6 barras, 2 quintales, 4 arrobas</u>
Ttiki Añarbekoaren meak	
Ubarritzetan egiñak <u>Añarbetik</u> ekarriak	3 quintales, 2 arrobas ½
Juan Josepe Arrantxalekoaren meak Ubarritzetan <u>egiñak</u>	21 quintales, 2 arrobas ½

1793 *Carretero* Anbrusio de Zubeldia Tranpa
_____ *Cuenta en el mes de octubre*

Carboneros

Anbrusio Martikaldenekoa. <u>Suerte de Basakaitz, lo de Arano</u>	02 ³¹⁴
Anbrusio Arotzandia. <i>Suerte de</i> <u>Urriztixabal, lo de Arranbide</u>	03
Gregorio de Ansa y su hermano Manuel Aragones. <i>Propia</i> <i>castañal junto de Enazti</i>	01
Franzisku de Insauspe. <i>Suerte</i> <u>de Añarbe</u>	07
Anton Paradisu. <i>Suerte de</i> <u>Añarbe</u>	01
Anton Paradisu honen basotik olarako, sutegirako <u>ekarria</u> karga bat iduri <i>Hijo de Mundrago. Suerte</i> <u>de Añarbe</u>	05
Juan Fermiñ Iribarren. <i>Propia</i> <i>castañal junto de Agoña</i>	03
<i>Derecho por menas</i> Juan Josepe Arrantxalekoarenak Ubarritzetan egiñak. <u>Urraide</u> aldetik ekarria	1 quintal, 3 arrobas ½
Aritzederretatik ³¹⁵ ekarria <u>olarako</u> karga bat ziri.	

³¹⁴ Eskuineko aldean eta azpian olajaunaren oharrak ditugu.

³¹⁵ Ez dakigu nongo dermioa zen *Aritzederreta*. Goizuetan badira *Aritziederra* eta *Aritziederretako sarobea* aurkintzak (NTEM 47: 63).

1793.10.04. Arranbide

Nagusi jauna:

Juan Josepe Arrantxaleko³¹⁶ horrek baditu Azkoteko ubaldetik³¹⁷ lenago ekarriak, meak:

1793, junio 4an.....7 *quintales*

Eta orañ dixiduan³¹⁸ egiñ dituenak

pisatu ditugu31 *quintales*

Patxi mandazaiak³¹⁹ nahi omen luke behi aretzedun³²⁰ bat negutzeko,³²¹ ongi maneatuko duela baldin partitu al badioza.³²² Arren eta arren beurri gaztigatzeko abisatu dit, eta errespuesta bialduko dio.³²³

Juakintxo astelenetik bial dezake³²⁴ arragoa erretzera,³²⁵ denbora hau mudatu gabe³²⁶ erre dezagun.

Arranbide, octubre 4 de 1793

Ignazio Bergara.³²⁷

A Juan Bautista de Minondo.

*Que Dios muchos años [guarde].*³²⁸

Goizariñ

³¹⁶ Badirudi *Arrantxalea* (edo *Arrantzalea*, menturaz) etxe baten izena dela, baina ez dakigu nongoa.

³¹⁷ *Azkote* Goizuetako aurkintza da (NTEM, 47: 72); *ubaldetik* ‘erriberatik, erreka izkinatik’ da. Gorago «*Gorriolako ubaldean*» eta «*Dixiduko ubalde honetan*» azaltzen dira.

³¹⁸ Honetaz ikus bedi hemen 1793.09.18ko gutuna, eta JRMren 1800.01.09koa (I, 121-125).

³¹⁹ Ez dakigu *Patxiku ardamandazaia* bera den edo beste norbait.

³²⁰ ‘Behi zekorduna’, ‘txahala duen behia’.

³²¹ Hemen *neguzeco* idatzi du Ignaziok; pentsa daiteke *negureco* edo *neguraco* esan nahi zuela, ‘negurako’ alegia, baina grafia hagitx argia da, eta ez dago zalantzarik –ze– dela tarteko segida hori. Hortaz, IBk holako huts handia egin duela kontu egiten ez bada, ‘negutzeko’ ulertu beharko da hau, ‘negua igarotzeko’, alegia.

³²² ‘Partitu ahal badiezaio (berorrek)’, hots, ‘banatzen ahal badio’, ‘ematen ahal badio’.

³²³ ‘Bidaliko dio berorrek’.

³²⁴ Subjektua *beurrek* ‘berorrek’ da.

³²⁵ Ikus JRM (II, 220-221).

³²⁶ ‘Fetxa hau aldatu gabe’ iduriz, baina ‘eguraldi hau aldatu gabe’ ere izan liteke, menturaz.

³²⁷ Honen azpian badira olajaunaren zenbait apunte: «*Para las menas que hizo en Saporin (?)*», «*en la ría de Urraide*» (sic).

³²⁸ Orrialde honen akabailan eta ondokoan olajaunaren erdarazko hainbat apunte daude. Hondarreko orrialdean honela dio: «*1791. A Leonet remiti desde Arranbide con Bergara resto de los montes de Arano 42 ducados biejos día 26 de febrero dicho año*» eta «*1790. Abril 19 son las entregas de Urto*». *Ducados* –ongi ulertu badugu– hori *du* idatzirik dago.

1793.11.19. Arranbide

Nagusi jauna:

Horra Patxiku ardamandazaiaren ardoan³²⁹ asentua,³³⁰ eta hemen hartu duen burniñtxoarena,³³¹ nahi badio kontua garbitu.³³² Eta Iruñerako³³³ atererik³³⁴ dauden garrobandak³³⁵ dirade... 3 *quintales*, 16 *barras*. Burni hoiien³³⁶ eske etorriko zela esan zidan aste honetan, eta Iruñerako egiñ behar duen³³⁷ karta bial dezake haren itxera,³³⁸ edo, nahi badu, honara,³³⁹ nik emanen diot.

Anaieari eman diozkat³⁴⁰ beurrek³⁴¹ bialdu zitidan hemeretzi urretxikiak.³⁴² Eta aleroak³⁴³ eta itzaiak edo haien jornalak omen zakarten³⁴⁴ 102 *reales*, eta haienak eta bere mandoan³⁴⁵ jornalak 18 *pesos*, 7 *reales*, 18 *maravedís*. Hoiek gelditu eta sobra heldu dirala³⁴⁶...4 *pezetas* eta 4 *cuartos*. Haiek eman dizkit³⁴⁷ itzulzeko beurri,³⁴⁸ eta beste mandatari batekin bialduko ditut.

³²⁹ 'Ardoen'. *Patxiku Iribarren* zen berezko izenez ardamandazaina, beherago, azken orrialdean ikusten den eran.

³³⁰ Hitzza *asentua* da, baina *e*-aren gainean puntua idatzi du IBk, seguruenik buruan erdarazko *asiento*-rekin gurutzatu zaiolako.

³³¹ Burdinolan egiten zen burdinazko peza zenbait zatekeela. JRMk (ikus II, 248) *burnitxo* darabil.

³³² 'Ordaindu' da *garbitu* hemen. Ikus bedi hiztegiari eskaini atala.

³³³ Gutun hauetan beti *Iruñe*-oinarria edireten dugu, sekula ez *Iruña*-.

³³⁴ 'Aterarik', 'aterak'. *Atera* eta *atere* aurkitzen ditugu eskutitzotan.

³³⁵ Gero ere berriz kausitzen dugu hitz hau. Ez da, dakigula, inongo hiztegitan biltzen. Irudi du burdinolan egiten zen burdinazko peza zenbait zatekeela. 'Gurdi bandak' uler daiteke? Baietz dirudi, 1800.12.31ko gutunean *Garrobandaq* ageri baita euskaraz IBren testuan, eta *Bandas carro* erdaraz JBMk egin apuntean. 1727ko agiri batean (Melo, 1999: 757) «*En la fragua se ballan la vetarria, cigulla (sic) y banda*» azaltzen da.

³³⁶ Lehen graduko erakuslea, oker ez bagaude. Bestalde, *burni* dugu hemen, baina *burniñtxo* goraxeago, eskutitz honetan berean.

³³⁷ *Beurrek* 'berorrek' da honen subjektua.

³³⁸ Patxiku ardamandazainaren etxera.

³³⁹ Arranbidera.

³⁴⁰ *Diozkat* hemen eta *zitidan* 'zizkidan' ondoren, hots, bi pluralgile dauzkagu aditz laguntzaile berean, orainean eta iraganean, hori bai. Ikus aditz morfologiari eskaini atalean dioguna.

³⁴¹ 'Berorrek'.

³⁴² Diru baten izena da hau.

³⁴³ 'Ala edo gabarra gidatzen duen pertsona' (EH).

³⁴⁴ *Ekarri* darabil, JRMk normalean ibiltzen duen *importatu* adierazteko.

³⁴⁵ 'Mandoaren' ala 'mandoen'? Hemen irudi luke pluralizat ematea egokiagoa dela.

Ikus «*ardamandazaiaren ardoan asentua*» gutun honen hastapenean.

³⁴⁶ 'Sobran daudela'.

³⁴⁷ *Anaieak*, ustez.

³⁴⁸ 'Berorri'.

Etziko beharko ditugu olioa eta katza,³⁴⁹ eta baba ere bai, laster. Atzoko ogietan, baten ya³⁵⁰ erdia jana ekarri zidan mealle honek; Santiagok apenaz³⁵¹ jango³⁵² zuen bada.³⁵³ Arotzandiko³⁵⁴ Anbrusioren semeak entregatu zuen gaitziru baba.³⁵⁵

Arranbide, *noviembre 19 de 1793* Ignazio

A Juan Bautista de Minondo.³⁵⁶
Que Dios muchos años [guarde].

Patxiku Iribarren³⁵⁷

Goizariñ

1793.11.26. Arranbide

1793

Nagusi jauna:

Patxiku ardamandazaiak Arranbidera ekarri dituen ardo guziak dira:

9 septiembre. Karga bat ardo 11 arrobas 4½ libras **10,22**³⁵⁸

29 septiembre. Zagi bat ardo. 05 arrobas 1½ libras **4,31**

18 octubre. Zagi bat ardo 05 arrobas 12½ libras **5,,10**

25 octubre. Karga bat ardo 10 arrobas 23½ libras **10,18**½

12 noviembre. Karga bat ardo 10 arrobas 24½ libras **10,19**½

42,,5

³⁴⁹ ‘Gatza’. Goizuetan oraino ere *kátza* esaten da.

³⁵⁰ ‘Kasik’ edo ‘jada’. Goizuetan ‘kasik’ eta ‘jada’ adierazteko [já] darabilte, esan bezala.

³⁵¹ ‘Apenas’, ‘nekez’; ez zuela janen, alegia.

³⁵² Gutxitan edireten dugu *-ko* (*-go*) morfema sudurkariz bukatu aditz batekin, Arranbideko gutunotan gehiago Olaberrikoetan baino. Ikus aditz morfologiari eskaini atala.

³⁵³ Lehen bokala aski aldrebeski idatzia da, nonbait nahasi eta hasierakoaren gainean ezarri duelako.

³⁵⁴ Aranoko etxea.

³⁵⁵ ‘Gaitzeru baba’. Gaitzeruak bi lakariren heina du.

³⁵⁶ Aitzineko orrialdean olajaunaren kontu batzuk daude.

³⁵⁷ Ez dakigu xuxen noren izkirioa den, JBMrena seguruenik. Esan bezala, *Patxiku ardamandazaia* izanen zen hau.

³⁵⁸ Letra lodiz izkiriaturik dauden hauek olajaunak gutuna hartu eta gero eginikako apunteak dira. Zenbaki batzuk Ignazio Bergarak idatzitakoaren gainean daude, lekurik izan gabez.

Hoietarako hemen hartu duena da:

Perra egiteko burñintxo,
15 noviembre....11 arrobas

Arranbide, noviembre 26 de 1793

Ignazio Bergara.

Iruñerako atere diran garrobandak dirade 3 *quintales*, 16 *barras*.³⁵⁹

1793.12.02. Arranbide

Nagusi jauna:

Azkeneko arrago honetan Gregorio igelea³⁶⁰ eta horren suñari³⁶¹ Manuel aritu dira olan nasteka juaen-etorrian. Egun batzuetan juaten zen, suñari ekarrita, eta beste egun batzuetan etorri. Enfiñ, gisa horretan, nasteka, ebilli diran denbora horretan guzian egiñ diran burniak dirade...104 *quintales*, 4 *arrobas*. Eta hoietan egiñ den espensa da...190 *reales*.

Orañ hoietako irabazian espensa pagatuta konpondu dira biak: hirutatik bi irabazi, bi; librea gelditzen dena emateko Gregorioren suñari, Manueli, eta parte bat geldi dadiela Gregorio igelear[e]n zat.³⁶² Eta hoietaz gañera, tokatzen zaio Gregorio igeleari azkeneko aste honetan egiñ diraran (*sic*)³⁶³ burnian³⁶⁴ kintalajea:

30 noviembre semana...30 quintales, 3 arrobas ½, expensas 54 reales. Hoietatik Gregorio igeleak eman behar diozka Manuel Antonio Elamako urzalleari bi agoa egiñtako jorna,³⁶⁵ bi erreal, eta Manuel horren suñari *lo mismo* tokatzen zaio, lenako bi porzio horietaz gañera, azkeneko aste honetako irabazia, urzalle aritu baita. Eta aste horretan egiñ diran burniak dira:

³⁵⁹ Berriz ere *B.*^s laburtzapena dugu.

³⁶⁰ Erdarazko orrialdean, gutun honetan berean, ageri den *Gregorio Escudero* bera izanen da hau.

³⁶¹ 'Suhia'.

³⁶² Xuloa dago parentesi karratuetan sartu dugun *e* horretan.

³⁶³ *Egin diran* da hau, baina *ra* silaba bi aldiz idatzi du, lehena lerro baten bukaeran eta bestea, aurrekoaz ahantzirik nonbait, hurrengo lerroaren hastapenean.

³⁶⁴ Hemen *burnian* plurala da argi eta garbi, 'burdinen' alegia, aurreko *diran* ikusirik.

³⁶⁵ 'Egindako bi agoen jorna'.

30 noviembre semana...30 quintales, 3 arrobas ½, expensas 54 reales. Hoietaz gañera tokatzen zaio Manuel honi erremienta egiten bi eguneko jornaia, olatxoko kabiak konponzen aritu baikiñan (*sic*) bi egunean.

Orañ Manuel honek eskatzen ditu tokatzen zazkionak, nahi litukela³⁶⁶ berela,³⁶⁷ baldiñ bialzen badiozka. Horra, arragoa honetan egiñ dira[n]³⁶⁸ burnia guziak hor dira eta espensak ere bai.

Gregorio igele honek dio nahi lukeala³⁶⁹ kontua garbitu. Eta nahi badiozka kontuak egiñ, baditu olako lanetaz kanpora ikatz egiñak, bere propioak, berak egiñak: *1793*ean, *20 junioan, 12 cargas.*

Ikatz hoietan ez du berak ekarririk, karreteroak³⁷⁰ jasoak dira guziak.

Hoietarako badu santiagoetan itxerako ekarria gure basotik, Basakaizko suertetik,³⁷¹ zaku bat ikatz. Hori geldituko dio, ordaña, edo kostatzen zaiona pagarazi. Hoietaz gañera, baditu ola haundiko erremienta egiten *1½ días.*

Arranbide, *diciembre 2 de 1793*

Ignazio.³⁷²

A Juan Bautista de Minondo.

Que Dios muchos años [guarde].

Goizariñ

³⁶⁶ Bitan *litukeala* daukagu idazkiotan eta behin –oraingo hau– *litukela*. Ikus aditz morfologiari eskaini atala.

³⁶⁷ ‘Berehala’.

³⁶⁸ Ez da *n* hori ongi ikusten.

³⁶⁹ Erka bedi arestiko *nabi litukela* ‘nahi lituzkeela’-rekin.

³⁷⁰ JRMk (II, 311) *karraiadore*, *karraidore* edo *karreadore* darabiltza arruntean, eta behin *karromatodun*. IBk *karraiadore* eta *karretero* darabiltza.

³⁷¹ *Basakaitz* hau Aranoko toponimoa zela dirudi. Goizuetan *Basakatxiki* eta *Basakaundiko erreka* ditugu (Etxeberria, 1988: 89 eta NTEM 47: 73), baina ez *Basakaitz*-ik, dakigunez. Dena dela, *Basakatxiki* horren azpian *Basakaitztxiki* ezkutatzen dela kontu egitea ez da soberakina izanen. Irunen eta Berastegin bada *Basakaitz* izeneko aurkintza (EJ), eta Nafarroako Arantzán ere bai (NTEM 40: 38).

³⁷² Honen ondoan olajaunaren apunteak eta kontuak jasotzen dituen orrialdea dago, erdaraz idatziak denak, eta goian *Gregorio Escudero* ageri da. Hauek aipa daitezke: «*corresponde una tercia parte*», «*abono 30 quintales, 3 arrobas½ fierro*», «*abono 12 cargas carbon [...] con deducion de un saco que trajo de mi lantegui*», «*abono 2 dias haciendo remientas*».

1793. Arranbide

Jaime Goizueta

1793 *Cuenta* Jaime de Goizueta *fundidor*

Honen denborako burniak beren espensakiñ:

<u>01 febrero semana</u>	5 quintales, 2 arrobas ½.	Expensas 49 reales
<u>09 febrero semana</u>	23 quintales, 4 arrobas	28½
<u>09 marzo semana</u>	14 quintales, 3 arrobas ½	58
<u>16 marzo semana</u>	28 quintales, 1 arroba	52½
<u>23 marzo semana</u>	12 quintales, 0	43½
<u>30 marzo semana</u>	28 quintales, 3 arrobas ½	27
<u>13 abril semana</u>	09 quintales, 3 arrobas ½	22
<u>20 abril semana</u>	10 quintales, 4 arrobas	55
<u>27 abril semana</u>	23 quintales, 5 arrobas ½	25
<u>04 mayo semana</u>	18 quintales, 3 arrobas	56
<u>08 mayo semana</u>	46 quintales, 3 arrobas ½	19½
<u>22 junio semana</u>	16 quintales, 3 arrobas ½	59½
<u>28 junio semana</u>	13 quintales, 4 arrobas	41
<u>06 julio semana</u>	26 quintales, 5 arrobas ½	50
<u>13 julio semana</u>	55 quintales, 3 arrobas	51½
<u>24 agosto semana</u>	20 quintales, 0	43
<u>31 agosto semana</u>	31 quintales, 0	51
<u>07 septiembre semana</u>	29 quintales, 3 arrobas	54
<u>14 septiembre semana</u>	32 quintales, 0	52½
<u>18 septiembre semana</u>	13 quintales, 5 arrobas	28½

Hoietaz gañera baditu olatxoko

erremienta egiten

27 abril semana 2 días

Vuelta

1793. *Cuenta* Jaime de Goizueta *fundidor*

Ola haundiko kabiguñ bat sartua

Hoietaz gañera baditu haxiak³⁷³ Arranbiden

³⁷³ Originallean *Asiaq* dago idatzirik.

egiñak 14 agosto semana 23 arrobas
Taia txikiko ardoak ditu 6 pintas³⁷⁴

1794.01.14. Arranbide

Nagusi jauna:

Patxiku ardamandazaia³⁷⁵ horrek ekarri zituen ardoan eta hartu zituen burniñtxoan asentua³⁷⁶ bialdu nion *noviembre*an. Eta geroztik honara bialdu dituen ardoak dirade, Urraiden utzia: ³⁷⁷

5 diciembre zagi bat ardo. 5 arrobas, 15 libras

1794

Goizuetatik Yakua³⁷⁸ Labekoak³⁷⁹ ekarriak:

13 enero zagi³⁸⁰ bat ardo. 5 arrobas, 04 libras

14 enero zagi bat ardo. 5 arrobas, 16½ libras

Hoiak dira nik beurri³⁸¹ horren asentua bialdu ezkeru ekarri dituenak.

Arranbide, enero 14 de 1794

Ignazio Bergara.³⁸²

³⁷⁴ Honen azpian olajaunaren oharrak eta kontuak dauzkagu.

³⁷⁵ 1793ko gutunetan ere agertzen da *Patxiku ardamandazaia*, hots, 'ardo garraioan ibiltzen zen Patxiku mandazaina'. Bestalde, JRMk bezala, IBk ere batzuetan -a artikulua eta erakuslea darabiltza, biak batean, egungo hizkeran holakorik izaten ez bada ere. Ikus JRM (II, 2 eta 3).

³⁷⁶ 'Ekarri zituen ardoen eta hartu zituen burdintxoan asentua'. Aditzak garbi uzten du *ardoan* eta *burdintxoan* ulertu behar dela, pluralean. Ez dakigu truke egiten zuten (ardo burdintxoan ordainetan) edo bidaia ongi aprobetxatzeko zamaturik egiten zuen joan-etorria, trukerik egin gabe alegia. *Asentua* bestalde, egiten den transakzioa idatziz paratzea besterik ez da, gero gauzak garbi egoteko, oroimenak huts egiten baitu. Kontabilitatea da hau, azken funtsean. Ikus JRM (II, 224).

³⁷⁷ Hemen *Urraiden utziak* espero genuen, pluralean. *Urraide* dela eta, ikus 1793.10eko gutunean dioguna. Testuaren barnean eta bazterrean olajaunaren apunteak dauzkagu.

³⁷⁸ Y-rekin idatzia, hasierako soinua palatala zela adierazteko. Beste batzuetako *Jakue* bera da, *Santiago* alegia.

³⁷⁹ Goizuetako *Labea* etxeokak eramanak. Oraindik ere hola ibiltzen da.

³⁸⁰ 'Zahagi bat ardo', bistan da.

³⁸¹ 'Berorri'.

³⁸² Honen segidan JBMren apunte bakan batzuk daude.

1794.02.04. Arranbide

Nagusi jauna:

Murgioko bi [i]tzaiak³⁸³ hemen hartu dituzten diruak dirade:

1792an agosto ezker hartuak:

14 octubre Jose Antonio Beloki 4 orillos viejos

03 noviembre 1 orillo viejo

1793an

12 julio 10 pezetas

25 noviembre 10 pezetas

06 diciembre 10 pezetas

Hoiek dira Jose Antonio Beloki Murgiokoarenak.³⁸⁴

Jose Antonio de Aroztegik hartuak:

1793an

12 julio 10 pezetas

14 diciembre 02 orillos viejos

Hoiek dira Murgioko bi itzai horiek, abuztu joan denean³⁸⁵ urtebete ezker, hemen hartu dituzten diruak. Lenagokoak bialdu niozkan.

Astiarratarrik atzo iñor izandu ez da,³⁸⁶ ez dakigu gaur; etorriko al da nor edo nor!³⁸⁷

Vuelta

³⁸³ Originalean *bi Zayaq* dago; jakina da ahozko hizkeran, maiz, ondoko hitzetan bokala errepikatzen delarik, biak batzen direla, hemen bezala. Gutun honetan berean, dena dela, *bi Yzai orieq* dago beherago.

³⁸⁴ Ez dakigu *Murgio* hau nongo etxea edo baserria zen. Mutiloan bada *Murgiondo* eta Oñatin *Murgiolatza*. Denboraz, Mutiloan *Murguiaran* ere bazen, *Murguiondo*-z landara (NOPGI, 29), eta Oñatin *Murguialday* (*ibid.*, 134). Ikus gorago (1792.06.11) dioguna.

³⁸⁵ 'Joan den abuztuak'.

³⁸⁶ Bi gauza berezi daude hemen, egungo ikuspuntutik so eginik: alde batetik *AN* + *ez* + *AL* hurrenkera, eta, bestetik, *atzo*-rekin batean orain burutua agertzea, ez iragan burutua. Honetaz ikus JRM (I, 41-42 eta 57-59).

³⁸⁷ 'Etorriko ahal da nor edo nor!' Hau iruditzen zaigu irakurtzeko erarik egokiena.

Nik bigar³⁸⁸ agertu hobeko dut Astiarragara, agertu hobeko dut norbait erakarri al baneza.³⁸⁹ Denbora honek mostra ona harzen du,³⁹⁰ bideak txukatu³⁹¹ litezke laster, eta agertu behar dut.

Santiagok ekarri ditu hamalau [o]gi³⁹² eta gaitzuru bat baba.³⁹³

Arranbide, *febrero 4 de 1794*

Ignazio.

A Juan Bautista de Minondo.

Que Dios muchos años [guarde].

Goizariñ

1794.05.27(A). Arranbide

Nagusi jauna:

Anaieak³⁹⁴ esan zidan aste honetan etzela³⁹⁵ posible bialzea mandoak, datorren astean lau edo bost jorrada eragin zitzakeala, baña jai ondoan ere ikatzetan ebilli beharko zutela puxkaren³⁹⁶ batean. Astiarragako itzaiak denbora ona denean enbarguaren³⁹⁷ aitzakia dute, eta euria denean denbora txarrarena. Bada, nik ez ongi esanarekin eta ez gaizki esanarekin ezin baliatu naiz, eta nik ez dakit zer egi[n] dezakedan.³⁹⁸ Mandoren batzuek paratu artean ezkera baliatuko.

³⁸⁸ ‘Bihar’.

³⁸⁹ ‘Ekarrarazten ahal banu’, ‘ekarraraz banezake’. ‘Hobeko dut agertu, ea norbait ekar dezakedan’.

³⁹⁰ ‘Eguraldi honek itxura ona hartzen du’, ‘eguraldi hau itxura ona hartzen ari da’. Berriz ere egun ekialderagokoa den *denbora* ‘eguraldia’ daukagu.

³⁹¹ ‘Lehortu’, ‘idortu’. Harrigarria da, gaurko ikuspuntutik, orain Imotz aldean ibiltzen den *txukatu* hori IBren gutunetan aurkitzea.

³⁹² Originalean *gui* dago, hastapeneko bokala eskas duen forma.

³⁹³ JRMk *gaitziru bat baba* dauka, hots, *gaitziru* darabil, eta IBk, berriz, *gaitziru* eta *gaitzuru*.

³⁹⁴ IBk ere, JRMk gehienetan bezala, *anaie* darabil.

³⁹⁵ Testuan *Ezela* dago.

³⁹⁶ Originalean *pub Caren* dago.

³⁹⁷ Ez dakigu zer enbargo den hau (*enbargua* gure testuan, *-u*-rekin); kontuan eduki bedi Komentzioaren gerla garaia dela. Gero *erregimentua* aipatzen da.

³⁹⁸ Originalean *eguidezaquedan* dago.

Jai ondoko astean erre beharko degu arragoa. Aranoar hoiek badabillza, baña nik Urraide³⁹⁹ aldean egiten diran ikatz puxka⁴⁰⁰ hoiek sartu nahi nituke iñork eraman gabe.⁴⁰¹ Eta Ereñezutik ere mea pixka⁴⁰² bat erakarri nahi nuke, baña hemen abere gutxi dago, nahiagatik ere.⁴⁰³

Aranoko erregimentuak⁴⁰⁴ bialdu digu baba,⁴⁰⁵ haiek etorri orduko egosi dezagula. Etorriko dira bihar,⁴⁰⁶ eta ogi batzuek bialdu bitza bigar goizean goiz; ez degu batere.

Arranbide, *mayo 27 del 1794*

Ignazio.

1794.05.27(B). Arranbide

Nagusi jauna:

Aleroak ate[ra]⁴⁰⁷ zuten mea, ehun bat kintal iragoa.⁴⁰⁸ Gaur etorriko omen ziran (*sic*) berriz, eta gaurko jorradarekiñ izanen dute berrehun bat kintal, gutxi gorabera. Nik gaztigatu dut orañ presentean aski degula, eta zenbat kintal duten bialzeko arrazoia, eta dirua bialduko degula.⁴⁰⁹ Hau aztu zait kartan paratzea.

Arranbide, *mayo 27 de 1794*

Ignazio.

³⁹⁹ Ikus 1793.10eko gutuna.

⁴⁰⁰ Hemen ere *b* dago originalean egungo *x* adierazteko (*pubCa*).

⁴⁰¹ 'Inork eraman baino lehen'.

⁴⁰² Originalean *Pib Ca* daukagu.

⁴⁰³ 'Nahi izanik ere', 'abereak nahi baditugu ere'.

⁴⁰⁴ 'Aranoko erregimentuak'. Ez dakigu soldadu erregimentua den, Aranoko udalbatza (*gobernua*, alegia), edo beste zerbait.

⁴⁰⁵ Zentzu generikoan erabilirik dago, ikusten den eran, *baba* hori hemen.

⁴⁰⁶ Originalean *biar*, eta ondoko lerroan, segituan, *bigar*.

⁴⁰⁷ Originalean *ate* besterik ez dago, baina bistan da *atera* edo *atera* behar duela.

⁴⁰⁸ 'Igaroa', 'pasatua'.

⁴⁰⁹ Hau honela ere irakur daiteke: «*eta zenbat kintal duten bialzeko, arrazoia eta dirua bialduko degula*». Era batera izan edo bestera, iduri luke «*zenbat kintal dituzten*» behar lukeela. *Arrazoia* hori idazkia da, bistan da.

1794.05.31. Arranbide

1794

Nagusi jauna:

Patxiku ardamandazaiak kontuak egiñ ezkerro ekarri dituen ardoak dirade:

09 febrero 10 arrobas y 29 libras, 10 cántaros 24⁴¹⁰
09 marzo 5 arrobas...26 libras, 5 23½
24 marzo 4 arrobas...28 libras, 4 23
07 abril 4 arrobas...25 libras, 4 20
17 abril 5 arrobas...07 libras, 5 4½
01 mayo 4 arrobas...33 libras, 4 28¹
16 mayo 4 arrobas...14 libras, 4 9
31 mayo 5 arrobas...12 libras, 5 9½¹

Hoiiek dira ardo guziak.

Eta burnia eramanak ditu:

9 marzo 1 quintal, 3 arrobas
19 abril 2 quintales, 0.

Arranbide, mayo 31 de 1794

Ignazio.

(5 (2⁴¹¹

30 Junio 5 arrobas, 10 libras 5 7½
11 Julio 5 arrobas, 33 libras 4 28
22 Julio 5 arrobas, 8 libras 5 5½

60, 22½

Garrobanda⁴¹² hartu duen burnia⁴¹³ 8 arrobas, 18½ libras

⁴¹⁰ Beste izkirio batekin idatzi hauek olajaunak, gutuna hartutakoan, erantsi zituenak dira.

⁴¹¹ Olajaunaren zenbaki hauek hurrengo lerrokoekin loturik daudela dirudi.

⁴¹² Burdinolan egiten zen peza da hau, ‘gurdi banda’ iduri duenez, zer ere baitzen hau. Beste batzuetan ere ageri da hitza; ikus gorago (1793.11.19) esan duguna eta 1800.12.31ko eskutitza.

⁴¹³ ‘(Patxiku ardamandazainak) hartu duen garrobanda burdina’ edo ‘garrobanda egiteko hartu duen burdina’.

1794.07.01. Arranbide

Nagusi jauna:

Mundragoren⁴¹⁴ semeak ekarri zuen Añarbetik karta hori eta ni egondu⁴¹⁵ naiz kontu harzallearekin, eta honek ez du esaten ez hoiengatik egiña dela ikatza, eta ez ez dela. Gauzarik onena izan da, noski, ikatz hoiengatik ordainzea eta konpon ditzala berak, izan ez dezaten errezelarik. Horra, adituko du⁴¹⁶ karta horretan zer esaten dion, eta daritzana⁴¹⁷ egiñen du.

Arranbide, *julio 1 de 1794*

Ignazio.

1794.07.05. Arranbide

Nagusi jauna:

Sebastian Etxeberriak kontuak egiñ nahi litukeala dio, eta horrara bialdu niozkan hiru hillabeteko asentuak, beurrek abisaturik, eta hemen daude beste hiru hillabetekoak. Beurrek nahi duenean bialduko diozkat, abisa naza⁴¹⁸ noiz nahi duen.

Ogiak eskas ditugu apalogitako,⁴¹⁹ eta bialdu bitzate ogi batzuek mutill horrekiñ.

⁴¹⁴ *Mundrago* hau lehen ere (1793.10) atera da. Esan dugun eran, Arrasatekoa zatekeen edo Arrasatearekin harremana zukeen norbaiten goitizena da.

⁴¹⁵ *Egondu*-ren tarteko *-on-* hori ez da erabat garbi ageri.

⁴¹⁶ 'Beraz, ulertuko / adituko du (berorrek)'. *Horra* hori hurrengo gutunean ageri den *borrara*-tik bereizi behar da, harridura edo aurkezpenekoa baita, eta *borrara* aldiz adlatiboa. *Aditu* 'ulertu' izan daiteke, edo 'aditu, entzun' (ikus JRM, II, 205). Hemen bata zein bestea izan daiteke, izkribua goraki irakurtzeko ohitura bazuten segurik.

⁴¹⁷ 'Iruditzen zaiona eginen du (berorrek)'. IBk *deritzena* eta *daritzan(a)* darabilta, adiera berarekin. Ikus hiztegi *iritzi* sarrera.

⁴¹⁸ 'Jakinaraz biezat berorrek'. Bitxia da adizki biluzia kausitzea, hots, ez *-n*-rik (*nazan*) eta ez bestelako menderagailurik (*nazala*, adibidez) ez daraman forma. Elkanoko Lizarragak holakoetan *benaza* ibiltzen du: «*Jauna, guardabenáza*», «*arbez bere gurútea, ta seguibenáza ni*» (1994: 34, 40).

⁴¹⁹ Irudi du 'afari ogitako' esan nahi duela.

Goizuetako itzaiak etorri ziran, Xixtero⁴²⁰ eta Pellobaztanenbordakoa,⁴²¹ eta haiekiñ bialdu ditut bederatzi kiñtal eta erdi burnia. Bialdu nion Jabierri txartela zeñek zenbat zaraman.

Arranbide, *julio 5 de 1794*

Ignazio.

1794.07.24. Arranbide

1794.

Nagusi jauna:

Patxiku ardamandazaiak kontuak egiñ ezkerodituen ardoak dirade:

<u>9 febrero.</u> Karga bat ardo	10 arrobas, 29 libras, 10, 24 ⁴²²
<u>9 marzo.</u> Zagi ⁴²³ bat ardo	05 arrobas, 26 libras, 5, 23½
<u>24 marzo.</u> Zagi bat ardo	04 arrobas, 28 libras, 4, 23
<u>07 abril.</u> Zagi bat ardo	04 arrobas, 25 libras, 23, 20
<u>17 abril.</u> Zagi bat	05 arrobas, 07 libras, 5, 4½
<u>01 mayo.</u> Zagi bat ardo	04 arrobas, 33 libras, 4, 28
<u>16 mayo.</u> Zagi bat ardo	04 arrobas, 14 libras, 4, 9
<u>31 mayo.</u> Zagi bat ardo	05 arrobas, 12 libras, 5, 9½
<u>30 junio.</u> Zagi bat ardo	05 arrobas, 10 libras, 5, 7½
<u>11 julio.</u> Zagi bat ardo	04 arrobas, 33 libras, 4, 28
<u>22 julio.</u> Zagi bat ardo	05 arrobas, 08 libras, 5, 5½

Ardo hoietan guzitan dirade Goizuetatik Tranpak⁴²⁴ ekarriak hiru zagi, eta Txurdankikoak⁴²⁵ Urraidetik⁴²⁶ ekarria zagi bat. Hoietaz gañera, baditu olakoak gonbidatzeko hartuak bi pinta ardo.

⁴²⁰ Itzainaren goitizena. Originalean *Sistero* dago, baina uste dugu *Xixtero* irakurri eta idatzi behar dela, aitzineko *Zestero* ‘saskigilea’ batetik ziurrenik. Hain segur etxe izena dagoke oinarrian, baina ez dakigu nongoa.

⁴²¹ Goizuetako borda. Ikus Perurena, Salaberri eta Zubiri (2011: 160).

⁴²² Beste letra batekin izkiriatu hauek olajaunaren apunteak dira.

⁴²³ ‘Zahagia’.

⁴²⁴ *Tranpa* deritzanak, *Tranpa* izengoitia duenak.

⁴²⁵ *Txurdangi* Aranoko etxea da. Gure gutunean, dena dela, argi eta garbi <qu> dago, egungo <k> alegia. Ikus Salaberri (2009: 139).

⁴²⁶ Ikus gorago (1793.10) esan duguna.

Burnia hartuak ditu:

9 marzoan hartuak. 1 *quintal*, 3 *arrobas*

19 abrilean hartuak 2 *quintales*

11 julioan hartuak 1 *quintal*, 2 *arrobas* 18 *libras Garrobanda* / *das*⁴²⁷

Arranbide, *julio 24 de 1794*

Ignazio Bergara.

1795

9 *diciembre (sic)*, Fermin de Unsari⁴²⁸ 5 *arrobas*, 21 [*libras*]⁴²⁹

A Juan Bautista de Minondo.

Que Dios muchos años [guarde].

Goizariñ

1794_1795. Arranbide

Nagusi jauna:

Gregorio de Eskudero igeleak olan egiñ dituen lanak edo burniak dirade:

1794an egiñak

Expensas

25 enero semana. 4 *quintales*, 2 *arrobas*. 49½ *reales*

01 febrero semana 2 *quintales*, 1 *arroba* ½ 58 *reales*

08 febrero semana 76 *quintales*, 2 *arrobas* ½. 46½ *reales*

22 febrero semana 04 *quintales*, 4 *arrobas*. 51½ *reales*

28 febrero semana 52 *quintales*, 0 *arrobas* ½. 46 *reales*

⁴²⁷ Hau da, hartu zituen burdinak garrobandak (honetaz ikus 1793.11.19, 1794.05.31 eta 1800.12.31) ziren; iduri du olajaunak bakarra zen edo gehiago ziren ez zuela guziz garbi, baina, nolana ere, hitza hiru lerrotan izkiriatua da, eta ez da erabat adierazpen argia. Beste letra mota batekin idatzitako hauek JBMk gutuna hartu eta gero eginikako apunteak izaten dira.

⁴²⁸ Goizuetako baserria dugu *Untxari*. Dokumentazioa (Perurena, Salaberri eta Zubiri, 2011: 187) eta gutun hau ikusirik, garbi azaltzen da denboran ts zeukala oikonimoak, hau da, *Untsari* (*Ontsari*) esaten zela, ez *Untxari*.

⁴²⁹ Ez dakigu *libras* den edo beste zer bait. Lehen letra (*L*) besterik ez dago.

<u>05 abril semana</u>	09 quintales, 0 arrobas ½.	54 reales
<u>12 abril semana</u>	08 quintales, 1 arroba	56 reales
<u>19 abril semana</u>	20 quintales, 4 arrobas ½.	29½ reales
<u>26 abril semana</u>	49 quintales, 4 arrobas ½.	25 reales
<u>02 mayo semana.</u>	01 quintal, 1 arroba	32 reales
<u>10 mayo semana.</u>	34 quintales, 0 arrobas ½.	34 reales

Hoiek dira burniak eta espensak.

Abono a la vuelta. 226 quintales, 4 arrobas 482⁴³⁰

Hoietaz gañera baditu ikatzak bere propioak:

1794. Hasta 29 marzo 12 cargas enteras

1795. Hasta 09 septiembre 04 cargas enteras

Ikatz hoietan⁴³¹ lenbiziko hamabi karga horien karretoko porteak ondu beharrak izanen dira nerekiko.⁴³² Enfin, hill horretako asentuan jakiñen du. Beste lau karga horiena hilleko asentuan paratua da.

Vuelta

Gregorio de Eskudero *tirador* horren diru hartuak:

1794. Hasta 3 abril 15 pesos duros⁴³³

1795. Hasta 23 diciembre. 40 pzetas

Hoietaz gañera, *junio*koa espensa bat eta taia txikiko ardoak...1½ pintas.

Hoiek dira horren lanak eta hemen hartuak guziak.⁴³⁴

⁴³⁰ JBMren apunteak dira beste letra batekin idatzitako hauek.

⁴³¹ Iduri du hemen 'hauetan' adierazi nahi dela, gero *horien* heldu baita.

⁴³² 'Niri ordaindu beharko zaizkit?' Seguruenik 'nire ustez', 'nerekiko pentsatzen dut'-edo izanen da.

⁴³³ Badirudi *ezkutu lodi*-ren erdarazko baliokidea dela. Ikus JRM (II, 272).

⁴³⁴ Badaiteke «*hemen hartuak, guziak.*» puntuatu behar izatea, baina zenbaitetan, JRMk bezala, sintagmako osagai guzietan paratzen du IBk artikulua. Bazterrean eta azpian olajaunaren oharrak eta kontuak ditugu.

1795.08. Arranbide

Manuel Etxeberria maxterrak⁴³⁵ ekarri dituen meak dirade 81 *quintales*, 0 *arrobas* ½.

A 1 real^{1/4} importan 12 pesos, 5 reales, 13 maravedís⁴³⁶

1795 agosto 16 pagué

Martin de Tellitxeak leneko kontua pagatu ezkerro ekarri dituenak.....46 *quintales*, 00....

A 1 real^{1/4} importan 7 pesos, 1 real, 18 maravedís

1795 agosto 16 pagué

Gregorio de Eskudero igeleak ekarri dituen meak.....76 *quintales*, 000....

A 1 real^{1/4} importan 11 pesos, 7 reales

1795 agosto 16 pagué.

1795

Agosto – Arranbide

*Apuntes menas negras*⁴³⁷

1795.08.08(A). Arranbide

1795

Nagusi jauna:

Ignazio de Erbitik Urraiden, Ubarritzetan,⁴³⁸ egin dituen meak dirade 9 *quintales*, 2 *arrobas*.

Arranbide, agosto 8 de 1795

Ignazio Bergara.

⁴³⁵ Originalean *Mahterraq* idatzirik dago. Ez dakigu *maxter* hori izen arrunta den ('maizterra', 'etxetierra', 'etxezaina') edo hor barna (izan) diren *Maizterrarena*, *Maxterrarena*, *Maxterranea*, *Maxterranea* etxe ugarietako baten jabea, semea, bertan jaioa dena. Bigarren kasuan *Maxterrak* izkiriatu behar genuke, letra larriz.

⁴³⁶ Olajaunak egindako apunteak dira beste izkirio batekin idatzi hauek.

⁴³⁷ Hauek olajaunaren oharrak dira. Euskaraz *mea beltzak* ziren; ikus JRM (II, 330).

⁴³⁸ Honetaz ikus gorago (1793.10) esan duguna. Ematen du *Ubarritzeta* aurkintza *Urraide* Oizartzungo baseritik hurbil zegoela, erreka ondoan seguruenik.

1795.08.08(B). Arranbide

Nagusi jauna:

Juan Josepe⁴³⁹ Arrantxalekoaren⁴⁴⁰ beraren meak, bere propioak, Ubarrizetan eta Karamalkatan⁴⁴¹ egin dituen guziak dirade.....85 quintales, 2 arrobas. Con lleva 79 quintales, 5 arrobas

Suñak eta biak erdi bana dituztenak72 quintales, 1 arroba ½⁴⁴²

Hoiak guziak llebarik gabe⁴⁴³ pisatuak dira.

Arranbide, agosto 8 de 1795

Ignazio de Bergara

1795

Juan Pello Bexinok⁴⁴⁴ Ubarrizetan,⁴⁴⁵ Azkoteko ubaldean⁴⁴⁶ eta Urraiden eginta⁴⁴⁷ dituen meak dira:

31 julio31⁴⁴⁸ quintales

⁴³⁹ Daitekeena da *Juan Joxepe* izatea, arazoak baititu IBk euskararen txistukariak izkribuz irudikatzen. Ikus grafiaren inguruko atala eta gutun honetan berean *Bexino*-z dioguna.

⁴⁴⁰ Beti *ch*-rekin idazten du IBk *Arranchale* hau, eta, beraz, egungo <tx> sabaikaria dugula ulertu beharko da, seguruenik deizioak hipokoristiko balioa duelako.

⁴⁴¹ Beharbada Goizuetako egungo *Karamaldiko bizkarra* eta *Karamendi* toponimoekin lotua egon da.

⁴⁴² Honen eskuinean eta peko aldean olajaunaren apunteak eta eragiketak daude.

⁴⁴³ Gaztelaniako *lleva* 'acción y efecto de llevar' (RAEren hiztegiaren arabera) dugu elea. Gutun honetan berean, goitixeago eta erdaraz, «con lleva» dago. Iduri du lehenago noizbait eraman dena kontatuta, kenduta, egiten den kalkulua dela: gaztelaniazko goraxeagoko horretan 85 kintal eta 2 arroa izanik ere, bakarrik 79 kintal eta 5 arroa egin dituela kontatzen zaio Arrantxalekoari, nonbait lehenago kintal bakan batzuk eraman dituelako.

⁴⁴⁴ Originalen *Bechinoq* idatzirik badago ere, *Bexinok* (erg.) irakurri beharko da. Deitura izan daiteke, edo etxe izengoitia. Goizuetatik urrunko, Aezkoako Abaurregainean, bada *Bexinorena* (*Be.xi.nói.na* ebakia, orain) izeneko etxea, aspalditik (1726rako hor zen), eta bertakoen etxe izengoitiak *Bexino*, *Bexino zárra* (giz.), *Bexinósa*, *Bexinósa zárra* (em.) dira, Iñaki Caminok dioskunez (a.a.).

⁴⁴⁵ Iduri du *Ubarrizeta* hau Goizuetako aurkintza zela, Urraide aldean zegoena. Ikus lehenago (1793.10) esan duguna.

⁴⁴⁶ Goizuetako aurkintza da *Azkote*; *ubalde*-ren kariaz, ikus gorago (1793.09.18) esan duguna.

⁴⁴⁷ Buakaerako *ta* hori belztua dago, berariaz, oker ez bagaude.

⁴⁴⁸ 34 ere irakur daiteke.

Hoiek guziak llebarik gabe pisatuak dira.

Arranbide, agosto 8 de 1795

Ignazio Bergara.

1795.10. Arranbide

1795 Carretero Franzisku Antonio de Leonet⁴⁴⁹

Cuenta en el mes de octubre

Carboneros

Cargas

Hijo de Mariola.⁴⁵⁰ Suerte de

Goizariñ, junto de Epela⁴⁵¹ 29

Pello Haundiarena. Suerte de

Goizariñ, junto de Epela. 06

Sebastian Etxeberriaren suña.

Suerte de Añarbe, junto de

Agoña. 20

Domingo Bizente y su hermano

Suerte de Añarbe, junto de Agoña 06

Derecho por menas Juan Josepe

Arrantxalekoarenak⁴⁵²

Azkoteko ubaldetik 8 quintales, 4 arrobas

⁴⁴⁹ Testuan olajaunaren zenbait ohar eta eragiketa ditugu.

⁴⁵⁰ Erretereriako etxea. Ikus JRM (II, 191). Seguruenik *Mariola* etxean sortutakoari *Mariola* deituko zioten, eta hemen 'Mariolako semea' ez, baizik 'Mariola etxean sortutakoaren semea', 'Mariola etxe izengoitia duenaren semea' esan nahiko da.

⁴⁵¹ Goizuetako aurkintza dugu *Epela*; egun *Epelaldea*, *Epeleko erreka* eta *Epeleko zokoa* ditugu (NTEM 47: 86). *Epela* Hernaniko burdinola ere bazen (Díez de Salazar, 1997: 85 eta hurr.), Ereñotzu ondokoa, baina hemengoa *Goitzarin* aldean zegoela ematen du. Gero, dena dela, *Arranbide*-rekin batean agertzen da zenbaitetan.

⁴⁵² Aitzinago, eskutitz honetan bertan, *Juan Josepe Arrantxale* daukagu, eta, beraz, etxea *Arrantxalea* zela kontu egin beharko dugu.

<i>Derecho</i> Pelipe de Altamira	
Igeletxeakoarenak ⁴⁵³	3 quintales, 2 arrobas
<i>Derecho por menas de</i>	
Ereñezu	3 quintales, 0 arrobas ½

1795 Carretero Gregorio de Eskudero⁴⁵⁴
 Cuenta en el mes de octubre

Carboneros

Cargas

<i>Hijo de Mariola. Suerte</i>	
<i>de Goizarin, junto de Epela</i>	17
Pello Haundiarena. <i>Suerte</i>	
<i>Goizarin, junto de Epela</i>	07
Sebastian Etxeberriaren	
suñarena. <i>Suerte de</i>	
<i>Añarbe, junto de Agoña</i>	09
Domingo Bizente <i>y su</i>	
<i>hermano. Suerte de Añarbe,</i>	
<i>junto de Agoña</i>	12
<i>Derecho por menas</i> Juan Josepe	
Arrantxalekoarenak,	
Azkotetik ⁴⁵⁵ ekarriak	2 quintales, 4 arrobas
<i>Derecho</i> Pelipe de Altamira	
Igeletxeakoarenak	1 quintal, 3 arrobas

⁴⁵³ *Altamira* edo *Arrabatenea* Goizuetako etxea zen; ikus Perurena, Salaberri eta Zubiri (2011: 37, 42). Beste batzuetan *Pelipe de Altamira Igelekoarenak* ageri da. Badirudi, alabaina, *Igeletxea* zela etxearen izena, ‘igelearena’ alegia. Oker ez bagaude, Goizuetako etxe izenen gaineko lanean (Perurena, Salaberri eta Zubiri, 2011: 101) *Ieletxo* eman genuen bera da hau. Gutunotako datuak ikusirik, bestalde, iduri du etimologia azalpena aipatu lanean baino argixeago dagoela orain: *igele* + *etxe* izanen dira osagaiak. Kokalekuari dagokionez, aipatutako liburuaren arabera, «Untxalo edo Lujanbioren etxeari itsatsia zegoen, eta beste aldetik Barbarenea zegoen». *Altamira* Oiartzungo baserria ere bada (Goikoetxea eta Lekuona, 2007: 59).

⁴⁵⁴ Testuan olajaunaren zenbait ohar eta eragiketa ditugu.

⁴⁵⁵ Originalanean *Azco* / *Coteti*q dago, bi lerrotan idatzirik.

1795 Carretero Anbrusio de Eskudero⁴⁵⁶

Cuenta en el mes de octubre

Carboneros

Cargas

Hijo de Mariola. Suerte de

Goizarin, junto de Epela. 23

Pello Haundiarena. Suerte de

Goizariñ, junto de Epela. 07

Sebastian Etxeberriaren

suña. Suerte de Añarbe,

junto de Agoña 07

Domingo Bizente y su

hermano. Suerte de Añarbe,

junto de Agoña 04

Derecho por menas Juan Josepe

Arrantxalekoarenak,

Azkoteko ubaldetik 4 quintales, 1⁴⁵⁷ arroba

Derecho Pelipe de Altamira

Igelekoarenak⁴⁵⁸ 4 quintales, 1 arroba ½

1795 Carretero Jose Antonio de Eskudero⁴⁵⁹

Cuenta en el mes de octubre

Carboneros

Cargas

Hijo de Mariola. Suerte de

Goizariñ, junto de Epela. 23

Pello Haundiarena. Suerte de

Goizariñ, junto de Epela. 05

Sebastian Etxeberriaren suña.

Suerte de Añarbe, junto de

Agoña 12

Domingo Bizente y su hermano.

Suerte de Añarbe, junto de

Agoña 06

⁴⁵⁶ Testuan badira JBMren ohar eta eragiketa batzuk.

⁴⁵⁷ Originalean IBk idatzitako 3-aren gainean JBMk 1 izkiriari du.

⁴⁵⁸ Gorago, gutun honetan berean, *Pelipe de Altamira Igeletxeoarenak* daukagu, egungo grafian emanik. Hots, *Igelekoarenak* eta *Igeletxeoarenak* ageri dira.

⁴⁵⁹ Testuan olajaunaren zenbait ohar eta eragiketa ditugu.

Derecho por menas Juan Josepe
 Arrantxalokoarenak.⁴⁶⁰
Azkoteko ubaldetik 4 quintales, 2 arrobas
Derecho por menas Paskoal
 de Iribarren. *El*
monte de Arano 1 quintal, 3 arrobas

1795 Carretero Sebastian de Etxeberria⁴⁶¹

Cuenta en el mes de octubre

Derecho por menas de Ereñezu 14 quintales, 0
Derecho por menas de Paskual
 de Iribarren. *El monte de*
Arano 04 quintales, 0 arrobas ½

1795 Carretero Manuel de Etxeberria⁴⁶²

Cuenta en el mes de octubre

<i>Carboneros</i>	<i>Cargas</i>
<i>Hijo de Mariola. Suerte de</i> <u>Goizariñ, junto de Epela</u>	19
<i>Pello Haundia. Suerte de</i> <u>Goizariñ, junto de Epela</u>	05
Sebastian Itxeberriaren suña. ⁴⁶³ <i>Suerte de Añarbe,</i> <u>junto de Agoña</u>	12
Domingo Bizente y su hermano <i>Suerte de Añarbe, junto</i> <u>de Agoña</u>	12

Derecho por menas Juan Josepe
 Arrantxalekoarenak,
Azkoteko ubaldean 6 quintales, 0
~~*Derecho por menas* Paskoal
 de Iribarren. *El*~~

⁴⁶⁰ Originalean *Arranchalocoarenaq* daukagu, dagokion *Arranchalecoarenaq*-en ordezt.

⁴⁶¹ Testuan badaude JBMren zenbait ohar eta eragiketa.

⁴⁶² Testuan badira olajaunaren zenbait ohar eta eragiketa.

⁴⁶³ Beste batzuetan *Etxeberria* (*Echeberria*) da hau, gutun honen erdarazko izenburuan, esaterako. Ezaguna da *etxe > itxe* hizkera arruntean eta, ondorioz, baita deiturretan ere, onimoetan oro har. Erka bedi goragoko eta beheitixeagoko *Tellitxea*-rekin.

*—monte de Arano 1 quintal, 3 arrobas*⁴⁶⁴

1795 Carretero Martin de Tellitxea⁴⁶⁵
Cuenta en el mes de octubre

Carboneros

Cargas

Hijo de Mariola. Suerte de
Goizarin, junto de Epela. 32
Pello Haundiarena. Suerte de
Goizariñ, junto de Epela. 05
Sebastian Etxeberriaren
suña. Suerte de Añarbe,
junto de Agoña 16
Domingo Bizente y su hermano
Suerte de Añarbe, junto de
Agoña 06

Derecho por menas Juan Josepe
Arrantxale. Azkoteko ubaldetik
ekarriak. 4 quintales, 1 arroba
Pelipe de Altamira
Igeletxeoarenak 4 quintales, 3 arrobas
Derecho por menas de
Ereñezu 1 quintal, 3 arrobas

1795.10.10. Arranbide

[17/95]

Nagusi jauna:

Paskoal Haundiaren⁴⁶⁶ denboran Arranbiden egiñ diran burniak dirade:

Expensas

5 septiembre semana 3 días 7 quintales, 2 arrobas . . . 26½ reales
12 septiembre semana 1 días (sic) 04 quintales, 0 11
26 septiembre semana..6 días 20 quintales, 4 arrobas . . . 53
29 septiembre semana 1½ días (sic) 06 quintales, 5 arrobas . . . 15

⁴⁶⁴ Xati hau gainmarraturik dago.

⁴⁶⁵ Testuan ola jaunaren zenbait ohar eta eragiketa ditugu.

⁴⁶⁶ Garbi dago goitizena dela *Haundia* hau.

11½ días. Abono por todo 4 pezetas. 10 junio

Hau da Paskoal Haundiarena en su cuenta 1796⁴⁶⁷

Ignazio Haundiaren⁴⁶⁸ semearen denboran:

3 octubre semana } *Expensas*

10 octubre semana } 10 días, 42 quintales, 3 arrobas. . . . 89½ reales

Honek baditu espensaz kanpora hiru txiki ardo⁴⁶⁹

Jose Antonio de Alsua Aragoresan (*sic*)⁴⁷⁰ denboran:

Expensas

10 octubre semana 6 días, 26 quintales, 3 arrobas. 50½ reales

Aragones honek omen ditu lenako ola g[el]ditu⁴⁷¹ zen denboran mealle pasatuak bost egun.

Arranbide, octubre 10 de 1795

Ignazio.

Honek badu gehiago pinterdi bat ardo.

1793_1796. Arranbide

1793. Cuenta de los fierros de la herrería de Arranbide

Jaime de Goizueta *fundidor*

26 octubre semana 19 quintales, 2 arrobas; *expensas* 58 reales

31 octubre semana. Aste honetan ez da burnirik pisatu

Espensa da 13 reales

Ola haundiko erremie[n]ta⁴⁷²

egiten.....1½ día

9 noviembre semana . . . 02 quintales, 5 arrobas ½. 43 reales

Olatxoko kabiak

konponzen.....2 días

16 noviembre semana . . 26 quintales, 1 arroba ½ 51 reales

⁴⁶⁷ Olajaunaren apunteak dira beste izkirio batekin idatzi hauek.

⁴⁶⁸ Iduri du Ignazio hau Paskoal Haundia zeritzanaren semea zela, baina ez da hau egin daitekeen interpretazio bakarra.

⁴⁶⁹ Txiki ardo bakoitzak litro laurdena dauka, goiti-beheiti.

⁴⁷⁰ Aragoresan 'Aragonesaren' dugu hau berez. Aragores(a) goitizena da; hurrengo lerroetan «Aragones honek» daukagu. Ikus onomastikari eskaini kapitulua.

⁴⁷¹ Tinta orbana daukagu taketak paratu ditugun lekuan, baina aski garbi dago guelditu dugula.

⁴⁷² Originalean Erremieta idatzirik dago.

<u>23 noviembre semana</u> . . . 56 quintales, 1 arroba	25½ reales
<u>1794</u>	
<u>5 abril semana</u>	32 quintales, 3 arrobas ½. 54 reales
<u>1795</u> ⁴⁷³	
<u>5 septiembre semana</u>	02 quintales, 1 arroba ½ 26 reales
<u>12 septiembre semana</u>	01 quintal, 3 arrobas ½ 49½ reales
<u>19 septiembre semana</u>	46 quintales, 1 arroba ½ 49 reales
<u>26 septiembre semana</u>	11 quintales, 0 53 reales
<u>03 octubre semana</u>	52 quintales, 0 arroba ½ 54 reales
<u>12 diciembre semana</u>	05 quintales, 2 arrobas ½. 55 reales
<u>19 diciembre semana</u>	27 quintales, 0 58½ reales
<u>24 diciembre semana</u>	33 quintales, 4 arrobas ½. 38 reales
	316 quintales, 3 arrobas 627 reales ½ ⁴⁷⁴

Hoietaz gañera

Vuelta

1796

30 enero. Olatxoan sartuak. 2 días

Ola haundiko erremienta egiten . . . 3 días

Hoietaz gañera, badu presan lanean

sartua, berak jana zuela. 1 día

Hoietaz gañera, baditu Gorriolako ubaldean,⁴⁷⁵

Ubarritzetan, egiñtako meak 8 quintales, 5 arrobas

Diru hartuak ere baditu:

1793ean hasta 26 octubre 6 orillos viejos⁴⁷⁶

Taia txi[k]i[ko]⁴⁷⁷ ardoak media pinta

Nik ez dakit honen asenturik lenago bialdu ote nion; lenako⁴⁷⁸ kontua ekusi ezkerro jakinen al du.⁴⁷⁹

⁴⁷³ Honen eskuinean olajaunak idatzi zenbaki batzuk ageri dira.

⁴⁷⁴ Hauek olajaunak egindako apunteak dira.

⁴⁷⁵ Gorriolako erriberan. *Gorriola* nongo aurkintza zen ez dakigu, baina Arano inguru horretakoa zatekeen, maiz *Arranbide*-rekin batean ediretan baitugu. Izen horretako etxea Otsagabian lekukotzen da («...*heredades de las casas de Gorriola, Salaberri y de Juanes Zoco*», 1688, NEAN, Zaraitzuko pr., 3, 21, P. Vicent). Egun bi bordaren izenetan atxiki da (NTEM 30: 222). *Ubaldea* dela eta, ikus 1793.10eko gutunean dioguna.

⁴⁷⁶ Honen eskuinean eta peko aldean olajaunak idatzi apunteak dauzkagu.

⁴⁷⁷ Originallean *taya chi Co* daukagu. Ikus 1787.02.09 eta 1792_1897ko gutunetan *taia txiki*-z dioguna.

⁴⁷⁸ 'Lehenagoko'; aldera bedi lerro bereko *lenago*-rekin.

⁴⁷⁹ Iduri du posibilitatea adierazi nahi dela hemen, ez egiantza. Hots, 'jakiten ahalko du' dateke honen adiera, ez 'jakinen ahal du!' desirazkoa. Ikus bedi JRMren hizkuntza aztertzean dioguna (II, 68).

1796.02.26. Arranbide

Juan Josepe⁴⁸⁰ Arrantxalekoak Arritxurietan,⁴⁸¹ Aranoko dermioan, Suruako ondoan⁴⁸² egiñ dituen meak, bere propioak baditu...5 *quintales*, 2 *arrobas* ½.

Hoietaz gañera badituzte Ignazio Predo Zubinekoak eta biak⁴⁸³ Iraurgiko ondoan⁴⁸⁴ egiñak...43 *quintales*, 1 *arroba* ½.

Hoiak guziak llebarik bage⁴⁸⁵ pisatuak dira.

Arranbide, *febrero 26 de 1796*

Ignazio Bergara.⁴⁸⁶

1796.03.23(A). Arranbide

Nagusi jauna:

⁴⁸⁰ Gutunak goiko aldean eta ezker aldean zati batzuk eskas ditu.

⁴⁸¹ NTEM 47 lanean (33. or.) Aranoko *Artzubieta*-ri 'harrizko zubia dagoen lekua' adiera ematen zaio. Gero, egileek esaten dute 1990eko katastroan eta dokumentazioan *Arrichurrieta* azaltzen dela. Gutun honetan ikusten den bezala, *Arritxurrieta* da toponimoa, hots, Aranoko bereko *Arriurdiñeta*-ren bidekoa.

⁴⁸² Deigarria da *ondoan* postposizioak leku genitiboa eskatzea, ez egun egiten den moduan \emptyset edo jabego genitiboa. Eskutitz honetan berean *Iraurgiko ondoan* daukagu, berriz ere *-ko*-rekin, eta beste eskutitz batzuetan ere erabide hori berori daukagu. Bestalde, *Suru*a dugu, ez *Suro*; ikus gorago (1792.03) honetaz esan duguna.

⁴⁸³ Ignazio Predo (Pedro) Zubinekoak eta Juan Josepe Arrantxalekoak. *Zubinekoak* horren oinarrian Goizuetako *Zubirinea* oikonimoaren aldaera laburtua egonen da segur aski. Ikus Perurena, Salaberri eta Zubiri (2011: 196).

⁴⁸⁴ *Iraurgi* Goizuetako *Iraurgitxikiko makoa* delakoarekin zuzenean loturik egonen da (NTEM 47: 101). Hor berean *Iraurtza* ere bada, baita apika hauekin erlazionatuta dauden *Irauzkoibaia*, *Irauzko kopeta* eta *Irauzko zelaia* ere. Oroitu beharra da Azkoitiaren eta Azpeitiaren deizio zaharrek *Iraurgi* zutela osagarri (ikus Salaberri eta Zaldua, 2019: 91-92 eta 99). *Iraurgi* Dimako auzo baten izena ere bada (EJ), *Iraurgitxiki* Oartzungo baserria (denboraz *Iraurgi* bazterretxea ere bazegoen, *Iraurgi* eta *Iraurgitxiki*, biak alegia) eta *Mendibeiraurgi* Izurtzakoa. Mitxelenak (AV, 307, 194) *Irauregi*, *Iraurregi*-rekin lotzen du *Iraurgi*, baina bukaera *-egi* tokizkoa dela garbi badakusa ere, ez du gauza handirik erraten oinarriaz. Guri *Iraurgi*-k Erroibarko *Orotsurgi(a)* herrixka hustuaren izena dakarkigu burutara; garbi dago, bestalde, hau ibar bereko hurbileko beste herrixka despupulatu batekin, *Orotsa*-rekin, erlazionatua zegoela, alegia, *Orots(a)* + *urgi(a)* zegoela. Bigarren osagaiaren bukaerako *-a* hautazko hori artikulua zen.

⁴⁸⁵ Ikus gorago (1795.08.08(B) gutuna) honetaz esan duguna.

⁴⁸⁶ Peko aldean ola jaunaren apunteak daude. «*Juan Jph. Sagarzazu Arranchale*» da interesgarria, *Arrantxale* deitzen zutenaren izen-deiturak ageri direlako.

Pello Jose horrek ditu meak 9 *quintales*, 1 *arroba* ½, llebarik gabe pisatuak. Hoietaz gañera, baditu bide egiten sartuak 3 *días*.

Arranbide, *marzo 23 de 1796*

Ignazio.

1796.03.23(B). Arranbide

Nagusi jauna:

Ignazio Predo Zubinekoak eta Zarrukok⁴⁸⁷ erdi bana dituzten mea belzak Olzorrotzan,⁴⁸⁸ Aranoko dermioan, eginak dituzte. 20 *quintales*, 3 *arrobas* y ½.

Zarrukok eta Baratzurik⁴⁸⁹ eta Zurmioren⁴⁹⁰ semeak egiñ dituzten mea zuriak,⁴⁹¹

hiru laguneko partidukoak⁴⁹². 91 *quintales*, 1 *arroba*.

Hoietaz gañera, badituzte hiru lagun hoiek hiruna egun bide egiten sartuak.⁴⁹³

Zarrukok eta Baratzurik, bi anaieak,

egin dituztenak 30 *quintales*, 4 *arrobas*.

⁴⁸⁷ Norbaiten izengoitia da hau, ez dakigu nondikakoa.

⁴⁸⁸ NTEM 47 lanean (43. or.) *Ontzorrotz*, *Ontzorrotzko erreka* eta *Ontzorrotzko gaña* (baita *Ontzorrotzpea* ere) bildu ziren, baita hola-hola arautu ere, itxuraz *Oltzorrotz* behar zuten arren. Hau, segur aski, **Ortzorrotz* batetik atera izanen da, beste leku batzuetan bezala, hots, *bortz zorrotza* metaforikoa dateke etimoa, ‘mendi zorrotza’. Aintzat har bedi *Oltzorrotzan* dugula inesiboan, Arranbideko beste gutun bateko *Oiartzunan* ‘Oiartzunen’-ekin batera datorrena. Hau IBren hizkerari leporatu beharko zaio, Goizuetan egun *Oiartzunen* esaten baita. JRMk ere (II, 21) baditu holakoak.

⁴⁸⁹ Testuan ikusten den eran, anaiak ziren *Zarruko* eta *Baratzuri*. Ez dago dudarik bigarren deizioak txistukari lepokaria zeukala, euskaraz *Barazuri* eta erdaraz *Barachuri* idatzirik ageri delako. Aintzat har bedi, gainera, Goizuetan *baratzuri* esaten dela. Adiera garbia da. Ikus 1797.05.06ko gutunean dioguna.

⁴⁹⁰ *Zurmio* ere goitizena zen. Goizuetan aldean *zurmio* ‘orkatila’ da, Beterriko alderdi zabal batean *txurmiyo*, EHHaren arabera. Ikus 1800.03ko gutuna.

⁴⁹¹ Hortaz, baziren *mea beltzak* (ikus goitixeago, gutun honetan berean) eta *mea zuriak*. Lehenari gatzelaniaz *menas negras* esaten zitzaiola ikusten da, beheraxeago, eskutitz honetan berean. Ikus hiztegia.

⁴⁹² ‘Hiru laguneren artean eginak’. Ikus JRM (II, 350).

⁴⁹³ *Sartu*-k hemen gatzelaniazko *meter* ‘lanean denbora eman’-en adiera dauka.

Hoiek guziak llebarik bage⁴⁹⁴ pisatuak dira.

Arranbide, *marzo 23 de 1796*

Ignazio.

Ignazio y Zarruko	20 quintales,	3 arrobas	½
Zarruko, Baratzuri ⁴⁹⁵ y Zurmio	91	”	1
Zarruko y Baratzuri.	30	”	4
Vuelta	142 quintales,	2½ ⁴⁹⁶	

1796.04. Arranbide

Nagusi jauna:

Leneko kontua garbitu ezkerok Patxiku Kaperok⁴⁹⁷ Arranbiden pasatu du aste bat. Aste hartan egin ziran burniak dirade, beren espensakiñ:

1796

Hasta 9 abril semana 29 quintales, 0...Expensas 44½ reales

Taia txikiko ardoa

badu.....1½ pintas

Hau da honen kontua.

Patxiku Intxaloren⁴⁹⁸ suñaren denboran egiñ diran burniak beren espensakiñ dirade:

Hasta 16 abril semana. 34 quintales, 1 arroba. Expensas. 48 reales

Hasta 23 abril semana 35 quintales, 5 arrobas. 48 reales

Hasta 30 abril semana. 36 quintales, 2 arrobas. 46 reales

106 quintales, 2 arrobas 142 reales

⁴⁹⁴ *Bage* ‘gabe’ da, noski. Ikus 1795.08.08(B) gutunean dioguna. IBk esan nahi du Zarrukok eta Baratzurik lehendik ez dutela deus eraman eta, beraz, ez dutela deus zor.

⁴⁹⁵ JBMk *Barachuri* idatzi du goitizena lerro honetan eta ondokoan.

⁴⁹⁶ Hauek olajaunaren apunteak dira. Gehiago ere badaude, ondoko orrialdeetan, baina guretako ez dute holako interesik.

⁴⁹⁷ *Kapero* Oiarzungo baserria da, baita Goizuetako etxea eta baserria ere. Ikus JRM (II, 184). *Patxiko*, *Patxiku* izen ttipiez ikus lan bereko 175. or. 1796ko gutunean, olajaunak idatzirik, «*Pachico Apezechea Capero tirador*» ageri da eta badirudi, hortaz, goizuetarra zela haina, ez oiarzuarra, deituragatik.

⁴⁹⁸ *Intxalo* hau etxe izengoitia izan daiteke, baina ez dakigu seguru, ez baitugu holako oikonimorik aurkitu. *Untsalo*, *Untxalo*-ren partez dago? Irakurri oso argi irakurtzen da *Ynchaloren*. Goizuetako *Untxalo* etxea 1560rako lekukotzen da (Perurena, Salaberri eta Zubiri, 2011: 186). 1726an (NEAN, Estatistika saila 4, 31) *Gabriel de Unchalo* bizi zen herrian.

Taia txikiko ardoak ditu bi pinta eta txiki bat.⁴⁹⁹

1796.05.13(A). Arranbide

Nagusi jauna:

Entregatu ditu mandazaiak beurrek esaten didan eta bialzen dituen diruak. Eta juanen naiz daritzadan moduan dirua repartituaz, lana egiñaren konforme. Eta emanen diot, hilla akabatzen denean, guzian kontua.⁵⁰⁰

Baratzuri⁵⁰¹ hor da beren⁵⁰² mean asentuarekin. Orañ meatzea inibitu omen diote;⁵⁰³ zer egiñen baitute ere,⁵⁰⁴ egonen gera Pazkoz.

Egun goizean izandu naiz Arteskiñetako⁵⁰⁵ hartan ere. Atzoko eguna sartu dute lanean,⁵⁰⁶ eta nik zer esan dezaket?⁵⁰⁷ Berak badute animoa franko. Honara agertu ziran, ez zutela janaririk eta argigarritako dirurik,⁵⁰⁸ eta nik, nola baitzauden ogiak ya urdinzen hasiak, eman niozkatzen⁵⁰⁹ hiru ogi eta pezeta bat. Bigar edo etzi agertuko zazkio⁵¹⁰ eta egonen dira. Mea egiten berela ere hasiko dirala diote, erremientak ekarrira. Enfin, adituko ditu zer esaten dioten.⁵¹¹

⁴⁹⁹ ‘Bi pinta eta txiki bat ardo’. Ikus JRM (II, 371). Honen azpian olajaunaren apunteak heldu dira.

⁵⁰⁰ Lehenik *lana egiñaren konforme* ‘egiten den lanaren arabera’, eta orain *guzian kontua*, itxuraz, ‘(gauza) guzian kontua’.

⁵⁰¹ Originalean *Bara zuri* dago idatzirik. Goitizena da, gorago erran bezala.

⁵⁰² *Baratzuri* bakarra bada, *bere* behar lukeela dirudi, baina seguruenik Baratzuri delakoa ez zen bakarrik ariko, beste norbaitekin (*Zarruko* eta *Zurmio*-rekin hain segur) baizik, eta horregatik *beren*.

⁵⁰³ ‘Debekatu omen diote’ edo ‘debekatu omen diete’. Harrigarri zaigu erdaraz aski goi mailakoa den *inhibir* aditz hori euskarara egokitua ikustea. Meatzea kudeatzeko paperetan agertuko zen.

⁵⁰⁴ ‘Egiten dutena egiten dutela’, ‘zer ere eginen duten’.

⁵⁰⁵ *Arteskiñeta* Aranoko dermioa da (NTEM 47: 33).

⁵⁰⁶ Olajaunak gutuna hartu-eta «*13 ju.*» idatzi du lerro artean.

⁵⁰⁷ IBk ere ez du galdera markarik erabiltzen, baina oraingoan garbi dago galdeitza dugula aitzinean.

⁵⁰⁸ ‘Lumerarako dirurik’, ‘argia egiteko gaia erosteko sosik’.

⁵⁰⁹ ‘Eman nizkien’.

⁵¹⁰ Berorri alegia.

⁵¹¹ Hemen *adituko ditu edo adituko du zer esaten dioten (berorri)* behar luke, hots, bi esaldi nahasi dituela ematen du.

Arranbide, mayo 13 de 1796

Ignazio.⁵¹²

A Juan Bautista de Minondo.

Que Dios muchos años [guarde].

Goizariñ

1796.05.13(B). Arranbide

Nagusi jauna:

Zarrukoren meak leneko kontua bialdu ezkerro, hemen pisatu diradenak dirade.....103 quintales, 0 arroba ½.⁵¹³ Eta meatzean daudenak gutxi gorabera dirade...003 quintales, 0..... Haiek llebarik gabe⁵¹⁴ pisatuak.

Arranbide, mayo 13 de 1796

Ignazio.⁵¹⁵

1796.08.28. Arranbide

Nagusi jauna:

Ostiralean ekarri zituen Tranpak⁵¹⁶ zorzi ogi, eta egun ekarri ditu Josepe Ignazio horrek hoge eta hamaika ogi. Eta horra Tranpak ekarri zuen kostala.⁵¹⁷ Bigar goizean bial bitzate baba eta olio. Ez dago oliorik batere.

⁵¹² Orriaren atzeko aldean olajaunak egindako kontuak eta apunteak daude. Interesgarriena hor *Jancoicoa* edo *Janjoikoa* ezizena duen laguna hiru aldiz agertzea da: «*Jancoicoa, menaquero Zalaín*», «*8 derecho á Jacoicoa para mineral*», «*abono 3½ dias Janjoicoa*». 1797.01.16ko eskutitzean *Patxiko Jai[n]koaren lagunak* dugu eta 1797.05ekoan *Berako Jainkoa* ageri da, eta, beraz, *Jancoicoa* delakoa Zalaingoa baitzen, iduri du bat eta bera zirela *Janjoikoa* - *Janjoikoa* eta *Berako Jainkoa*. Badira holakoak gure goitizendegian, *Jaunzerukoa*, kasurako. Gutunotarik atera gabe, *Bizente Kristo* edo *Kristo* dugu (1801.05.02), eta *Kristo(b)al*-en aldaera laburtua (hipokoristikoa) izan badaiteke ere, ezin da txoil baztertu *Jangoikoa*, *Jaunzerukoa* eta horien alorreko goitizena delako ideia.

⁵¹³ 103 kintal eta arroa erdia.

⁵¹⁴ Ikus goraxeago.

⁵¹⁵ Honen ondoan eta azpian olajaunaren oharrak daude. Interesgarrienak, menturaz, hauek: «*Revajo 14 bl. por quintal de sucio*», «*a 2½ pesos por carro ymportan [...]*».

⁵¹⁶ Anbrusio de Zubeldiaren izengoitia dugu hau. Ikus gorago.

⁵¹⁷ *Kostala* zaku handi baten izena da.

Arranbide, agosto 28 de 1796 / Ignazio.⁵¹⁸

1796.10.14. Arranbide

Nagusi jauna:

Pelizek⁵¹⁹ 13 de junio ezkerro hemen sartu dituen egunak ditu:

<u>18 junio semana</u>	5 días
<u>25 junio semana</u>	4 días
<u>2 julio semana</u>	5 días
<u>9 julio semana</u>	5 días
<u>27 agosto semana</u>	6 días
<u>3 septiembre semana</u>	6 días
<u>7 septiembre semana</u>	3 días
<u>24 septiembre semana</u>	6 días
<u>1 octubre semana</u>	6 días
<u>8 octubre semana</u>	6 días
<u>10 octubre semana</u>	1 día
.	53 días ⁵²⁰

Taia txikiko ardoak ditu, hasialdi honetakoak, abuztutik hasi eta honarañoak $7\frac{1}{2}$ pintas.

Leneko kontukoak bialdu niozkan $13\frac{1}{2}$ Vuelta⁵²¹

Hau da honen kontu guzia.

Arranbide, octubre 14 de 1796

Ignazio.

Aste honetan ez da itzairik izandu, gaur etorriko dirala uste dut, mearik badute. Ogiak eta olioia ezpadira bidean, bere-berela bial bitzate, ez dago batere; olioia ordañetan meakariai kendurik eman diotet olakoai.

⁵¹⁸ Ondoko orrialdean olajaunaren apunteak ditugu: «*hijo Martin Tellechea calentador*», «*por prestador en Goizarin y Arranbide*».

⁵¹⁹ JRMren gutunetan *Feliz* agertzen da (ikus II, 171), baina ez *p*-dun aldaera. Hautetan JBMren oharretan (1808.01.08) kausitu dugu *Feliz*.

⁵²⁰ Olajaunaren apuntea da hau.

⁵²¹ Olajaunak idatzia.

Sebastianek esan dit Iruñerako burnirik eziñ eraman ditzakeala⁵²² arroako erreal eta erdi baño berago,⁵²³ ez ditzakeala berago eraman, eta gaztiga beza honetan emanen zaskion.⁵²⁴

A Juan Bautista de Minondo.
Que Dios muchos años [guarde].

Goizariñ

1796.12.14. Arranbide

Nagusi jauna:

Pelizek⁵²⁵ ekarri zituen herenegun *12 panes*, eta Arzaiak⁵²⁶ orañ ekarri ditu *16 panes*.

Aranoko baso aurten esamiñatu duten Arritxuritako⁵²⁷ suerte horrek⁵²⁸ esamiña haundia duela aditzen dut,⁵²⁹ eta zenbat duen ziertorik ez dut aditzen, baña beurrri⁵³⁰ gaztigatuak izanen dira, jakiñen du beurrek⁵³¹ bada. Leneko egiñ zenean, suerte horretan guzian egiñ ziran ikatz guziak ziraden, 1787an egiñak:

⁵²² «Burniak ezin eraman ditzakeala» eta «burnirik ezin eraman dezakeala» nahasi ditu IBk hemen.

⁵²³ ‘Merkeago’, ‘diru gutxiagotan’.

⁵²⁴ ‘Burdinak emanen zaizkion’ esan nahi du, iduriz. Binperrean olajaunaren apunteak eta kontuak ageri dira: «*Feliz prestador Arranbide*», «*abono 12 dias en Olaverria 10 julio*», «*Juaquincho eta al fraile de Aranzazu...0 (pezetas)...2 reales...4 (maravedís)*».

⁵²⁵ *Felizek*.

⁵²⁶ Irudi du izengoitia dela, segur aski hola deitzen zutena artzaina zelako edo noizbait izan zelako. Originalean *Arzaya* dugu oraingoan, *Archaya* behehitxeago, gutun honetan berean, seinale *Artzaia* erraten zela. Ez dakigu seguru, dena dela, *Artxaia* eta *Artzaia* lagun bera zirenetz.

⁵²⁷ *Arritxurieta* hau Aranoko dermioa da, baina Goizuetan ere badago, errepikatzen den leku izena baita.

⁵²⁸ Iduri du IBk hau esan nahi duela: «*Aurten esamiñatu duten Aranoko baso(ko) Arritxuritako suerte horrek*» edo «*Aranoko basoan aurten esamiñatu duten Arritxuritako suerte horrek*». Arazoa da Aranoko basoa eta Goizuetako Arritxurieta aurkintza nahasten direla hola. Mugakideak zirena?

⁵²⁹ ‘Suerte horrek asko balio duela aditzen dut’ esan nahi duela dirudi, gutun osoa ikusirik.

⁵³⁰ ‘Berorri’.

⁵³¹ ‘Berorrek’.

Anbrusio Arotzandiak ⁵³² egiñak ziran	278 <i>cargas enteras</i>
Pepe Exkerrak ⁵³³ egiñak	219½
Agustin de Ubitzi ⁵³⁴	234
Juan Antonio de Iribarren	254
Juan Domingo Fundidor ⁵³⁵	176
Martikaldenekoak ⁵³⁶	166
Sebastian Insauspe	130

Hoietaz gañera, Artxaiaik⁵³⁷ egin zituen bi ikaztogi,⁵³⁸ gehienaz ere ehun karga. Ba orduan baño ikatz⁵³⁹ gehiago, ikatz gehiago orañ ez dela nago,⁵⁴⁰ baldin añadimenturik⁵⁴¹ inõndik ez ematekotan.⁵⁴² Eta suerte horri disekela,⁵⁴³ emateko gauza haundirik ez dela nago.⁵⁴⁴

⁵³² *Anbrusio*-ren etxe izengoitia da *Arotzandia*; jatorria Aranoko izen bereko etxean du. Beste batzuetan *Arotzandiko Anbrusio* edireten dugu.

⁵³³ *Exkerra* hau *Pepe* izenekoaren goitizena dugu. Maiz <h> edireten dugu, hemen bezala, herskari ahoskabe aurrean, igurzkarri sabaiaurrekoa (egun *x* idazten duguna) irudikatzeke. Erka bedi beheitixeagoko, eskutitz honetako bereko *mahter* ‘maxter’ hitzarekin. Aranon XIX. mendean geroztik gutxienez bada *Ezkerren borda* deritzana, eta oraingo deizio hau horrekin lotua egon daiteke. JBMren eskutitzotako apunteetan *Ezquerria* (1798.03.13, 1808.01.08), *Juan Domingo Loyarte Ezquerria* (1800.03.06) eta *Juan Domingo Ezquerria* (1802.08.31) azaltzen dira.

⁵³⁴ Originalean *uwizi* dago. 1805eko gutun batean (ekainaren 24koan) *Ubichi* idatzirik ageri da. Segur aski *Uitzi* bera izanen da hau, hots, Larraungo herrian oinarritu deitura. Beste aukera bat *Uitzi*-ren *Uizi* erdal formaren euskal ebaketatik abiatutik (lepokaria duenetik alegia, *Ubizi*-tik) goitizentzat erabiltzean lepokaria palatalizatu dela (*Ubixi* bihurtu dela) kontu egitea da. Ikus JRM (II, 182). Tarteko *b* hori [w] diptongoa hausteko sartzen da hor, *juicio* -> *jubizio*-n edo *Luis* -> *Lubis*-en bezala. Ikus 1797.04.12ko gutunean dioguna.

⁵³⁵ Euskarazko *wrtzailea*-ren itzulpena da. Ez dakigu izengoitia den, lanbidearen izen hutsa, edo lanbide izena eta izengoitia batean.

⁵³⁶ *Martikaldenea* (lehen) edo *Martikaldene* (orain) Aranoko etxea da.

⁵³⁷ Oraingoan *Archayaq* izkiriaturik dago.

⁵³⁸ Ematen du *ikaztegi* eta *ikaztobi*-ren arteko nahasketaren fruitu dela, baina adiera bana dute bi hitzok. *Ikaztogi* ‘ikatz egiteko lekua’ da eta *ikaztegi* ‘(olan) ikatza atxikitzeke tokia’ (ikus JRM, II, 300). Honen kariaz ohart bekio gorago luzekiago aipatu dugun honi: «...*acogio por carbonero a Joanes de Olaçurregui veçino de Oyarçun y le linpiara ocho oios o carboneras en la endreçera de Gaztanadi*» (1619, NEAN, Ihabengo pr., 4, J. Labayen zaharra; lodia gurea da).

⁵³⁹ Originalean *ycæz* dago.

⁵⁴⁰ ‘Orain orduan baino ikatz gehiago ez dela uste dut’.

⁵⁴¹ ‘Gehigarrik’. Ikus JRM (II, 216).

⁵⁴² Badirudi IBk hemen bi baldintza perpaus nahasi dituela: «*baldin añadimenturik inõndik ematen ez bazaio*» eta «*añadimenturik inõndik ez ematekotan*».

⁵⁴³ Originalean *disequela* argia dugu, eta menturaz *dixekela* irakurri behar genuke, *dixekela* ikustea soberasxko izanen baita, *s* grafemaz idatzia dagoenez gero. ‘Datxe kiola’ dela garbikara da, hots, ‘zorte horrek ondoan duela’ adiera daukala. Oinarriko aditza *atxiki*-ren aldaera zenbait dateke, *itxeki*-ren erako zerbait.

⁵⁴⁴ ‘Gauza haundirik ez dela uste dut’.

Porfin,⁵⁴⁵ horra lenako kortean⁵⁴⁶ egiñ ziran guziak. Eta orañoan zer esamiña duen jakiñen du, eta baldin esamiña haundia badu, erakutsi bioza⁵⁴⁷ hartako den gizon bati,⁵⁴⁸ ez dezan izan⁵⁴⁹ enganiorik. Ba aurtengo esamiñadorea eta juradua, hark lagun zuena, ez daude nere gogoan,⁵⁵⁰ eta esamiñ[a]⁵⁵¹ txarra ~~non~~ (*sic*) izanen den beldurrarekin gaztigatzen diozkat,⁵⁵² eta deritzena⁵⁵³ egiñen du.

Saiatuko naiz lantegiaz beurrek gaztigatzen didan bezala, eta esanen diot Mariolari⁵⁵⁴ ere, eta bialduko dut, bigar⁵⁵⁵ etorri nahi badu.⁵⁵⁶

Etzi bialdu behar dituzte ogiak eta baba eta olio, goizean goiz. Aranoar hoiek badira egunero zazpi edo zorzi karretero, eta itzaiak ere etorriko al dira!⁵⁵⁷ Atzo goizean jua ziran hiru itzai; hemen gaba irago⁵⁵⁸ zuten. Bada, honela arratseko⁵⁵⁹ etorritzen⁵⁶⁰ badira, espensa doblea⁵⁶¹ behar dute. Bialdu bitzate ogiak fundamentuz.⁵⁶²

Arranbide, *deciembre 14 de 1796*

Ignazio.

⁵⁴⁵ Beste zenbaitetan ere badarabil hau. Iduri du gaztelaniatikako *enfiñ*-en adierakidea dela, lokailua betiere.

⁵⁴⁶ ‘Azkenean horra lehen / lehenagoko mozketan’.

⁵⁴⁷ ‘Erakutsi biezaio (berorrek)’. Testuan *EraCusi vio za* izkiriatua dago.

⁵⁴⁸ ‘Hartan aditua den gizon bati’ edo.

⁵⁴⁹ ‘(Berorrek) engainurik izan ez dezan’.

⁵⁵⁰ ‘Ez ditut gogoko’ ulertu behar dela dirudi.

⁵⁵¹ Azken bokala ez da ikusten, baina hor dagoela dirudi.

⁵⁵² ‘...eta etsamina txarra –zortea alokatzea garestia, alegia– izanen den beldurrarekin jakinarazten dizkiot (nik gauza hauek berorri)’.

⁵⁵³ *Deritzana* edo *daritzana* espero genuen (ikus JRM, II, 103), baina ez da gutunotako kasu bakarra; egia erran, *deritzena* darabil IBk, orobat, 1797.02.25, 1798.09.28 eta 1800.07.23ko gutunetan. Baina *daritzana* ere badu, 1799.03.06koan, eta *daritzadan moduan* ‘iruditzen zaidan moduan’ 1796.05.13(A)-n. Adiera, dena dela, argia da: ‘(berorri) iruditzen zaiona’. Erka bedi Berako olagizonaren 1676ko gutunean ageri den honekin: «...*eta erran nerazun bezala / baldin baderitzazu assentatuco / dituzu baba eta eguia berce con / tuban [...]*» (Urrizola, 2006: 265).

⁵⁵⁴ Ikus gorago (1795.10) dioguna.

⁵⁵⁵ ‘Bihar’. IBk *biar* eta *bigar*, biak, ibiltzen ditu.

⁵⁵⁶ Hau honela ere uler eta puntua daiteke: «...*eta bialduko dut bigar, etorri nahi badu*».

⁵⁵⁷ Ziurrenik ‘eta itzainak ere etorriko ahal dira!’, ‘itzainak ere etorriko dira, baldinbaitere!’ ulertu beharko da, nahiz esaldia konprenitzeko beste modu hau ere ezin txoil bazter daitekeen: ‘eta itzainak ere etortzen ahalko dira’.

⁵⁵⁸ ‘Igaro’. Goizuetan oraindik ere ibiltzen da.

⁵⁵⁹ ‘Arratserako’, ‘iluntzerako’.

⁵⁶⁰ ‘Etortzen’. Originalean *etorrizen* dago.

⁵⁶¹ Afaria eta gosaria.

⁵⁶² ‘Ausarki’, ‘ugari’.

Maxter⁵⁶³ honek ez duela fundamenturik egiñen jakina da. Bada, nahiago nuke hemen ezpalaude ere.⁵⁶⁴

1796.12.15. Arranbide

Nagusi jauna:

Epeletik⁵⁶⁵ honara etorri diran ikatz guziak dirade

Mariolaren⁵⁶⁶ seme horrenak

año 1793 a Goizarin.....

1795an

19 septiembretik hasi eta *23 octubrerano*⁵⁶⁸ jasoak

Pello Haundiarenak eta bere anaie Pello

Ttikik⁵⁶⁹ Epelan egin eta honara ekarriak.

Hoiek dira Epeletik ekarri ditudan guziak.

Goroskaratako⁵⁷⁰ mintegiaren ondotik ekarriak, zeñenak diran ez dakidenak,⁵⁷¹

1796ean *hasta 31 agosto*

Alzatetik⁵⁷² ekarriak zeñenak diran ez dakidenak,

hasta 25 noviembre

	154 ⁵⁶⁷		
	<i>Cargas</i>		
	128		
	160	1
	483	4
	29	2

⁵⁶³ Originalean *Mahter* dago. Ikus bedi *Exkerra* izengoitiaz goraxegoño dioguna.

⁵⁶⁴ ‘Nahiago nuke hemen ez baleude ere’, ‘nahiago nuke haiek hemen ez egotea’. Maizterra eta familiakoak?

⁵⁶⁵ Goizuetako dermioa; ikus NTEM 47: 86. Hemen *Epela* (-a) dela dirudi, hots, -a artikulutzat hartu behar dela, baina beherago, gutun honetan berean, *Epelan* dago, ez *Epelean*, baita *Epeleko* ere, ordea. Gorago esan dugun bezala, *Epela* Hernaniko burdinola ere bazen (Díez de Salazar, 1997: 85 eta hur.), baina gure testuetan azaltzen dena Goitzarin aldeko aurkintza da.

⁵⁶⁶ Irudi du izengoitia dela, etxean sorburu duena seguruenik. Gizona zen *Mariola* hau. Ikus 1795.10eko gutunean dioguna.

⁵⁶⁷ Olajaunaren apuntea da hau. Badira bestelako batzuk ere testuan barreiatuak.

⁵⁶⁸ Hemen -*rano* dago, *n*-rekin, ez -*raño* espero genuen moduan. Kontu grafiko hutsa dateke hau.

⁵⁶⁹ Hortaz, anaia bat *Pello Haundia* zen eta beste anaia *Pello Ttiki* edo, hobeki segur aski, *Pellottiki*.

⁵⁷⁰ Goizuetako - Arano mapan (Basauntz, OBIE eta Umore-ona elkarteak, 1996) Oartzungo *Gorosgarate* baserria eta Goizuetako *Gorosgarate sarobe*a jasotzen dira. Goikoetxeak eta Lekuonak (2007: 153) Oartzungo *Gosketa* ebakitzen dela diote. Garbi dago IBren *Goroskarata* hori bera dela; gero (1803.10.29, 1803.11) «*Goroskarata lo de Goizariñ*» ageri da.

⁵⁷¹ ‘Zeinenak, norenak diren ez dakidanak’ izanzen da hau, hutsak huts. Ikus bi lerro beherago.

⁵⁷² *Altzate* Goizuetako aurkintza da.

Burugorri edo Tantailepo⁵⁷³ delako
 hartatik Mariolaren seme horrenak
 dirala ekarri dituztenak
hasta 6 diciembre 72 2

Migel difuntuaren semearenak
oiartzuar harenak *hasta 21 octubre* 69 1

Hoeik dira Epeleko eta Alzate aldeko ikatz guziak.

Bigar goizeko olakoanzat ez da ogirik gelditzen gaur, eta mutill horrekin
 gaur bial bitza hiru edo lau ogi, eta bigar goizean besteak, baba ta olioia.

Arranbide, *diciembre 15 de 1796* Ignazio.

A Juan Bautista de Minondo.
Que Dios muchos años [guarde].

Goizariñ

1796. Arranbide

Patxiko Apezetxea Kapero *tirador*⁵⁷⁴

1796

Patxiku Kaperokoak⁵⁷⁵ Arranbiden egiñ dituen burniak beren espensakiñ
 dirade:

Expensas

9 enero semana. 21 quintales, 1 arroba ½ 54 reales
14 enero semana. 18 quintales, 0 31 reales
6 febrero semana 03 quintales, 0 arroba ½ 37 reales

⁵⁷³ Biak Goizuetako aurkintzak dira, baina ez daude, eskutitzean iduri duenaren aurka, elkarren aldamenean. Beherago (1798.11) «*suerte de Tantailepoa*» daukagu, artikuluaekin.

⁵⁷⁴ Olajaunak idatzi du hau. Ikus 1796.04ko gutunean dioguna.

⁵⁷⁵ Beraz, *Kapero* etxe izengoitia da, eta etxea ere bai, *Kaperokoak* 'Kapero etxeakoak' erakusten duen eran. *Kapero* edo *Kaperoaundi* Goizuetako oraingo *Migelantonenea* etxeari esaten zitzaion; egun *Kapero* baserria da, *Kaperottiki* bezala. Ikus Perurena, Salaberri eta Zubiri (2011: 116-117).

<u>13 febrero semana</u>	13 quintales, 2 arrobas	37 reales
<u>Derecho más</u> iñotetako haragitarako emanak ⁵⁷⁶		10 pezetas
<u>27 febrero semana</u>	24 quintales, 2 arrobas ½	55 reales
<u>5 marzo semana</u>	06 quintales, 0	55½ reales
<u>10 marzo semana</u>	81 quintales, 0	37 reales ⁵⁷⁷
Hoietaz gañera, baditu ola haundiko ⁵⁷⁸ erremienta egiten		3 días ⁵⁷⁹

1792_1797. Arranbide

1792

Dendariren senarrak, Premin horrek, 2 *junioko* astea uzten dela, horra gozotik pasatu duen denborako burniak eta *expensas*:

<u>9 junio semana</u>	26 quintales, 5 arrobas; <i>expensas</i>	47½ reales
<u>16 junio semana</u>	30 quintales, 4 arrobas	50
<u>23 junio semana</u>	08 quintales, 4 arrobas ½	46
<u>30 junio semana</u>	14 quintales, 1 arroba ½	46½
<u>06 julio semana</u>	60 quintales, 3 arrobas	44½
<u>14 julio semana</u>	15 quintales, 4 arrobas	26½
<u>21 julio semana</u>	32 quintales, 3 arrobas	49½
<u>28 julio semana</u>	13 quintales, 1 arroba	17
<u>4 agosto semana</u>	32 quintales, 2 arrobas	52
<u>11 agosto semana</u>	23 quintales, 5 arrobas ½	50½
<u>18 agosto semana</u>	16 quintales, 3 arrobas	18½
<u>25 agosto semana</u>	26 quintales, 4 arrobas	48½
<u>1 septiembre semana</u>	32 quintales, 5 arrobas ½	49
<u>7 septiembre semana</u>	23 quintales, 1 arroba	44½
<u>15 septiembre semana</u>	30 quintales, 2 arrobas	54½
<u>22 septiembre semana</u>	31 quintales, 2 arrobas	39½
<u>29 septiembre semana</u>	08 quintales, 4 arrobas	47
<u>06 octubre semana</u>	66 quintales, 4 arrobas	49
<u>13 octubre semana</u>	08 quintales, 4 arrobas	46
<u>20 octubre semana</u>	36 quintales, 4 arrobas	26½
<u>3 noviembre semana</u>	19 quintales, 4 arrobas ½	51½
<u>10 noviembre semana</u>	23 quintales, 3 arrobas	53½
<u>Vuelta suma atrás</u>	583 quintales, 2 arrobas ½	958 reales

⁵⁷⁶ 'Inautetako haragitarako emanak'. Goizuetan egun *iñotèk* 'inauteak' esaten da.

⁵⁷⁷ JBMren zenbait kontu daude honen azpian.

⁵⁷⁸ 'Ola handirako' da hau, destinatiboa.

⁵⁷⁹ Honen azpian, orrialdea bukatu arte, JBMren erdarazko apunteak dauzkagu. Interesgarrienak «...*con Juaquin Eraso le di* [...]» eta «*deue Pachico Apecechea*» dira.

1792 Suma atrás 583 quintales, 2 arrobas ½ Expensas: 958 reales

17 noviembre semana....54 quintales, 2 arrobas...Expensas...54½

24 noviembre semana.

Aste honetakoa

Kaperoren partez duena...33 quintales, 2 arrobas ½.....63 reales

670 quintales, 5 arrobas 1075½⁵⁸⁰

1794

Cuenta de los ferros de la herrería de Arranbi[de]

Fermin de Unsari Dendariren senarraren denborakoak

25 enero semana04 quintales, 2 arrobas. Expensas 49½ reales

1 febrero semana02 quintales, 1 arroba ½. 58

8 febrero semana76 quintales, 2 arrobas 46½

22 febrero semana04 quintales, 4 arrobas 51½

28 febrero semana52 quintales, 0 arroba ½. 46

12 abril semana02 quintales, 1 arroba. 56

19 abril semana03 quintales, 2 arrobas 29

26 abril semana49 quintales, 4 arrobas ½. 25

2 mayo semana01 quintales, 1 arroba. 32

10 mayo semana34 quintales, 0 arrobas ½. 34

28 junio semana. Aste honetan

ez da burnirik pisatuEspensa da 26 reales

5 julio semana11 quintales, 0 49

12 julio semana01 quintales, 2 arrobas ½ 43

19 julio semana25 quintales, 4 arrobas ½ 50½

24 julio semana70 quintales, 5 arrobas 35 reales

Hasta que entró el francés⁵⁸¹ 339 quintales, 1 arroba 631 reales

Vuelta

Fermin Onsari

⁵⁸⁰ Azpian olajaunaren oharrak daude.

⁵⁸¹ Alegia, frantses armadak estatua inbaditu zuen arte, Konbentzio Gerra deitzen denaren barnean. Luzaiden 1793ko apirilaren 25ean sartu zela dirudi (ikus Kamino eta Salaberrí, 2022: 314-315).

1796 Cuenta de los fierros de la herrería de Arranbide. Fermin de Unsari Dendariren⁵⁸² senarrarenak:

Expensas

Suma de [a]trás hasta que entró el francés: 339 quintales, 1 arroba, 631 reales

<u>9 enero semana</u>	21 quintales, 1 arroba ½.	54 reales, 0
<u>14 enero semana</u>	18 quintales, 0 arrobas	31 reales
<u>30 enero semana</u> . Olaundiko ⁵⁸³ erremienta egiten sartuak 3 días		
<u>6 febrero semana</u>	03 quintales, 0 arroba ½.	37 reales
<u>13 febrero semana</u>	13 quintales, 2 arrobas	37 reales
<u>Derecho</u> ⁵⁸⁴ más ññotetako haragitako emanak		10 pezetas
<u>27 febrero semana</u>	24 quintales, 2 arrobas ½.	55 reales
<u>5 marzo semana</u>	06 quintales, 0.	55½ reales
<u>10 marzo semana</u>	81 quintales, 0.	37 reales
	506 quintales, 1 arroba ½	958 reales ^{3/4} ⁵⁸⁵

1796 Fermin Onsari
Cuenta nueva de los fierros de la herrería de Arranbide
 Fermiñ de Unsari fundidor

<u>9 abril semana</u>	29 quintales, 5 arrobas. Expensas	44½ reales
<u>16 abril semana</u>	34 quintales, 1 arroba.	48 reales
<u>23 abril semana</u>	35 quintales, 5 arrobas	48 reales
<u>30 abril semana</u>	36 quintales, 2 arrobas	46 reales
<u>21 mayo semana</u> . Aste honetan ez da burnirik pisatu		35 reales
<u>28 mayo semana</u>	46 quintales, 2 arrobas	48 reales
<u>18 junio semana</u>	26 quintales, 1 arroba.	41½ reales
<u>25 junio semana</u>	22 quintales, 3 arrobas ½.	33 reales
<u>02 julio semana</u>	23 quintales, 0 arroba ½.	49 reales

⁵⁸² Dendarari delako hori Fermin Unsari-ren emaztea zen, beraz. Olajaunak Onsari idazten du, eta IBk Unsari. 1726an (NEAN, Estatistika saila, 4, 31) hau ageri da: «Joseph Antonio se Onssari vive con su ogar y familia en una borda llamada Onsari». Lorenzo de Onssari 1652an ageri da, eta Unssari baserria 1678rako (Perurena, Salaberri eta Zubiri, 2011: 187). Zernahi gisaz, garbi dago izenak ts zeukala, ez egungo tx.

⁵⁸³ ‘Olaundirako’, ‘ola handirako’.

⁵⁸⁴ IBren gutunetan anitzetan agertzen den dho laburtzapena ez dakigu beti zeri dagokion xuxen. Gehienetan ematen du derecho-ren partez dagoela (ikus JRM, II, 249-250), baina inoiz dicho-ren orde ez dago. Noiz den bata eta noiz bestea ez dago, erran bezala, beti argi, eta daitekeena da behin edo beste guk paratu derecho ez, baizik dicho izatea.

⁵⁸⁵ Jarraian olajaunaren apunteak heldu dira, hurrengo bi orrialdeetan.

<u>09 julio semana</u>	27 quintales, 4 arrobas	43½ reales
<u>06 agosto semana</u>	33 quintales, 1 arroba ½.	53½ reales
<u>13 agosto semana</u>	33 quintales, 5 arrobas ½.	49 reales
<u>27 agosto semana</u>	28 quintales, 2 arrobas	52½ reales ¹
<u>03 septiembre semana</u>	22 quintales, 0 arroba ½.	52½ reales
<u>07 septiembre semana</u>	29 quintales, 0 arroba ½.	28 reales
<u>24 septiembre semana</u>	33 quintales, 0 arroba.	54 reales
<u>01 octubre semana</u>	28 quintales, 3 arrobas ½.	51 reales
<u>08 octubre semana</u>	35 quintales, 3 arrobas	53 reales
<u>15 octubre semana</u> . Aste honetan ez da burnirik pisatu		53½ reales
<u>22 octubre semana</u>	37 quintales, 5 arrobas	51½ reales
<u>29 octubre semana</u>	34 quintales, 4 arrobas	51½ reales
<u>26 noviembre semana</u>	09 quintales, 1 arroba	73½ reales
<u>2 diciembre semana</u>	18 quintales, 0 arroba ½	48 reales
<u>10 diciembre semana</u>	2 quintales, 2 arrobas	37½ reales
<u>17 diciembre semana</u>	27 quintales, 5 arrobas ½	59 reales
<u>24 diciembre semana</u>	119 quintales, 3 arrobas	50½ reales
	771 quintales,	1254 reales ½
Taia txikiko ardoak ⁵⁸⁶	46 pintas y media	Vuelta

1797 Cuenta nueva de los fierros de la herrería de Arranbide⁵⁸⁷
Fermin de Unsari fundidor

<u>14 enero semana</u>	22 quintales, 2 arrobas ½. Expensas	56 reales
<u>21 enero semana</u>	35 quintales, 4 arrobas	41½ reales
<u>28 enero semana</u>	14 quintales, 3 arrobas ½.	57 reales
<u>04 febrero semana</u>	06 quintales, 1 arroba.	40 reales
<u>11 febrero semana</u>	58 quintales, 3 arrobas ½.	53 reales
<u>17 febrero semana</u>	32 quintales, 1 arroba ½.	34 reales
<u>25 febrero semana</u>		
Olaundiko ⁵⁸⁸ erremientak <u>egiten sartuak</u>	4 días	
<u>4 marzo semana</u>	04 quintales, 2 arrobas	28½ reales
<u>11 marzo semana</u>	12 quintales, 4 arrobas ½.	49½ reales

⁵⁸⁶ JRMren lanak aztertzean, hiztegiko (ikus II, 365) *taia* sarreran *Taiatxiki(a)* nonbaiteko taberna edo ardandegia zela idatzi genuen, beti *ardo* hitzarekin batera agertzen zelako. Orain, berriz, uste dugu bi *taia* izaten zirela burdinoletan: handia jatekoak apuntatzeko, eta *taia txikia* ardoetarako, oletako langileek-eta edaten zuten mahats zukua zenbat zen kontua eramateko.

⁵⁸⁷ Azkeneko silaba hau lerro bukaerako *vi*-ren gainean idatzia dago.

⁵⁸⁸ 'Olaundirako', 'ola handirako'.

<u>18 marzo semana</u>	16 quintales, 5 arrobas	48 reales
<u>24 marzo semana</u>	15 quintales, 3 arrobas ½	42½ reales
<u>1 abril semana</u>	00, 0	52½ reales
<u>Olaundiko kabiguña sartua.</u>		
<u>8 abril semana</u>	22 quintales, 3 arrobas	42 reales
<u>11 abril semana</u>	<u>101 quintales, 1 arroba ½</u>	<u>21½ reales</u>
	<u>342 quintales, 5 arrobas ½</u>	<u>566 reales</u>
Taia txikiko ardoak 7½ pintas		

1797

Cuenta nueva de los fierros de la herrería de Arranbide
 Fermin de Unsari *Fundidor*

29 abril semana. Aste honetan ez da		
<u>burnirik pisatu</u>	00	Espensa da 51 reales
<u>06 mayo semana</u>	00 quintales, 4	45½ reales
<u>09 mayo semana</u>	67 quintales, 3 arrobas ½	18 reales
<u>10 junio semana</u>	02 quintales, 0 arroba ½	31½ reales
<u>17 junio semana</u>	33 quintales, 2 arrobas	50½ reales
<u>23 junio semana</u>	26 quintales, 4 arrobas ½	46 reales
<u>01 julio semana</u>	25 quintales, 1 arroba ½	45½ reales
<u>08 julio semana</u>	24 quintales, 1 arroba	38 reales
<u>15 julio semana</u>	22 quintales, 5 arrobas ½	51 reales
<u>22 julio semana</u>	22 quintales, 4 arrobas ½	49 reales
<u>29 julio semana</u>	18 quintales, 4 arrobas ½	27 reales
<u>05 agosto semana</u>	36 quintales, 0	52 reales
<u>12 agosto semana</u> }	36 quintales, 4 arrobas	57 reales
<u>14 agosto semana</u> }		
<u>26 agosto semana</u>	09 quintales, 5 arrobas ½	28 reales
<u>02 septiembre semana</u>	15 quintales, 5 arrobas ½	48 reales
<u>09 septiembre semana</u>	27 quintales, 2 arrobas	48 reales
<u>16 septiembre semana</u>	30 quintales, 2 arrobas ½	50½ reales
<u>23 septiembre semana</u>	27 quintales, 3 arrobas ½	51 reales
<u>29 septiembre semana</u>	28 quintales, 3 arrobas	40½ reales
	<u>455 quintales, 5 arrobas ½</u>	<u>828 reales</u>

Taia txikiko ardoak 36½ pintas⁵⁸⁹ Vuelta

⁵⁸⁹ Jarraian olajaunaren apunteak heldu dira, ondoko bi orrialdeetan. Azkenekoetan «de la Teresa Sastresa» onimo interesgarria dago.

1795_1797. Arranbide

1795⁵⁹⁰

Nagusi jauna:

Antokoren⁵⁹¹ seme horko urzalle berriak Arranbiden pasatu dituen denboran (*sic*) egiñ diran burniak dirade:

1795an

Expensas

5 diciembre semana. Aste honetan ez da burnirik pisatu . . . 39½ reales

Honetarako badu ola haundiko kabiguña sartua.

12 diciembre semana. . . . 5 quintales, 2 arrobas ½. *Expensas.* . . . 55 reales

17 diciembre semana. . . . 27 quintales, 0 58½ reales

24 diciembre semana. . . . 33 quintales, 4 arrobas ½. 38 reales

1796

9 enero semana. 36 quintales, 1 arroba ½. *Expensas.* . . . 54 reales

30 enero semana. Ola haundiko erremientak egiten

sartuak 3 días

Goizaringo ola haundiko erremientak egin ziranean Lorenzo igelearen parte[z]⁵⁹² hiru egunean egin ziran burniak:⁵⁹³

27 abril semana 18 quintales, 3 arrobas ½. Expensas. . . . 26 reales

21 mayo semana. Aste honetan

ez da burnirik pisatu . . . 00 Espensa da 35 reales

28 mayo semana. 46 quintales, 2 arrobas ½. 48 reales

Aste hoietan guzietan ola haundian sartu dituen

egunak dira 31 días.

Taia txikiko ardoak ditu. 6 pintas

⁵⁹⁰ Gutun luze honen lehen hiru orrialdeetan olajaunaren apunteak eta kontuak besterik ez dago, eta berdin bosgarren, zazpigarren eta bederatzigarrenean. Besteetan ere badira olajaunaren eragiketak eta oharrak, baina IBren (euskarazko) testua da gehiena. JBMren gaztelaniazko horietan hauek ditugu interesgarri: «*Fermin Jph. Echenique hijo Antoca*», «*Migl. Jph. Echenique hijo Antoca*», «*Miguel Jph. Echenique fundidor Antoca*» (euskaraz *Antoco* dago, o-rekin; deitura erdaraz *Echanique* ere ageri da), «*Migl. Jph. Echenique tirador Arrambide*», «*Abono mas por el poco fierro que a producido [...] por la mala mena*», «*Abono un mango que entraron*», «*por la abenida o entrada de agoa*», «*frailes Aranzazu y Sanfrancisco*», «*Abono por un carro de leña que llevo a Pasqualucenea*». Aintzat har bedi JRMren, IBren eta besteren gutunak eta dokumentazioa Goizuetako *Paskualuzenea* etxean agertu zirela.

⁵⁹¹ Hau *Antokaren (Anto Caren)* irakur daiteke, -a-rekin.

⁵⁹² Iduri du *partez* 'ordez' behar lukeela.

⁵⁹³ 'Hiru egunean egin ziren burdinetan Lorenzo igeleak duen partea'.

1796

Nagusi jauna:

Antokoren seme horko urzalle berri horren kontua bialdu nion,⁵⁹⁴ lenago hemen izandu zuena, eta geroztik hemen horren denboran egiñ diraden burniak dirade, beren espensaki[n]:⁵⁹⁵

<u>6 agosto semana</u>	30 quintales, 1 arroba	Expensas . . .	53½ reales
<u>13 agosto semana</u>	33 quintales, 5 arrobas ½		49 reales
<u>27 agosto semana</u>	28 quintales, 2 arrobas		52 reales
<u>03 septiembre semana</u>	22 quintales, 0 arroba ½		52½ reales
<u>07 septiembre semana</u>	29 quintales, 0 arroba ½		28 reales
<u>24 septiembre semana</u>	33 quintales, 0		54 reales
<u>1 octubre semana</u>	28 quintales, 3 arrobas ½		1 reales
<u>15 octubre semana</u> . Aste honetan ez da burnirik pisatu			53½ reales
<u>22 octubre semana</u>	37 quintales, 5 arrobas		51½ reales
<u>29 octubre semana</u>	34 quintales, 0 arrobas ½		51½ reales
<u>26 octubre semana</u> ⁵⁹⁶	09 quintales, 1 arroba		73½ reales
<u>2 diciembre semana</u>	18 quintales, 0 arrobas ½		48 reales
<u>10 diciembre semana</u>	02 quintales, 2 arrobas		37½ reales
<u>17 diciembre semana</u>	27 quintales, 5 arrobas		59 reales
<u>24 diciembre semana</u>	119 quintales, 3 arrobas		50½ reales

 454 quintales, 0 arrobas

 765 reales

Taia txikiko ardoak ditu...20 pintas

1797

Cuenta nueva de los fierros de la herrería de Arranbide
Migel d[e] Etxanike⁵⁹⁷ tirador Antokoren semea

<u>14 enero semana</u>	22 quintales, 2 arrobas ½	Expensas . .	56 reales
<u>21 enero semana</u>	35 quintales, 4 arrobas		41½ reales
<u>28 enero semana</u>	14 quintales, 3 arrobas ½		57 reales
<u>04 febrero semana</u>	06 quintales, 1 arroba		40 reales
<u>11 febrero semana</u>	58 quintales, 3 arrobas ½		53 reales

⁵⁹⁴ ‘Antokoren semea den horko urtzaile berri horren kontua bidali nion (berorri)’. Migel de Etxanike bide zen Antokoren semea; ikus beheraxeago.

⁵⁹⁵ Hitza lerro bukaeran da eta ez da hondarreko -n edo -ñ ikusten.

⁵⁹⁶ Lehenik 29 octubre dago zerrendan, eta gero 26 octubre.

⁵⁹⁷ Originalean *Miguelde chani que* dago.

<u>17 febrero semana</u>	32 quintales, 1 arroba ½	34 reales
<u>25 febrero semana</u>		
Ola haundiko erremientak egiten	3 días	
Ola konponzen	1 día	
<u>4 marzo semana</u>	04 quintales, 2 arrobas...Expensas . . .	28½ reales
<u>11 marzo semana</u>	12 quintales, 4 arrobas ½.	49½ reales
<u>18 marzo semana</u>	16 quintales, 5 arrobas.	48 reales
<u>24 marzo semana</u>	15 quintales, 3 arrobas ½.	42½ reales
30 marzo ⁵⁹⁸		
<u>8 abril semana</u>	22 quintales, 3 arrobas.	42 reales
<u>11 abril semana</u>	73 quintales, 1 arroba	21½ reales
	<hr/>	
	314 quintales, 5 arrobas	513 reales ⁵⁹⁹

Taia txikiko ardoak...6 pintas

1797

Cuenta nueva de los fierros de la herrería de Arranbide Miguel d[e] Etxanika⁶⁰⁰ hijo de Antoko tirador

<u>29 abril semana</u> . Aste honetan ez da burnirik pisatu	00...Espensa da	51 reales
<u>06 mayo semana</u>	00.....5	45½ reales
<u>09 mayo semana</u>	67 quintales, 3½ arrobas.	18 reales
<u>10 junio semana</u>	02 quintales, 0 arroba ½	31½ reales
<u>17 junio semana</u>	33 quintales, 2 arrobas.	50½ reales
<u>23 junio semana</u>	26 quintales, 4 arrobas ½.	46 reales
<u>01 julio semana</u>	25 quintales, 1 arroba ½	45½ reales
<u>08 julio semana</u>	24 quintales, 1 arroba	38½ reales
<u>15 julio semana</u>	22 quintales, 5 arrobas ½.	51 reales
<u>22 julio semana</u>	22 quintales, 4 arrobas ½.	49 reales
<u>29 julio semana</u>	18 quintales, 4 arrobas ½.	27 reales
<u>05 agosto semana</u>	36 quintales, 0	52 reales
<u>12 agosto semana</u> }		
<u>14 agosto semana</u> }	. . . 36 quintales, 4 arrobas.	51 reales

⁵⁹⁸ Gainmarratua, belztua dago.

⁵⁹⁹ Juan Bautista Minondok idatzia da hau.

⁶⁰⁰ Originalean *Miguelde chani Ca* dago. *Etxenike, Etxanike* bera da *Etxanika* hau, bistan da.

<u>26 agosto semana</u>	09 quintales, 5 arrobas ½.	28½ reales
<u>02 septiembre semana</u>	15 quintales, 5 arrobas ½.	48½ reales
<u>09 septiembre semana</u>	27 quintales, 2 arrobas.	48½ reales
<u>16 septiembre semana</u>	30 quintales, 2 arrobas ½.	50½ reales
<u>23 septiembre semana</u>	27 quintales, 3 arrobas ½.	51 reales
<u>29 septiembre semana</u>	28 quintales, 3 arrobas.	40½ reales

455 quintales, 5½ arrobas	824 reales
---------------------------	------------

Taia txikiko ardoak 22½ pintas

1797.01.05. Arranbide

1796

Nagusi jauna:

Sebastian de Etxeberriak, Aranoko ardamandazaiak,⁶⁰¹ Arranbidera ekarri dituen ardoak dirade:

<u>30 marzo</u>	1 pellejo de vino	15 docenas y.	10 libras
<u>09 abril</u>	1 pellejo	18	06
<u>16 abril</u>	1	14	11
<u>24 abril</u>	1	17	08
<u>30 abril</u>	1	16	03
<u>18 mayo</u>	1 carga	31	10
<u>28 mayo</u>	1 carga	30	09
<u>15 junio</u>	1 pellejo	15	10
<u>30 junio</u>	1 pellejo	17	05
<u>06 julio</u>	1	15	11
<u>14 julio</u>	1	15	06
<u>30 julio</u>	1	15	07
<u>04 agosto</u>	1	17	11
<u>5 agosto</u>	1	15	09
<u>12 agosto</u>	1	15	05
<u>24 agosto</u>	1	15	06
<u>27 agosto</u>	1	15	05
<u>04 septiembre</u>	1 carga	31 docenas	09 libras
<u>23 septiembre</u>	1 carga	30 docenas	02 libras

⁶⁰¹ Beraz, bi ardamandazain genituen: Patxiku eta Sebastian Etxeberria.

6 octubre 1 pellejo 15 docenas 02 libras
14 octubre 1 pellejo 16 docenas 0.....
21 octubre 1 pellejo 15 docenas 5 libras
02 noviembre 1 pellejo 16 docenas 1 libras
17 noviembre 1 pellejo 18 docenas 1 libras
26 noviembre 1 pellejo 15 docenas 10 libras
3 diciembre 1 pellejo 16 docenas 1 libras
10 diciembre 1 pellejo 15 docenas 10 libras⁶⁰²

Vuelta

16 diciembre 1 pellejo 15 docenas 11 libras
21 diciembre 1 pellejo 15 docenas 09 libras⁶⁰³

Arranbide, enero 5 de 1797

Ignazio.

1797.01.16. Arranbide

Menaqueros Arano⁶⁰⁴

Nagusi jauna:

Sebastian Etxeberria Aranoko ardamandazaia⁶⁰⁵ hemen izandu da, nahi lukeala jakin kontuak egitera noiz etorriko den, egun bat siñala diozala⁶⁰⁶ eta etorriko dela orduan, alper beajerik⁶⁰⁷ egiñ gabe,⁶⁰⁸ nahi litukeala kontuak garbitu. Eta beste beratar meakari hoiek esan diotela Konsejutik⁶⁰⁹ hartu duten espensa edo gauza guzian kontua eman diotela beurri, eta haien⁶¹⁰ esanarekin eziñ fiatu dirala, eta gaztiga diozatela⁶¹¹ konturik eman dioten, edo zenbat kontu eman dioten jakin nahi luketela, eta gaztigatzeko. Beratar meakari hoiek beti bondade⁶¹² haundia dute, eta mea gutxi egin!

⁶⁰² Olajaunaren batuketa dugu honen azpian.

⁶⁰³ Honen ondoren berriz JBMren apunteak daude.

⁶⁰⁴ JBMren oharra dugu hau.

⁶⁰⁵ 1800.01.14ko gutunean, JBMren apunte batean ageri den «*Sebastian Etxeberria Larrachuri arriero*» bera da hau.

⁶⁰⁶ 'Para diezaiola berorrek (hari)'.

⁶⁰⁷ 'Alfer bidaiarik', 'alferreko itzulirik'.

⁶⁰⁸ Beherago, gutun honetan berean, *bage*.

⁶⁰⁹ 'Udaletik'.

⁶¹⁰ Testuan *oyen* edo *ayen* dagoen ez dago, guretako, argi.

⁶¹¹ 'Jakinaraz diezaiela (berorrek)'.

⁶¹² Seguruenik *borondate*-ren partez dagoke *bondade* hau.

Ni nago Aranoko Konsejuan egiten duten zorren diña mea ote duten. Ez da bada, noski, beurri ere dirurik eman gabe, baña diruak gastatu eta zorra bizi ote den nago. Enfiñ, beurrek jakiñen du hobeki nola dagoan.

Bada, Erbizaño errekan⁶¹³ bi lagunak erdi bana egin zituzten
mea guziak dirade 43 quintales, 3 arrobas

Eta Patxiko Jai[n]koaren⁶¹⁴ lagunak berak bakarrik

Erbizaño errekan egiñak ditu, bere propioak. . 13 quintales, 5 arrobas ½

Hoiiek dira Erbizingo errekan egiñ zituzten mea guziak.

Hoietaz gañera, Aranoko Goiko mendian bi lagunak

erdi bana egin dituzten guziak dirade 115 quintales, 4 arrobas

Horra horiek egin dituzten mea guziak, eta horien kontua, nahi duenean garbi dezagun, eta guziak llebarik bage pisatuak dira.

Vuelta

Gregorio igeleak eta honen anaie Anbrusio de Eskuderok zakurik ez daukate bat ere gauza denik, eta baldiñ zakurik badu,⁶¹⁵ behar dutela zaku pare bana al duen lasterrena.⁶¹⁶

Arranbide, enero 16 de 1797

Ignazio.

A Juan Bautista de Minondo.

Que Dios muchos años [guarde].

Goizariñ

⁶¹³ Aranoko aurkintzak dira *Erbizin* eta *Erbizingo erreka* (NTEM, 47: 36); 1745ean *Erbizuren* ageri da. Aitzinago (1800.03) *Erbizañ* daukagu.

⁶¹⁴ Originalean *Jaicoaren* dago. 1796.05.13(A) gutunean JBMk erdaraz *Jancoicoa*, *Janjoicoa* deitzen duena, 1797.05eko *Jaincoa* bera (*BeraCo JainCoaq* ‘Berako Jainkoak’, ergatiboan) da hau. *Kristo* ere bada gutunotan (*Bizente Cristoq*, erg., 1801.05.02ko eskutitzean), eta *Jaunzerukoa* gure izengoititegian.

⁶¹⁵ ‘Eta baldin berorrek zakurik badu’.

⁶¹⁶ ‘Berorrek ahal duen azkarrena, fitetzena’.

1797.02.25. Arranbide

Nagusi jauna:

Gaur akabatzeko deseoa nuen heme[n]go lana,⁶¹⁷ baña ez degu akabatuko, izanen da asteleneko diña lan ere. Bai,⁶¹⁸ ola hobeko degu hasi [...]terri⁶¹⁹ goizean, egun batengatik! Enfiñ, beurrek nahi duena edo deritzena⁶²⁰ gaztigatu beza.

Sebastian Etxeberriak Urteberri egunetik honaraño dituen ardoan kontua⁶²¹ eskatu dit, eta Urteberrietik honaraño dituen ardoak ditu:

1797

Hasta 1 enero.....1 pellejo.....15 docenas y 11 libras

Hasta 12 enero.....1 pellejo.....15 docenas... 6 libras

Hasta 17 enero.....1 pellejo.....15 docenas... 6 libras

Hasta 26 enero.....1 pellejo.....15 docenas... 2 libras

Hasta 31 enero.....1 pellejo.....15 docenas... 4 libras

Hasta 7 febrero1 pellejo.....16 docenas... 4 libras

Hasta 13 febrero1 pellejo.....15 docenas... 7 libras

Hasta 18 febrero1 pellejo.....15 docenas... 5 libras

Hasta 21 febrero1 carga.....31 docenas... 5 libras

Arranbide, febrero 25 de 1797

Ignazio.⁶²²

1797.04.11(A). Arranbide

Nagusi jauna:

Patxiku beratar horrek eta Paskoal de Insauspek Erbizaño errekan egiñ dituzten meak dirade.....129 quintales, 1 arroba.

⁶¹⁷ Originalean *Emegola/na* dago.

⁶¹⁸ Originalean *Erenai* lotua dago, baina esteka kontu horietan aski anarkikoa da IB. Euskal joskeraren aldetik, guk idatzi –puntuatu– bezala eman behar dela uste dugu.

⁶¹⁹ Lehen letrak belztuak daude. Bakarrrik akabailako *terri* ikusten da. Seguruenik, gero *Urteberri* heldu dela ikusirik, hori adierazi nahi zuen, baina izkiriatzeko tenorean nahasi.

⁶²⁰ Lau aldiz darabil IBk *deritzena*. Ikus 1796.12.14ko, 1798.09.28ko eta 1800.07.23ko gutunak. Baina *daritzana* (1794.07.01) ere badu, baita *daritzan bat* (1788.06.26), *zer daritzan* (1792.07.18) eta *daritzan bezalakoa* (1799.03.26) ere.

⁶²¹ ‘Honaino dituen ardoen kontua’.

⁶²² Honen gainean eta azpian olajunaren zenbait ohar eta kontu heldu dira.

Eta mea hoietatik ez dakit *febreroko* hilleko asentuan paraturik ote den. Porfiñ,⁶²³ ekusi beza *febreroko* hilleko asentuan paraturik ote den Paskoal horrenik, eta baldin paraturik bada ezpada,⁶²⁴ orañ hemen paratuak izanen dira guziak.

Carretero Paskoal de Insauspe

Cuenta en el mes de febrero

Derecho por menas

Patxiku beratarrak eta Paskoal Insauspek

Erbizaño errekan egiñak. . . . 47 *quintales*, 2 *arrobas*

El mes de marzo 35 *quintales*, 0 *arroba*

El mes de abril 46 *quintales*, 4 *arrobas* ½

Horra karretoko asentua hillean hillekoa, aparte nahi badu ere. Ez dute⁶²⁵ hill honetan mea gehiago izanen.

Arranbide, *abril 11 de 1797*

Ignazio.

Horiek badituzte meatzerako hartuak borra⁶²⁶ bat eta palanka ziri baten gaia⁶²⁷... 42 *libras de fierros*.⁶²⁸

A Juan Bautista de Minondo.

Que Dios muchos años [guarde].

Goizariñ

⁶²³ Beste zenbaitetan ere azaltzen da hau. Iduri du gatzelaniatikako *enfiñ*-en adierakidea dela.

⁶²⁴ 'Paraturik bada edo paraturik ez bada'.

⁶²⁵ Adizkiaren *d* hori belztua dago.

⁶²⁶ 'Mailu handia'. Ikus JRM (II, 246).

⁶²⁷ Iduri du IBk palanka egiteko gaia, burdin ziria, adierazi nahi duela. Ikus JRM (II, 247-248 eta 349).

⁶²⁸ Honen jarraian *Buelta* ageri da, JBMk idatzia, eta orrialdearen atzeko aldean olajaunaren hainbat apunte daude, erdaraz. Interesgarrienak *Pachico veratarra*, «*la hija de Choricho*», *Luisa Echave*, «*mena de Erbizain*» eta batez ere *Paqⁱ Ynchauspe* dira, azken honen kasuan euskarazko testuko *Pascoal (de) Ynsauspe(q)* bera delako, alegia, euskaraz, itxuraz bederik, *-nsa-* dugulako eta gatzelaniaz *-ncha-* esan *Intsauspe* esaten zatekeelako, hain segur.

1797.04.11(B). Arranbide

Nagusi jauna:

Bergamazoia⁶²⁹ pareta hagitx irauli da, eta ez dira atrebitu bigar artea⁶³⁰ aritzera. Juan dira itxera, esan dute kontuak egiñ behar dituztela, horrarako dirala⁶³¹ eta asentuak bial ditzadala. Eta horra Ferminen eta Antokoren eta Kaperoren asentuak, leneko kontua egin ezkerokoak.

Lore[n]txio⁶³² horko igeleak Antokoren seme horren partez pasatu du aste bat. Hartan egiñ diran burniak dira *1 abril semana..28 quintales, 0*. Eta espensak dira *52½ reales*.

Hoietaz gañera, badu kabiguña sarzen tokatzen zaiona,⁶³³ eta taia txikiko ardoak baditu hiru txiki.⁶³⁴

Hoiek dira Lorentxiori tokatzen zaskionak.

Aste honetan bertan Jaimek ere baditu Pelizen partez pasatuak bi egun meallekoan,⁶³⁵ eta Kaperoren partez egiñak zazpi agoa,⁶³⁶ eta hoietaz gañera kabiguña sarzen tokatzen zaiona.

Arranbide, abril 11 de 1797

Ignazio.

1797.04.12. Arranbide

1797

Nagusi jauna:

⁶²⁹ Olako pareta baten izena da *bergamazoia*; ikus JRM (II, 239). Iduri du *-a* hori berezkoa dela, ez dela artikulua, IBren eta JRMren erabilera ikusita.

⁶³⁰ 'Bihar arte', 'bihar artean'. Ikus JRM (II, 222-223).

⁶³¹ 'Horra joanen direla'. Honetaz ikus JRM (II, 63).

⁶³² Originalean *Lorechio* dago hemen, baina *lo ren chio ri* (sic) 'Lorentx(i)ori' beheitixeago, gutun honetan berean.

⁶³³ Honen azpian, JBMk idatzirik, «*Cargo al tirador Antoco 2 Pesos*» dago lehenik, eta *Advierto* gero.

⁶³⁴ 'Hiru txiki ardo'.

⁶³⁵ 'Meaile lanetan'. *Meailea* 'mea mailuarekin txikitzen duena' da; ikus JRM (II, 331).

⁶³⁶ 'Urtzaileak burdinolako sutegian lortzen duen burdina edo zamarra'. Ikus JRM (II, 207).

Urte honetako gure ikazgilean plazeriak ⁶³⁷ izanen dira lenbizikoak Añarbekoarekin ⁶³⁸ (<i>sic</i>) trukada egin dudanak, ⁶³⁹ Ozizpeko ondoan. ⁶⁴⁰	
Gregorio Arotzandia ⁶⁴¹ <i>y su compañero</i> Mariola.	33 <i>quartos</i>
<i>Pelipe fundidor</i>	32
Arranbideko suertekoak, Burniñzabalko ⁶⁴² suertekoak eta Legarraldeko ⁶⁴³ edo Buztindegiko ⁶⁴⁴ suertekoak.	
Agustin de Ubitzi ⁶⁴⁵	32 <i>quartos</i> ⁶⁴⁶
Migel Fermin de Mitxelena ⁶⁴⁷	34
Esteban de Ansa ⁶⁴⁸	34
Juan Antonio Iribarren.	38
Juamigel de Galdeano Mund[r]ago ⁶⁴⁹	38
Sebastian Artxaia <i>viejo</i> ⁶⁵⁰	36

⁶³⁷ ‘Ikazgilearen fazeriak’ edo ‘ikazgileen fazeriak’, bigarrena seguruenik. Ikus izen morfologiari eskainitako atala. Plazeriak ‘elkarrekikoak’ ohi dira, hau da, eskuarki bi herriren arteko lur amankomuna, biek ibil dezaketena, larretako, alhapidetako. Gutun hauetan, alabaina, ‘baso puska’-edo dela dirudi, enkantean ateratzen zena.

⁶³⁸ ‘Añarbekoarekin’; ez dakigu lehen *-e-* hori hutsa den edo asimilazioaren fruitu. *Añarbe*, ezaguna den bezala, Goizuetako ugalde baten eta Donostia urez hornitzen duen urtegi baten izena da. Baserria ere bazen.

⁶³⁹ Ohart bekio erlatiboari: ‘...plazeriak izanen dira Añarbekoarekin egin ditudan lehenbiziko trukadak’. *Trukada* ‘trukatzea’, ‘trukea’ da.

⁶⁴⁰ Nabarmentzekoa da *ondoan* postposizioak batzuetan *-ko* duela aurrean, ez egun egiten den moduan *-ren* edo \emptyset . *Ozizpe* Errenteriako aurkintza da (EJ).

⁶⁴¹ Aranoko *Arotzandia* etxekoa zatekeen.

⁶⁴² Segur aski Aranoko aurkintza izanen da, *Burninburu*-rekin lotutakoa (ikus NTEM 47: 35).

⁶⁴³ Aranoko aurkintza izanen da. NTEM 47-n (41. or.) *Legarreta* eta *Legarrondo* biltzen dira, baita *Legarrea* ere (181. or.), eta orain aipagai dugun *Legarralde* toponimoa horiekin lotua dagoela ematen du.

⁶⁴⁴ *Buztindegia* hau ere Aranoko dermioa dela dirudi, baina ez da NTEM 47-n biltzen; bai ordea *Buztinzulo* (35. or.).

⁶⁴⁵ Hau *Uitzi* deitura ezaguna dela dirudi, Larraungo herritik atera zatekeena. *Luis* > *Lubis* egiten den bezala, *Uitzi* > **Ubitzi* ere egiten zen. 1805.06.24ko gutunean *ubichi* idatzirik ageri da, seinale, seguruena, [t_g]-rekin ebakitzen zutela, IBk soinua behar bezala irudikatzeko arazo grafikoak izanagatik. JRMk ere (ikus II, 30) *Uichi* eta *Huizi* dauzka batean. Ikus 1796.12.14ko eskutitzean honetaz dioguna.

⁶⁴⁶ Eskuinaldean badira olajaunak idatzi zenbaki batzuk.

⁶⁴⁷ *Mitxelena* (*Mitxelne*, *Mitxelene* egun) Aranoko etxea da.

⁶⁴⁸ Aranoko *Antsenea* (*Antsene* egun) etxekoa zatekeen.

⁶⁴⁹ Originalean *Mundago* dago. Beste batzuetako *Mundrago* bera dugu, segur aski eramaila, horren «jabea», *Arrasate* edo *Mondragoi*-n sortua zelako edo herriarekin nolabaiteko harremana izan zuelako.

⁶⁵⁰ Segur aski aita eta semea bereizteko ageri dateke *viejo* izenondoa; beste batzuetan *Artxaizarra* dugu (ikus, adibidez, 1792.07.06 inguruko gutuna edo 1792.03koa). Semea «*hijo de Artxaia*» ohi da eskutitzotan. Ikus onomastikari eskaini kapituluan dioguna.

Juan Domiño ⁶⁵¹ de Ubitzi	36
Juan Esteban de Zabala Danboliña ⁶⁵²	36
Jose Domingo de Zabala Enaztikoak ⁶⁵³	40
Juan Ignazio de Urdanpillote ⁶⁵⁴	
Oiarzungo batek	44
Honek badu erraja ⁶⁵⁵ errugu bat baba gehiago. Ez dute iñork beste errajarik nik emanik.	

Arranbide, abril 12 de 1797

Ignazio.

1797.05.06. Arranbide

Nagusi jauna:

Zarrukok eta bere anaie Baratzurik⁶⁵⁶ meatzeko harria pasatzen hasi ziranetik, Lorentxio Trabujorena⁶⁵⁷ haiekin hasi den bitartean,⁶⁵⁸ bi anaieak egin dituzten mea guziak dira:

Harria pasatzen eginak *6 quintales, 1 arroba ½*
 Eta hoietaz gañera egiñ dituzten guziak dira . . . *85 quintales, 5 arrobas*

⁶⁵¹ Bitxia da *ñg* segida, esaten zaila. Horregatik, badaiteke *ñ* hori kontsonante belarraren palataltasuna adierazteko agertzea, hots, *Dominddo, Ddominddo* moduko zerbait irudikatzeko. Beste batzuetan ere azaltzen da, alabaina, *ñ*, palatalizaturik ezin egon daitekeen testuinguruan.

⁶⁵² Hau ere (etxe) izengoitia izanen da. Ikus 1802.04.28ko gutunean dioguna.

⁶⁵³ Ergatiboan dago, ikusten den bezala. *Enazti* Aranoko baserria da.

⁶⁵⁴ *Urdanpilleta* izanen da menturaz, baina irakurri, arrunt argi irakurtzen da. *Urdanpilletamendia, Urdanpilletabekoa* eta *Urdanpilletagoikoa* Beizamako baserriak dira (EJ).

⁶⁵⁵ Gaztelaniazko *rebaja* ‘merkatzea’ izenaren euskarako baliokidea dela dirudi, *errebaja* alegia. Ez dugu uste OEHN Aranokotzat ematen den *erraja* ‘ehorzketara eskaintzatat eramaten den aharia’ den.

⁶⁵⁶ Goizuetan *barátzuri* esaten diote *baratzuri*-ari. Lesakan bada *Barátzuri* izengoitia duen familia. Bi anaiok 1796.03.23(B) gutunean azaltzen dira, esaterako.

⁶⁵⁷ ‘Lorentxo Trabujoren semea’ izanen da hau. Euskal izenetan [x] eta [k] elkarren ordainetan erabili izan baitira (*Jexus - Kexus, Joxe - Kotte*), badaiteke *Trabujo* hau kantu ezaguneko *Trabuko* bera izatea, edo haren ondorengoa. Aldera bedi hasieran *Lujanbio / Lukanbio* pareaz esan dugunarekin. Ikus 1792.07.18ko eskutitzean dioguna.

⁶⁵⁸ ‘Haiekin hasi den bitarte’, ‘haiekin hasi den arte’.

Hoiek⁶⁵⁹ dira harria pa[sa]tzen⁶⁶⁰ hasi ezkerko Zarrukok eta Baratzurik eta bi anaie horiek⁶⁶¹ egiñ dituzten meak guziak.⁶⁶²

Hoietaz gañera, Lorentxio Trabujorenak bere semearekiñ eta Baratzurik eta Zarrukok eta lauen artean egiñ dituzten mea guziak dirade:

8 de abril egun honetarañ[o]⁶⁶³ egiñak *39 quintales, 5 arrobas ½*.

Horra, horiek dira horien mea guziak.

Arranbide, *mayo 6 de 1797*

Ignazio.

1797.05. Arranbide

1797 Carretero Gregorio Arotzandia

Cuenta en el mes de mayo

Carboneros

Cargas

Gregorio Arotzandia. *Suerte*

*de Gorriola, lo de Arranbide 01*⁶⁶⁴

[1797]⁶⁶⁵

Carretero Manuel de Etxeberria

Cuenta en el mes de mayo

[*Carbon*]eros

Cargas

[Es]teban de Zabala. *Suerte de*

⁶⁵⁹ Ondoko *horiek*, *horien* ikusirik, *hoiek* ‘hauek’ dela kontu egin beharko dugu.

⁶⁶⁰ Hemen *pasazen* ‘pasatzen’ behar luke, baina *pazen* dago originalean.

⁶⁶¹ Erredakzio kontua izanen dugu hemen: badirudi anaia bakarrak *Zarruko* eta *Baratzuri* zirela. Alegia, uste dugu IBk pasarteñoa honela puntuatu nahi zuela: «Hoiek dira harria pasatzen hasi ezkerko Zarrukok eta Baratzurik, bi anaie horiek, egiñ dituzten mea[k] guziak». Hurrengo paragrafoan ere «*eta lauen artean*»-en ordez «*eta, lauen artean,*» egokiagoa dela dirudi.

⁶⁶² «*Mea guziak*» behar luke; bukaeran hola ageri da. Ez dakigu hutsa den –hala dirudi– edo mugatzaila sintagmako bi kideei paratu nahiaren ondorioa. Beste interpretazioa hau da: «...*egiñ dituzten meak, guziak*».

⁶⁶³ Originalean *onetarañ* dago, baina *onetaraño* behar luke.

⁶⁶⁴ Eskuinean eta peko aldean JBMren apunte batzuk daude.

⁶⁶⁵ Puska bat falta zaio orriari eta ez da (ustezko) data ikusten.

Legarra]lde, lo de Arranbide. 07⁶⁶⁶

1797

Carretero Martin de Tellitxea

Cuenta en el mes de mayo⁶⁶⁷

Carboneros

Sebastian Artxaia *viejo. Suerte de*

Gorriola, *lo de Arranbide. 07⁶⁶⁸*

Agustin de Ubitzi. *Suerte de*

Gorriola, *lo de Arranbide. 13*

Domiño Bizente de Mitxelena

Suerte de Legarralde,⁶⁶⁹ *lo de Arranbide. . . 27*

Juan Esteban de Zabala. *Suerte de*

Legarralde,⁶⁷⁰ *lo de Arranbide.*

El mes de abrillean huts egiñak⁶⁷¹. 06

Hill honetakoak. 05

Alzateko ikatz itoak⁶⁷². 01

Agustin de Ubitziri Basoberriko

iduriak⁶⁷³ emateko portea. 1½ reales

Derecho por menas Paskoal de Iribarren,

el monte de Arano. 8 quintales, 0 arroba ½

Expensas. . . 10½

⁶⁶⁶ Eskuinean eta beheko aldean JBMren zenbait apunte ditugu.

⁶⁶⁷ Eskuinean eta azpiko aldean aldean JBMren apunte batzuk ageri dira.

⁶⁶⁸ Eskuinean eta behean JBMren zenbait apunte dauzkagu.

⁶⁶⁹ Originalean *LegarAlde* dago.

⁶⁷⁰ Jatorrizkoan *LegarAlde* dugu.

⁶⁷¹ Originalean *useguiñaq* dago.

⁶⁷² *Alzate* denboraz Artikutzako burdinoletako bat zen. Ikus JRM (II, 186). *Ikatz itoa*, bestalde, ikatz mota zen, baina ez dakigu xuxen nolakoa. Ikus JRM (II, 299).

⁶⁷³ *Iduria* 'ikatz xehea' izan daiteke nahiz 'gaztainondo mota bat'. Ikus JRM (II, 297). *Basoberri(a)* Aranoko aurkintza ote zen ez dakigu seguru. Beste herri batzuetan ere ageri da (Arama, Zarautz...), baina hori ez da harritzeko, eta gutunekoa Arano-Goizueta alderdi horretakoa izanen da.

1797 Carretero Sebastian de Etxeberria

Cuenta en el mes de mayo⁶⁷⁴

Carboneros

Sebastian Artxaia viejo. *Suerte de*

Gorriola, lo de Arranbide. 16½

Agustin de Ubitzi. *Suerte de*

Gorriola, lo de Arranbide. 15

Domingo Bizente Mitxelena. *Suerte de*

Legarralde,⁶⁷⁵ *lo de Arranbide*. 16

Juan Esteban de Zabala. *Suerte de*

Legarralde,⁶⁷⁶ *lo de Arranbide* 08

Alzateko ikatz itoak. 06

Derecho por menas Paskual de Iribarren,

el monte de Arano. 7 quintales, 3 arrobas

Derecho por menas Berako Jainkoak⁶⁷⁷ bere

lagun berriarekin Arano aldeko

Goiko mendian egiñak 7 quintales, 5 arrobas

Expensas. 10½

1797 Carretero Juamartin de Ansa

Cuenta en el mes de mayo⁶⁷⁸

Carboneros

Agustin de Ubitzi. *Suerte de*

Gorriola, lo de Arranbide. 13

Domingo Bizente de Mitxelena. *Suerte de*

Legarralde,⁶⁷⁹ *lo de Arranbide*. 15

Juan Esteban de Zabala. *Suerte de*

Legarralde,⁶⁸⁰ *lo de Arranbide*. 02

⁶⁷⁴ Eskuinean eta peko aldean JBMren apunte batzuk daude.

⁶⁷⁵ Originalean *Legar Alde* dago.

⁶⁷⁶ *Legar Alde* dugu originalean.

⁶⁷⁷ Izengoiti hau lehenago ere agertu da. Ikus 1796.05.13(A) (*Jankoihoa*, JBMk idatzia) eta 1797.01.16 (*Patxiko Jai[n]koaren lagunak*).

⁶⁷⁸ Eskuinean eta peko aldean JBMren apunte batzuk daude.

⁶⁷⁹ Originalean *Legar Alde* dago.

⁶⁸⁰ *Legar Alde* dugu originalean.

Txaradiko⁶⁸¹ ikazgille bati iduriak
emateko portea 6 reales

Expensas . . . 4

1797 Carretero Martxaren suña

Cuenta en el mes de mayo⁶⁸²

Carboneros	Cargas
Sebastian Artxaia <i>viejo</i> . <i>Suerte de</i> <u>Gorriola, lo de Arranbide</u>	05
Agustin de Ubitzi. <i>Suerte de</i> <u>Gorriola, lo de Arranbide</u>	20
Domiño Bizente de Mitxelena. <i>Suerte</i> <i>de Legarralde</i> , ⁶⁸³ <i>lo de Arranbide</i>	21
Juan Esteban de Zabala. <i>Suerte</i> <i>de Legarralde</i> , ⁶⁸⁴ <i>lo de Arranbide</i> <u>Leneko hillean huts egiñak</u> ⁶⁸⁵	06
<u>Hill honetakoak</u>	02
<u>Alzateko ikatz itoak</u>	01
Agustin de Ubitziri iduriak emateko <u>portea</u>	1½ reales
<i>Derecho por menas</i> Paskoal Iribarren <u>el monte de Arano</u>	12 quintales, 3 arrobas ½
<i>Derecho por menas</i> beratar meakariak, Jainkoak, eta bere lagun berriak <u>Aranoko</u> <u>Goiko mendian egiñak</u>	1 quintales, 1 arroba

Expensas 12½

⁶⁸¹ Txaradi Aranoko dermioa da (NTEM 47: 47).

⁶⁸² Eskuinean eta peko aldean JBMren apunte batzuk daude.

⁶⁸³ Jatorrizko testuan *Legear alde* dugu.

⁶⁸⁴ Jatorrizkoan *Legear alde* dago.

⁶⁸⁵ Originalean *usegiñaq* dago idatzirik.

1797 Carretero Anbrusio de Eskudero

Cuenta en el mes de mayo⁶⁸⁶

Carboneros *Cargas*

Agustin de Ubitzi. *Suerte de*
Gorriola, lo de Arranbide.09

Domingo Bizente Mitxelena. *Suerte de*
Legarralde,⁶⁸⁷ lo de Arranbide.01

Derecho por menas Paskual de Iribarren,
El monte de Arano1 quintal, 1 arroba ½

1797 Carretero Jose Antonio de Eskudero

Cuenta en el mes de mayo⁶⁸⁸

Carboneros *Cargas*

Gregorio Arotzandia. *Suerte de*
Gorriola, lo de Arranbide.02

Derecho por menas Paskual de Iribarren
El monte de Arano4 quintales, 4 arrobas

Expensas . . . 1

1797 Carretero Pepe Lukanbio

Cuenta en el mes de mayo⁶⁸⁹

Carboneros *Cargas*

Gregorio Arotzandia. *Suerte de*
Gorriola, lo de Arranbide.02

Sebastian Artxaia viejo. *Suerte de*
Gorriola, lo de Arranbide.02

Agustin de Ubitzi. *Suerte de*
Gorriola, lo de Arranbide.03

Domingo Bizente Mitxelena. *Suerte de*
Legarralde,⁶⁹⁰ lo de Arranbide.04

⁶⁸⁶ Eskuinean eta azpiko aldean JBMren apunte batzuk ditugu.

⁶⁸⁷ Jatorrizko testuan *Legear Alde* dugu.

⁶⁸⁸ Eskuinean eta behean olajaunaren zenbait apunte dauzkagu.

⁶⁸⁹ Eskuinean eta peko aldean JBMren apunte batzuk daude.

⁶⁹⁰ *Legar Alde* dago idatzirik.

Juan Esteban de Zabala. *Suerte de Legarralde*,⁶⁹¹ *lo de Arranbide* 03

Derecho por menas Paskual Iribarren
el monte de Arano, 3 quintales, 0

1797 *Carretero* Gregorio Eskudero
*Cuenta en el mes de mayo*⁶⁹²

Carboneros

Gregorio Arotzandia. *Suerte de Gorriola*, *lo de Arranbide*. 04

Sebastian Artxaia *viejo*. *Suerte de Gorriola*, *lo de Arranbide*. 01

Agustin de Ubitzi. *Suerte de Gorriola*, *lo de Arranbide*. 15

Domiño Bizente Mitxelena. *Suerte de Legarralde*,⁶⁹³ *lo de Arranbide*. 09

Juan Esteban de Zabala. *Suerte de Legarralde*,⁶⁹⁴ *lo de Arranbide*. 08

Derecho por menas Paskual de Iribarren
El monte de Arano 7 quintales, 2 arrobas

Expensas. . . 1

1797 *Carretero* Manuel de Ansa
*Cuenta en el mes de mayo*⁶⁹⁵

Carboneros

Cargas

Gregorio de Arotzandia. *Suerte de Gorriola lo de Arranbide* 04

Artxaia *viejo*. *Suerte de Gorriola*, *lo de Arranbide*. 01

Agustin de Ubitzi. *Suerte de Gorriola*, *lo de Arranbide*. 12

⁶⁹¹ *Legr Alde* idatzirik dago.

⁶⁹² Esquinean eta behean JBMren zenbait apunte heldu dira.

⁶⁹³ *Legar alde* izkiriaturik dago.

⁶⁹⁴ *Legar alde* idatzia da.

⁶⁹⁵ Esquinean eta peko aldean JBMren apunte batzuk ditugu.

Domiño Bizente Mitxelena. *Suerte de Legarralde*,⁶⁹⁶ *lo de Arranbide* 07
 Juan Esteban de Zabala. *Suerte de Legarralde, lo de Arranbide*
 Apirillean leneko hillean huts egiñak⁶⁹⁷. 05
Derecho por menas Paskual de Iribarren
 El monte de Arano. . . . 1 *quintal, 5 arrobas* ½

1797 *Carretero* Gregorio Arotzandia
 Cuenta en el mes de mayo⁶⁹⁸

Carboneros *Cargas*
 Gregorio de Arotzandia. *Suerte de Gorriola, lo de Arranbide* 01

1797⁶⁹⁹ *Carretero* Manuel de Etxeberria

Carboner Cuenta en el mes de mayo
*Sebastia[n]jeros*⁷⁰⁰ *Cargas*
 Gorriol[a] [Juan Es]teban de Zabala. *Suerte de Agusti[...]*⁷⁰¹ [Legarra]de, *lo de Arranbide*.
 Gorri[ola]. 07

1797.05.20. Arranbide

1797

Nagusi jauna:

Leneko kontua bialdu ezkerro, Sebastian de Etxeberriak Arranbidera ekarri dituen ardoak dirade:

⁶⁹⁶ *Legar alde* idatzirik dago.

⁶⁹⁷ Testuan *uSeguiñaq* dugu.

⁶⁹⁸ Azpiko aldean badira JBMk egindako apunte batzuk.

⁶⁹⁹ Zenbakia ez da biziki ongi ikusten.

⁷⁰⁰ Hitzaren azken zatia, *-eros, Sebastia[n]* izenaren ondo-ondoan da, baina gaineko lerroko *Carboner[os]* horri dagokio, bistan denez. Hurrengo lerroetan ere hitz zati batzuk ondoko lerroan daude, ez dakigu ongi zergatik.

⁷⁰¹ *Agustin de Ubi(t)zi* dagoke honen azpian.

27 febrero 1 pellejo 15 docenas 8 libras
6 marzo 1 carga 31 docenas 9 libras
24 marzo 1 cargas (sic) 31 docenas 9 libras
11 abril 1 pellejo 15 docenas 4 libras
23 abril 1 pellejo 15 docenas 3 libras
1 mayo 1 pellejo 15 docenas 6 libras
10 mayo 1 pellejo 16 docenas 2 libras

Arranbide, mayo 20 de 1797

Ignazio.⁷⁰²

1797.07.06. Arranbide

1796 Razón de los carbones Santiago de Alzubide (sic)
Suerte de Arano, junto de Agoña

	7		
<u>17 agosto, Primera carbonera</u>	49	...	1
<u>21 octubre</u>	45	...	1
<u>1797</u>			
<u>28 enero</u>	62	...	2
<u>22 febrero</u>	44		
<u>30 marzo</u>	38	3	...
<u>5 julio</u>	45	...	1
	290		

Iduriak berak hartuak ditu.

Arranbide, julio 6 de 1797

Ignazio.⁷⁰³

⁷⁰² JBMren erdarazko oharrak eta zenbakiak daude honen jarraian. Interesgarrienak hauek dira: «*Ubizi en Pamplona*» eta *Larrachuri* (etxe izengoitia dugu; *Larratxuri* Aranoko etxea da). Dataren aitzineko lerroartean ere bada olajaunaren apuntea.

⁷⁰³ Jarraian JBMren apunteak daude.

A Juan Bautista de Minondo.
Que Dios muchos años [guarde].

Goizariñ

1797.10.01. Arranbide

Nagusi jauna:

Sebastian Etxeberriak esan dit artoak eman ziozkatela:⁷⁰⁴

Arotzandikoari 6 errugu

Sebastian Artxaia 8 errugu

Eta Juan Antonio de Iribarreni 40 errugu

Guziak seiña pezetako prezioan erru artoa.⁷⁰⁵

Arranbide, octubre 1 de 1797 / Ignazio.⁷⁰⁶

1797.11.07. Arranbide

Nagusi jauna:

Horra itzaietan asentua eta karriadoreana,⁷⁰⁷ leneko hillekoa. Atzo ere hemen ez da itzairik agertu, eta ni banoa Astiarragara, iñor erakarri al badezat.⁷⁰⁸ Eta bial bitza itzai horien kontua eta diruak; hemen dirurik ezpadago etzaku⁷⁰⁹ iñor etorriko, eta bial beza horien kontua, eta dirua zerbait gehiago honara;⁷¹⁰ orañ etorriko denak dirua berela⁷¹¹ nahiko du. Bestela, iñor gutxi izanen degu.

⁷⁰⁴ Iduri du ‘eman zizkiela’ dela, hartzaile bat baino gehiago aipatzen direlako.

⁷⁰⁵ Hots, erreku artoak sei pezeta balio zuela. Ikusten den bezala, *errugu* forma asimilatua agertzen da lehenik (JRMk ere [II, 265] *errugu* ibiltzen du), eta *erru* aldaera laburtua gero. Hau idazketa huts baten ondorio izan daiteke, aurretik hiru aldiz *errugu* azaltzen delako, baina aintzat har bedi Goizuetan, egun, *erru* esaten dela (*errúa* ‘erregua’), eta, hortaz, badaiteke hutsa ez, baizik oraingo aldaera orduko sortua izatea.

⁷⁰⁶ Honen azpian olajaunaren zenbait ohar daude.

⁷⁰⁷ Plurala dela dirudi: ‘itzainen asentua eta garraiatzaileena’.

⁷⁰⁸ Berez zehar-galdera dugu perpaus hau: ‘(ea) inor erakar / etorritaraz dezakedan’.

⁷⁰⁹ Testuan *Eza Cu* izkiriaturia da, z bakar batekin.

⁷¹⁰ Hau puntuatzeko era bat baino gehiago daude.

⁷¹¹ ‘Berehala’.

Batzuek irabaziak eta aurrera, gehiago aurrera⁷¹² emanta lana egiñ behar dute, eta bestela etorri ez egiten dute.⁷¹³ Iñola ere aziertorik ez dago.

Arranbide, *noviembre 7 de 1797*

Ignazio.⁷¹⁴

1797.12.13 ingurukoa. Arranbide

1797

Nagusi jauna:

Sebastian de Etxeberriak, leneko kontua egiñ ezkerro, Arranbidera ekarri dituen ardoak dirade:

28 mayo. 1 pellejo 16 docenas 4 libras
10 junio. 1 carga. 32 docenas 1 libras (sic)
21 junio. 1 pellejo 15 docenas 11 libras
29 junio. 1 pellejo 16 docenas 03 libras
Derecho más. . . 2 canteros⁷¹⁵
06 julio. 1 pellejo 15 docenas 02 libras
12 julio. 1 pellejo 15 docenas 06 libras
Derecho más. . . 1 cantero
17 julio. 1 carga 31 docenas 05 libras
31 julio. 1 pellejo 15 docenas 06 libras
03 agosto. 1 pellejo 15 docenas 5 libras
10 agosto. 1 pellejo 15 docenas 1 libra
16 agosto. 1 pellejo 15 docenas 6 libras
24 agosto. 1 carga 31 docenas 4 libras
03 septiembre. . . 1 carga 30 docenas 7 libras
11 septiembre. . . 1 carga 31 docenas 1 libras

⁷¹² Aski nahasia da pasarteak; *aurrera* bi aldiz idatzi du, itxuraz aldi bakar batez izkiriatu behar bidean.

⁷¹³ Bitxia da esaldia. Iduri du ‘eta bestela ez dira etortzen’, ‘eta bestela etorri ere ez dira egiten’ esan nahi duela.

⁷¹⁴ Atzeko aldean olajaunaren apunteak daude. Interesgarrienak hauek: «*En las 90 cabezas se le tocaron para la contribucion del frances 8 cavezas en los veinte son... 36 cavezas*» eta «*Quedan haora 21 obejas un madrano y 5 Artanzus son... 27 cabezas*», alegia ‘orain gelditzen dira 21 ardi, aharia eta 5 artantzu... Denetara 27 buru dira’. *Madrano* hori *mardano* izaten da maiz Nafarroako erdaraz, *aharia* edo *marroa*. *Artantzu*-a, berriz, urtebeteko ardia izan daiteke, oraino ume egin ez duena.

⁷¹⁵ Gutun honetan hiru aldiz agertzen da hitza, *cantero* idatzirik, argi eta garbi, baina adiera ‘pegarra’ da, erdarazko *cántaro* alegia.

25 septiembre 1 carga 30 docenas 11 libras
08 octubre 1 pellejo 15 docenas 03 libras
13 octubre 1 pellejo 15 docenas 06 libras
21 octubre 1 carga 30 docenas 1 libras
29 octubre 1 pellejo 15 docenas 06 libras
07 noviembre 1 pellejo 15 docenas 04 libras
14 noviembre 1 carga 30 docenas 07 libras⁷¹⁶

Vuelta

24 noviembre 1 pellejo 14 docenas 10 libras
29 noviembre 1 pellejo 13 docenas 02 libras
 03 diciembre
 Derecho más 2 canteros
13 diciembre 1 carga 31 docenas 000⁷¹⁷

1798. Arranbide

Nagusi jauna:

Aurtengo basotako plazeriak dir[a]:⁷¹⁸

Epeleko suertekoak dira:⁷¹⁹

Goierriarrak dute 36 cuartos
 Sebastian Artxaia *viejo* 36
 Juan Esteban de Zabala 40
 Lukas de Iraola 42
Juamigel de Galdeano 40
 Aranobasotakoak,⁷²⁰ Isillis⁷²¹ aldean:

⁷¹⁶ Honen azpian olajaunaren zenbait batuketeta daude.

⁷¹⁷ Honen azpian eta hurrengo orrialdean JBMren apunteak daude. *Juan Antonio Yrivarren*, *Archaia biejo* eta *Gregorio Arozandia* ageri dira, baita *Artanchar* iduri duena ere. Ondoko orrialdean «*Sebastian Echeverria joven*» eta «*le di al de Ycheandia de Echalecu arriero*» ditugu. Etxalekuko etxea *Echeandia* zen 1619an (NEAN, Ihabengo pr., 4, J. Labayen zaharra), *Echandia* 1727an (NEAN, Nafarroako Erresumako Inbentarioak, Estatistika, 5, 16), *Etx[áy]ndiè* egun (S. Aleman, a.a.).

⁷¹⁸ Azken letra ez da ongi ikusten.

⁷¹⁹ Goizuetako aurkintza da *Epela*, edo zehazkiago esan, *Epelaldea*, *Epeleko erreka* eta *Epeleko zokoa* dira Urumeako herriko dermioak (NTEM 47: 86).

⁷²⁰ 'Aranoko basoetakoak'. Ikus 1796.12.14ko gutuna.

⁷²¹ Testuan *YSillis* dago. *Isillasko erreka* da Aranoko aurkintza egun, *Isilas* 1707an (NEAN, 15605, 4, 19), 1713an eta 1722an (NTEM 47: 102). Ikus 1801.02.27ko gutuna.

Anbrusio Arotzandikoak.....36 *cuartos*

Arrixuritako suertekoak:⁷²²

Agustin de Ubitzi 34 *cuartos*

Domingo de Loiarde 34

Soldadua Estartakoak⁷²³ 36⁷²⁴

1798.03.13. Arranbide

1797⁷²⁵

Razón de los carbones Domingo de Loiarde.

Suerte de Etzabal,⁷²⁶ *lo de Arano*.

	<i>Cargas</i>		
<u>10 agosto</u> . <i>Primera carbonera</i>	52		
<u>18 septiembre</u>	74		
<u>30 octubre</u>	68		
<u>29 noviembre</u>	110	...	1
<u>1798</u>	(5		
<u>23 enero</u>	142	...	4 ⁷²⁷
<u>26 febrero</u>	103	...	1 ⁷²⁸
	554		

⁷²² Honetaz ikus 1796.12.14ko eskutitza.

⁷²³ *Estarta* Aranoko etxea da. Goizuetan ere *Estarta* edo *Merchenea menor* etxea zen (Perurena, Salaberri eta Zubiri, 2011: 83, 144). *Soldadua* izengoitia dela garbi dago. Seguruenik aitzineko gutunetan agertu den *Jose Manuel Arrieta Soldadua* eta *Josepe Soldadua* bera dateke. Aranoko etxe edo baserri baten izenean oinarritu izengoitia izanen da hau; 1707an «*el heredero de Soldadoa*» ediren dugu, Aranoko eta Goizuetako etxe izenak aipatzen diren dokumentu batean (NEAN, 15605, 4, 23). Nolanahiko gisan, 1800.03ko eskutitzean *Domingo Alzuri Estartakoa* ageri da.

⁷²⁴ Honen azpian olajaunak «*Tantailepo lo de Goizarin...Porte. 24 qu*» idatzi zuen, alegia, «Tantailepo lo de Goizarin... Portes 24 cuartos» seguruenik, puntua *s* baten ordezt dagoela iduri baitu.

⁷²⁵ Hasieran 1798 zegoen idatzirik, baina JBMk 7 paratu zuen azken 8-aren gainean.

⁷²⁶ Originalean *Ezaval* daukagu. *Etzabal* Aranoko aurkintza da egun (NTEM 47: 37).

⁷²⁷ Paper zati bat falta da, hautsia dagoelako, eta ez da ongi ikusten ahal.

⁷²⁸ Paper zatia eskas da, hautsia dagoelako, eta ez da ongi ikusten.

Arranbide, *marzo 13 de 1798*

Ignazio.

Bi anega baba hartu dituela dio.
Iduriak ere berak hartuak ditu.⁷²⁹

1798.04.24. Arranbide

Nagusi jauna:

Santiago de Alzubidek Tranparen eta Pepe Exurrenekoaren⁷³⁰ Gorriolako basoan⁷³¹ egiñ dituen ikatz guziak dirade:

	Cargas	
<u>1797</u>		
<u>19 agosto. Primera carbonera</u>	37	
<u>28 noviembre</u>	20	4
<u>1798</u>		
<u>03 enero</u>	34½	2
<u>21 abril</u>	26	4
Ikatz hoietatik guzietatik Tranpak eta Pepek egurra egiteko saria eta basoa botatzeko sariarentzat geldituzala buerrek (<i>sic</i>) ⁷³² hoién konturako hogeí eta sei karga ikatzen kontua.	125½	

Santiago de Alzubide horren semeari hemen emantako diruak baditu:

⁷²⁹ Honen azpian JBMren apunteak heldu dira. *Ezabal* ageri da berriro, baita «*Abono por dos Ciresos*» ‘bi argizari handirengatik’ ere. Izengoitia den *Ezquerria* ere badago, gorago aurkitu dugun *Ehquerria* bera (1796.12.14) menturaz, hots, *Exkerra* bera, oraingoa *Ezkerra* irakurri behar bada ere. Ikus berebat 1800.03.06ko eskutitza.

⁷³⁰ *Ixurrenea* (*Ixúrnè*, *Xúrnè* egun) Aranoko etxea da. Ez du *hezur* edo *hexur*-ekin zerikusirik, oinarrian *Ixurra* ‘ile kizkurra duena’ (< *ixur* + *-a*) baitago, Sakana aldean hain hedatua dagoen *Ixurko* deituran dugun bera, baina hipokoristikoko berrekailurik gabe.

⁷³¹ 1793_1796ko gutunean *Gorriolako ubaldean* ageri da (ikus). Garbi dago Aranoko *Gorriola* aurkintza zela.

⁷³² Ignaziok *beurrek* ‘berorrek’ idatzi nahi izan bide zuen, baina nahasi eta *buerrek* atera zitzaion.

1797an

Hasta 21 agosto...15 pezetas y 10½ cuartos.

Arranbide, abril 24 de 1798

Ignazio.

Pepe Exurrenekoak, alkateak,⁷³³ esan dit Santiago⁷³⁴ hori harzeko duela, bi ezku[tu],⁷³⁵ eta hogei eta sei karga ikatz horien gañera⁷³⁶ geldi dizi[z]kiola⁷³⁷ bi ezkutu horiek ere, konponduko dirala beurrekin.

A Juan Bautista de Minondo.⁷³⁸

Que dios muchos años [guarde].

Goizariñ

1798.05.02. Arranbide

1797

Razón de los carbones Agustín de Ubitzi

*Suerte de Legaralde*⁷³⁹ *lo de Arranbide*

⁷³³ Aranoko alkateak alegia, edo *Alkateak* menturaz, *Alkatea* deitzen zutenak.

⁷³⁴ *Santiagok* izan behar luke, edo, beste gisan, *Santiago horrek*, pasarte nola ulertzen den.

⁷³⁵ Originalean *EzCu* dago.

⁷³⁶ 'Horiez gainera', 'horietaz landara'.

⁷³⁷ Bada tinta orbantxo bat *dizi* eta *kiola*-ren artean. Irudi du 'geldi diezazkiola (berorrek Santiagori)' erran nahi duela.

⁷³⁸ Olajaunak egindako apunteetan *Santiago Alzubide*, «*Pepe y Trampa en asiento de sus labores quema de Ragoas*», «...*en cuenta al dueño de Bordaberria*» eta «*el de Bordaberria es Juan Domingo Alzuri*» ditugu. *Bordaberria* Aranoko baserria da.

⁷³⁹ Originalean *Legar Alde* idatzirik dago.

Cargas

<u>20 junio</u> <i>Primera carbonera</i> . . .	37		
<u>20 julio</u>	42		
<u>14 septiembre</u>	92		
<u>27 noviembre</u>	64	...	3
<u>1798</u>			
<u>09 enero</u>	81		
<u>06 febrero</u>	43	...	
<u>23 febrero</u>	41½	...	3
<u>26 marzo</u>	30½		4
<u>30 abril</u>	63		
	502		

Diru hartuak 1797an. Horr arzai izanduari emateko zirala, Dunburen se-meari emateko zituela, Manuel de Ansa hemen orañ ari den igeleari kenduta emantako diruak *hasta 9 julio...30 pezetas*. Hoiek dira hemen hartu dituen di-ruak.

Arranbide, mayo 2 de 1798

Ignazio.⁷⁴⁰

A Juan Bautista de Minondo.
Que Dios muchos años [guarde].

Goizariñ

⁷⁴⁰ Jarraian badira JBMren apunte batzuk. Interresgarrienak «*en la Lanteguia de Alzate 2 Agosto 1797 Abone 15 Pesos*», «*Ab[one] a Arsuaga*», «*Ab[one] a Sast[re]*» eta «*Ab[one] a Tastet*» dira.

1798.09.28. Arranbide

Nagusi jauna:

Lorenzo egun goizean jua zen itxera,⁷⁴¹ eta beste lagunak ere gelditu dira gaur.⁷⁴² Horra Aranoko bi anaiean⁷⁴³ eta Kaperoren⁷⁴⁴ asentuak, leneko kontua egin zuten ezkerokoak.⁷⁴⁵ Erremienta egiten eta hemen sartu dituzten egun guziak hor dira, solamente atzokoa ez dut paratu. Atzo olatxoko ingudeari erreka egiten⁷⁴⁶ eta kabia ere bi kokotetan⁷⁴⁷ mozten edo laburtzen atzoko eguna gehiena irago zuten. Galdu zituzten bi agoa. Eta horretarako ere horiek jorna nahiko dute, biña erreal badere. Eta beurrek deritzena⁷⁴⁸ egiñ beza.

Bost pinta ardo⁷⁴⁹ eta ogi bat⁷⁵⁰ hartu zituzten, eta gehiago ere nahi zuten. Orañ iñor ere ezin ase da, ez janaz eta ez edanaz eta ez jornalaz. Bihoaz, bihoaz⁷⁵¹ nahiz Pagollagara⁷⁵² eta nahi duten lekura! Beste urte batean ere holako lana eskatzen badiote,⁷⁵³ eman egin behar diote⁷⁵⁴ horiei, berak nahi dutenean juateko.⁷⁵⁵ Lenagoko aldian Aragoara⁷⁵⁶ halaxe jua ziran.

⁷⁴¹ Arruntena «*gaur goizean jua da itxera*» esatea da, bistan da.

⁷⁴² *Egun* eta *gaur* elkarrengatik hurbil. Badaiteke oraindik ekialdean indarrean den *egun* ‘gaur’ vs *gaur* ‘gaur gauean’ bikotea izatea, baina ez dakigu segur.

⁷⁴³ ‘Bi anaien’.

⁷⁴⁴ Goizuetakoa segur aski. Ikus 1792.03.10, 1796 eta 1796.04ko eskutitzetan honetaz esan duguna.

⁷⁴⁵ ‘Lehenagoko kontua egin eta haren ondokoak’.

⁷⁴⁶ Hortaz, ingudeari ebakia egiten zitzaion.

⁷⁴⁷ *Kokotea* buruaren atzeko alde da, garondoa, eta pentsatzekoa da, *gabia* buru moduko zerbait denez gero, *kokotea* muturra ez, ingudearen kontra jotzen duena ez, baizik atzeko alde zela, giza gorputzean bezala.

⁷⁴⁸ ‘Deritzona’, ‘deritzana’, ‘iruditzen zaiona’. 1796.12.14ko eta 1797.02.25eko eskutitzetan ere bi *e* dauzkan forma hori bera darabil IBk. Baina *daritzana* ere badu, 1799.03.06ko gutunean. Ikus bitez 1788.06.26, 1792.07.18 eta 1794.07.01eko idazkiak, eta partikularki 1796.12.14koan dioguna.

⁷⁴⁹ Lau litro ardo hurbil.

⁷⁵⁰ Bi kilo inguruak izaten ziren.

⁷⁵¹ Originalean *vioaz* dago, baina *o* *tikia a* normalaren gainean ezarri du IBk, zegokion lekuan paratzea ahantzi eta.

⁷⁵² Hernanin *Fagollaga* izeneko etxadia dugu Urumearen ondoan, *Fagollaga* edo *Pagollaga* burdinola zegoen alderdian. Hernaniko azkena izan zen, eta 1841ean itxi zuten. Ikus Díez de Salazar (1997: 100) eta Zaldúa (2012: 25).

⁷⁵³ ‘Berorri eskatzen badiote’.

⁷⁵⁴ ‘Berorrek eman egin behar die’.

⁷⁵⁵ Ironiaz mintzo zaio, berorika, olajaunari, Ignazio Bergarak bi aranoar anaien eta Kaperoren jokamoldea ez baitu arras gustuko, ikusten den bezala.

⁷⁵⁶ ‘Aragoira’. Lizarraga Elkanokoak *Aragua* darabil (< **Aragona*). Beste aukera bat IBk *aragoara* idatzi nahi izan zuela –testuan *Aragoara* dago, halarik ere– pentsatzea da.

Arranbide, septiembre 28 de 1798

Ignazio.

A Juan Bautista de Minondo.
Que Dios muchos años [guarde].

Goizariñ

1798.11. Arranbide

1798 Cuenta en el mes de noviembre

Carretero Buruzuria⁷⁵⁷

Carboneros Cargas

Josepe Soldaduarena.⁷⁵⁸ *Suerte de*
Arrixurieta,⁷⁵⁹ lo de Arano 20

Agustin de Ubitzi 04

Ezkurdi.⁷⁶⁰ *Suerte de Buztindegí,⁷⁶¹*
lo de Arranbide 02

Juamigel⁷⁶² Mundrago 10

Agustin de Olaizola.⁷⁶³ *Suerte de*
Epela lo de Arranbide 04⁷⁶⁴

Kristoal de Manzizidor. 38

⁷⁵⁷ *Buruzuria* delako hau JRMren eskutitzetan ere azaltzen da (ikus II, 180). *Patxiko Ignazio Aranburu* zen izen-deituraz (ikus 1802.04.28ko eta 1803_1804.01.05eko gutunak). Eskuinean eta azpiko aldean JBMren apunteak daude.

⁷⁵⁸ *Soldaduarena* hau etxe izena izanen da beharbada. Goizuetan honekin zerikusirik ez bide duen *Soldanea* etxea dago (Perurena, Salaberri eta Zubiri, 2011: 171). Badirudi beste gutun batean (1787.10) ageri den *Jose Manuel Arrieta Soldadua* bera dela.

⁷⁵⁹ Hemen *Arrixurieta* dago, baina egungo *Arrixurita* 1796rako sortua zela badakigu (ikus 1796.12.14ko eskutitza).

⁷⁶⁰ Norbaiten izengoitia dela dirudi.

⁷⁶¹ Egun, Nafarroan, Beran dugu *Buztindegí*-rik hurrenena. Gero *Buztindegui* ageri da, *n*-rekin idatzia. Arranbidekoa baita, Aranon edo Goizuetan zatekeen.

⁷⁶² Originalean *Jua miguel* dago. *Juan Migel Galdeano* zen gizon hau izen-deituraz.

⁷⁶³ Originalean *olaizola* dago; honetaz ikus JRM (I, 26).

⁷⁶⁴ *Epelaldea*, *Epeleko erreka* eta *Epeleko zokoa* Goizuetako aurkintzak dira, baina *Epela* Hernaniko –Ereñotzu ondoko– burdinola ere izan da. Ikus Díez de Salazar (1997: 85-89).

Lukas Iraola	21
San Juan de Sagarzazu. ⁷⁶⁵ <i>Suerte de</i> <i>Tantailepokoak</i> ⁷⁶⁶	27
<i>Tiki Añarbekoarena</i> ⁷⁶⁷	02
Bergak ⁷⁶⁸ Yakomeakara eramanak <i>3 quintales, 2 arrobas</i> Iduriak emanak ⁷⁶⁹ Gregorio <i>de Ansari Epeleko suertera</i> Donostiatik bi anega baba ekarriak.	
Tranparenzat ⁷⁷⁰ egurretan arragorako sartuak... <i>3 reales</i>	

1798 *Carretero* Martxaren suña⁷⁷¹

Cuenta en el mes de noviembre

<i>Carboneros</i>	<i>Cargas</i> ⁷⁷²
Josepe Soldaduaarena. <i>Suerte de Arritxurieta, lo de Arano</i>	12
<i>Domingo de Loiarde</i>	04
Agustin de Ubitzi	16
Anbrusio Arotzandia. <i>Suerte de Isillis</i> , ⁷⁷³ <i>lo de Arano</i>	10
Ezkurdirena. ⁷⁷⁴ <i>Suerte de Buztindegí, lo de Arranbide</i>	13
<i>Mundragorena</i> ⁷⁷⁵	10
Agustin de Olaizola. <i>Suerte de</i>	

⁷⁶⁵ *Sagarzazu* behar luke, baina hola idatzirik dago, beste batzuetan bezala.

⁷⁶⁶ *Tantailepo* Goizuetako aurkintza da.

⁷⁶⁷ *Añarbe* Goizueta, Oartzun eta Errenteriarren arteko eremua da. Oartzunen hainbat baserri biltzen dituen alderdia dugu (Goikoetxea eta Lekuona, 2007: 67), baina *Añarbe* baserria ere baten. *Tiki* hori *-tíqui* originalean– bertakoa zatekeen.

⁷⁶⁸ Burdinola kontuak baitira hauek, *berga*-rentzat ‘makila’ edo ‘ziria’ baino egokiago (erdaraz *verga* ‘zumea’ da hemen barna) iruditzen zaigu OEHn biltzen den «cuadradillo, hierros adelgazados y preparados para poner rusientes o caldear las puntas y hacer clavos» dela pentsatzea, iltze gaia dela alegia.

⁷⁶⁹ Hemen ematen du *eramanak* egokiago litzatekeela, edo «*emanak* [...] *suerterako*».

Iduria ikatz xehea edo gaitzainondo mota bat izan daiteke.

⁷⁷⁰ *Tranpa* goitizena zuenarentzat.

⁷⁷¹ *Martxa* goitizena zuenaren suhia.

⁷⁷² Eskuinean eta azpiko aldean JBMren apunteak daude.

⁷⁷³ Ikus 1798ko gutuna aztertzean honetaz dioguna.

⁷⁷⁴ Lagun baten goitizena-edo izanen zen *Ezkurdi* hau.

⁷⁷⁵ Ikus gorago (1793.10) esan duguna.

<u>Epela, lo de Arranbide</u>	02
<u>Kristoal de Manzizidor.</u>	20
<u>Lukas Iraola.</u>	10
San Juan de Sagarzasu. <i>Suerte</i>	
<u>de Tantailepoa</u>	10

Derecho por menas Paskoal de
 Iribarren 18 quintales, 1 arroba
 Bergak Yakomeakara
 eramanak 2 quintales

Expensas . . . 22½

1798 Carretero Anbrusio Eskudero

*Cuenta en el mes de noviembre*⁷⁷⁶

<i>Carboneros</i>	<i>Cargas</i>
Josepe Soldaduarena. <i>Suerte de</i>	
<u>Arritxurieta, lo de Arano</u>	07
<u>Domiño de Loiarte</u>	01
<u>Agustin de Ubitzi</u>	10
Anbrusio Ansusarobe. <i>Suerte de</i>	
<u>Isillis, lo de Arano</u>	06
Ezkurdirena. <i>Suerte de</i>	
<u>Buztindegi, lo de Arranbide</u>	06
<u>Juamigel</u> ⁷⁷⁷ Mundrago	03
Agustin de Olaizola. <i>Suerte de</i>	
<u>Epela, lo de Arranbide</u>	01
<u>Kristoal de Manzizidor.</u>	13
<u>Lukas Iraola.</u>	03
San Juan de Sagarzasu. <i>Suerte</i>	
<u>de Tantailepoa</u>	06

Derecho por menas Paskoal de
Iribarren 5 quintales, 4 arrobas ½
 Bergak Yakomeakara
 eramanak 1 quintal, 0..
Expensas 22

⁷⁷⁶ Eskuinean eta azpiko aldean JBMren apunteak daude.

⁷⁷⁷ Originalean *Jua miguel* dago idatzirik.

1798 Carretero Gregorio Eskudero

Cuenta en el mes de noviembre⁷⁷⁸

Carboneros.	Cargas
Josepe Soldaduarena. <i>Suerte</i>	
<u>de Arritxurieta, lo de Arano.</u>	08
<u>Domingo de Loiarde</u>	02
<u>Agustin de Ubitzi</u>	10
Anbrusio Anसारobe. <i>Suerte de</i>	
<u>Isillis, lo de Arano</u>	04
Ezkurdirena. <i>Suerte de</i>	
<u>Buztindegí, lo de Arranbide.</u>	03
<u>Juamigel</u> ⁷⁷⁹ Mundrago	03
Agustin de Olaizola. <i>Suerte de</i>	
<u>Epela, lo de Arranbide</u>	01
<u>Kristoal de Manzizidor.</u>	12
<u>Lukas Iraola.</u>	05
<u>San Juan de Sagarzasu.</u>	07

Derecho por mena Paskoal

<u>de Iribarren</u>	2 quintales, 5 arrobas
Bergak Yakomeakara	
<u>eramanak</u>	1 quintal, 0
<u>Expensas</u>	16

1798 Carretero Jose Antonio Eskudero

Cuenta en el mes de noviembre⁷⁸⁰

Carboneros	Cargas
Josepe Soldaduarena. <i>Suerte</i>	
<u>de Arritxurieta, lo de Arano.</u>	08
<u>Domiño de Loiarde</u>	09
<u>Agustin de Ubitzi</u>	10
Anbrusio Anसारobe. <i>Suerte</i>	
<u>de Isillis, lo de Arano</u>	06
Ezkurdirena. <i>Suerte de</i>	
<u>Buztindegí, lo de Arranbide.</u>	03
<u>Juamigel de Galdeano.</u>	06

⁷⁷⁸ Eskuinean eta behean JBMren apunte batzuk dauzkagu.

⁷⁷⁹ Originalean *Jua miguel* dago idatzirik.

⁷⁸⁰ Eskuinean eta azpiko aldean JBMren apunteak daude.

Agustin de Olaizola. <i>Suerte de</i>	
<u>Epela, lo de Arranbide</u>	01
<u>Kristoal de Manzizidor</u>	16
<u>Lukas de Iraola</u>	03
San Juan de Sagarzasu. <i>Suerte</i>	
<u>de Tantailepkoa</u>	13

<i>Derecho por mena</i> Paskoal de	
Iribarren	3 quintales, 0 arrobas ½
Bergak Yakomeakara	
<u>eramanak</u>	1 quintal, 0
<i>Expensas</i>	12

1798 Carretero Paskoal de Insauspe
Cuenta en el mes de noviembre⁷⁸¹

<i>Carboneros</i>	<i>Cargas</i>
Josepe Soldaduaena. <i>Suerte de</i>	
<u>Arritxurieta, lo de Arano</u>	05
Domingo de Loiarte	09
<u>Agustin de Ubitzi</u>	06
Anbrusio Arotzandia. <i>Suerte</i>	
<u>de Isillis, lo de Arranbide</u>	05
Ezkurdirena. <i>Suerte de</i>	
<u>Buztindegí, lo de Arranbide</u>	03
<u>Mundragorena</u>	05
Agustin de Olaizola. <i>Suerte de</i>	
<u>Epela, lo de Arranbide</u>	01
<u>Kristoal de Manzizidor</u>	16
<u>Lukas de Iraola</u>	03
San Juan de Sagarzasu. <i>Suerte</i>	
<u>de Tantailepoa</u>	07

<i>Derecho por menas</i> Paskoal de	
Iribarren	3 quintales, [...] ⁷⁸² ½
Bergak Yakomeakara	
<u>eramanak</u>	1 quintal
<i>Expensas</i>	11

⁷⁸¹ Eskuinean eta behean JBMren apunte batzuk dauzkagu.

⁷⁸² Beltzunea dago parentesi karratuak paratu ditugun tokian.

1798 *Carretero* Manuel Etxeberria

*Cuenta en el mes de noviembre*⁷⁸³

<i>Carboneros</i>	<i>Cargas</i>
Josepe Soldaduarena. <i>Suerte de</i>	
<u>Arritxurieta, lo de Arano</u>	<u>07</u>
Domingo Loiarde.	09
<u>Agustin de Ubitzi</u>	<u>10</u>
Anbrusio Anusarobe. <i>Suerte</i>	
<u>de Isillis, lo de Arano</u>	<u>02</u>
<u>Ezkurdirena. <i>Suerte de Buztindeg</i>⁷⁸⁴</u>	<u>06</u>
Kristoal de Manzizidor. <i>Suerte</i>	
<u>de Epela, lo de Arranbide</u>	<u>13</u>
<u>Lukas Iraolarena</u>	<u>05</u>
San Juan de Sagarzasu. <i>Suerte</i>	
<u>de Tantailepokoia</u>	<u>06</u>

Derecho por menas

Paskoal de Iribarren 3 quintales, 0

Expensas 19

1798 *Carretero* Juamartin⁷⁸⁵ de Ansa

*Cuenta en el mes de noviembre*⁷⁸⁶

<i>Carboneros</i>	<i>Cargas</i>
Josepe Soldaduarena. <i>Suerte de</i>	
<u>Arritxurieta, lo de Arano</u>	<u>04</u>
<u>Domiño de Loiarde</u>	<u>05</u>
<u>Agustin de Ubitzi</u>	<u>10</u>
Anbrusio Arotzandia. <i>Suerte de</i>	
<u>Isillis, lo de Arano</u>	<u>06</u>
Ezkurdirena. <i>Suerte de</i>	
<u>Buztindeg, lo de Arranbide</u>	<u>03</u>
Mundragorena.	05
Agustin de Olaizola. <i>Suerte de</i>	
<u>Epela, lo de Arranbide</u>	<u>01</u>
<u>Kristoal de Manzizidor.</u>	<u>14</u>

⁷⁸³ Eskuinean eta azpiko aldean JBMren apunteak daude.

⁷⁸⁴ *Vuztindegui*-ren azken-aurreko silaba ez da argia.

⁷⁸⁵ Hau *Jua martin* izkiriaturia da.

⁷⁸⁶ Eskuinean eta azpiko aldean JBMren apunteak daude.

Lukas Iraola. 02
 San Juan de Sagarzasu. *Suerte de*
Tantailepokoak 09

Bergak Yakomeakara
 eramanak *1 quintal, 0*
Expensas . . . 15

1798 Carretero Gregorio Arotzandia

Cuenta dada

*Cuenta en el mes de noviembre*⁷⁸⁷

Carboneros *Cargas*

Josepe Soldaduarena. *Suerte de*
Arritxurieta, lo de Arano 06

Domingo Loiarde. 04

Agustin de Ubitzi 03

Anbrusio Ansusarobekoarena.⁷⁸⁸ *Suerte*
de Isillis, lo de Arano 03

Mundragorena. *Suerte de*
Buztindegí, lo de Arranbide 01

Agustin de Olaizola. *Suerte de*
Epela, lo de Arranbide 01

Kristoal de Manzidor. 05

Lukas de Iraola 02

San Juan de Sagarzasu. *Suerte de*
Tantailepokoak 04

Derecho por menas Paskoal de
Iribarren. *2 quintales, 4 arrobas ½*

Bergak Yakomeakara
 eramanak *1 quintal, 0...*
Expensas 10

⁷⁸⁷ Eskuinean eta behean JBMren apunte batzuk dauzkagu.

⁷⁸⁸ Gorago Anbrusio Ansusarobe hutsa ageri da. *Ansusarobe* Aranoko etxea da (*Antsusos* egun).

1798 Carretero Etxeberriaren suña
Cuenta en el mes de noviembre
 Carboneros Cargas
 Domingo de Loiarde. *Suerte de*
Arritxurieta, lo de Arano 01⁷⁸⁹
 Kristoal de Manzidor. *Suerte de*
Epela, lo de Arranbide 05
 San Juan de Sagarzasu. *Suerte de*
Tantailepokoak 01

Derecho por menas /
Paskoal de Iribarren 6 quintales, 2 arrobas ½
Expensas . . . 5

1798 Carretero Sebastian Etxeberria
Cuenta en el mes de noviembre⁷⁹⁰
 Carboneros Cargas
 Ezkurdirena. *Suerte de*
Buztindegia, lo de Arranbide 03

1799. Arranbide

1799

Nagusi jauna:

Aurtengo ikazgilleen plazeriak⁷⁹¹ izanen dira:

Martin de Tellitxea 40 cuartos⁷⁹²
 Juan Domingo de Ubitzi 40 cuartos
 Sebastian de Iribarren 40 cuartos
 Domingo de Loiarde 40 cuartos
 Franzisku⁷⁹³ de Loperena 40 cuartos

⁷⁸⁹ Eskuinean eta azpiko aldean JBMren apunteak daude.

⁷⁹⁰ Eskuinean eta behean JBMren apunte batzuk dauzkagu.

⁷⁹¹ 'Ikazkinen baso ustiapenak' edo. *Plazeria* izenez ikus JRM (II, 353).

⁷⁹² Eskuinaldean olajaunak egindako apunteak ditugu. Kopuruen aitzinean diren gurutzetxoak ere haren lana dira.

⁷⁹³ *Franzisku*-ren hipokoristikoa *Patxiku* (*Patziku* menturaz zenbaitetan, egun bezala) da gutun hauetan, eta, horregatik, ezin da baztertu *Frantzisku* ebakitzen zelako ideia.

Juan Esteban de Zabala	40 cuartos
Martin de Galdeano	40 cuartos
<u>Lukas de Iraola</u>	<u>40½ cuartos</u>
Anbrusio Ansusarobekoak ⁷⁹⁴ . . .	36 cuartos eta errugu bat baba
Migel Fermin de Mitxelena ⁷⁹⁵ . . .	36 cuartos
Domingo de Iribarren Soldaduaren ⁷⁹⁶ illoba Estartakoak ⁷⁹⁷	36 cuartos
Esteban de Ansa ⁷⁹⁸	36 cuartos
Agustin de Ubitzi	34 cuartos
Sebastian Artxaia <i>viejo</i>	34 cuartos
Juan Antonio Iribarren	34 cuartos
<u>Anbrusio Ansanekea</u>	<u>34 cuartos</u>

1799.02.11. Arranbide

1797

Nagusi jauna:

Sebastian de Etxeberriak leneko kontua egin ezkerro ekarri dituen ardoak dira:

21 diciembre . . . 1 pellejo 15 docenas y 6 libras

1798

7 enero 1 pellejo 16 docenas 1 libras (sic)

13 enero 1 pellejo 15 docenas 10 libras

20 enero 1 pellejo 15 docenas 10 libras

25 enero 1 pellejo 15 docenas 07 libras

29 enero 1 pellejo 15 docenas 09 libras

07 febrero 1 pellejo 15 docenas 09 libras

10 febrero 1 pellejo 15 docenas 10 libras

15 febrero 1 pellejo 16 docenas 01 libra

⁷⁹⁴ *Ansusarobe* Aranoko etxea da (*Antsus*o egun).

⁷⁹⁵ Aranoko etxea.

⁷⁹⁶ Aranoko etxe edo baserri baten izenean oinarritu izengoitia dateke hau. 1707an «*el heredero de Soldadoa*» edireten dugu, Aranoko eta Goizuetako etxe izenak aipatzen diren dokumentu batean (NEAN, 15605, 4, 23).

⁷⁹⁷ *Estarta* Aranoko etxea da. Behiala Goizuetakoa ere bazen.

⁷⁹⁸ *Antsarena* edo *Antsenea* Aranoko etxea da (*Antsenè* orain). Xerrenda honetan behehitxego, etxe berekoa zatekeen *Anbrusio Ansanekea* dago.

<u>22 febrero</u>1 pellejo 15 docenas 06 libras
<u>05 marzo</u>1 pellejo 15 docenas 07 libras
<u>09 marzo</u>1 pellejo 15 docenas 06 libras
<u>16 marzo</u>1 Carga 31 docenas 06 libras
<u>30 marzo</u>1 pellejo 15 docenas 05 libras
<u>Derecho</u> ⁷⁹⁹	más 1 cantero ⁸⁰⁰0	
<u>20 abril</u>1 pellejo 15 docenas 07 libras
<u>28 abril</u>1 pellejo 15 docenas 07 libras
<u>15 mayo</u>1 carga 31 docenas 07 libras
<u>31 mayo</u>1 carga 30 docenas 01 libras
<u>13 junio</u>1 carga 30 docenas 05 libras
<u>25 junio</u>	1 cantero		
<u>26 junio</u>1 carga 30 docenas 06 libras
<u>04 julio</u>1 carga 30 docenas 10 libras ⁸⁰¹

Vuelta

1798

<u>16 julio</u>1 pellejo 15 docenas 8 libras
<u>20 julio</u>1 carga 30 docenas 6 libras
<u>31 julio</u>1 carga 31 docenas 5 libras
<u>10 agosto</u>1 carga 30 docenas 10 libras
<u>22 agosto</u>1 carga 31 docenas 01 libras
<u>01 septiembre</u>1 carga 31 docenas 03 libras
<u>11 septiembre</u>1 carga 31 docenas 02 libras
<u>20 septiembre</u>1 carga 30 docenas 11 libras
<u>02 octubre</u>1 carga 31 docenas 00
<u>16 octubre</u>1 carga 29 docenas 06 libras
<u>27 octubre</u>1 pellejo 15 docenas 06 libras
<u>29 octubre</u>1 pellejo 15 docenas 05 libras
<u>07 noviembre</u>1 pellejo 15 docenas 10 libras
<u>11 noviembre</u>1 carga 31 docenas 02 libras
<u>22 noviembre</u>1 pellejo 15 docenas 05 libras
<u>27 noviembre</u>1 carga 31 docenas 04 libras
<u>07 diciembre</u>1 carga 30 docenas 06 libras

⁷⁹⁹ IBren gutunetan anitzetan agertzen den *dbo* laburtzapena ez dakigu beti zeri dagokion xuxen. Gehienetan ematen du *derecho*-ren partez dagoela (ikus JRM, II, 249-250), baina inoiz *dicho*-ren ordezk egon daiteke. Noiz den bata eta noiz bestea ez dago, erran bezala, beti argi, eta daitekeena da behin edo beste guk paratu *derecho* ez, baizik *dicho* izatea.

⁸⁰⁰ IBk *cantero* ibiltzen du *cántaro* 'pegarra' esateko.

⁸⁰¹ Honen azpian olajaunaren eragiketak-eta dauzkagu.

15 diciembre . . . 1 pellejo 15 docenas 09 libras
21 diciembre . . . 1 pellejo 15 docenas 08 libras⁸⁰²

1798 Sebastian Etxeberria Larratzuri⁸⁰³

Ardo horitaz gañera baditu ikatzak honara ekarriak, bere propioak:

Cargas

1798. *Hasta 31 marzo* 64 2

Hoietarako hartuak baditu

burniñtxoak...5 *quintales*, 1 *arroba*

Arranbide, febrero 11 de 1799

Ignazio.⁸⁰⁴

1799.02.26. Arranbide

Patxiku:

Entregatu ditu Battittak⁸⁰⁵ hamasei ogi. Olaberrian dañu gehiago ez dezutenean kontentu izateko da. Moduren batera sobra da, *mal pecado!* Baña bestera deus ez dela kontu egiñ daiteke.⁸⁰⁶

Errenteriarako burni hoiak hara entregatu orduko izanen da ostirala, gutxiena.⁸⁰⁷ Itzai kondenatu hoiak agiñzen⁸⁰⁸ dute guziak, eta erdiak ez etorri gaur!⁸⁰⁹ Badira, bada, hiru itzai, eta bigar eta etzi bialduko al ditugu!⁸¹⁰

⁸⁰² Peko aldean olajaunaren apunteak ditugu.

⁸⁰³ JBMk idatzia da hau. Izengoitia dugu *Larratzuri*, Aranoko etxe baten izena baita. Dena dela, etxearen izena *Larrátzuri* da eta etxe izengoitia *Larrátzuri*, azentu-intonazio banarekin, Goizuetan bezala.

⁸⁰⁴ Honen azpian marra eta olajaunaren apunteak dauzkagu. Interesgarrienak «*Seb[astia]n Echeverria debe...*», «*Pachº Matez*» ('Patxiko Martinez?') eta «*zincó a menaqueros de Vera suplio su hermano tabernero*» dira.

⁸⁰⁵ Originalean *Batitaq* dago idatzia.

⁸⁰⁶ 'Esan daiteke', 'pentsa daiteke'.

⁸⁰⁷ 'Gutxienez', 'gutxieneko kontuan'.

⁸⁰⁸ 'Hitzematen', 'baietz esaten', 'baiezkoa ematen'.

⁸⁰⁹ Hau beste modu batera ere puntua daiteke: «...*guziak, eta erdiak ez etorri. Gaur badira, bada, hiru itzai eta bigar eta etzi bialduko al ditugu*».

⁸¹⁰ Iduri du 'bidaliko ahal ditugu!' esan nahi duela, baina ezin erabat baztertu IBk 'baltzen ahalko ditugu' adierazi nahi zuela, nahiz eta honelakorik ez den Goizuetan aldean ibiltzen, egun.

Arranbide, febrero 26 de 1799

Ignazio.

A Franzisku Juakin de Minondo.⁸¹¹

Que Dios muchos años [guarde].

Goizariñ

1799.03.01. Arranbide

Nagusi jauna:

Tranpak⁸¹² entregatu ditu beurrek⁸¹³ gaztigatu duen diruak⁸¹⁴ eta sei ogi. Gaztigatu diot Gregorio igelari etorzeko; entregatuko diozkat gaur.

Atzo etzen agertu itzairik bat besterik, eta egun goizean bialdu ditut hemengo karraiadoreakin Errenteriara jua behar duten burniak: 72 *quintales*, 4 *arrobas*, 547 *barras*.⁸¹⁵ Horiek dira Errenteriara jua diran burniak.

Bigar goizean bial bitzate⁸¹⁶ ogiak. Nik bigar goizean jua nahi nuke Lezora, Buruzuriaren⁸¹⁷ zaldian badere, eta baldiñ porsiokasoa juaten banaiz

⁸¹¹ *Fran(t)zisku Juakin* hau Juan Bautista olajaunaren seme gazteena zen, haurrideetan gazteena orobat, 1767an sortua. Ikus JRMren lehen liburukian (11. or.) biltzen den zuhaitz genealogikoa. 1799ko gutuna baita, 32 urte zituzkeen, Ignazio baino franko gazteagoa zen zalantzarik gabe, eta hortik zuka hitz egitea –ez berorika– eta *Patxiku* deitzea.

⁸¹² Frankotan azaltzen da gutunetan *Tranpa* deritzan hau. Goitizena dugu, bistan da; berezko izenez *Anbrusio de Zubeldia* zen, eskutizotan azaltzen denez, baina *Juan Fermin de Zubeldia* anaia (edo semea) ere *Tranpa* zen (ikus 1802.10.13).

⁸¹³ ‘Berorrek’.

⁸¹⁴ ‘Tranpak entregatu ditu berorrek entregatuko zituela *gaztigatu duen diruak*’. Irudi du komunztadurak zuzenak direla eta egun ere hola esanen genukeela.

⁸¹⁵ Originaleko *B* hori guk *barras* irakurri dugu, baina ez dakigu (beti) hola den. Badaiteke zenbaitetan *varas* izatea, hau ere luzera neurria baitzen. *Barra* hitza, dena dela, bere hola, 1790.09.22, 1792.10.30, 1800.07.23, 1800.12.31 eta 1803.12.08ko gutunetan garbi aski azaltzen da, behin baino gehiagotan.

⁸¹⁶ Ez dakigu IB berorika ari den –hartzaile bat baino gehiago behar genituzke orduan, ez bakarrik JBM– edo ‘haiek bidal ditzatela’ besterik ez duen esan nahi.

⁸¹⁷ *Buruzuria* beste gutun batzuetan ere ageri den goitizena dugu. *Patxiko Ignazio Aranburu* zen berezko izen-deituraz (ikus 1802.04ko testua).

ere, egin bitza letra batzuek alkatearenzat⁸¹⁸ edo gamondar haienzat,⁸¹⁹ Arotzandikoaren⁸²⁰ baso pixka⁸²¹ hori libratu al daitekean;⁸²² orantxe (*sic*)⁸²³ da bada denbora, muskilla⁸²⁴ ateretzen⁸²⁵ hasi baño len, bestela gero ez dute hobeki utziko.

Arranbide, *marzo 1 de 1799*

Ignazio.

Horra Tranpak ekarri duen kostala.⁸²⁶

1799.03.26. Arranbide

Nagusi jauna:

Ogeko kama⁸²⁷ konplutua⁸²⁸ egiteko behar omen da⁸²⁹ hogei eta bi berga;⁸³⁰ horra kamaren muestra. Eta hiru koltxoiren azalak behar omen dute hogei eta zazpi kana kotoña,⁸³¹ edo beurri daritzan⁸³² bezalakoa, eta sobrekama bat,

⁸¹⁸ Hau *alkatiarenzat* ere irakur liteke, baina *t*-ren ondoko letrak ez du punturik, eta *e* irakurri nahiago dugu.

⁸¹⁹ *Gamonena* Goizuetako etxea zen behiala (ikus Perurena, Salaberri eta Zubiri, 2011: 90), eta *gamondar* horiek etxe horretakoak izan zitezkeen, baina iduri luke hemen Lezoko edo Gipuzkoa aldeko beste gamondar batzuek diharduela Ignazio Bergarak. Hots, *Gamon* deitura duten batzuek.

⁸²⁰ *Arotzandia* (*Arotzaundi* orain) Aranoko etxea da.

⁸²¹ Originalean *pibCa* idatzia da.

⁸²² 'Ea libratzen ahal den', 'ea libra daitekeen'.

⁸²³ Ikus 1800.03.30eko gutunean *oran* formaz dioguna.

⁸²⁴ 'Kimua'.

⁸²⁵ Goizuetan *atere* 'atera' ohikoa da, eta Aranon ere bai, 1800 aldean betiere. Ikus (JRM, II, 226).

⁸²⁶ Ikatza garraiatzeko zaku handia.

⁸²⁷ 'Ohearen zurajea' edo, zehazkiago esan, burdinazko egitura dateke hemen *kama*.

⁸²⁸ 'Behar bezalakoa'.

⁸²⁹ Aditza singularrean, gero «*hogei eta bi berga*» azalduagatik. Beharbada hiru puntu idatzi behar genituzke, iduri baitu IB tarte batez pentsaketan gelditu zela eta komuntzadura eza horren ondorena dela.

⁸³⁰ 'Kana, luzera-neurria' (ikus EH eta OEH, *berga* eta *kana* sarrerak). Dena dela, gorago, 1792_1797ko gutunean, «*73 qqs fierro bergas*» dago, eta ematen du 'bergak, iltze gaiak egiteko 73 kintal burdina' dela hori, alegia, burdinazko barrak ere izan daitezkeela. Ikus 1798.11ko gutunean honetaz dioguna. Ikus, eskutitz honetan berean, *zazpi kana kotoña*.

⁸³¹ 'Kotoia'. OEHren arabera aldaera hau mugaz bestaldekoa da. Zernahi gisaz, iduri du *kotoin* behar lukeela, ez *kotoña*, artikulurik gabeko aldaera alegia.

⁸³² IBk *deritzena* eta *daritzan(a)* darabiltza, adiera berarekin (*deritza* + *menderagailua*). 1788.06.26ko gutunean ikusten den eran, ergatiboa galdegiten du adizkiak, ez datiboa, baina hemen datiboa dauka lagun. Ikus hiztegiko *iritzi* sarrera.

beurri daritzan bezalako; eta buruko azal baten gaia, kosna⁸³³ azalak egiten diran hartatik; eta sei serbilla,⁸³⁴ eta sei pañu, eta zamaua,⁸³⁵ eta alkandora baten gaia; eta lau almuda⁸³⁶ axalen⁸³⁷ gaia, telazkoak. Eta hiru buruko zapiak eta bi pañuelo, franzes pañueloak, eta bat txuria.

Bada, horiek guziak, eta illeak,⁸³⁸ eta punzio⁸³⁹ honetarako harzen ditudan guziak paratu behar ditu asentu aparteko batean; eta dirua heldu zaidan denboran pagatuko diozkat guziak.

Arranbide, *marzo 26 de 1799*

Ignazio.

1799.04.08. Arranbide

Nagusi jauna:

Olakoak esan dute Aranzazuko fraile horri emateko:⁸⁴⁰

Pello maisuak 1 pezeta
 Lorenzorenzat 1 pezeta
 Manuel Antoniorenzat 1 pezeta
 Juakin Kaperorenzat⁸⁴¹ 1 pezeta
 Lorenzoren semearenzat 1 pezeta
 Neretzat 1 pezeta
 Gregoriotxorenzat⁸⁴² erreal bat

⁸³³ Lumaz betetako koltxoi edo lastaira.

⁸³⁴ Erdarazko *servilleta*-tik -eta atzizki txikigarria kenduta ateratakoa, berranalizis, itxuraz. Ez dugu uste *servilla*, *salvilla* ‘plata’, ‘bandeja’ den hemen (ikus Corominas eta Pascual, 1991, *siervo* sarrera), gainerako guziak oihal eta ehunak direlako. Ikus hizkuntza ukipenari eskaini kapituluaren dioguna.

⁸³⁵ ‘Mahai-zapia’.

⁸³⁶ ‘Burkoa’. Bi lerro gorago «*buruko azal baten gaia*». Ez dugu alderik ikusten.

⁸³⁷ Originalean *Acha len* idatzia da.

⁸³⁸ Burkoak eta koltxoiak betetzeko artileak izanen dira hauek.

⁸³⁹ ‘Funtzioa’. Hemen ‘helburu’-tzat edo hartu behar dela dirudi.

⁸⁴⁰ Hemen azaltzen diren kopuruek olako langile bakoitzak tarteka diru eske igarotzen zen fraideari ematen ziona adierazten dute.

⁸⁴¹ *Kapevo* etxe izengoitia dugu; Goizuetan etxea eta baserria da. Ikus Perurena, Salaberri eta Zubiri (2011: 116-117) eta 1796ko gutunean esan duguna.

⁸⁴² Hau *Gregorio* ponte izenaren hipokoristiko aldaera izanen da, baina, nolanhiko gisan, ezin atzendu Goizuetan *Gregorio* etxe baten eta baserri baten izena dela. Ondoko gutunean *Gregoriotxo de Olaitzola* zela ikusten da.

Eta Nolbertorenzat⁸⁴³ beurrek⁸⁴⁴ nahi duena.

Arranbide, abril 8 de 1799

Ignazio.

1799.04.Bukaera. Arranbide

1799

Nagusi jauna:

Gregoriotxo de Olaizola Elamako igeleak Nolbertoren partez hemen sartu dituen egunak eta egiñ dituen agoak dirade:

30 marzo semana 3 días 9 agoas

06 abril semana 6 días 17 agoas

13 abril semana 6 días 17 agoas

20 abril semana 5 días 14 agoas

Taia txikitarako ardoak ditu 4 pintas Pagué a Gregorio⁸⁴⁵

1799.06.22. Arranbide

1799

Razón de los carbones Paulo de Zabala

Propia castañal, junto de Surue. Hasta 22 de junio...Cargas

20		
----	--	--

Arranbide, junio 22 de 1799

Ignazio.

⁸⁴³ *Nolberto* da oinarriko izena, baina beti *Nolberto* aurkitzen dugu eskutitz hauetan. Ikus onomastikari eskaini atalaren hastapenean dioguna.

⁸⁴⁴ 'Berorrek'.

⁸⁴⁵ Olajaunaren apuntea dugu hau.

Ikatz hoiek berak jasorazi ditu.⁸⁴⁶ Hoiien portea berari ondu behar dio.⁸⁴⁷

1800. Arranbide

1800

Nagusi jauna:

Horra aurtengo Makutsolakako eta Arteskiñetako basoen plazeriak:⁸⁴⁸

Gregorio Arotzandia 32 *cuartos*⁸⁴⁹

Juan Esteban Danboliña⁸⁵⁰. 32

Pastor de Leonet 32

Bauptista Ostitaskos⁸⁵¹. 32

Juan Domíngo de Ubitzi⁸⁵². 32

Domingo de Loiarte Ezkerra⁸⁵³. 34

Sollarena⁸⁵⁴. 34

Manuel de Etxeberria⁸⁵⁵. 34

Martikaldenekoak⁸⁵⁶. 34

Sebastian Iribarren Ataju⁸⁵⁷. 36

Suerte de Presaburua lo de Arano

Juan Antonio de Iribarren 34 *cuartos*

Agustin de Ubitzi 34

Sebastian Artxaia *viejo* 34

⁸⁴⁶ 'Jasoarazi ditu'. Adizkiak ez duela beste argumenturik hartzen ikusten da, *arazi* erabilia ere. Hots, bi argumentuko gelditzen dela.

⁸⁴⁷ *Ondu* hemen 'ordaindu' da (ikus JRM, II, 343). Honen peko aldean JBMren apunte batzuk daude.

⁸⁴⁸ *Makutsola* eta *Arteskiñeta* Aranoko aurkintzak dira (NTEM 47: 30, 42). Egun (*ibid.*, 42) *Makutxolo* dago herri horretan, aipatu lanean *Makutsolo* arautua. Liburu horretan berean biltzen diren lekukotasun gehienak –bakanak dira, halarik ere– eta JBMk darabilen *Macnsola* ikusirik, ordea, garbi dago *Makutsola* behar duela, alegia, bukaeran *ola* dugula. *Makutso* Oiarzungo etxea da, eta bertakoen izengoitia ere bazatekeen. Ikus 1801.11.17ko gutuna.

⁸⁴⁹ Eskuinaldean olajaunaren zenbakiak ageri dira.

⁸⁵⁰ Etxe izengoitia edo izengoitia izanen da. 1797.04.12ko gutunean *Juan Esteban de Zabala Danboliña* ageri da.

⁸⁵¹ Hau ere izengoitia dateke.

⁸⁵² Ikus 1797.04.12ko eskutitzean honetaz dioguna.

⁸⁵³ Izengoitia dugu hau.

⁸⁵⁴ Izengoitia dela ematen du.

⁸⁵⁵ Aranoko etxea.

⁸⁵⁶ *Martikaldenea* (*Martikaldene* egun) Aranoko etxea da.

⁸⁵⁷ Izengoitia.

Lukas de Iraola	34
Martin de Galdeano	34
Franzisku Loperena Perrazelai ⁸⁵⁸	34
Gregorio Eskudero igeleak.	36
Migel Fermin de Mitxelena ⁸⁵⁹	36

1800_1801. Arranbide

1800

Cuenta de los fierros de la ferrería de Arranbide

Nolberto tirador

<u>4 octubre semana</u>	7 quintales, 5 arrobas ½. <i>Expensas</i> 42½ reales
<u>11 octubre semana</u>	42 quintales, 1 arroba ½ 38 reales
<u>30 octubre semana</u>	20 quintales, 0 arrobas ½ 44½ reales
<u>08 noviembre semana</u>	22 quintales, 1 arroba ½ 50 reales
<u>15 noviembre semana</u>	16 quintales, 1 arroba 37 reales

1801

<u>28 febrero semana</u>	16 quintales, 2 arrobas 51 reales
<u>07 marzo semana</u>	22 quintales, 2 arrobas 49 reales
<u>14 marzo semana</u>	20 quintales, 2 arrobas ½ 32 reales

Olatxoko kabia

egiten 2 días.

<u>21 marzo semana</u>	22 quintales, 2 arrobas ½ 58 reales
----------------------------------	---

Olatxoko kabiguña

sarzen 1 día.

<u>28 marzo semana</u>	24 quintales, 1 arroba ½ 54 reales
----------------------------------	--

11 abril semana

Olatxoko kabiguña

sartutzen⁸⁶⁰ . . . 1½ días

<u>18 abril semana</u>	10 quintales, 0 arroba ½ 61½ reales
----------------------------------	---

<u>26 abril semana</u>	27 quintales, 2 arrobas. ½ 51 reales
----------------------------------	--

<u>02 mayo semana</u>	35 quintales, 2 arrobas 49½ reales
---------------------------------	--

<u>09 mayo semana</u>	26 quintales, 1 arroba ½ 51½ reales
---------------------------------	---

⁸⁵⁸ Aranoko baserria dugu *Perrazelai*, eta aurkintza ere bada. Hortaz, kasu honetan etxe izengoitia dugu.

⁸⁵⁹ Aranoko etxea.

⁸⁶⁰ Iduri du 'sartzen' erran nahi duela. Beste bitan (1796.12.14 eta 1800.11.19) *etorritzen* daukagu *etorzen*-en orde.

16 mayo semana. 33 quintales, 4 arrobas ½ 42½ reales
07 junio semana. 02 quintales, 5 arrobas 37½ reales
 Olatxoko kabia 350 quintales, arroba ½ „749½⁸⁶¹
 egiten. 1½ días⁸⁶² Vuelta

1801

13 junio semana. 09 quintales, 1 arroba ½. *Expensas* 54½ reales
20 junio semana. 52 quintales, 3 arrobas ½ 46½ reales
08 agosto semana. 06 quintales, 3 arrobas 23 reales
Burni errekusak⁸⁶³ 01 quintal, 3 arrobas 00.
14 agosto semana. 26 quintales, 0 36½ reales
22 agosto semana. 09 quintales, 2 arrobas ½ 24½ reales
29 agosto semana. 29 quintales, 0 50 reales
05 septiembre semana 26 quintales, 4 arrobas 46 reales
12 septiembre⁸⁶⁴ semana 21 quintales, 4 arrobas 36 reales
19 septiembre semana 11 quintales, 5 arrobas ½ 46½ reales
26 septiembre semana 36 quintales, 4 arrobas 38½ reales
 Olatxoko kabia eta
ingudea egiten 2 días
 Taia txikiko
ardoak. 42 pintas
 Hoietaz gañera baditu nazan,⁸⁶⁵
egiten sartuak. 3 días
Expensas. 4½

⁸⁶¹ Beste izkirio batekin idatzi hauek JBMren apunteak dira.

⁸⁶² Ezkerreko orrialdean ola jaunaren apunteak dira denak; horien artean «*Nolberto Berrueta tirador*» ageri da, IBk beti *Nolberto* erabiltzen badu ere.

⁸⁶³ Burdina akastunak, oker ez bagaude.

⁸⁶⁴ *Septiembre*-ren laburtzapena errepikatua dago; nonbait lehena ez zitzaion IBri ongi atera –belztua dago– eta berriz idatzi zuen.

⁸⁶⁵ EHN *ipar*. ‘Iparralde’ markarekin biltzen da *naza* ‘errotara ura eramateko erretena edo ubidea’. A. M. Mitxelenak (2020: 274), berriz, honela definitzen du elea: «Urtegi eta kanaletan zutikako mandio edo zutoinekin egindako zuresia». Gutunotan, aurrerago, «*presako nazan*» daukagu, besteak beste. Ikus 1801.10.09, 1802.06.21 eta 1802.07.17koak.

1801

Nagusi jauna:

Samigelek⁸⁶⁶ ezkerro Nolbertoren denboran hemen Arranbiden egiñ diran burniak dirade:⁸⁶⁷

3 octubre semana 6 quintales, 0 *Expensas* 30½ reales

10 octubre semana 13 quintales, 1 arroba ½ 21½ reales

17 octubre semana 26 quintales, 4 arrobas 55 reales

24 octubre semana Aste

honetan ez da burnirik pisatu 0 *Expensa* 56½ reales

31 octubre semana 52 quintales, 4 arrobas 56 reales

07 noviembre semana 33 quintales, 3 arrobas 57 reales

14 noviembre semana 10 quintales, 3 arrobas 52 reales

Olaundiko kabiguña

sartua

21 noviembre semana 25 quintales, 2 arrobas 54 reales

28 noviembre semana 30 quintales, 3 arrobas ½ 31 reales

Aste honetan Nolbertoren partez Perrazelaikoak⁸⁶⁸ egin zituan zazpi agoa.

Gelditu behar diozka Nolbertori Perrazelaikoarenzat zazpi erreal, agoa jornalak.⁸⁶⁹

Taia txikiko ardoak baditu, Samigel⁸⁷⁰ ezkerro, 13½ pintas

1800.01.14 ingurukoa. Arranbide

Nagusi jauna:

Sebastian de Etxeberriak leneko kontua egin ezkerro honara ekarri dituen ardoak dira:

1799

3 enero 1 pellejo 15 docenas 6 libras

10 enero 1 carga 31 docenas 2 libras

18 enero 1 pellejo 15 docenas 6 libras

23 enero 1 pellejo 15 docenas 5 libras

⁸⁶⁶ Originalean *Samigueleq* dago; irailaren 29an da San Migel edo Done Mikel eguna.

⁸⁶⁷ Lerro honen eta ondokoaren artean badira JBMren zenbaki gutxi batzuk.

⁸⁶⁸ Aranoko baserria dugu *Perrazelai*, eta aurkintza ere bada, Urumearen ertzekoa.

⁸⁶⁹ Alegia, zazpi erreal horiek agoa egiteagatik ordaindu behar zaion soldata da. Originalean badira, ezkerrean, JBMk egin apunte zenbait.

⁸⁷⁰ Originalean *Samiguel* dago.

<u>28 enero</u>	1 carga	30 docenas	7 libras
<u>09 febrero</u>	1 pellejo	15 docenas	7 libras
<u>16 febrero</u>	1 carga	30 docenas	7 libras
<u>28 febrero</u>	1 carga	30 docenas	0.....
<u>12 marzo</u>	1 carga	30 docenas	7 libras
<u>31 marzo</u>	1 pellejo	14 docenas	0.....
<u>08 abril</u>	1 carga	29 docenas	0.....
<u>18 abril</u>	1 pellejo	14 docenas	7 libras
<u>25 mayo</u>	1 carga	30 docenas	7 libras
<u>26 junio</u>	1 carga	30 docenas	4 libras
<u>06 julio</u>	1 carga	30 docenas	2 libras
<u>18 julio</u>	1 carga	30 docenas	0 libras
<u>01 agosto</u>	1 carga	30 docenas	7 libras
<u>12 agosto</u>	1 pellejo	15 docenas	8 libras
<u>21 agosto</u>	1 carga	30 docenas	6 libras
<u>30 agosto</u>	1 carga	32 docenas	5 libras
<u>11 septiembre</u>	1 carga	30 docenas	4 libras
<u>26 septiembre</u>	1 carga	31 docenas	6 libras
<u>11 octubre</u>	1 carga	31 docenas	1 libra ⁸⁷¹

1799

Sebastian de Etxeberriaren ardoak

<u>29 octubre</u>	1 pellejo	15 docenas	2 libra (sic)
04			
<u>12 noviembre</u>	1 pellejo	15 docenas	7 libras
<u>25 noviembre</u>	1 pellejo	15 docenas	8 libras
<u>30 noviembre</u>	1 carga	31 docenas	10 libras
<u>12 diciembre</u>	1 carga	30 docenas	09 libras
<u>22 diciembre</u>	1 pellejo	15 docenas	08 libras

Hoietarako baditu hartuak 4 quintales, 0 arroba ½ burnia

Hoietaz⁸⁷² gañera, baditu urte honetan hartuak burnia garrobandak:⁸⁷³

⁸⁷¹ Honen azpian eta ezkerraldeko orrialdean olajaunaren hainbat apunte daude. Interesgarriena, guretako, «*Sebastian Echeve[rri]a Larrachuri Arriero*» da. Larratxuri horretaz ikus gorago (1799.02.11ko eskutitza) erran duguna.

⁸⁷² 'Hauetaz'. Originalean *oyeta*⁷ idatzirik dago.

⁸⁷³ 'Burdinazko garrobandak' izanen da adiera. Nolanahi ere, *garrobanda burniak* espero genuen, garrobandak egiteko burdina(k). Ikus 1793.11.19, 1794.05.31 eta 1800.12.31ko gutunak. Esaldia ulertzeko beste era bat tartean koma idaztea da: «*Hoietaz gañera, baditu urte honetan hartuak burnia, garrobandak* [...]».

1800an

14 enero 6 quintales, 3 arrobas ½

Hau da Sebastianen kontua, juan den u[r]tekoa.⁸⁷⁴

1800.03. Arranbide

1800

Carretero Gregorio Arotzandia

*Cuenta en el mes de marzo*⁸⁷⁵

Carboneros

Cargas

Juan Esteban Danboliña,⁸⁷⁶ *suerte*

*de Erbizan*⁸⁷⁷ *lo de Arranbide* 05

Anbrusio Ansusarobe 09

Domingo de Loiarde. *Suerte de*

Arano *junto de Agoña* 04

Juan Domiñgo de Ubitzi.⁸⁷⁸ *Suerte*

*de Telleria lo de Arano*⁸⁷⁹ 01

Expensas 03

⁸⁷⁴ Originallean *ute Coa* dago. Honen jarraian olajaunaren zenbait apunte daude. Ondoko orrialdean ere haren apunteak ditugu; interesgarriena «*Sebastian Echeuerria Larrachuri*» da, Sebastian Etxeberria ardamandazaina Aranoko Larratxuri etxeko zela adierazten duena.

⁸⁷⁵ Gutunaren eskuinean eta peko aldean JBMren apunteak daude.

⁸⁷⁶ 1797.04.12ko gutunean ikusten den eran, *Juan Esteban de Zabala* zen berezko izen-deituraz jaun hau, Arantzakoa. *Danboliña* etxe izengoitia dateke, baina badaiteke danbolin jotzailea izatea, edo bi gauzak batean. Maiz *Danboliña* hutsa azaltzen da, batzuetan –hemen bezala– *Juan Esteban Danboliña*, inoiz *Juan Esteban de Zabala Danboliña* osoa eta behin *Juaesteban Danboliña* laburtua.

⁸⁷⁷ Aranoko aurkintza, egun *Erbizin* eta *Erbizingo erreka*. Ikus 1797.01.16ko gutuna.

⁸⁷⁸ Honetaz ikus gorago (1797.04.12) esan duguna.

⁸⁷⁹ *Telleria* (egun *Telleri*) Aranoko dermioa da (NTEM 47: 46).

1800

Carretero Buruzuria⁸⁸⁰

*Cuenta en el mes de marzo*⁸⁸¹

<i>Carboneros</i>	<i>Cargas</i>
Juan Esteban Danboliña. <i>Suerte de Erbizañ lo de Arranbide</i>	12½
<u>Migel</u> Fermin de Mitxelena	39
<u>Anbrusio</u> Ansusarobe	30
<u>Agustin</u> de Ubitzi	52
<u>Sebastian</u> de Artxaia <i>viejo</i>	30
Juan Antonio de Iribarren	26

Domingo de Loiarde. *Suerte de Arano junto de Agoña* 12

Juan Domingo de Ubitzi. *Suerte de Telleria lo de Arano* 04

Derecho por menas Epela⁸⁸²
 Errotaria, Xurmioiren
 senarrarenak⁸⁸³ 35 quintales

Donostiatik bi anega baba ekarriak

⁸⁸⁰ Izengoitia dugu hau, ile zuria zuelako ezarria, zalantza handirik gabe. Gutun honetan berean *Patxiko Ignazio Buruzuria* daukagu, olaiaunak idatzirik, eta 1802.04koan eta 1803(A)koan, berriz, *Patxiko Ignazio Aranburu Buruzuria*, hots, izen-deituraz *Patxiko Ignazio Aranburu* zen *Buruzuria*.

⁸⁸¹ Gutunaren eskuinean eta peko aldean JBMren apunteak daude.

⁸⁸² Ondoko hitza belztua dago; iduri du lehen letra C dela (*Coa?*).

⁸⁸³ *Xurmio* edo *Zurmio* (honela ere ageri baita) hori emaztekoa zen, beraz. Izengoiti garbia da, *zurmio* ‘orkatila’ hitzean oinarriturik dagoena. Hasierako soinu palatala izengoitia izatearen ondorena dateke. Joskera aldrebes xamarra ageri da hemen, baina iduri du ‘Xurmioiren senar Errotariarenak’ esan nahi dela. Ikus 1796.03.23ko idazkia eta beheitixeago, eskutitz honetan berean. Hainbat gutunetan (1800.07.330, 1801.12.23, 1802.04.12...) *Patxiku Errotaria* ageri zaigu, lagun bera hain segur ere.

1799 Patxiko Ignazio Buruzuria carretero Arranbide⁸⁸⁴

1800

Carretero Martxaren suña⁸⁸⁵

Cuenta en el mes de marzo⁸⁸⁶

Carboneros

Cargas

Migel Fermin de Mitxelena. *Suerte*

de Erbizañ lo de Arranbide 01

Domiño de Loiarde. *Suerte de*

Arano junto de Agoña 05

Juan Domiño de Ubitzi. *Suerte*

de Telleria lo de Arano 02

Expensas 02

1800

Carretero Jose Antonio de Eskudero

Cuenta en el mes de marzo⁸⁸⁷

Carboneros

Cargas

Juan Esteban Danboliña. *Suerte*

de Erbizañ lo de Arranbide 05

Anbrusio Anusarobe 10

Domingo de Loiarde. *Suerte de*

Arano junto de Agoña 04

⁸⁸⁴ Olajaunak idatzia da hau. Azpian, orrialde osoan, haren beste hainbat apunte daude, erdaraz.

⁸⁸⁵ *Martxa* izengoitia zuenaren suhia. Ikus 1788.07.22ko gutuna.

⁸⁸⁶ Gutunaren eskuinean eta peko aldean JBMren apunteak daude.

⁸⁸⁷ Eskuinean eta behean olajaunaren zenbait apunte dauzkagu.

Juan Domingo de Ubitzi. *Suerte*
de Telleria⁸⁸⁸ 02

Derecho por menas Paskual de
Iribarren 3 quintales, 0 arroba ½

Expensas 4

1800

Carretero Paskual de Insauspe
*Cuenta en el mes de marzo*⁸⁸⁹

Carboneros *Cargas*

Juan Esteban Danboliña. *Suerte*
de Erbizañ lo de Arano 06
Migel Fermiñ de Mitxelena 08
Ansusarobe Anbrusioarena⁸⁹⁰ 08

Domiño de Loiarde. *Suerte de*
Arano junto de Agoña 05

Juan Domiño de Ubitzi. *Suerte de*
Telleria lo de Arano 02

Derecho por menas Paskual de
Iribarren 1 quintal, 4 arrobas

Expensas 5

⁸⁸⁸ Originalean *Tellerria* idatzirik dago.

⁸⁸⁹ Gutunaren eskuinean eta azpiko aldean JBMren apunteak ditugu.

⁸⁹⁰ Ohiko hurrenkera *Anbrusio Ansusaroberena* da, jakina, baina idazten hasi eta... Zernahi ere den, geroxeago «*Carretero Estartakoarena*» dago, eta, beraz, holako ordenaketak ezagunak zirela pentsatu beharra dago.

1800

Carretero Juamartin de Ansa

*Cuenta en el mes de marzo*⁸⁹¹

<i>Carboneros</i>	<i>Cargas</i>
Migel Fermiñ de Mitxelena. <i>Suerte de Erbizañ lo de Arranbide</i>	19
Anbrusio Ansusarobe	16
Juan Antonio Iribarren	05 (sic)
Domiño de Loiarde. <i>Suerte de Arano junto de Agoña</i>	05

Juan Domiño de Ubitzi. *Suerte de Telleria lo de Arano* 02

Expensas 6

1800

Carretero Estartakoarena⁸⁹²

*Cuenta en el mes de marzo*⁸⁹³

<i>Carboneros</i>	<i>Cargas</i>
Juan Esteban Danboliña. <i>Suerte de Erbizañ lo de Arranbide</i>	01
Migel Fermiñ de Mitxelena	14
Anbrusio Ansusarobe	02
Agustin de Ubitzi	01
Juan Antonio Iribarren	1

Domiño de Loiarde. *Suerte de Arano junto de Agoña* 06

Martin de Tellitxea. *Suerte de Telleria lo de Arano* 01

Juan Domiño de Ubitzi 01

⁸⁹¹ Gutunaren eskuinean eta peko aldean badaude JBMren apunteak.

⁸⁹² Aranoko *Estarta* etxeko itzaina; antolamenduaren kariaz, erka bedi arestiko «*Ansusarobe Anbrusiorena*»-rekin.

⁸⁹³ Gutunaren eskuinean eta peko aldean JBMren apunte batzuk dauzkagu.

*Derecho por menas de Epela.*⁸⁹⁴ Zurmioren
senar Errotariarena *1 quintal, 4 arrobas...*

Expensas. 7

*1800 Domingo Alzuri Estartakoa*⁸⁹⁵

1800

Carretero Etxeberriaren suña

*Cuenta en el mes de marzo*⁸⁹⁶

<i>Carboneros</i>	<i>Cargas</i>
Juan Esteban Danboliña. <i>Suerte</i> <i>de Erbizañ lo de Arranbide</i>	<i>09</i>
<u><i>Migel Fermiñ de Mitxelena</i></u>	<i>10</i>
<u><i>Anbrusio Ansusarobe</i></u>	<i>13</i>

Domingo de Loiarde. Suerte de

Arano junto de Agoña *01*

Juan Domingo de Ubitzi. Suerte

de Telleria lo de Arano *01*

Expensas. 5

⁸⁹⁴ Goizuetako aurkintza dugu *Epela*; egun *Epelaldea*, *Epeleko erreka* eta *Epeleko zokoa* ditugu (NTEM 47: 86). *Epela* Hernaniko burdinola ere bazen (Díez de Salazar, 1997: 85 eta hurr.).

⁸⁹⁵ JBMk izkiriata. Honen ondotik hainbat apunte eta eragiketa daude. *Estarta*, esan bezala, Aranoko etxea da orain; Goizuetakoa ere bazen, behinola.

⁸⁹⁶ Gutunaren eskuinean eta peko aldean badira JBMren apunte batzuk. Hondarreko hauetan «*Abono 40½ carg[a]s carbon en Arrichurieta*» daukagu. Ondoko orrialdean olajaunak egin apunteak besterik ez dago.

1800.03.06. Arranbide

1799

*Razón de los carbones Domingo de Loiarte
Suerte de Arano, junto de Agoña*

	<i>Cargas</i>		
<i>20 septiembre. Primera carbonera.....</i>	31		
<i>05 octubre.....</i>	39		
<i>05 noviembre.....</i>	49		
<i>12 diciembre.....</i>	53		
<u>1800</u>			
<i>15 enero.....</i>	55		
<i>12 febrero.....</i>	55	...	4
<i>20 febrero.....</i>	47	...	1
<i>05 marzo.....</i>	42	...	1
	376		

Hoietaz gañera, bideak egiten
aita-semeak egun bat.

Arranbide, marzo 6 de 1800.

Ignazio.⁸⁹⁷

A Juan Bautista de Minondo.
Que Dios muchos años [guarde].

Goizariñ

⁸⁹⁷ Honen azpian JBMren hainbat apunte daude, besteak beste *Juan Domingo Alza*. Azken orrialdean «*Juan Domingo Loyarte Ezquerria*» idatzi zuen olajaunak, besteak beste. Ikus 1796.12.14ko eta 1798.04.24ko gutunetan dioguna.

1800.03.10. Arranbide

1799 Razón de los carbones Juan Esteban de Zabala Danboliña
Suerte de Erbizañ,⁸⁹⁸ lo de Arranbide

		Cargas	
<u>06 junio</u> . Primera carbonera....	16		
<u>13 julio</u>	15		
<u>30 julio</u>	16	3
<u>17 agosto</u>	14		
<u>24 agosto</u>	11	1
<u>23 septiembre</u>	23		
<u>16 octubre</u>	26½		
<u>02 enero</u>	38½		
<u>27 enero</u>	26		
<u>03 febrero</u>	14	1
<u>06 marzo</u>	38½		
	242½		

Arranbide, marzo 10 de 1800.

Ignazio.

Dirua hartuak horr (*sic*) asentatuak al dauzki, noski!⁸⁹⁹

1799an nik hemen emanak baditu:

21 febreroan 4 orillos viejos

19 julio 40 pezeta⁹⁰⁰

⁸⁹⁸ Aranoko aurkintza. Ikus 1797.01.16ko eskutitza.

⁸⁹⁹ Itzuli bitzikara dugu hau; adiera 'diru hartuak hor asentatuak edukiko ditu, jakina' edo antzeko zerbait dela dirudi.

⁹⁰⁰ Honen azpian eta ondoko orrialdean JBMren apunteak daude.

1800.03.19. Arranbide

Nagusi jauna: ⁹⁰¹

Agustin horrek eta Juan Antonio alkateak esan didate pezeta bana plazeria⁹⁰² ez ematekotan, ez dutela baso beharrik; eta baldiñ pezeta bana ema[n] nahi badiote,⁹⁰³ egiñen dutela, eta gaztigatzeko beurri,⁹⁰⁴ eta Agustin horrekiñ errespuesta bialzeko alkateak,⁹⁰⁵ pezeta emanen duen edo ez, pezeta ematen badu hasiko⁹⁰⁶ dirala.

Horra atzo nik gaztigatze[n] niona,⁹⁰⁷ horiei onenak ematen eta horren-gatik⁹⁰⁸ horiek deskontenturik haundienak! Enfiñ! Neroni ere urrikitu zait konzienziaz ere hogeï eta hamabi kua[r]to⁹⁰⁹ eskeñia ere. Eman hobeko zaiote pezeta,⁹¹⁰ horien miñgañetik ez da libre izanen bestela.⁹¹¹

Arranbide, *marzo 19 de 1800.*

Ignazio.

Horra Agustin horren ikatzen asentua.⁹¹²

⁹⁰¹ Honen gainean badira olajaunak egin eragiketa batzuk.

⁹⁰² 'Baso puska baten ustiapena'. Ikus JRM (II, 353). Alegia, plazeria egiteagatik pezeta bana eskatzen dute Agustinek eta Juan Antonio alkateak (edo Alkateak).

⁹⁰³ Originalean *Emanai* dago; '(berorrek) eman nahi badie'.

⁹⁰⁴ 'Eta berorri jakinarazteko (esan didate)'.

⁹⁰⁵ Badirudi aditza dagoela isildua: 'eta Agustin horrekiñ errespuesta bialtzeko (esan du, adierazi du) alkateak'.

⁹⁰⁶ Originalean dagoen *Asico*-ren lehen letraren zati bat ez da ageri.

⁹⁰⁷ Originalean *gaztigazeno na...* dago.

⁹⁰⁸ 'Hala ere'.

⁹⁰⁹ Testuan *Cuato* izkiriatua dago.

⁹¹⁰ 'Hobe izanen da haiei pezeta ematea'.

⁹¹¹ 'Bestela berori ez da horien mingainetik libre izanen'. Hots, 'berorretaz gaizki mintzatuko dira'.

⁹¹² Ondoko orrialdean olajaunaren hainbat apunte daude: «*Pierres asta 28 de julio*», «*Artanclu le dio de mi dinero*», «*dicho dia llebo un par de bueyes*», «*asta 15 octubre alcanza Pierres [...]*».

1800.03.30. Arranbide

Nagusi jauna:

Franziarako egin diran txabalak bialdu nituen Kosmeren itxera, entregatzeko ordena emanik,⁹¹³ *24 quintales*, txabalak⁹¹⁴ *154 barras*.⁹¹⁵

Itzai kondentatu haiei⁹¹⁶ hañbeste enkargu ema[n] nioten⁹¹⁷ entrega zitza-tela berela, osteguna luen⁹¹⁸ zela, eta esan zidaten guziek⁹¹⁹ baietz.⁹²⁰ Eta nik ez dakit zer diran horiek ere, itzai guziek oro⁹²¹ orobat elkarren lagunak dira gehienak. Bada Nolberto bialdutut,⁹²² baldiñ entregatu ezpadiutuzte⁹²³ entrega ditzatela astelenean faltarik gabe.

Oran⁹²⁴ burnintxoan⁹²⁵ zerbait moldatzen dira,⁹²⁶ eta baldin honela ona heldu bada,⁹²⁷ egiñen degu⁹²⁸ burniñtxoa, eta ona heldu ezpada, egiñen⁹²⁹ degu

⁹¹³ Hau beste era honetara ere puntua eta uler daiteke: «*Franziarako egin diran txabalak bialdu nituen, Kosmeren itxera entregatzeko ordena emanik*».

⁹¹⁴ Originalean *Cavalaq* idatzirik dago hemen, baina *chavalaq* lehen lerroan. *Zabalak* edo *txabalak* burdinolan egiten ziren peza zabalak ziratekeen. Ikus JRM (II, 369-370 eta 376) eta, orobat, *zabal* / *txabal* bereizketaz 1803.06.02ko gutunean dioguna.

⁹¹⁵ Originalean *B.*³ dago, eta guk *barras* irakurri arren, ez da hori, hain segur, ulertzeko dagoen aukera bakarra.

⁹¹⁶ 'Itzain madarikatu haiei'.

⁹¹⁷ Originalean *Emanioten* dago. 'Eman nien' da adiera, jakina.

⁹¹⁸ Garbi idatzitako hitza da, baina bistan da ez dela **edun*-en adizkia. Ez dugu beste inon ediren; *hapax*-a da, dakigunez. Frantseseko *loin* 'urrun' dea iturria? Baietz iduri du. Aintzat har bedi txabalak Frantziarako eginak zirela, gutunaren hastapenean esaten den bezala.

⁹¹⁹ Ergatibo pluralean, itxuraz bederik, *-ek*, aski harrigarriro. Ondoko lerroan, zernahi gisaz, *guziek* absolutiboa dugu, gutun hauetan beste frankotan bezala, *guziak* ere azalduagatik. Oroitu beharra dago alderdi honetan ez dagoela *begia* > *begie*, *burua* > *burue*-ren moduko asimilazio edo hurbiltzerik, baina *biek* (egun *bi.ék* eta *bík*) eta *guziek* (orain *gu.zík* bakarrik) formetan asimilazioa gertatu dateke. Ikus 1792.06.11ko eta 1800.07.23ko eskutitzetan *biek* formaz dioguna eta, berebat, izen morfologiari eskaini atala.

⁹²⁰ Originalean *vayez* idatzirik dago.

⁹²¹ Ematen du *oro* 'denak' dela, baina kontuan eduki behar da ondoan *orobat* duela, eta badaiteke hitz honen hastapena besterik ez izatea, gero osorik idatzi duena. Alegia, *IB orobat* izkiriatzen hasi, utzi eta berriz ere saiatu dela iduri du. Zergatik utzi zuen? Ez dakigu seguru, baina zernahi gisaz, gutunotan argi ikusten da *IBk* maiz hitzak loturik ematen dituela, hitzaren barneko zenbait silaba bereizten, etab.

⁹²² Irudi du *bialdutut* 'bidali ditut' dela hau, baina *bialdu dut* behar du izan.

⁹²³ *Zabalak* edo *txabalak* entregatu seguruenik.

⁹²⁴ 'Orain'; originalean *oran* dago, beste batzuetan bezala. Ez dakigu aldaera den edo kontu grafiko hutsa. Egun Goizuetan, *o.áin*, *o.áiñ*, *o.án* eta *o.áñ* ibiltzen dira, eta badaiteke testuko *oran* aipatu *o.án* horren aurrekaria izatea, ez grafia arazo baten ondorena.

⁹²⁵ *Burnintxo*a edo *burnitxo*a olan egiten zuten burdina meharra zen, *hierro menudo* gaztelaniaz. Ikus JRM (II, 248).

⁹²⁶ *Olagizonak*, antza duenez.

⁹²⁷ Iduri du 'honela mea ona badator' esan nahi duela.

⁹²⁸ Harrigarria da aditz berean *-en* eta *degu* elkarren ondoan aurkitzea, alegia, *egiñen dugu* eta *edingo degu*-ren arteko gurutzaketa.

⁹²⁹ Originalean *Egiñen de gu* dago.

kuadroa,⁹³⁰ baña burñitxoa Astiarragan⁹³¹ mearik ez dela ez dute eramanen.⁹³² Enfiñ, nik esanen diotet.

Entregatu ditut kartak Juakintxori⁹³³ eta Alkatezarrari⁹³⁴ bialdu diot⁹³⁵ Juamartin Ansarekiñ.

Arranbide, *marzo 30 de 1800*.

Ignazio.

A Juan Bautista de Minondo.
Que Dios muchos años [guarde].

Goizariñ

1800.06.10. Arranbide

1799

Iribarren⁹³⁶

Razón de los carbones Sebastian Artxaia viejo.

⁹³⁰ Olan egiten zuten beste peza bat, handiagoa edo zakarragoa itxuraz. Ikus JRM (II, 318).

⁹³¹ Egun bezala, lehen g ([ɣ]) galdurik ibiltzen zen toponimo hau orain dela 220 urte.

⁹³² Segur aski burdintxoekin zamaturik joan nahi zutelako, eta mearekin zamaturik itzuli, bi porte kobratzeko.

⁹³³ Euskal Herriko ekialde-iparraldeko joera da zehar osagarria ageri denean adizkian datiboaren morfema ez paratzea. Alegia, *nik eman diot*, baina nik *Juangoxeri eman dut* esatea. Zernahi gisaz, bigarren juntagaian datiboaren morfema bada aditzean. Hau bestela ere puntua eta uler daiteke: «*Entregatu ditut kartak; Juakintxori eta Alkatezarrari bialdu diot [zerbait] Juamartin Ansarekiñ*». Guztiaz ere, *bidali diotet* izan behar luke bigarren kasu honetan.

⁹³⁴ Ez dakigu *alkate zaharra* den hau edo *Alkatezarra*, hots, noizbait alkate izan zelako *Alkatezarra* deitzen zutena. Alegia, ez dakigu sintagma arrunt baten aurrean garen ala izengoiti baten aurrean; ez dira elkarren aurkakoak, halarik ere. Oartzunen gaur egun *Alkatezarrene* izeneko etxea dago (Goikoetxea eta Lekuona, 2007: 57), eta badaiteke *Alkatezarra* etxe horretakoari deitzea, edo, alderantziz, etxeak noizbait *alkate zaharra* edo *Alkatezarra* deiziotik izena hartzea.

⁹³⁵ Pluraleko komunztadura behar luke adizki honek.

⁹³⁶ Olajaunak idatzi du deitura hau.

<i>Suerte de Lakoa</i> , ⁹³⁷ <i>lo de Arranbide</i>		<i>Cargas</i>	
<i>07 agosto Primera carbonera...</i>	27
<i>23 agosto</i>	44	1
<i>16 noviembre</i>	26	4
<i>29 noviembre</i>	29
<i>14 diciembre</i>	26
<i>18 diciembre</i>	28	2
<i>1800</i>			
<i>12 febrero</i>	27
<i>15 marzo</i>	29	1
<i>09 junio</i>	40	1
	283		

Arranbide, *junio 10 de 1800*

Ignazio.⁹³⁸

1800.07.23. Arranbide

Nagusi jauna:

Hogei ezkutuko Ansaneokoarekiñ bialdu zuen hura⁹³⁹ utzi nion Ansaneokoari berari, Marti[n] de Tellitxeari emateko 60 pezeta eta 5 kuarto, eta Ansaneokoak berak geldi zitzala 20 pezeta eta 5 kuarto. Ansaneoko honek ere berela⁹⁴⁰ nahi zituan. Nik hemen dauzkidaleko,⁹⁴¹ bada, Martin Labañi⁹⁴² esa[n] nion,⁹⁴³ haren aurrera deiturik,⁹⁴⁴ hark emanen ziozkala⁹⁴⁵ 60 pezeta eta 5 kuarto, eta konponduko dira haiek biek.⁹⁴⁶

⁹³⁷ Ez dakigu Goizuetako *Lakotako lepoa* delakoarekin (NTEM 47: 110) zerikusirik baduen.

⁹³⁸ Honen azpian olajaunaren apunteak ditugu. Interesgarriena «*abono a Sorastegui*» (S-?) da.

⁹³⁹ 'Ansaneokoarekin bidali zuen hogei ezkutuko hura'. *Hogei ezkutukoa* diru baten izena da eta *Ansarenea* (*Antsene* orain, *Ansanea* 1800erako) Aranoko etxea.

⁹⁴⁰ 'Berehala'.

⁹⁴¹ 'Dauzkadalako'.

⁹⁴² Oinarrian *Labain* goitizena dagoela dirudi, *Labaien* herrikoa zen norbaitena, *Labain* erraten baita inguru horretan. *Martin Labañ* edo *Labain* hau eta *Marti de Tellitxea* lagun bera direla dirudi.

⁹⁴³ Erraten den moduan idatzi zuen Ignaziok, *esanion*.

⁹⁴⁴ 'Ansaneokoaren aurrera deiturik'.

⁹⁴⁵ 'Ansaneokoak emanen zizkiola'.

⁹⁴⁶ Goizuetan oraindik ere hola ibiltzen da, nahiz goranzko bokalek eragindako asimilaziorik ez den izaten usaian. Aranon ere berdin. Ikus bedi gorago (1792.06.11 eta 1800.03.30) testuotako *biek* eta *guziek* formez esan duguna.

Franzisku Ignazio de Treku itzaiak bial diozala⁹⁴⁷ best[e]⁹⁴⁸ ezkutuko bat, asteezkeneko⁹⁴⁹ behar duela. Honek lana izanen du hamabost kintal mea. Eta Josepe de Berrak⁹⁵⁰ ere eskatzen du, leneko⁹⁵¹ hillean eta hill honetan dituen lana egiñaz gañera,⁹⁵² bost ezkutuko⁹⁵³ bat gehiago bial diozala asteezkeneko, bestela horrara⁹⁵⁴ etorri beharko duela. Leneko hilleko asentua hor da, eta hill honetan izanen ditu meak hoge eta bi kiñtal bezala.⁹⁵⁵

Beste hoiak ere nahiko dute zerbait. Bernardo Karredak⁹⁵⁶ ere hoge ezkutuko bat behar zuela zion.⁹⁵⁷ Nolbertok⁹⁵⁸ ekarri zituen hiru hoge ezkutuko haiek entregatu niozkan⁹⁵⁹ Gregorio Ansari bi, eta bestea esan zuen bezala.⁹⁶⁰ Eta orañ bialdu dituenak entregatuko diozkat erretorari⁹⁶¹ bi, eta Estartako andreari⁹⁶² hoge eta hamaika pezeta eta erreal eta erdi fuerteak,⁹⁶³ esaten didan bezala. Entregatu ditu⁹⁶⁴ hamar ogiak, daramazki sei barra burñintxo eta hamaika puska *errekusak*.⁹⁶⁵

⁹⁴⁷ '(dio, nahi du) bidal diezaiola (berorrek)'.

⁹⁴⁸ Azken letra ez da ikusten, originalean.

⁹⁴⁹ 'Asteazkenerako'. Gaur egun *astezkéna* esaten da Goizuetan. Ikus astezken sarre-ra, hiztegiari eskaini atalean.

⁹⁵⁰ Azpeitian *Alabearra* izeneko baserria, aurkintza, pagadia... daude (EJ), baina ez dakigu gure honek harekin ikuskizunik baduenetz.

⁹⁵¹ 'Lehengo', 'aurreko'.

⁹⁵² Badirudi «*duen lan eginaz gainera*» edo «*dituen lan eginez gainera*» behar duela.

⁹⁵³ Beste diru bat, *bost ezkutukoa*.

⁹⁵⁴ 'Goitzarina'.

⁹⁵⁵ 'Hogeita bi kintal goiti-beheiti', 'hogeita bi bat kintal'.

⁹⁵⁶ 1800.12.14ko gutunean, JBMk erdaraz idatzirik, ageri den *Bernardo Carrera* bera. Erka bedi *edo / ero, edan / eran* eta antzeko pareekin, edo gutunotan azaltzen den *lakadi* 'lakaria'-rekin.

⁹⁵⁷ 'Zioen'.

⁹⁵⁸ Arruntean honela.

⁹⁵⁹ 'Nizkion'. Ikus honetaz JRM (II, 87).

⁹⁶⁰ 'Berorrek esan zuen bezala'.

⁹⁶¹ *Erretorari* ageri da, itxuraz 'erretoreari', baina ez dakigu IBk *errotariari* edo *Errotariari* ez ote zuen esan nahi. Ikusi ondoko gutuna, 1800.07.30ekoa.

⁹⁶² *Estarta* Aranoko etxea da.

⁹⁶³ Diru baten izena; JRMk (II, 261) *erreal bellon* eta *erreal zillar* darabiltza.

⁹⁶⁴ Ez dakigu nork entregatu dituen, errotariak, Estartako andreak edo beste norbaitek.

⁹⁶⁵ Burnintxo barrak olan egiten ziren pezak ziren; *errekusak* burdina akastunak ziratekeen. Paragrafo hau menturaz beste era batera ere puntua eta antola daiteke: «... *entregatuko diozkat errotariari bi, eta Estartako andreari hoge eta hamaika pezeta eta erreal eta erdi fuerteak. (Berorrek) esaten didan bezala entregatu ditu. Hamar ogiak daramazki, sei barra burnintxo eta hamaika puska errekusak*».

Bigar etorriko bide⁹⁶⁶ dira itzaiak; gaur orañdik ez da etorri Kosme bakarra besterik.⁹⁶⁷ Bigar goizean bialdu bitza⁹⁶⁸ itzai horienzat nahi dun⁹⁶⁹ dirua, zerbait, deritzena.⁹⁷⁰

Arranbide, *julio 23 de 1800*.

Ignazio.

1800⁹⁷¹

2 agosto. Compró Baratzuri⁹⁷² 2 pesos, 5 reales, 9
 14 agosto. Baratzuri y su compañero 2 6 20
 20 agosto. Baratzuri en Goizueta 1 3 10
 30 agosto. Baratzuri en Goizarin 1 3 10
 23 septiembre. Hijo [de] Baratzuri en Goizarin 1 3 10

1800.07.30. Arranbide

Nagusi jauna:

Juakiñ de Erasok eta bere lagunak Epelean aurten egiñ dituzten mea guziek dirade 142 kintal, 2 arroa ½.⁹⁷³

⁹⁶⁶ Originalean *bide*-ren azken letra ez da ongi ikusten.

⁹⁶⁷ ‘Bakarrik Kosme etorri da’, ‘Kosmez beste inor ez da etorri’, ‘Kosme baizik ez da etorri’.

⁹⁶⁸ *Beza* behar luke, gero dirua singularrean dagoelako, baina iduri du originaleko *viza*-ren azpian *bitza* dagoela. Arruntean aditzoina aurkitzen dugu honelakoetan, baina salbuespenak badira, hemen bezala. Ikus aditz morfologiari eskaini kapitulua.

⁹⁶⁹ Hemen *naidu/n* dugu, hots, *naidu* lerro baten akabailan eta *n* hurbilenekoaren hasmentan, baina originala ikusirik ematen du ez dela letrarik (*e* edo *a*) falta. Berez hirugarren pertsona baita: «(berorrek) nahi duen dirua».

⁹⁷⁰ *Deritzona* edo *deritzana* behar lukeela dirudi, *berorrek deritzana* ‘berorri iruditzen zaiona’, baina *e*-dun aldaera ohi dago IBren gutunetan. Ikus 1796.12.14, 1797.02.25 eta 1798.09.28. Ez beti, ordea, 1799.03.06ko gutunean eta bestetan *daritzana* baitu.

⁹⁷¹ Hurrengo lerro hauek olajaunarenak dira.

⁹⁷² Lagun baten izengoitia da hau. Originalean <ch>-rekin idatzia dago (*Barachuri*), baina beste batzuetan, <z>-rekin agertzen da (ikus 1796.03.23(A)).

⁹⁷³ Eskuinean eta azpian olajaunaren apunte batzuk daude.

Patxiku Errotariak⁹⁷⁴ aurtengo urte honetan Epelean egiñ dituenak guzitarata ditu 75 kintal, 0 arroa $\frac{1}{2}$.⁹⁷⁵

Lenago, hemendik bialdu nion txartel batean [dago] lenago zutena, baña asentu honetan daude lenago ziranak eta geroztik egiñ dituztenak, guziak.⁹⁷⁶

Yakomeakako beko hegian,⁹⁷⁷ Juakin de Erasok eta bere lagun Txukaldek⁹⁷⁸ mutillak eta Patxiku Errotariak eta bere semeak, lauen artean, egiñ dituzten mea guziek dituzte 27 kintal, 2 arroa $\frac{1}{2}$.⁹⁷⁹

Hoiak dituzte urte honetan horiek egiñ dituzten mea guziak.⁹⁸⁰

Arranbide, *julio 30 de 1800*.

Ignazio. Vuelta

Guziek llebari[k] gabe pisatzen dira.⁹⁸¹

A Juan Bautista de Minondo.
Que Dios muchos años [guarde].

Goizariñ

⁹⁷⁴ Patxiku Errotaria *Zurmio* edo *Xurmio* delakoaren senarra zatekeen. Ikus 1800.03ko gutuna.

⁹⁷⁵ Eskuinaldean JBMren apunte batzuk ageri dira.

⁹⁷⁶ Honen azpian olajaunaren apunte batzuk daude.

⁹⁷⁷ Toponimoa da *Yakomeaka* hau, baina ez dakigu zer herritakoa. Ikus 1798.11ko gutunean dioguna. 1791.04, 1792.03 eta 1800.07.30eko gutunetan ere agertu da. *Hegia* mendi gailur luzea izan daiteke, edo mendi mazela.

⁹⁷⁸ *Txukalde* antzina Goizuetako etxea zen eta baita baserria ere. Orain bigarrena besterik ez da gelditzen. Ikus Perurena, Salaberri eta Zubiri (2011: 184).

⁹⁷⁹ Honen azpian olajaunaren apunte batzuk daude.

⁹⁸⁰ Eskuinean eta azpian olajaunaren apunte batzuk dauzkagu.

⁹⁸¹ 'Zorrik gabe', lehenago deus eraman ez dutelako. Ikus gorago (1795.08.08(B)). Testuan parentesi karratu artean ezarri dugun belar hori ez da testuan ageri hemen, baina bai beste batzuetan, 1800.08.02ko gutunean, kasurako. Lerroa goitik beheiti izkiriatur da.

1800.08.02. Arranbide

Nagusi⁹⁸² jauna:

Pepe Trabukok⁹⁸³ eta bere lagunak aurten Epelean egin dituzten mea guziek dirade119 *quintales*, 4 *arrobas*.

Llebarik gabe pisatuak dira guziek.⁹⁸⁴

Arranbide, *agosto 2 de 1800*.

Ignazio.⁹⁸⁵

1800.08.06. Arranbide

Nagusi jauna:

Horra leneko hilleko karraiadorean asentua, Juan Josepe⁹⁸⁶ Arrantxalekoarren[a].⁹⁸⁷ Hemen pisatuak dira meak:

1796. Hasta 25 enero 5 *quintales*, 2 *arrobas* ½⁹⁸⁸

1798. Hasta 06 marzo 158 *quintales*, 3 *arrobas* ½

Ubarrizetan, Urraiden eta Azkoten eginak:⁹⁸⁹

1798. Hasta 12 abril 42 *quintales*, 3 *arrobas*

Arritxurietan berak eta suñarekin⁹⁹⁰ egiñak.⁹⁹¹

Hasta 26 de mayo 057 *quintales*, 2 *arrobas* ½

⁹⁸² Ongi irakurtzen eta ulertzen da, baina hastapeneko *N* letrari goiko alderdia falta zaio, testua hautsirik baitago.

⁹⁸³ Izengoitia dugu hau, bistan da. Ondoko gutunean, 1800.08.06koan *Pepe Trabuko* eta *Pepe Trabujo* gisa ageri da jaun hau. Alegia, [x]-ren eta [k]-ren arteko txandakatzea dakusagu berriz ere. Aldera bedi *Lujanbio* / *Lukanbio* deitur(ar)ekin.

⁹⁸⁴ Beste batzuetan *guziak* dugu honelakoetan. Ikus 1800.03.30eko eskutitzean dioguna.

⁹⁸⁵ Honen azpian olajaunaren apunte batzuk heldu dira.

⁹⁸⁶ Menturaz *Joxepe* idatzi eta irakurri behar genuke.

⁹⁸⁷ Azken bokala ez da guziz garbi irakurtzen ahal, eta parentesi arteko *a* hori testuan ez da ageri. Bi *r*-rekin idatzirik dago, dena dela. ‘Juan Joxepe Arrantxalekoarena’ esan nahi duela dirudi. Badaiteke, alabaina, ‘Juan Josepe / Juan Joxepe Arrantxalekoaren hemen pisatu dira meak’ esan nahi izatea, nahiz eta aski esaldi baldarra izan.

⁹⁸⁸ Eskuinean eta testuan tartekatua badira olajaunaren zenbait apunte, besteak beste *Yraurgui* eta *Arrichurieta*.

⁹⁸⁹ *Urraide* eta *Azkote* Goizuetako aurkintzak dira, eta behetixeago ageri den *Arritxurieta* ere bai. Ez dakigu *Ubarrizeta* ere hala zenetz. Ikus 1793.10, 1795.08.08(A) eta 1793_1796ko gutunetan dioguna.

⁹⁹⁰ Ez dakigu izen arrunta den edo goitizena. Itxuraz hau esan nahi du: ‘Arritxurietan berak bakarrik eta suhiarekin eginak’.

⁹⁹¹ Originalean *Eguñaq* dago.

Arritxurietan egiñak:

Hasta 7 de agosto 033 quintales, 0

Hoietaz gañera, Yakomeakan

eta Beko Patarroan⁹⁹² bi lekutan egiñak:

1799. Hasta 2 agosto 10 quintales, 1 arroba ½

1800. Hasta 1 de marzo 10 quintales, 4 arrobas

Hoiiek dira horren mea guziek.⁹⁹³

Arranbide, agosto 6 de 1800.

Ignazio.

Ogi batzuek bialdu bitza berela mealle horrekin, eta bigar goizean gehiago.

Ez degu batere. Fundamentuz⁹⁹⁴ bial bitzate ogiak. Horra igandean Nolibertok zorzi ogirekiñ ekarri zuen zakua.⁹⁹⁵

Nagusi jauna:

Egun goizean berantetsi eta iñor ageri ez,⁹⁹⁶ eta bialdu dut meallea, eta bidean topatu duela atzera itzuli da.

Pepe Trabukoren⁹⁹⁷ eta Zanpadoren⁹⁹⁸ semearen asentua bialdu nion larunbatean Nolibertorekin. Nere ustez, hor du⁹⁹⁹ haien asentua, eta baldin nasi bazaio beste paperen batzuekiñ, Pepe Trabujoren eta Zanpadoren semearen¹⁰⁰⁰ aurten Epelean egiñ dituzten mea guziek dirade *119 quintales, 4 arrobas*, llebarik gabe gaur pisatuak.¹⁰⁰¹

⁹⁹² *Patarroko erreka* Goizuetako erreka da eta *Patarroko pinudia* bertako aurkintza. *Beheko Patarroa* ez da ibiltzen, baina uste izatekoa da, bi baziren, pekoa zela, eta bestela, bakar zabala bazen, beherenik zegoen eremua, hau da, egungo *Patarroa* deritzaneko behe-tiko alderdia. Irudi luke Garazi aldeko *patar* ‘malda handia’ izena bera dela, edo, bederen, horrekin lotua dagoela.

⁹⁹³ Eskuinaldean olajaunaren apunte zenbait ageri dira.

⁹⁹⁴ ‘Ugari’.

⁹⁹⁵ Zakua hutsik dagoela adierazi nahiko du.

⁹⁹⁶ Ohart bekio aditz laguntzailearen ezabaketa hanpagarriari.

⁹⁹⁷ *Pepe Trabuko* eta *Pepe Trabujo* lerroalde berean, [x] eta [k]-ren arteko txandaketaren etsenplu txoil argia. Ikus bedi, gainera, 1800.08.02ko gutuna.

⁹⁹⁸ Ematen du *Zanpado* dela oinarria, goitizena, itxuraz (ikus JRM, II, 182).

⁹⁹⁹ Berorrek alegia.

¹⁰⁰⁰ *Pepe Trabujok* eta *Zanpadoren semeak* behar luke, baina era batera hasi eta beste batera bukatu duela argi ikusten da.

¹⁰⁰¹ Azken lerroalde hauek goitik beheiti izkiriaturik daude, hasierako testu nagusiaren aldean. Gero, erdaraz, «*sin quitar la leva*» daukagu, olajaunak idatzirik.

Mealleak entregatu ditu zorzi ogiak. Horra haiekin ekarri duen zakua, eta Nolbertok¹⁰⁰² igandean ekarri zuena. Bigar goizean bialdu,¹⁰⁰³ bada, ogiak. Ateara egonen da burniñtxoa.¹⁰⁰⁴

A Juan Bautista de Minondo.
Que Dios muchos años [guarde].

Goizariñ¹⁰⁰⁵

1800.08.12. Arranbide

Nagusi jauna:

Karretoko hargiñak hemen sartu dituen egunak dira:
Karretok¹⁰⁰⁶ berak olatxoko ardatzaren ondoko pareta egiten 3 días
Arragoako arkuak egiten eta bularrak¹⁰⁰⁷ konponzen 14 días
Eta Karretto¹⁰⁰⁸ honen semeak ditu 13 días
Egun hoietan guzietan hemen izandu dute jana.

Arranbide, agosto 12 de 1800 / Ignazio.¹⁰⁰⁹

A Juan Bautista de Minondo.
Que Dios muchos años [guarde].

Goizariñ

¹⁰⁰² Originalean *Nolvertot* daukagu.

¹⁰⁰³ Hemen *bitza* falta da, JBMri berorika egiten baitio beti.

¹⁰⁰⁴ 'Orduko aterea egonen da burdintxoá'. Olan egiten zen burdina meharra; ikus JRM, II, 248. Zati hau, ispilu gisa idatzirik dago, buruz beheiti, bestearen aldean.

¹⁰⁰⁵ Peko aldean eta ondoko orrialdean JBMren hainbat eragiketa eta apunte daude. *Arrichurieta* eta *Yraurgui* ageri dira, eta «*Arranchale dene*», «*Juan Jph. Sagarzazu Arranchale*» eta «*Juan Jph. Arranchale*» ere bai. Hauekin batean, «...*hizieron Ygn° Zala* (sic) *el de Pedro Zubianea y dho. Sagarzazu*» eta *Josepe Chiquia* ditugu.

¹⁰⁰⁶ Goizuetako etxe eta baserri banaren izena da *Karreto* (*Karrètò*), eta *Karretto* (*Karrèttò*) edo *Karrètò* baserrikoen izengoitia. Ikus Salaberri eta Zubiri (2009: 824), Perurena, Salaberri eta Zubiri (2011: 118.119) eta JRM (I, 34; II, 184). Gutun honetan, dena dela, berdin izkiriaturik daude oikonimoa eta etxe izengoitia: *Carreto*, IBk ez baitu, usaian, zenbait soinu irudikatzeke grafema egokirik ibiltzen. Ikus, honetaz, grafiari eskaini atalean dioguna.

¹⁰⁰⁷ *Bularrak* hemen segur aski burdinolako hormetako ateraguneak dirateke. Ikus JRM, (II, 247).

¹⁰⁰⁸ Originalean *Carreto* dago.

¹⁰⁰⁹ Honen eskuinean eta azpiko aldean olajaunaren hainbat eragiketa eta apunte daude. Interesgarriak «*en Cocho tiene 23 dias*» eta «*Carreto Meanza*» dira.

1800.09.11. Arranbide

Patxiku:¹⁰¹⁰

Arratsaldean bialdu behar dituzute ogiak.

Egun bazira[n]¹⁰¹¹ lau itzai. Hemen diran burniak ya juan dira. Aranoar karraiadoreak ere hemen jan beharko dute egun hoietan,¹⁰¹² zergatik hemen Presaburuko honetan¹⁰¹³ ikatza den lehorrik sartu nahi ganituke,¹⁰¹⁴ batzuek badere.

Meakariak orañ badute mea zerbait egiteko planta.¹⁰¹⁵ Ez dakigu aurrera nola segituko duen, baña trabajatzeko¹⁰¹⁶ leku gaiztoa daukate, mendi guziaz ura dariote.¹⁰¹⁷

Arranbide, *septiembre 11 de 1800.*

Ignazio.¹⁰¹⁸

1800.09.27(A). Arranbide

1799an

Nagusi jauna:

¹⁰¹⁰ Gutuna ez dago Juan Bautista Minondori zuzendua, honen seme Frantzisko Joakini baizik. Beste inoiz ere gertatu da (ikus 1799.02.26).

¹⁰¹¹ Originalean *vazira* dago.

¹⁰¹² Lehen graduko erakuslea dugu hau, 'egun hauetan' alegia.

¹⁰¹³ Ez dakigu zer toponimo den hau, baina garbi dago uharkaren batetik hurbil zatekeela. Goizuetan (NTEM 47: 128) *Presako malda* eta *Presaxar* ditugu egun, eta badaiteke uharka horren goitiko alde izatea. Lasarte-Oria eta Donostia bitartean ere bada *Presaburua*, eta bestetan ere bai, Leitizan eta Saldiasen kasurako, baina urrunxko daudela dirudi. Dena dela, testuak ikusirik franko garbi gelditzen da Aranoko aurkintza zela *Presaburua*. Ikus onomastikari eskainitako atalean dioguna.

¹⁰¹⁴ Itzuli berezia hauxe, *lehorrik* partitiboan dagoelako, eta *ganituke* 'genituzke' pluralean. Ziurrenik IB idaztean nahasi eginen zen; gure ustez hau esan nahi zukeen: «*zergatik hemen Presaburuko honetan den ikatza lehorrik sartu nahi genuke*». Nolanahi ere, *ikatza* izkiriatu zuen, singularrean, eta *den* aditza, baina burutan *ikatzak* zukeen, gero *nahi ganituke* 'nahi genituzke' plurala heldu delako, baita *batzuek bedere* ere.

¹⁰¹⁵ 'Itxura'.

¹⁰¹⁶ Mailegua da, jakina. JRMk ere (ikus II, 368) ibiltzen du.

¹⁰¹⁷ 'Mendi guziei ura darie'.

¹⁰¹⁸ Hurrengo orrialdean olajauaren apunteez besterik ez dago.

Haspategiko¹⁰¹⁹ goiko ardatza¹⁰²⁰ berria sarzen pasatu zituzten egunak dirade:

05 enero semana. Anbrusiok 3 días

Juan Patxiku de Insauspe 3

12 enero semana. Olatxoko ardatza

eta erruda¹⁰²¹ konponzen

Anbrusiok, Olasokoak¹⁰²² 6 días

Juan Patxiku de Insauspe 6

Olatxoko ardatza ustaitzen¹⁰²³

gastatu ziran burniak dira. 8 quintales

eta ikatza[k] erre zirana[k] dira¹⁰²⁴ 9 cargas

Jornalean pasatu zituzten egunak.

Olatxoko ardatza ustaitzen eta olaundiko puxondegiko¹⁰²⁵ bi zepo¹⁰²⁶ berriak sarzen pasa zituzten egunak dirade:

15 septiembre. Anbrusio Olasokoak 17 días

Juan Patxiku de Insauspe 17

Lorenzo igelea¹⁰²⁷ 15

Martin Goizaringo igeleak 17

¹⁰¹⁹ Burdinolako *hauspategia* da hau, *hauspoak* zeuden lekua.

¹⁰²⁰ Olako hauspotegiko edo gabitegiko peza baten izena. Ikus JRM (II, 217) eta A. M. Mitxelena (2020: 31, 37, 40, 41, 263).

¹⁰²¹ Urak higitzen zuen burdinolako gorpila, gabiaren mugimenduaren iturria. Ikus JRM (II, 264).

¹⁰²² *Olaso* Goizuetako etxea eta baserria da. Herrikoa, garai hartan, *Olaso*, egun *Olasoberri*. Baserria orain ere *Olaso* dugu.

¹⁰²³ ‘Uztaitzen’, uztaiak paratzen, sendoago izan dadin, upeletan-eta egiten den bezala. Ikus JRM (II, 37).

¹⁰²⁴ Originalean «*Ycaza Erre zirana dira*» dago. Badirudi ‘ikatz erre zirenak’, hots, ‘erre ziren ikatzak’ esan nahi duela.

¹⁰²⁵ *Puxoi* edo *puxon*-ak ardatzaren alde banatan zeuden burdinazko pezak ziren. Ikus A. M. Mitxelena (2020: 40, 41). OEHN *puxondegí* biltzen da, eta gure testu honetan *puchondegí* dugu, baina garbi dago horiek eta A. M. Mitxelenak dakartzanak ikusirik, *puxoi*, *puxon* irakurri behar dela, eta *puxondegí*-k horiek ziren lekua adierazten zuela. Luzaiden hau dugu 1633an (NEAN, 3426, Arrastia saila, 3, 192 aurk.): «*Juan Señant a echo y puesto en la dicha erreria diez piezas de yerro [...] que dichas pieças en su arte los llaman ciguillus otra pieça llamada çidermandar dos llamadas aldauar tres pusionac varavalanca o barra [...] una pieça que llaman betarria [...] una pieça que llaman tobera de yerro y dos pieças llamadas ingudiac [...] e otra llamada çavia*». Izkirio lodia gurea da.

¹⁰²⁶ *Zepoak* beste peza batzuk dira, gabi igunari eusten dioten zutoinak hain justu ere. Ikus JRM (II, 378).

¹⁰²⁷ *Igele* burdinolarekin lotutako lanbide baten izena zen. EHK *ijele* biltzen du eta honela definitzen: ‘ola zaharretan, burdina xaflatzen zuen langilea’. Gaztelaniaz *tirador* agertzen da, tarteka, haren ordaintzat. Ikus JRM (II, 297-298).

Mealleak ¹⁰²⁸	15
Anbr[u]sio Tranpak ¹⁰²⁹	02

Zubia konponzen:¹⁰³⁰

6 abril. Anbrusiok, Olasokoak03 días

Juan Patxiku de Insauspe03. . . .

1800an zubia konponzen:

6 septiembre. Anbrusio Olasokoak03 días

Juan Patxiku Insauspe.03

Anbrusio Tranpak.02

Arranbide, septiembre 27 de 1800.

Ignazio.

1800.09.27(B). Arranbide

*Pasé en cuenta*¹⁰³¹

Nagusi jauna:

Horra haspategiko goiko ardatz berria eta olatxoko ardatza usta[i]tzen¹⁰³² eta olaundiko puxondegiko¹⁰³³ zepo berriak¹⁰³⁴ sartu ziranekoak, eta zubia¹⁰³⁵ konponzen sartu zituzten egun guziek,¹⁰³⁶ zenbat diran guzien egunak.

Solamente nik ez dakit haspategiko ardatza egiten eta lorrean¹⁰³⁷ zenbat gastatu zen, hori beurrek jakiñen al du!¹⁰³⁸ Nik ere hemen idirik ez denean

¹⁰²⁸ *Meaile* ‘olagizonen morroia, arragoan erretako mea mailuarekin txikitzen duena’. Ikus JRM (II, 331).

¹⁰²⁹ Bi *Anbrusio* ageri dira hemen, *Anbrusio Olasokoa* eta biziki goitizen ederra ez zuen *Anbrusio Tranpa*. Originalean Anbrsio dago.

¹⁰³⁰ Ez dakigu burdinolako zubia den edo zubi arrunta; burdinolakoa segur aski. Ikus ondoko gutuna.

¹⁰³¹ Olajaunaren oharra. Ez dakigu *pase* edo *pasé* ulertu behar den.

¹⁰³² Originalean *ustazen* dago.

¹⁰³³ Originalean berriz ere *puchondegui* dago.

¹⁰³⁴ Gabi igunari eusten dioten zutoinak dira hauek.

¹⁰³⁵ Hau ere lehenago atera zaigu gutunotan. Burdinolako peza dela iduri du, baina ez dakigu xuxen zein. Ikus A. M. Mitxelena (2020: 300).

¹⁰³⁶ Ignaziok normalean hola absolutibo pluralean.

¹⁰³⁷ Hemen ardatza egiteko zuhaitza (pagoa segur aski) arrastaka eramatea, garraiatzea da *lorra*.

¹⁰³⁸ Honelakoetan beti zalantza: ez dakigu ‘berorrek jakinen du, araz!’, ‘espero dut berorrek jakin dezan’ den edo ‘berorrek jakiten ahalko du’. Bigarren kasu honetan harridura marka sobran legoke.

gizonakiñ egiten dut lorra frankotan, gonbitetan ardoa franko gastatuta, eta guzien kontua edo gastua, gauza gutxi gorabera batean paratuko du, beurrek deritzan¹⁰³⁹ bezala.

Iruñerako Artantxurenzat¹⁰⁴⁰ diran burni hoietatik badaude bederetzi kintal bezala, eta gaztigatu beza Goizuetara bialzea nahi duen, edo horrara¹⁰⁴¹ bialzea nahi duen. Sebastianek jorrada bat¹⁰⁴² laster hartuko du, eta besteak nora bialdu gaztigatuko du.¹⁰⁴³

Gaztigatu nion Buruzuriak¹⁰⁴⁴ anega bat baba nola eman zidan; ahitu da guzia, ez dago lakadi bat¹⁰⁴⁵ besterik. Etzi bial bitza mutill horiekiñ ogiak eta baba.¹⁰⁴⁶

Arranbide, *septiembre 27 de 1800.*

Ignazio.

¹⁰³⁹ Hau «paratuko du beurrek, deritzan bezala» ere irakur daiteke, jakina.

¹⁰⁴⁰ Originalean *Artanchurenzat* dago. *Artántxù* Goizuetako baserria da, eta *Artàntxú* bertakoen etxe izengoitia (ikus Perurena, Salaberri eta Zubiri, 2011: 45-46). Gutunekoak bigarrena da, bistan da, pertsona, ez etxea.

¹⁰⁴¹ Goitzarina.

¹⁰⁴² Garraioaldi bat.

¹⁰⁴³ *Beurrek* 'berorrek' gaztigatuko du, jakinaraziko dit.

¹⁰⁴⁴ Hemen pertsona baten goitizena da, beste gutun batzuetan ere azaltzen dena: 1798.11, 1799.03.01, 1800.03, 1802.04... Berez Patxiko Ignazio Aranburu zen *Buruzuria*.

¹⁰⁴⁵ *Lakaria* «ale neurri zaharra, ia bost litroren baliokidea; neurri horretan sartzen den ale kopurua; neurri hori hartzen duen ontzia» (EH). Irudi du testu hauetan *gaitzeru*-tik bereizi behar dela, ez direla elkarren adierakide, biak edireten ditugunez gero. Formari doakionez, ikusten den bezala *d* dago *r*-ren ordeaz, ez baita harritzeko alderdi honetan: aldera bedi, esaterako, *Carrera* (erdaraz, 1800.12.14), *Carreda* (euskaraz, 1800.07.23) deiturarekin.

¹⁰⁴⁶ Ohart bekio *ogiak* eta *baba* izenen erabilerari, lehena kontagarria izanik pluralean baitago, eta bigarrena berriz singularrean, zentzu generikoan erabilirik, babak aleka, banaka, zenbatzen ez direlako, usaian.

Añarbeko¹⁰⁴⁷ Erdikoitxeko¹⁰⁴⁸ Felipe Eza[...]1049 lanik badegu etorriko dirala, eta ni[k]¹⁰⁵⁰ ez dakit agertu diran. Bada, ara[...]1051 aski galdu zazkigu eta txol¹⁰⁵² galduko [...]. Añarbear hoiei¹⁰⁵³ esatea nahi duen edo Iñ[...]1054

Paso en cuenta¹⁰⁵⁵

A Juan Bautista de Minondo.
Que Dios muchos años [guarde].

1800.10.04(A). Arranbide

1800

Nagusi jauna:

Urte honetan Baratzurik¹⁰⁵⁶ eta bere lagunak egiñ dituzten meak dirade...92 kintal, 0 arroa ½. Hoietarako hemen hartu dituzten diruak dira:

18 julio 2 orillos viejos¹⁰⁵⁷

09 septiembre 2 orillos viejos

01 octubre 4 pezetas...

¹⁰⁴⁷ *Añarbe* orain hein handi batez urak hartua da, urtegia baitago bertan, Goizueta, Errenteria eta Oiartzun arteko mugan.

¹⁰⁴⁸ Honi *Añarberdikoa* ere esan izan zaio; Oiartzungo baserria zen, uharka egitearekin urpean gelditu zena. Honela diote Goikoetxeak eta Lekuonak (2007: 22) honetaz: «*Añarberdikoa. Honi, zenbaitetan, Erdikoetxea ere deitu izan zaio. Erabat aurri-egoeran eta urpean gelditua*».

¹⁰⁴⁹ Dokumentuari, eskuinaldean, goitik beherako xerrenda falta zaio, ez dakigu zein heinetakoa, estua itxuraz.

¹⁰⁵⁰ Esan bezala, xerrenda falta baita eskuinean.

¹⁰⁵¹ Ez dakigu zein hitz den hau. Ematen du pluralean dagoela, gero *zazkigu* datorrelako.

¹⁰⁵² 'Txoil', 'erabat'.

¹⁰⁵³ 'Hauei'.

¹⁰⁵⁴ Paper puska falta da eta ez dakigu zer hitz den hau, ez eta gero zer datorren ere.

¹⁰⁵⁵ JBMk eskutitza hartu eta gero egindako apuntea.

¹⁰⁵⁶ Lagun baten izengoitia dugu hau; originalean *Baratzurik* dago. Olajaunak erdaraz idazten duenean *Barachuri* deitzen dio, seinale egun *Baratzuri* idatziko genukeena irudikatu nahi zela.

¹⁰⁵⁷ Testuinguruak garbi uzten du *orillo viejo* diru baten izena zela, *oro* 'urrea'-ren txikigarria baita *orillo*. Euskaraz *urretxiki* esaten zaio gutunotan.

Hoietaz gañera, badituzte hemen hartuak Nafarroako hiru lakadi¹⁰⁵⁸ baba, eta liberdi¹⁰⁵⁹ bat olio, eta borra¹⁰⁶⁰ bat hemen egiña, hamairu librakoa, eta bolborak¹⁰⁶¹ nik ez dakit zenbat libra dituzten; hor jakiñen al dute!¹⁰⁶²

Arranbide, *octubre 4 de 1800*.

Ignazio.

*A don Juan Bautista de Minondo.
Que Dios muchos años [guarde].*

Goizariñ

1800.10.04(B). Arranbide

1800

Nagusi jauna:

Franzisku Antonio Makatzenak¹⁰⁶³ Manuel Antonioren partez Arranbiden egin dituen goak dirade:

06 septiembre semana 9 agoas

Olaundiko boba¹⁰⁶⁴ egiten 1½ días

13 septiembre semana 11 agoas

Eta kabiguña sartua¹⁰⁶⁵

20 septiembre semana 16 agoas

27 septiembre semana 16 agoas

¹⁰⁵⁸ Edukiera neurria dugu *lakaria*. Ohart bekio *r / d* nahasketari; JRMk ere (ikus I, 92 eta II, 319) *lakadi* darabil.

¹⁰⁵⁹ ‘Libra erdi’. Testu honetan berean *libra* ageri da euskaraz, baina Goizuetan *liberdi* erabili izan da –txikitan *liberdi bat txokolte* eskatzen genuen dendan txokolatea erostean– eta, beraz, ez dirudi hutsa denik. Aintzat har bedi, bestalde, olio librakoa neurtzen zela, ez litroka orain bezala, likidoa izanik ere. *Pinterdi, piñterdi* ere baduenez, *liberdi* ibiltzen zuela pentsa daiteke, hots, hutsa ez dela.

¹⁰⁶⁰ Mailu handia.

¹⁰⁶¹ Meakariak ibiltzen zuten, mea ateratzeko.

¹⁰⁶² Ohiko zalantza hemen berriz ere. Ez dakigu ‘hor jakinen dute, arai!’, ‘espero dut hor jakitea!’ edo ‘hor jakiten ahalko dute’ den. Bigarren kasuan harridura marka soberakina litzateke.

¹⁰⁶³ Originalean *MaCazenaq* daukagu.

¹⁰⁶⁴ Gabia mugitzeko peza da *boba*, gabi igunean sartua zegoena. Ikus JRM (II, 245).

¹⁰⁶⁵ ‘Gabi iguna sartua’, gabi igun hori usu ateratzen baitzen, dirudienez. Ikus JRM (II, 307).

04 octubre semana

Meallekoan¹⁰⁶⁶..... 5 días
 Taia txikiko ardoak¹⁰⁶⁷..... 10 pintas

Arranbide, octubre 4 de 1800.

Ignazio.

A Juan Bautista de Minondo.
Que Dios muchos años [guarde].

Goizariñ

1800.11.08. Arranbide

1800 *Razón de los Carbones. Pastor de Leonet y su compañero.*
*Suerte de Abisaisti,*¹⁰⁶⁸ *lo de Arano, hacia Makutsola*¹⁰⁶⁹

<u>27 junio. Primera carbonera</u>	40	...	4
<u>15 julio</u>	28	...	1
<u>19 julio</u>	35
<u>13 agosto</u>	31
<u>30 agosto</u>	51
<u>03 septiembre</u>	36
<u>22 octubre. Dos carboneras</u>	80½	...	2
<u>05 noviembre</u>	32	3	1
	342½		

Arranbide, noviembre 8 de 1800.

Ignazio. *Vuelta*

Pastor Leonet y su compañero

¹⁰⁶⁶ 'Meaile lanetan'.

¹⁰⁶⁷ *Taia txiki* 'ardoak apuntatzeko tamaina txikiko taia, makilattoa' zen. Ikus 1787.02.09ko eta 1792_1897ko gutunetan dioguna.

¹⁰⁶⁸ Garbi dago Aranoko aurkintza zela, egungo *Makutsola* alderdikoa, testuan erraten den moduan.

¹⁰⁶⁹ Beste izkirio batekin idatzi hauek olajaunaren apunteak dira.

Hemen ez dago ba[ba]rik¹⁰⁷⁰ batere, oliorik ere ez dago, eta mealle honek itxera behar omen du, eta besterik ez al zaku etorriko horrara!¹⁰⁷¹ Eta ikazgille horiekiñ bial bitzate olioa, baba eta ogi batzuek. Samartin hemen jaia da, astelena, egun bakarra da baña ola ari hobeko da,¹⁰⁷² hemen ola bete lagun asetzen iduki gabe.

Iruñerako kuadro hoiek gaur akabatzez alderako dirala nago,¹⁰⁷³ eta zertatik hasi behar den gatzigatu beza. Burnia oran¹⁰⁷⁴ hasi da pixka¹⁰⁷⁵ bat gozatzen.

Horra olio txarroa eta hamasei ogirekiñ mealle honek ekarri zuen ikatz zakua.¹⁰⁷⁶

A Juan Bautista de Minondo.
Que dios muchos años [guarde].

Goizariñ

¹⁰⁷⁰ Originalean *variq* dago.

¹⁰⁷¹ ‘Eta besterik ez ahal zaigu etorriko!’. Hala dela dirudi: babarik eta oliorik ez, oraingo mealle hau badoakigu, eta hobe beste meailerik etorriko ez balitz (zer janik ez dagoelako / ez dagoen bitartean). Baina ez da erabat pasarte argia eta, apika, ‘beste meailerik ez zaigu etortzen ahalko’ ere uler liteke. Izan ere, eta gutunotan ikusten den bezala, meailleak eramaten ohi zituen ogiak eta beste jatekoak, maiz, burdinolara.

¹⁰⁷² ‘Baina hobe izanen da ola ari dadin’.

¹⁰⁷³ Ez da biziki itzuli argia; iduri luke ‘gaur bukatzearekin alde batera utziko direla –eta haietaz ahazteko moduan egonen garela– uste dut’ esan nahi duela, baina hain segur ‘gaur bukatuz / bukatzen joanen direla –garela– uste dut’ adierazi nahi zukeen IBk. Alegia, *Arranbiderako naiz, horrarako dirala* eta besteren modukoa dateke. Ikus aditz morfologiari eskaini ataleko «Adlatiboa eta AL» puntua.

¹⁰⁷⁴ ‘Orain’; originalean *oran* dago, beste batzuetan bezala. Egun Goizuetan, *o.áin*, *o.áinñ*, *o.án* eta *o.ánñ* ibiltzen dira, eta testuko *oran* aipatu *o.án* horren aurrekaria izanen da ziurrenik, ez grafia arazo baten ondorena.

¹⁰⁷⁵ Originalean *Pihcavat*; hemen berriz ere *h* erabili du IBk sabaiaurreko igurzkarria (egun <x> idazten duguna) irudikatzeke.

¹⁰⁷⁶ Originalean *Ycaza Cua* dago. Ondoko bi orrialdeetan olajaunaren apunteak dauzkagu.

1800.11.19. Arranbide

Nagusi jauna:

Hemen ez dago gauza onik. Izandu da Juakiñtxo Leonet,¹⁰⁷⁷ ekusi ditu guziek. Eraman du zubia,¹⁰⁷⁸ bi arku bitarteko¹⁰⁷⁹ zurak, guziek arraso, eta hirugarren arku bitartekoak utzi ditu zur prinzipalak; karela¹⁰⁸⁰ guziek eraman diozka.¹⁰⁸¹

Olako errudak¹⁰⁸² eta ardatzak eta estolda guziek beteak daude zakarrak eta harez, antaparako soleraraño,¹⁰⁸³ kabi dezaketen guziak; haspoak atererik, altxatuak zauden mairaren¹⁰⁸⁴ nibeleraño, baña ez da probetxurik izandu.¹⁰⁸⁵ Hartu zituan urak gorago eta busti dira larru guziek hagitz.¹⁰⁸⁶ Eta presan ezin sumatu degu ongi zer-nola dagoan, estanka¹⁰⁸⁷ aldetik mugitua dela dirudi. Enfi[n],¹⁰⁸⁸ ura bajatzera ezagunen da.¹⁰⁸⁹ Ziargillza,¹⁰⁹⁰ presakoa, dena bere zur guziekin atererik, aldamanean¹⁰⁹¹ garaiko aldera¹⁰⁹² arrimaturik,¹⁰⁹³ hau bertan utzi du,¹⁰⁹⁴ azeki¹⁰⁹⁵ guziek egurraz eta zakarrez bete ditu.

¹⁰⁷⁷ 1800.11.08ko gutunean, olajaunak egindako oharretan, *Juaquin Leonet* ageri da, eta ziurrenik lagun hau berau da.

¹⁰⁷⁸ Urak, uholdeak eraman du zubia.

¹⁰⁷⁹ Zubiaren arkuak izanen dira hauek.

¹⁰⁸⁰ *Karela*, gaur egun, egurrez egindako sarearen moduko itxitura da, Goizuetan, arbekin edo zotzekin egin ohi dena. A. M. Mitxelena (2020: 61), dena dela, *karela* zubietako baranda dela dio, eskuen irismenean gelditzen dena eta lur arrasekoa orobat. Ikus hiztegiaren dioguna.

¹⁰⁸¹ Hau beste era honetara ere puntuat daiteke: «...*eta hirugarren arku bitartekoak utzi ditu; zur prinzipalak, karela guziek eraman diozka*».

¹⁰⁸² 'Erruedak', 'gurpilak'. Ikus JRM (II, 264-265).

¹⁰⁸³ *Antapara* ola urez hornitzeko aska luze baten modukoa zen, zurez egina. *Solera*, berriz, 'hondoa' da, 'zola'. Ikus JRM (II, 216) eta A. M. Mitxelena (2020: 19-25) marrazkiak.

¹⁰⁸⁴ *Maira* 'orea egiteko erabiltzen den aska modukoa' (EH). Gaztelaniazko *artesa* bera.

¹⁰⁸⁵ Badirudi uholdeak izanen zirela ikusirik, olagizonen hauspoak mairaren goratasuneraino altxatu zituztela esan nahi duela, baina alferrik, berdin busti baitziren.

¹⁰⁸⁶ Hauspoen larruak zipatu, pelatu, trenpatu zirela ulertu beharra dago.

¹⁰⁸⁷ *Estanka* uharka edo presatik ura ateratzeko atea da, ireki edo ixten dena, aukeran. Erdarazko *compuerta*.

¹⁰⁸⁸ Originalean *Enfi* dago.

¹⁰⁸⁹ 'Ura jaisten denean eza gutuko da, ikusiko da'.

¹⁰⁹⁰ *Ziargillza* presako ura ixteko erabiltzen zen itxitura; *giltza* erdarazko 'sangradera' da. Ikus A. M. Mitxelena (2020: 56).

¹⁰⁹¹ 'Aldean', 'alde batean'. Goizuetan orain *aldamen* ibiltzen da, *aldamene* kasu honetan. Ez dakigu testuko *aldamanean* hori huts grafiko puntuala den edo bokal asimilazioaren ondorioa.

¹⁰⁹² Orain arruntean *goiko* esaten da alderdi honetan, *ez garaiko*, baina salbuespenen bat bada: hain zuzen *garaikalden* 'garaiko aldean', 'goiko aldean' nahiko arrunta da.

¹⁰⁹³ Azken zati hau honela ere puntuat daiteke: «*Ziargilza, presakoa, dena bere zur guziekin atererik aldamanean, garaiko aldera arrimaturik [...]*».

¹⁰⁹⁴ Alegia, 'urak zehargiltza eta zur guziak goiko aldean utzi ditu'.

¹⁰⁹⁵ 'Azekia', 'hodia', 'kanal modukoa'.

Lorenzo bart etorri zen honara; horrek esanen diozka guziek nola dauden. Lenbiziko lana ziargillzak egiñ beharko du;¹⁰⁹⁶ eta agertu bat egiñ beharko du bazter hoiek guziek¹⁰⁹⁷ nola dauden ekustera; beurrek ekusi beharko ditu guziek. Hemen egiteko txarrak daude.¹⁰⁹⁸

Arranbide, *noviembre 19 de 1800.*

Ignazio.

1800.12.09. Arranbide

1800

Razón de los carbones Juan Domingo de Ubitzi

Suerte de Abisaisti lo de Arano

6½ cargas

<u>23 agosto. Primera carbonera</u>	15	3
<u>25 octubre</u>	30	1
<u>10 noviembre</u>	44½	2
<u>22 noviembre</u>	26		
<u>05 diciembre</u>	14	2
	136		

Arranbide, *diciembre 9 de 1800.*

Ignazio.¹⁰⁹⁹

1800.12.14. Arranbide

Nagusi jauna:

Horra itzaien asentua guzia.¹¹⁰⁰

¹⁰⁹⁶ Irudi du IBk «*lebenbiziko lana zehargiltzak egitea / konpontzea izan beharko du*» esan nahi zuela hasmentan, eta gero itzulia aldatu duela.

¹⁰⁹⁷ 'Bazter hauek guziak'.

¹⁰⁹⁸ Irudi du «*eginkizun latzak daude*» esan nahi duela.

¹⁰⁹⁹ Honen peko aldean olajaunaren zenbait ohar eta eragiketa daude, erdaraz idatzirik. Berriz ere «*Abisasti lo de Arano*» ageri da.

¹¹⁰⁰ JRMk bezala, IBk ere zenbaitetan artikulua ezartzen dio izenari, gero erakuslea edo, hemen bezala, zenbatzaile orokorra ageri delarik ere.

Manuel Arpiderenak¹¹⁰¹ esan dit, lana egiña duenaz gañera,¹¹⁰² hogei ezkutuko bat bial diozala,¹¹⁰³ pagatuko diola. Eta Juan Kruz de Ipuik ere, irabazia duenaz gañera, hogeï eta hamar ezkutu eskatzen ditu, pagatuko diozkala.

Asteartean Agustiñ Ubitzik entregatu zituan lau ogiak, eta horra haiekiñ ekarri zuen zakua eta olio txarroa. Eta ez dut oliorik batere, eta ogirik ere ez dut laurden bat besterik. Bial bitzate horrekiñ hononzean batzuek.

Arranbide, *diciembre 14 de 1800.*

Ignazio.¹¹⁰⁴

A Juan Bautista de Minondo.
Que Dios muchos años [guarde].

Goizariñ

1800.12.31. Arranbide

1800

Nagusi jauna:

Urte honetan Sebastian de Etxeberriak¹¹⁰⁵ Arranbidera ekarri dituen ardoak dirade:

3 enero 1 pellejo 15 docenas 6 libras
14 enero 1 pellejo 15 docenas 10 libras
23 enero 1 pellejo 15 docenas 09 libras
01 febrero 1 carga 31 docenas 02 libras

¹¹⁰¹ Gutun honetan berean olajaunak, erdaraz, *Manuel Arpide* darabil. *Arpide* Oiartzungo baserria da; JRMk *Arpide* eta *Arbide*, biak biltzen ditu (II, 187). Bigarrenaren lekukotasunen artean, *Manuel de Arbide Kirkirra* dago.

¹¹⁰² 'Egin(a) duen lanaz gainera'.

¹¹⁰³ 'Bidal diezaiola'.

¹¹⁰⁴ Honen azpian olajaunaren apunteak dauzkagu. Interesgarri izan daitezkeen artean hauek daude: *Manuel Echeueste*, *Bernardo Carrera* (*Bernardo Carreda* 1800.07.23ko gutunean, euskarazko testuan), *Manuel Arpide*, *Cosme Lecuna*, *Elduain*, *Josepe Bearra* edo *Jph. Bearra*, *Juan Ant^o Arbolaiz*, *Juan Cruz Ypuy*, *Joseph Ariznzaual* eta *Jph. Ygn^o Olaochea*. (*sic*)

¹¹⁰⁵ *Larratxuri* zuen honek izengoiti, olajaunaren erdarazko apunteetan ikusten den gisan.

<u>13 febrero</u>	1 pellejo	15 docenas	08 libras
<u>19 febrero</u>	1 pellejo	15 docenas	10 libras
<u>26 febrero</u>	1 pellejo	15 docenas	08 libras
<u>06 marzo</u>	1 pellejo	15 docenas	04 libras
<u>15 marzo</u>	1 pellejo	15 docenas	05 libras
<u>20 marzo</u>	1 pellejo	15 docenas	07 libras
<u>28 marzo</u>	1 pellejo	15 docenas	05 libras
<u>08 abril</u>	1 pellejo	15 docenas	05 libras
<u>22 abril</u>	1 pellejo	15 docenas	06 libras
<u>07 mayo</u>	1 pellejo	15 docenas	04 libras
<u>21 mayo</u>	1 pellejo	15 docenas	07 libras
<u>10 junio</u>	1 pellejo	15 docenas	05 libras
<u>28 junio</u>	1 pellejo	15 docenas	03 libras
<u>09 julio</u>	1 pellejo	13 docenas	10 libras
<u>15 julio</u>	1 pellejo	15 docenas	04 libras
<u>23 julio</u>	1 pellejo	15 docenas	10 libras
<u>01 agosto</u>	1 pellejo	16 docenas	02 libras
<u>Gañer[a] gurbill bat</u> ¹¹⁰⁶ ardo		2 docenas	08 libras
<u>06 agosto</u>	1 pellejo	15 docenas	10 libras
<u>11 agosto</u>	1 pellejo	15 docenas	11 libras
<u>18 agosto</u>	1 pellejo	15 docenas	07 libras
<u>23 agosto</u>	1 pellejo	15 docenas	09 libras

Vuelta Sigue 406 docenas 07 libras

1800/ Sebastianen ardoak

	Suma [a]trás	406 docenas	07 libras
<u>01 septiembre</u>	1 pellejo	11 docenas	11 libras
<u>10 septiembre</u>	1 carga	29 docenas	10 libras
<u>19 septiembre</u>	1 pellejo	16 docenas	01 libra
<u>24 septiembre</u>	1 pellejo	12 docenas	00
<u>02 octubre</u>	1 pellejo	15 docenas	04 libras
<u>09 octubre</u>	1 pellejo	15 docenas	10 libras
<u>21 octubre</u>	1 pellejo	15 docenas	08 libras
<u>29 octubre</u>	1 pellejo	15 docenas	09 libras
<u>07 noviembre</u>	1 pellejo	15 docenas	11 libras

¹¹⁰⁶ Originalean «gañer gurvill vat» dago. Gurbila hamasei bat litroko edukiera duen pegarra da (EH).

13 noviembre 1 pellejo 15 docenas 06 libras
29 noviembre 1 pellejo 15 docenas 10 libras
29 diciembre 1 pellejo 15 docenas 02 libras¹¹⁰⁷

Burni hartuak, garrobandak:¹¹⁰⁸

14 enero 6 quintales, 3 arrobas ½
20 febrero. Kuadro barra bat 0. 1 arroba ½
19 abril. Olatik karga bat ikatz
19 julio. Leoneten arzaiaandik Abisaistiko suertetik
 karga bat ikatz

Arranbide, diciembre 31 de 1800.

Ignazio.¹¹⁰⁹

1801.01.05. Arranbide

1800

Razón de los carbones Domingo de Loiar¹¹¹⁰
*Suerte de Zamiola, lo de Arano*¹¹¹¹

<u>19 julio</u> . Primera carbonera	77	...	2
<u>30 julio</u>	32
<u>29 septiembre</u>	40	...	3
<u>07 noviembre</u>	60½	2	2
<u>11 diciembre</u>	68
<u>20 diciembre</u>	33
<u>1801</u>			
<u>3 enero</u>	48

¹¹⁰⁷ Honen azpian eta eskuinaldean olajaunaren zenbat ohar eta eragiketa daude.

¹¹⁰⁸ Gurdientzako pezak ziren hauek, gutun honetan berean, JBMren apunteetan «*bandas carro*» ageri baita.

¹¹⁰⁹ Eskuineko orrialdean olajaunaren apunteak daude. Izenburuan, azpimarraturik, «*1800 Sebastian Echeverria Larrachuri*» dago. Gero hauek ditugu: «*8 cargas carbon de su castañ[al]*», «*A pasqual Yribarren*», «*14 enero 5 qq 3@½ bandas carro*», «*20 febrero 1@½ quadradillo*», «*le dio Artanchu*».

¹¹¹⁰ Olajaunak erdaraz egindako oharretan garbi ikusten da *Ezkerra zela Domingo Loiar*te hau izengoitiz.

¹¹¹¹ Bistan da *Zamiola* Aranon zegoela, nahiz NTEM 47 lanean ez den jasotzen. Arano eta Hernani arteko mugan da; ikus Zaldúa (2012, *corpusa*, 1230. or. eta 64-63-2 mapa). Testuan badira olajaunaren kontu batzuk.

Hoietaz gañera, badu bere gaztañadian, Arolako ondoan,¹¹¹² egiña bere propioa:

1800 *Hasta julio 22 12½ cargas enteras*

Arranbide, *enero 5 de 1801*

Ignazio.¹¹¹³

A Juan Bautista de Minondo.
Que Dios muchos años [guarde].

Goizariñ

1801.01.12. Arranbide

Nagusi jauna:

Entregatu ditu 65 urretxikiak¹¹¹⁴ eta hiru bost ezkutukoak, eta lau ogi eta baba. Bigar bial bitzate ogiak, eta etzi bial beza Juakintxo, arrago hau erre dediñ.

Arranbide, *enero 12 de 1801* / Ignazio.

A Juan Bautista de Minondo.
Que Dios muchos años [guarde].

Goizariñ

¹¹¹² Aranoko aurkintza. NTEM 47-n (32. or.) burdinola baten aztarnak badirela esaten da. Ohart bekio *-ko ondoan* formari.

¹¹¹³ Honen peko aldean olajaunaren apunteak daude, interesgarrienak azpimarraturik dagoen «1801 Juan Domingo Loyarte Ezquerria» eta beherago dagoen «a la Pepa Cacinta» dira, hots *Pepa Kazinta*, 'Josefa Jazinta', bigarreanean *Josepa*, *Joxepa* > *Pepa* eta *Jazinta* > *Kazinta* ditugulako. «5 octubre consta en otra papel» ere badago.

¹¹¹⁴ Originalean *urre chiquaq* dago.

1801.01.16. Arranbide

*1800 Razón de los carbones Artxaia viejo
Suerte de Presaburua, lo de Arano*

	Cargas		
<i>11 julio. Primera carbonera</i>	15	...	2
<i>13 agosto</i>	16		
<i>05 noviembre</i>	45	2	
<i>20 diciembre</i>	32	...	4
<i>1801</i>	25
<i>14 enero</i>			

Artxaiairen seme horrek Basoberrirako¹¹¹⁵ 38 kuarto eskatzen du, eta nik 32 kuarto esan diot, baña 34 kuarto beharko du. Bada, horri eman ezker, Juan Antoniok, Alkatezar[r]ak¹¹¹⁶ ere nahiko du, hobexegoa du baña,¹¹¹⁷ eta Lukesek¹¹¹⁸ txarragoa du, eta guzietan txarrena Perrazelaikoak du.

Horiek deritzan bezala konpon bitza,¹¹¹⁹ nik emanarekiñ ez lirake kontentu izanen iñolaz ere.

Arranbide, *enero 16 de 1801* / Ignazio.

Nagusi jauna:

Horra Sebastianen leneko urteko¹¹²⁰ asentua. Eta Patxiku Antonioren gana izandu niñzan; ez nuen itxean topatu, baña esa[n] nion¹¹²¹ emazteari, baña ez da

¹¹¹⁵ Ez dakigu toponimoa den edo IBk *baso berrirako* baizik ez zuen esan nahi.

¹¹¹⁶ Originalean *Alkatezaraq* dago, eta ez dakigu ongi nola irakurri behar den, *alkate zaharrak* edo *Alkatezarrak*, hots, sintagma arrunta den edo, iduri duen eran, izengoitia.

¹¹¹⁷ Hemen bada zer den ez dakigun *qn* letra pare: «*duvañaqn Eta Luqueseq[...]*»; *q*-aren burua belztuxe dago, gainera. Beharbada IBk zerbait idazten hasi eta gero beste bide bat aukeratu zuen.

¹¹¹⁸ Aranon eta Goizuetan ez da *burua* > *burue* edo *ikatza* > *iketza*-ren erako hersketarik, baina gutunotan arteka *biek*, *guziek* ‘guziak’ eta *Lukes* ‘Lukas’-en tankerakoak azaltzen dira.

¹¹¹⁹ ‘Hauek berorrek nahi duen bezala konpon bitza’.

¹¹²⁰ Hemen garbi dago *Leneco urteco* ‘lehengo urteko’ ulertu behar dela.

¹¹²¹ Originalean *esanion* dago.

neregana ñor agertu. Hoiiek ez dira, ez, merkeagoren zale izanen, noski. Nahi badu¹¹²² Patxiku Antoniorekiñ egotea, egone[n] naiz,¹¹²³ igandean. Bigarko ogiak eskas ditugu¹¹²⁴ eta gizon horrekiñ bial bitzate ogi batzuek.¹¹²⁵

A Juan Bautista de Minondo.
Que Dios muchos años [guarde].

Goizariñ

1801.02.27. Arranbide

Nagusi jauna:

Juamigel de Loperenak eta Martin Antonio Zuloakoak¹¹²⁶ Isillisko¹¹²⁷ suertean, Aranokoan, egiñ dituzten meak dirade 32 *quintales*, 5 *arrobas* ½. Llebarik gabe¹¹²⁸ pisatuak dira.

Nik ez dut mea hoietatik gehiago ekarzeko pensame[n]turik,¹¹²⁹ zergatik txarrak diran. Gaztigatu nioten ez gehiago egiteko, ez nuela¹¹³⁰ ekarriko gehiago honelako mearik.

Nahi duenean horien kontua eginen diote.¹¹³¹

Arranbide, febrero 27 de 1801

Ignazio.¹¹³²

¹¹²² ‘Berorrek nahi badu’.

¹¹²³ Testuan *egonenaiz* dago.

¹¹²⁴ ‘Falta ditugu’.

¹¹²⁵ Ondoko orrialdean olajaunaren zenbait apunte azaltzen dira; interesgarrienak bi hauek: «*Sebastian Archaia viejo*» eta «*Abono por los ciscos*» (ikus *iduri* sarrera, JRM, II, 297).

¹¹²⁶ Segur aski Oiartzungo *Zuloaga* baserrikoa zatekeen.

¹¹²⁷ *Isillasko erreka* Aranon da (NTEM 47: 38), *Isilas* dokumentatua 1713an eta 1722an. Dena dela, aipatu lanean ez da ebakera biltzen. Iduri du gure testuko forma, *Isillis-*, asimilazioaren fruitua dela. Ikus 1798ko gutuna. Zalduak (2012, *corpusa*, 905-906. or.; mapan 64-56-2-n dago) *Esillats*, *Etsillas*, *Etsilles-* (*Etsillesko erreka*), *Esilles-* (*Esillesko erreka*) biltzen ditu.

¹¹²⁸ Usaian *llebarik gabe* azaltzen da eta inoiz *llebarik bage*. Ikus 1795.08.08(B) eta 1796.03.23 eskutitzetan dioguna.

¹¹²⁹ Testuan *pensameturiq* dago.

¹¹³⁰ Originalean *Esmuela* dugu.

¹¹³¹ ‘Berorrek nahi duenean horien kontua eginen die’.

¹¹³² Honen peko aldean JBMren zenbait ohar eta kontu daude.

1801.04. Arranbide

Nagusi jauna:

Arrantxaleren suñak¹¹³³ eta Juan Franzisku Korroxxakoak¹¹³⁴ Arritxurietan¹¹³⁵ erdi bana egiñ dituzten meak dirade 108 kintal, 2 arroa. Hoietaz gañera, baditu Juan Franzisku Korroxxakoak, baditu berak aparte, lagunik gabe egiñak, bere propioak, 7 kintal, 2 arroa. Horiek dira horiek egiñ dituzten mea guziek.

Arranbide, *abril de 1801* / Ignazio.¹¹³⁶

A Juan Bautista de Minondo.
Que Dios muchos años [guarde].

Goizariñ

1801.04.27. Arranbide

Nagusi jauna:

Olakoak esan didate Aranzazuko fraide horri emateko:

Pello maisuarenzat	1 pezeta	Lorenzo ¹¹³⁷
Lorenzo ¹¹³⁸ igelearenzat.	1 pezeta	tirador ¹¹³⁹ Eratsun
Nolberto igelearenzat	1 pezeta	Jaime 41 reales
Urzalle berriarenzat	1 pezeta	Agustin
Kaperorenzat	1 pezeta	Josepe Mazinko ¹¹⁴⁰

¹¹³³ *Arrantxale* hau *Juan Josepe* edo *Juan Joxepe* izena zuenaren (etxe) goitizena zen (ikus 1793.10eko gutuna); *suña* berriz ‘suhia’ dugu, alabaren senarra.

¹¹³⁴ *Korroxxa* Goizuetako baserria da; lehen izen bereko etxea ere bazen herrian. Originalean, beste batzuetan bezala, *b* ageri da egun *x* idazten duguna adierazteko, hots, sabaiaurreko igurzari ahoskabea irudikatzeke (*CorrohCaCoaq*). Ikus grafiari eskaini atala.

¹¹³⁵ *Arritxurieta*, *Artxurieta* Goizuetako toponimoak dira (Etxeberria, 1988: 88; NTEM 47: 66, 68).

¹¹³⁶ Honen azpian olajaunaren zenbait apunte daude.

¹¹³⁷ Azken zutabe honetako apunteak Juan Bautista Minondok eginak dira, gutuna jaso eta, bistan da. Originalean *Lorencio* dago, eta badaiteke *Lorentzio*, *Lorentzo* edo *Lorentxo* izatea.

¹¹³⁸ Ez dakigu *Lorentzo* ez ote den irakurri behar.

¹¹³⁹ *Tirador* (gaztelaniaz) eta *igelea* (euskaraz) lanbide bera dira.

¹¹⁴⁰ Ez dakigu *Macinco* ala *Macineo* irakurri behar den; JRMren (1800.1.9) *Matxinoa* bera? Hainbestetan errepikatzen den *Josepe* hori *Joxepe* irakurri beharko da segur aski.

Bizente meallearenzat	1 real	hierno Musilla ¹¹⁴¹
Neretzat ere	1 pezeta	Josepe Txikia ¹¹⁴²
		El primero 1 pezeta
		Segundo...0½
		Tercero...0½

Arranbide, abril 27 de 1801
Ignazio.

1801.05.02. Arranbide

1801

Nagusi jauna:

Bizente Kristok¹¹⁴³ hemen mealle sartu dituan egunak dirade:

28 febrero semana 6 días

07 marzo semana 6

14 marzo semana 6

21 marzo semana 6

28 marzo semana 5

11 abril semana, olatxoko

kabiguña sarzen 2

18 abril semana 6

26 abril semana 6

02 mayo semana 6 días

Horiek dirade horren egunak, eta taia txikiko ardoak ditu...8 pintas...

Haspagilleak¹¹⁴⁴ esan dit etorriko dela astelen datorrenean zorzi¹¹⁴⁵ goizean, beurrek esan bezala.

Arranbide, mayo 2 de 1801

Ignazio.

¹¹⁴¹ Goitizena da; ziurrenik *Muxilla* irakurri beharko da. *Motxila* bera izan ditek; ikus bedi *murtxila* sarrera, OEHn.

¹¹⁴² Goitizena da. Beharbada *Joxepe Txikia* edo *Joxepe Ttikia* irakurri behar genuke.

¹¹⁴³ *Kristo* hau goitizena izanen da, nahiz *Kristo(b)al* izenaren hipokoristikoa ere izan daitekeen. Ikus 1796.05.13(A) eta 1797.01.16 gutunetan dioguna.

¹¹⁴⁴ *Auspagille* Goizuetako etxea da, eta lehen baserria ere bazen (Perurena, Salaberri eta Zubiri, 2011: 47-48). Nabarmentzekoa da izenak dokumentazioan, egun bezala, *aus-*diptongoduna zuela eta duela, baina gutunotan *as-* izaten dugula. Nolanahi ere, *aspagillea* 'hauspoak egiten dituen' izen arrunta ere izan daiteke, eta garbi dago, adierari doakionez, Goizuetako oikonimoa eta gutun honetako animoa loturik daudela.

¹¹⁴⁵ 'Datorren astelehenean zortzi' edo menturaz 'datorren astelehenean, gaur zortzi'.

Atzo ekarri zituan¹¹⁴⁶ Kristok bost ogi, eta horra haiekin ekarri zuan zakua.¹¹⁴⁷

A Juan Bautista de Minondo.
Que Dios muchos años [guarde].

Goizariñ

1801.05.08. Arranbide

1801

Nagusi jauna:

San Frantziskuko fraide horri emateko:

Pello maisuak.....	1 pezeta...	} 7 reales fuertes
	Lorenzo...	
Eta beste guzientzat	Norberto	
len usatzen dena, erreal bana	Kapero	
	hijo Lorenzo	

Arranbide, mayo 8 de 1801¹¹⁴⁸

Ignazio.

1801

11 mayo Goizarin

[Lorenzo... ¹¹⁴⁹	} 4 reales fuertes
	tirador Eratsun	
	Jaime.....	
	Agustin....	

11 reales fuertes

1801.05.23. Arranbide

Nagusi jauna:

¹¹⁴⁶ Originalean azken -n hori goratua dago, aitzineko bokalaren gainean izkiriaturia.

¹¹⁴⁷ Honen azpiko aldean olajaunaren zenbait apunte daude.

¹¹⁴⁸ Honen ondoan bada olajaunak idatzi izena, ezin irakur dezakeguna.

¹¹⁴⁹ Hauek ere JBMren apunteak dira.

Paskual de Iribarren horrek, leneko kontua egin ezkerro, urte honetan egiñ dituan meak dirade..... 140 kintal, 5 arroa.

Horiek dirade horren meak.

Esan behar dio¹¹⁵⁰ leneko meatzean egin dezala mea ona; bestela, hobe du mearik batere ez harzea. Mea txarrak egiten ditu orañ aldi honetan.

Arranbide, mayo 23 de 1801

Ignazio.

Arotzak gaur ez[t]ute¹¹⁵¹ akabatuko hemengo lana.

A Juan Bautista de Minondo.
Que Dios muchos años [guarde].

Goizariñ

1801.07.09. Arranbide

Nagusi jauna:

Justiano maxterraren¹¹⁵² semeak entregatu ditu 22 urretxiki eta hiru ogi.

Ola haundiko zepotillu nagusia¹¹⁵³ konponzeko lau zur etorri ziran, eta haspategiko orañ aurretik egiñ den armazio¹¹⁵⁴ honetarako hiru zur ekarri ditugu. Eta hoiien egiteak eta ekarzeak eta paratzeak, gauza gutxi gorabera, beurrek jakiñen du zenbatsu¹¹⁵⁵ kosta ditezkean.¹¹⁵⁶ Hala egiñ beharko du; nik hoiien kontua lenago bialdu niola nago.¹¹⁵⁷

¹¹⁵⁰ ‘Berorrek esan behar dio’.

¹¹⁵¹ Originalean *Ezute* dago; ez dakigu falta dena *t* den ala *d*.

¹¹⁵² Ez dakigu *maxterraren* ala *Maxterraren* izkiriatu behar dugun, hau da, izen arrunta (‘etxezaina’) ala hartan oinarritu goitizena den. Originalean, nolana ere, *Mahterraren* idatzirik dago.

¹¹⁵³ *Zepotillu nagusia* olako peza da, bistan denez zepotilluetan handiena, baina ez dakigu xuxen zein eta nolako zen. A. M. Mitxelenak (2020: 297) honela definitzen edo deskribatzen du *zepotillu* peza hori: «*lurrean erdia sartuta egurrezko zunbil batzuk*», «*ingude eta beste tresna batzuen oinarri eta egonarriak, bertan finkatuta*». Ikus JRM (II, 378).

¹¹⁵⁴ ‘Enkofratua’ edo horren antzekoa.

¹¹⁵⁵ Originalean *Zenbasu* dago idatzia.

¹¹⁵⁶ Badirudi burutan *balio izan* zeukala Ignaziok, «*egiteak eta ekarzeak eta paratzeak*» dugulako, hau da, ergatibodun hiru aditz izen, baina gero, hondarrean *kostatu* sartu duela.

¹¹⁵⁷ ‘Bidalı niolako ustean nago’, ‘bidalı niola uste dut’.

Eta geroztik, ubelde¹¹⁵⁸ haundi hura egiñ ezkerok –1800, 22 *noviembre* ezkerok¹¹⁵⁹ presako ziargilzan¹¹⁶⁰ pasatuak:

22 *Noviembre*. Anbrusio Olasokoak 2 *días*
Juan Patxiku de Insauspe. 2 *día[s]*¹¹⁶¹
 29 *Noviembre*. *Semana*. Zubia konponzen Anbrusiok. 3 *días*
Juan Patxiku de Insauspe. 3 *días*

Peonzan¹¹⁶² sartuak presako ura gelditzen eta azekiak garbitzen sartuak:

Anbrusio Zubeldia Tranpak. 12 *días*
 Pepe Lukanbio. 11 *días*
 Lorenzo igele difuntuak 03 *días*
 Urzalle berriak. 04 *días*
 Juan Antonio Iribarren. 01 *día*
*Hijo de Artxaia*¹¹⁶³ 01 *día*
 Lukas de Iraola 01 *día*
 Juamartin de Ansa. 01 *día*

Hoietaz ganera (*sic*), Juakiñtxok agindurik [go]nbitetan¹¹⁶⁴ gastatuak, bi ogi eta 9 pinta ardo.....8 *reales*

Horietaz gañera, presan ura gelditzen, gonbitetan gastatuak, ogiak eta ardoak, guzitara egiñak...4½ pezetarenak.

Horiek dira ubelde haundi hura¹¹⁶⁵ egiñ ezkeroko guziek.

Anbrusio eta bere laguna hemen ari dira egun hoietan.¹¹⁶⁶ Beharko ditugu, prezisoenak, sei uztarri¹¹⁶⁷ berriak, eta beharko ditugu, erremedio gabe, hiru

¹¹⁵⁸ ‘Uholdea’. Goizuetan, egun, *uèldé* esaten da.

¹¹⁵⁹ Kontuak, asentuak data horretan hasten dira, baina uholdea lehenago izan zen, 1800.11.19ko gutunean ematen baita haren berri.

¹¹⁶⁰ *Zehargiltza* ‘presatik ubiderako ate edo konporta, eta ubide bazterrekoa hura hustutzeko’ (A. M. Mitxelena, 2020: 294). Arranbiden, 1713. urtean «...*en la antepara dos ustariass y dos cobinas que llaman zearguilza*» ageri da. Ikus JRM (I, 183, 860. oin oharra). Gaur egun Goizuetan *ziar* ‘zehir’ esaten da: *ziarka* ‘zehirka’, *ziar-ziar* *yoan* ‘zehir-zehir joan’.

¹¹⁶¹ Originalean «2 *día*» dago.

¹¹⁶² ‘Peoi lanetan’. JRMk (II, 351) *peonko* darabil.

¹¹⁶³ *Artxaia* lagun baten goitizena da (ikus 1797.04.12); erka bedi *Arrantxale*-rekin, adibidez. *Hijo de Artxaia* hau eta 1801.01.16ko «*Artxaia*ren *seme horrek* [...]» lagun bera dukegu.

¹¹⁶⁴ Xuloa dago eta ez dira lehen letrak ongi irakurtzen ahal.

¹¹⁶⁵ ‘Uholde handi hura’ esan nahi du, 1800.11.19ko gutunean eta oraingoan aipatzen diren txikizioek hola dela adierazten dute. Nolanahi ere, 1793_1796ko testuan «*Gorriolako ubaldea*» *dugu* eta 1793.09.18koan «*Dixiduko ubalde honetan*», hain segur ere ‘erreak ertza’, ‘erribera’ adierarekin. Hortaz, eta zuzen bagabiltza, *ubaldea* eta *ubeldea* gauza bana ziren.

¹¹⁶⁶ ‘Egun hauetan’.

¹¹⁶⁷ *Uztarri* hemen ‘antaparan zehirka paratzen den ohola’ da. Ikus JRM (II, 374).

edo lau zerra trunku mandioak egiteko.¹¹⁶⁸ Antapara muturreko bioladura¹¹⁶⁹ guzia usteldu eta galdua dago, eta antaparako solera¹¹⁷⁰ guzia orobat. Bada, ustelenak edo galduenak badere, gogortuxe¹¹⁷¹ beharko dute, al den bezala.

Idiak bial bitza larunbatean, Urriztixabalen¹¹⁷² eta Gorriolan¹¹⁷³ izanen dira zurak. Datorren astean bial bitza aranaztar horietatik lau abere, egiten diran¹¹⁷⁴ ikatz pixkak¹¹⁷⁵ galdu gabe ekarri al baganitza,¹¹⁷⁶ hemengo karreteroan¹¹⁷⁷ esperanza ez degula zer egonik. Guziek beren lanetan eta beren gonbenienzietan dabillza.

Igandean, iñolaz ere al badu, bialdu behar dizkit hoge eta hamar ezkutu, arren. Lotsatua nabill zorrakiñ.

Horra hemengo mutillak hiru ogirekiñ ekarri duen zakutxo. Eta itzaiak etorriko dira bigar edo etzi; esanen diotet dabillzala fundamentuz,¹¹⁷⁸ izanen dela dirua. Bial bitzate Tranpa horrekin ogi batzuek.

Arranbide, *julio 9 de 1801*

Ignazio.

A Juan Bautista de Minondo.
Que Dios muchos años [guarde].

Goizariñ

¹¹⁶⁸ Hau bitara konpreni daitekeela dirudi: 1. *lau zerra-trunku mandioak egiteko*, hau da, zerrarekin landutako lau enbor, mandioak egiteko, zer ere ulertzen baita *mandio-tzat* ('tabloia?'; ikus bitez EH, OEH eta A. M. Mitxelena, 2020: 20-21); 2. *lau zerra, trunku mandioak egiteko* 'lau zerra enbor-mandioak egiteko'.

¹¹⁶⁹ Testuan usteldua zegoela erraten baita, zurez egina izan behar zuen, antapara bera bezala. A. M. Mitxelenaren arabera (2020: 21), antaparako *mandiadura* da *violadura*, hots, antaparan paratzen ziren mandio edo oholek, tabloiek osatzen zuten egurrezko paretia modukoa.

¹¹⁷⁰ 'Zola'.

¹¹⁷¹ Originalean *gogortu che* dago. Hau *gogortuxe* nahiz *gogortutxe* uler daiteke, *ch* digrafoa nola interpretatzen dugun.

¹¹⁷² *Urriztixabal* Goizuetako aurkintza da (NTEM, 47: 141); Artikutzan ere bada (*ibid.*, 167).

¹¹⁷³ Toponimoa da, Arranbide aldekoa (ikus 1797.05eko gutuna), Aranokoa hain segur. 1793_1796ko eskutitzean *Gorriolako ubaldea* ageri da.

¹¹⁷⁴ Azken *-n* goraturik idatzirik dago.

¹¹⁷⁵ Originalean *YcazpihCaq* idatzirik dago.

¹¹⁷⁶ *ECarri Alvaganiza* originalean; 'ekar bagenitzake'.

¹¹⁷⁷ Bukaerako *n* aurreko bokalaren gainean izkiriaturik dago. Hasmentan *Carreteroaq* izkiriaturik du IBk.

¹¹⁷⁸ 'Fundamentuz, zintzo ibil daitezela'.

1801.08_09. Arranbide

1801 en Arranbide¹¹⁷⁹

Nagusi jauna:

Mutilla[k], Intxaloren suñak¹¹⁸⁰ Arranbiden egiñ dituen burniak dirade:

08 agosto semana 6 quintales 3 arrobas. *Expensas* 23½ reales

14 agosto semana 27 quintales 3 arrobas ½ 36½ reales

Taia txikiko ardoak ditu...1 pintas (sic)

Lorentxio¹¹⁸¹ de Alsuak ditu:

22 agosto semana . . . 11 quintales, 2 arrobas ½. *Expensas*. . . . 24½ reales

Taia txikiko ardoak ditu...1½ pintas

Vuelta

1801

Juan Antonio itzaiaren semeak Arranbiden egiñ dituen burniak:

08 agosto semana 6 quintales, 3 arrobas. *Expensas* . 23½ reales

14 agosto semana 27 quintales, 3 arrobas ½ 36½

22 agosto semana 09 quintales, 2 arrobas ½ 24½

29 agosto semana 29 quintales, 0 50

05 septiembre semana . . . 26 quintales, 4 arrobas 46

12 septiembre semana . . . 21 quintales, 4 arrobas 36

Taia txikiko ardoak 10 pintas

Hoietaz gañera, Gañziñgo ondoan¹¹⁸² egiña baditu meak:¹¹⁸³

1800. Hasta 15 noviembre 3 quintales, 2 arrobas

¹¹⁷⁹ Olajaunaren izkirioa da hau.

¹¹⁸⁰ Originalean «*Mutilla Ynchaloren Suñaq*» dago. Ziurrenik «*Mutillak, Intxaloren suñak*» Arranbiden egiñ dituen burdinak» ulertu beharko da. *Intxalo (Ynchalo)* argi irakurtzen da, baina badirudi Goizuetako *Untxalo* oikonimoan oinarritutako etxe izengoitia dela, egun oraindik ibiltzen dena. Ikus Perurena, Salaberri eta Zubiri (2011: 186).

¹¹⁸¹ Originalean *Lorenchio* izkiriaturua da.

¹¹⁸² Berriz ere *ondoan* postposizioarekin leku genitiboan darabil IBk, egun oraino Iparraldean usaiakoa den gisan.

¹¹⁸³ 'Eginak baditu meak' da hau, jakina. Seguruenik ebaki bezala idatzi zuen IBk.

1801.10.09. Arranbide

Nagusi jauna:

Presarako Brunok hemen eragiñ dituen burniak dirade guzitara 1 quintal, 4 arrobas, 7 libras

1801 Por Septiembre¹¹⁸⁴

Naz[a] hau¹¹⁸⁵ egiten sartu zituzten egun guzietan dirade:

<u>Anbrusio</u> Olasokoak ¹¹⁸⁶ ditu.	6 días.	Expensas	9
<u>Juan</u> Patxiku de Insauspe	6 días.	Expensas	9
<u>Buruzuriak</u> ¹¹⁸⁷	9 días.	Expensas	13½
<u>Anbrusio</u> Tranpa ¹¹⁸⁸	11 días.	Expensas	16½
<u>Pepe</u> Lukanbio.	09 días.	Expensas	13½
<u>Agustin</u> de Ubitzi	03 días.	Expensas	04½
<u>Hijo</u> de Agustin.	06 días.	Expensas	09½
<u>Perrazelaikok</u> ¹¹⁸⁹	04 días.	Expensas	06
<u>Juan</u> Antonio Iribarren.	07 días.	Expensas	10½
<u>Juamartin</u> ¹¹⁹⁰ de Ansa.	06 días.	Expensas	7½
<u>Hijo</u> de Artxaia ¹¹⁹¹ Juan Antonio	07 días.	Expensas	10½
<u>Lukas</u> de Iraola	06 días.	Expensas	09
<u>Nolberto</u> tirador ¹¹⁹²	03 días.	Expensas	04½
<u>Paskual</u> de Insauspe.	03 días.	Expensas	4½
<u>Mealleak</u>	04 días.	Expensas	06

80¹¹⁹³

¹¹⁸⁴ Olajaunaren oharra da hau.

¹¹⁸⁵ 'Errotara ura eramateko erretena edo ubidea' (EH) da naza. Hiztegian *Ipar*. markarekin ageri da, baina garbi dago ez dela (bakarrik) hola. Testuan *Nazau* dago idatzirik. Ikus 1800_1801, 1802.06.21 eta 1802.07.17ko gutunak.

¹¹⁸⁶ Goizuetako etxea zen *Olaso* (egun *Olasoberri*); izen bereko baserria bada oraindik (Perurena, Salaberri eta Zubiri, 2011: 152).

¹¹⁸⁷ Goitizena da *Buruzuria*, bistan denez. Ikus 1800.09.27(B) eta 1802.04 gutunetan dioguna.

¹¹⁸⁸ Hau ere goitizena da. *Anbrusio (de) Zubeldia* zen berezko izen-deituraz.

¹¹⁸⁹ Hola dago originalean, artikulurik gabe.

¹¹⁹⁰ Testuan *Jua martin* dago.

¹¹⁹¹ Ezizena da hau ere. Ikus gorago (1797.04.12) esan duguna.

¹¹⁹² Euskarazko *igelea*-ren baliokidea.

¹¹⁹³ JBMren izkirioa. Honen azpian ere badira haren beste apunte batzuk.

Horra naza egiten sartu zituzten egun guziek, Brunori¹¹⁹⁴ kontua ema[n] nahi¹¹⁹⁵ badio.¹¹⁹⁶

Brunok niri esan¹¹⁹⁷ dit presan gastatu ziran burniak zenbat ziran, eta zenbat balio zuten. Nik esan diot zenbat diran, baña zenbat balio duten ez dakidela (*sic*). Eta beurri eskribituko diola gelditu da. Baña naz[a] hau¹¹⁹⁸ zenbat kosta den¹¹⁹⁹ ezpaitu galdatzen. Enfin, konponduko al dira edo abonatuko al diote gastu hori!¹²⁰⁰ Mutill horrek entregatu ditu hamar ogi, eta ardoa, eta tobera, eta baba.

Arranbide, *octubre 9 de 1801*/ Ignazio.

A Juan Bautista de Minondo.
Que Dios muchos años [guarde].

Goizariñ

1801.10.23. Arranbide

1801

Nagusi jauna:

¹¹⁹⁴ Originalean azken silaba goratua dago.

¹¹⁹⁵ Testuan *Emanai* daukagu.

¹¹⁹⁶ ‘Berorrek eman nahi badio’. Testua goitik behera idatzirik dago.

¹¹⁹⁷ ‘Galdetu’ hemen.

¹¹⁹⁸ Testuan *nazau* dugu.

¹¹⁹⁹ ‘Zenbat kostatu den’ izanen da hau, egun Goizuetan ibiltzen den bezala.

¹²⁰⁰ Ez dakigu *diote* horren azpian *haiek berorri* dagoen (*beurri* IBren hizkeran) edo *berorrek haiei*, Brunori eta lankideei, alegia.

Zaparrak¹²⁰¹ eta Errotariak¹²⁰² orañ Iturruan,¹²⁰³ Urdiñolako suertean,¹²⁰⁴ egiñ dituzten meak dirade 73 kintal, 5 arroa ½. Llebarik gabe¹²⁰⁵ pisatuak dirade guziek.

Arranbide, *octubre 23 de 1801* / Ignazio.

Hemen arratseko diña¹²⁰⁶ ogi dut, eta gaur ezpadituzte bialzen, bigar goizean goiz bialdu behar dituzte ogiak.

A Juan Bautista de Minondo.
Que Dios muchos años [guarde].

Goizariñ

1801.11.10. Arranbide

Nagusi jauna:

Entregatu ditu 24 panes, horra.¹²⁰⁷ Atzo aranaztarrak babarekiñ ekarri zuten kostala,¹²⁰⁸ eta mealleak ekarri zuen zakutxo. Atzo bialdu nituen

¹²⁰¹ Izengoitia da, segur aski etxe izengoitia. Oiartzungo Ugaldetxon bada *Txaparrea* deritzan baserria (Goikoetxea eta Lekuona, 2007: 297), eta ziurrenik horkoa zatekeen gure Zaparro hau.

¹²⁰² Iduri du izengoitia dela, baina ez dakigu segur. Ikus 1801.12.23ko gutunean ageri den *Patxiku Errotaria*.

¹²⁰³ Originalean *Yturruan* dago, eta bigarren *r*-ren gainean puntua. Gero berriz (1802.04) ageri da *Yturruan* («*Suerte de urdiñola Yturruan Eguiguñaq*», sic). Aranon *Iturriaga* dago, eta badakigu Zaparro hor aritu zela lanean (ikus 1802.01.05eko gutuna).

¹²⁰⁴ *Urdiñola* Goizuetako lehengo burdinola zen, baita egungo dermioa ere (NTEM 47: 140). Burdinola *Urdiñolako erreka* izenekoaren ertzean zatekeen; ikus A. M. Mitxelenak (2020: 8) dakarren «Goizueta inguruko burdinolak» izeneko mapa. Oiartzunen *Urdinola* baserria dago, erreka bazterrean (Goikoetxea eta Lekuona, 2007: 309).

¹²⁰⁵ Ikus 1795.08.08(B), 1800.08.306 eta 1801.02.27 gutunak.

¹²⁰⁶ ‘Arratserako adina’.

¹²⁰⁷ Ez dakigu nork entregatu zituen ogiak. IBk *horra* ‘horra hor’ adierarekin erabiltzen du. Euskara batuko *horra* Goizuetan *horrara* zen eta da. Ikus, zernahi gisaz, JRM (II, 274).

¹²⁰⁸ Alegia, aranaztarrek kostal baba, kostala bete baba ekarri zuten. *Kostala* zaku handia da, gorago erran dugunez; mealleak berriz zaku ttikia eraman zuen.

burniñtxo moxbegidunak;¹²⁰⁹ guziek dira 19 *quintales*, 2 *arrobas* ½, 130 *reales*. Gau[r]¹²¹⁰ falta gabe entregatzeko esa[n] nioten.¹²¹¹

Arranbide, *noviembre 10 de 1801*¹²¹²

A Juan Bautista de Minondo.
Que Dios muchos años [guarde].

Goizariñ

1801.11.17. Arranbide

Nagusi jauna:

Olakoak esan didate Karmengo fraide deskalzo horri emateko:

Pello Maisuarenzat	1	<i>real fuerte</i>
Lukas de Zabala <i>tirador</i>	1	Lorenzo ¹²¹³
Nolberto <i>tirador</i>	1	Sarran ¹²¹⁴
Juakin Apezitxea <i>fundidor</i>	1	Jaime
Migel Antonio Bidasola <i>fundidor</i>	1	Agustin
Meallearenzat	1	Mangarr (?)
Neretzat	1	Makutso ¹²¹⁵
		Josepe Txiki ¹²¹⁶

¹²⁰⁹ Originalean *Burniñcho mobvigui dunaq* dago, eta irudi du beste batzuetan bezala *h* igurzkari sabaiaurrekoa emateko baliatu dela (ikus grafiari eskaini atala). Ez dakigu seguru-seguru *moxbigi* delako hori zer den, baina elkargaiak *motx* + *begi* direla proposa daiteke, 1803.06.02ko eskutitzean *burniñtxo begidunak* azaltzen delako. Beraz, hiru burdinatxo mota zeuden, gutieneko kontuan: *burdinatxoak* (arruntak), *burdinatxo begidunak* (burdinatxo zulodunak) eta *burdinatxo moxbegidunak* (burdinatxo motx zulodunak).

¹²¹⁰ Testuan *gau* dago.

¹²¹¹ Originalean *esanioten* dago.

¹²¹² Hemendik aitzina olajaunaren apunteak daude, franko, orrialdearen bukaera burutzat harturik idatziak. Interesgarrienak «*Pello tirador Erasun*», «*Pello Mindegui*» eta «*con Lorenzo*» dira.

¹²¹³ Ziurrenik *Lorenzo* irakurri beharko da, olajaunaren oharretan *Lorenchio* azaltzen delako.

¹²¹⁴ Goizuetako *Sarran* edo *Sarrankoliñenea* etxekoen izengoitia dateke hau, edo herri bereko *Sarran* baserrikoena. Ikus Perurena, Salaberri eta Zubiri (2011: 170).

¹²¹⁵ Etxe izengoitia dugu hau; *Makutso* Oiartzungo baserria da. Erka bedi, dena dela, Aranoko *Makutsola* toponimoarekin.

¹²¹⁶ Seguruenik *Joxepe Txiki* edo *Joxepe Ttiki* ulertu behar genuke.

Arranbide, *noviembre 17 de 1801* Arakiñanea¹²¹⁷

Ignazio.

1801.12.15. Arranbide

Nagusi jauna:

Pello maisuak esan dit larunbatean etorriko dela, nahi dituela kontuak egiñ, eta behar dituela larunbatean hiru hogezi ezkutuko.¹²¹⁸ Bada, hemen horrek hartu dituan diruak daude:¹²¹⁹

1801

Hasta 15 junio 40 pezetas

Hasta 14 agosto 20 pesos fuertes

Taia txikiko ardoak ditu. 87½ pintas

Hoiak dira horrek hemen dituenak.

Igande arratsean Lukes Iraolak entregatu zituan zorzi ogi, eta orañ hemen ez dago ez ogirik, eta ez babaren granorik, eta ez olioaren tantarik. Sebastian zor dut bi libra olio,¹²²⁰ ordaña emateko elizarako oliotik kendua.¹²²¹ Eta bial bitzate ogiak eta baba eta olioaren fundamentuz. Horra Lukusak (*sic*)¹²²² ogikiñ¹²²³ ekarri zuen zakua.

¹²¹⁷ Etxe izena?, etxe izengoitia? Bata zein bestea izan daiteke. Ikus 1792.06.06ko gutunear dioguna.

¹²¹⁸ Hiru txanpon hogezi ezkutuko. Ikus JRM (II, 292).

¹²¹⁹ IB nahasi dela dirudi, Pello maisuak hartu zituen diruak ez baitzeuden jadanik, jakina. *Dirade* izkiriatu nahi bide zuen, baina *daude* atera. Daitekeena da, zernahi gisaz, «*daude [apuntatuta]*» ulertzea, egiantz gutxikoa bada ere.

¹²²⁰ JRMk bezala, IBk ere bi argumentuko adiztako darabil *zor izan*. Ikus JRM (II, 380-381). Bestalde, olioaren litroka ez, baizik librak neurtzen zen.

¹²²¹ Ez dakigu azken xati hau xuxen nola puntuatu eta ulertu behar den, nahiz «*Sebastian zor dut bi libra olio*» hori aski segurua den edo iruditzen zaigun. Ondokoa «*...bi libra olio ordaña emateko, elizarako oliotik kendua*» izan daiteke, edo guk idatzi duguna.

¹²²² *Lukasek* edo *Lukesek* idatzi nahi bide zuen IBk. Gutun honetako bereko *Lukes Iraola* da.

¹²²³ Egiantzekoena pluralizat ('ogiekin') hartzea da, baina badaiteke, orobat, *ogiarekin* (zentzu generikoa) edo *ogirekin* (erdarazko «*con pan*»-en eran) izatea.

Arranbide, *deciembre 15 de 1801*

Ignazio.¹²²⁴

1801.12.23. Arranbide

1801

Nagusi jauna:

Leneko kontua egiñ ezkerro, Zapparrok¹²²⁵ eta Patxiku Errotariak¹²²⁶ erdi bana egiñ dituzten meak dirade *17 quintales*, zabalak.¹²²⁷

Hoietaz gañera, Patxiku Errotari horrek bere semearekin, berak egiñak baditu *103 quintales, 0 arroba ½*.

Arranbide, diciembre 23 de 1801

Ignazio.

Llebarik gabe pisatuak dira guziek.

A Juan Bautista de Minondo.
Que Dios muchos años [guarde].

Goizariñ

¹²²⁴ Ondoko orrialdean olajaunaren oharrak eta kontuak ageri dira. Interesgarrienak hauek dira: «*Pello maestro Irun*», «*Juan Domingo Sarate*», «*Sastre de Renteria por su parte [...]*», *Pach*^o, «*frailes Aranzazu fran[ciscanos] y Carmen*», «*al medico Goizueta por visita*», «*al Cirujano Goizueta por 3 visitas*», «*A Puñal una Chartesa*» (sic), «*al Calentador Juan francisco*».

¹²²⁵ Etxe izengoitia dateke; ikus gorago esandakoa.

¹²²⁶ Badirudi *errotari* izen arrunta berezitu dela hemen, *Patxiku Errotaria* izenak eta lanbide izenak osatu goitizena baita. Mea egiten ibiltzen zen gure Errotaria.

¹²²⁷ Mea horiek zabalak egiteko ibiltzen zirela ulertu beharko dugula dirudi. Burdinolan egiten ziren pezak ziren *zabalak*; ikus *txabal* eta *zabal* sarrerak JRMren gutunetan (II, 369-370, 376).

1802.01.05. Arranbide

Nagusi jauna:

Axtiarragaren¹²²⁸ semeak eta Martin Antonio Lizartxikitoren¹²²⁹ semeak
Erbizaño errekan¹²³⁰ egi[n] zituzten¹²³¹ meak dirade:

1801 hasta 24 agosto . . . 43 quintales, 3 arrobas ½.

Llebarik gabe¹²³² pisatuak dira.

Axtiarragaren semeak baditu diru hartuak, nik emanak: *7 junio.... 2 orillos viejos.*¹²³³

Brauliok eta Zapparok Iturriagan¹²³⁴ egiñ zituzten meak dira erdi bana
egiñak: *21 noviembre... 5 quintales, 1 arroba ½.*

Diru hartuak badituzte nik emanak:
7 junio Brauliok. 2 orillos viejos
Zapparok. 2 orillos viejos

Josepe Urrotzek¹²³⁵ berak egiñak dituela baditu meak:
21 noviembre... 8 quintales, 1 arroba

Llebarik gabe pisatuak dira guziek.¹²³⁶

¹²²⁸ Hemen ez da *x*-ren aztarrenik, baina 1805.10.21eko gutunean *Abtiarra* idatzi du IBk, egun *Axtiarra(ga)* transkribatuko genukeena. Goitizena da. JRMk ere *Asstiarragaren Semeaq* du, egun *Axtiarragaren semeak* izkiriaturko genukeena (ikus JRM, II, 179).

¹²²⁹ *Lizartxikito* Martin Antonio zeritzanaren goitizena zen.

¹²³⁰ Aranokoa da *Erbizingo erreka* (NTEM 47: 36).

¹²³¹ Originallean *Egui Zituzten* dago.

¹²³² Ikus 1800.07.30 eta 1801.12.23.

¹²³³ Bi urretxiki zahar.

¹²³⁴ *Iturriaga* Aranoko aurkintza da (NTEM, 47: 39). Beste bitan *Iturruan* dago, Urdiñolako zortean. Ikus 1801.10.13ko eta 1802.04ko gutunak.

¹²³⁵ Garbixko dago hau *Jose Urroz* zela berezko izenez, eta jendeak *Josepe* edo *Joxepe Urrotx* deitzen zuela. Zernahi gisaz, *Urro(t)z*, deitura ez ezik, *Joxepe*-ren sorterria ere izan daiteke. Beste azalbidea da *Urroch(eq)* horren azpian *Urrotx(ek)* ez, baizik *Urrotz(ek)* zegoela kontu egitea.

¹²³⁶ Ikus IBren 1800.07.30eko eta 1801.12.23ko gutunak.

Arranbide, enero 5 de 1802 / Ignazio.

Egondu naiz Gregorio Aranoko alkatearekiñ. Esan diot beurrek gaztigatu didan bezala. Ongi dela esan dit, aditzera emanen diotela lagunai.¹²³⁷ Niri esan dit igande jua den honetan¹²³⁸ gaztigatu diola Oletek¹²³⁹ basoaz eskas daudela, etorriko dela Hiru Erregean egunean¹²⁴⁰ eta hitz egiñen dutela. Hau da niri esan didana. Bigar ageriko da, Olet jua ten bada,¹²⁴¹ eta adituko degu zer esaten duten.

A Juan Bautista de Minondo.
Que Dios muchos años [guarde].

Goizariñ

1802.01.08. Arranbide

1801

Razón de los carbones Paulo de Zabala, *propia*
Bordal junto de Surue

09 octubre.....

19½

Arranbide, enero 8 de 1802

Ignazio.

Berak jasoak ditu guziek.

¹²³⁷ ‘Aditzera emanen diela lagunei’.

¹²³⁸ Tarteko *-ne-* zatia ez da guziz argi ageri. ‘Joan den igande honetan’ da adiera.

¹²³⁹ Izengoitia dugu hau. Menturaz etxe izengoitia da, *Oleta* batetik abiatu rik sortua. Errenterian eta Donostian bada *Oleta* baserria (EJ).

¹²⁴⁰ ‘Errege egunean’.

¹²⁴¹ Hau «*Bihar ageriko da Olet, jua ten bada*» ere puntuatu eta uler daiteke.

A Juan Bautista de Minondo.
Que Dios muchos años [guarde].

Goizariñ

1802.01.12. Arranbide

1801

*Razón de los carbones Leontxo de Zabala, propia
Junto de molino de Arano*

	<i>Cargas</i>		
<i>16 noviembre. Primera carbonera...</i>	<i>15½</i>	<i>....</i>	<i>3</i>
<i>1802/ Hasta 12 enero.....</i>	<i>20</i>	<i>....</i>	<i>2</i>
	<i>39½</i>		

Ikatz hoietatik guzietatik berak edo horren kontura jasoak dira *30 cargas*.
Hoi en karretoak ondu behar dio berari.¹²⁴²

Arranbide, enero 12 de 1802

Ignazio.¹²⁴³

A Juan Bautista de Minondo.
Que Dios muchos años [guarde].

Goizariñ

¹²⁴² *Berak, berari* anaforiko honek *Leontxo de Zabala* delakoari egiten dio aipu. Azken esaldiak 'hauen karretoak, garraioaldia ordaindu behar dio berari' esan nahi du.

¹²⁴³ Honen eskuinean, peko aldean eta hurbilen orrialdean ola jaunaren apunte batzuk daude.

1802.02.26. Arranbide

1802

Nagusi jauna:

Zaparrok eta Patxiku Errotariak 30 *enerotik* orañdaño erdi bana egiñ dituzten meak dirade: 121 *quintales*, 2 *arrobas* ½

Patxiku Errotariak bere¹²⁴⁴ semearekin aparte egiñak baditu 28 *deciembretik* hasi eta 30 eneroraño: 14 *quintales*, 0 zabal

Arranbide, febrero 26 de 1802

Ignazio.

A Juan Bautista de Minondo.
Que Dios muchos años [guarde].

Goizariñ

1802.03.06. Arranbide

1802

Nagusi jauna:

¹²⁴⁴ Testuan *Berre* dago.

Fermin Josepe de Ubitzi Moxo zarrak¹²⁴⁵ Yakomeakan¹²⁴⁶ egin dituen meak dirade: *03 marzo... 38 quintales, 1 arroba ½*¹²⁴⁷

Llebarik gabe pisatuak dira guziek.

Arranbide, *marzo 6 de 1802*

Ignazio.

A Juan Bautista de Minondo.
Que Dios muchos años [guarde].

Goizariñ

1802.03.19. Arranbide

1801

Makutsola.

Razón de los carbones Juan Domingo de Ubitzi
Suerte de Makutsula,¹²⁴⁸ *lo de Arano*

¹²⁴⁵ Originalean *ubizi* eta *moho zarrak* izkiriaturik daude. *Moxo zabarra* da hau, gero *Moxo* hutsa –hots, *zabarra* adjektiboa ez duena– ageri baitzaigu (1802.04.15, 1802.04, 1802.06.05, 1802.06.09, 1804.01.31, 1804.07.14 eta 1807.01.17ko gutunak). *Moxo* ponte izena izan da gure artean (*Moxo de Çulaga*, Oiartzun aldea, 1490; Crespo, Cruz eta Gómez, 1997: 100), eta gero oikonimian gelditu da, han-hemen. Luzaiden, adibidez, *Moxorenea* etxea dugu lehenik, eta honetatik atera den *Peiomoxorenea* gero (Kamino eta Salaberri, egiten ari). Goizuetan *Mozonea* etxea izan da (ikus Perurena, Salaberri eta Zubiri, 2011: 149), geroagoko *Mikelmoxonea* (*ibid.*, 146) eta egungo *Kapelugorritiki* (*ibid.*, 116) bera; *Moxo* etxe horretakoen izengoitia izanen zen. Ordea, *Moxo* Goizuetako baserria ere izan da, eta horkoen izengoitia izan zitekeen. Egun *Moso* deitura da Nafarroan. Ikus 1804.01.31ko testua aztertzen dugunean dioguna, eta grafiari eskaini atala.

¹²⁴⁶ Toponimoa da, menturaz Aranokoa. Lehen ere azaldu zaigu; ikus adibidez 1800.07.30eko gutuna.

¹²⁴⁷ Honen azpian eta ondoko orrialdean badira JBMren apunte batzuk.

¹²⁴⁸ Berez *Makutsola* behar luke, egun *Makutxolo* erabiltzen baita Aranon. Ikus 1800eko gutunean dioguna. 1802.04koan ere bi *u* dituen forma ageri da, eta, hortaz, *Makutsola*-ren aldaera asimilatua zela pentsatu beharko dugu.

	Cargas		
<u>11 agosto. Primera carbonera.....</u>	86	...	2
<u>08 octubre.....</u>	62	...	1
<u>16 noviembre. Primera carbonera.....</u>	43		1
<u>1802</u>			
<u>17 marzo. Dos carboneras.....</u>	81		2

Diru hartuak:

1801. Hasta 15 junio 5 pesos fuertes viejos¹²⁴⁹

Hasta 18 julio 8 orillos viejos¹²⁵⁰

Arranbide, marzo 19 de 1802

Ignazio.¹²⁵¹

A Juan Bautista de Minondo.
Que Dios muchos años [guarde].

Goizariñ

1802.04.12. Arranbide

Nagusi jauna:

Leneko kontua egiñ ezkerok, Zaparrok eta Patxiku Errotariak erdi bana *10 de ma[r]zotik*¹²⁵² hasi eta honaraño egiñ dituzten meak dirade, hemen pisatuak, *55 quintales, 4 arrobas ½*.¹²⁵³ Eta meatzean badituzte hamar gurdi mea, gauza gutxi gorabera.

¹²⁴⁹ Erdarazko *peso fuerte* euskaraz *ezkutu lodia* zen; uste izatekoa da *ezkutu lodi zaharra* ere bazatekeela. Ikus JRM (II, 272).

¹²⁵⁰ Euskaraz *urretxiki zaharrak* ziren hauek. Ikus JRM (II, 372).

¹²⁵¹ Honen peko aldean eta ondoko orrialdean JBMren oharrak eta kontuak daude. Interesgarriena, apika, «*Abono en otra papel*» izanen da, genero nahasketagatik.

¹²⁵² Testuan «*10 de Mazotiq*» dago.

¹²⁵³ Ez dago txoil garbi zer hizkuntzatan dauden kopuruok; menturaz «*55 kintal, 4 arroa½*» ere irakur daiteke. Arruntean, dena dela, erdaraz egoten dira.

Arranbide, abril 12 de 1802

Ignazio.

A Juan Bautista de Minondo.
Que Dios muchos años [guarde].

Goizariñ

1802.04.15. Arranbide

Nagusi jauna:

Fermiñ Jos[e]pe Moxok¹²⁵⁴ leneko kontua egiñ ezker, *10 de marzotik* hasi eta honarano¹²⁵⁵ egiñ dituen meak dirade: *25 quintales, 1 arroba*. Meatzean baditu egiñak, gutxi gorabera, lau gurdi eskasxeak.¹²⁵⁶

Arranbide, abril 15 de 1802

Ignazio.

1802.04.23. Arranbide

1802 Abril 23

Aranzazu¹²⁵⁷

Nagusi jauna:

Olakoak esan dute Aranzazuko fraile horri emateko,

¹²⁵⁴ Testuan *Jospe* dago, beharbada IB, idaztean, okertu delako. Bestalde, hemen garbi ageri da *ch* digrafoa ere ibiltzen duela (*Mochog* dago gutunean) sabaiaurreko igurzaria irudikatzeke, beste batzuetako *h*-ren orde. Ikus 1802.03.06ko gutunean *Moxo zarrak* (*mohozarraq* originalean) formaz mintzatzean dioguna eta grafiari eskaini atala.

¹²⁵⁵ Iduri du hemen <ñ> ez azaltzea kontu grafiko hutsa dela. Egun, behintzat, *onáraño* edo *oná:ño* ibiltzen da.

¹²⁵⁶ Testuan *Escascheaq* dago, eta *eskastxeak* ere irakur daiteke, baina, egungo hizkerari oharturik, *eskasxeak* irakurketa lehenetsi dugu.

¹²⁵⁷ Letra mota honetan idatzirik dagoen testuan Juan Bautista Minondo olajaunaren eskuari zor zaizkion apunteak ditugu.

Pello Maisuarenzat ¹²⁵⁸	1 pezeta	Lorenzo
Lukas de Zabala <i>tirador</i> ¹²⁵⁹	1 pezeta	Sarran ¹²⁶⁰
Gregorio de Danborena	1 pezeta	Jaime
Juakin de Apezitxea Kapero ¹²⁶¹	1 pezeta	Agustin
Migel Antonio urzalle berria	1 pezeta	Manuel Juakin
Meallearenzat ere	1 pezeta	Josepe Soldadua ¹²⁶²
Neretzat ere	1 pezeta	Josepe Txiki ¹²⁶³ ½
		Arakinana ¹²⁶⁴ ½

Arranbide, abril 23 de 1802

Ignazio.

1802.04.25. Arranbide

1802 Paulo Zabala

Perrazelaikoaren basoan Paulo de Zabalak, Maisunekoak,¹²⁶⁵ egiñ dituen ikatzak dirade:

¹²⁵⁸ Alegia, xerrenda honetan agertzen direnek eskuinean zehazten den diru kopurua paratu zuten Arantzazuko fraideari emateko.

¹²⁵⁹ Euskaraz ageri den igele 'ijelea'-ren erdarazko baliokide dugu.

¹²⁶⁰ Goizuetako *Sarran* edo *Sarrankoliñenea* etxeoen izengoitia dateke, edo herri bereko *Sarran* baserrikoena. Ikus Perurena, Salaberri eta Zubiri (2011: 170).

¹²⁶¹ Goizuetako etxe izengoitia, gorago erran bezala. Dena dela, Oiartzunen ere bada *Kapero* baserria (Goikoetxea eta Lekuona, 2007: 170). Harrigarri egiten zaigu, egungo eguneko begiekin ikusita, deituretan ere *etxe > itxe* hestea gertatzea (*Apezitxea*).

¹²⁶² Aranoko etxe edo baserri baten izenean oinarritu izengoitia da hau. 1707an «*el heredero de Soldadoa*» ediretan dugu, Aranoko eta Goizuetako etxe izenak aipatzen diren dokumentu batean (NEAN, 15605, 4, 23).

¹²⁶³ Norbaiten goitizena da hau. *Joxepe Tiki* ere irakur daitekeela dirudi.

¹²⁶⁴ Azken-aurreko bokala *a* ote den ez dago guziz garbi. Aranoko behialako *Arakiñena*, *Arakiñenea* etxekoa zatekeen zerrendako hau. Goizuetan ere bazen *Arakiñenea* etxea. Gorago (1792.06.06ko gutuna) «*Jose Antonio Arakiñenekoaren partez*» ageri da, eta 1801.11.17koan, JBMk idatzirik, *Arakiñenea*.

¹²⁶⁵ *Maisuborda* Goizuetako baserria da; dokumentazioan *Maysunea* ere agertzen da. Ikus Perurena, Salaberri eta Zubiri (2011: 134-135).

	<i>Cargas</i>		
<u>27 marzo. Primera carbonera</u>	42	...	1
<u>30 marzo</u>	26	...	2
	70		

Arranbide, abril 25 de 1802

Ignazio.

Txartel hori orañ eman didate, Tranpak.¹²⁶⁶

1802.04.28. Arranbide

1802

Nagusi jauna:

Jose Domingo de Iribarrenen Urraideko¹²⁶⁷ basoa botatzen jorñalean sartu dituzten egunak dituzte, *hasta 24 abril semana*:

Domingo de Loiarde 03 días
 Martxaren suña Anzizar¹²⁶⁸ 02
 Juan Antonio Iribarren 02
 Agustin de Ubitzi 02
 Danboliña¹²⁶⁹ 02
 Sollarenak 04
 Lukas de Iraola 04
 Juan Antonio *hijo de Artxaia*¹²⁷⁰ 1

¹²⁶⁶ Hau honela ulertu beharko da: «...orain eman didate, Tranpak eman dit». Honen peko aldean olajaunaren hainbat apunte eta kontu daude. Interesgarrienak «*suerte Olzorroz*», «*suerte Arrambide*» eta *Perrazelai* (pertsone) dira.

¹²⁶⁷ Oiarzun eta Goizueta arteko aurkintza dugu *Urraide*. Ikus 1793.10eko gutunean dioguna.

¹²⁶⁸ ‘Martxa etxe izengoitia duenaren suhia, Anzizar’. Ikus 1788.07.22ko eskutitza.

¹²⁶⁹ Izengoitia. Arantzakoa zen *Esteban de Zabala Danboliña*.

¹²⁷⁰ Goitizena dugu *Artxaia*. Behin baino gehiagotan aurkitzen dugu; ikus gorago (1801.07.09ko gutunean, konparaziorako) esan duguna. *Artxai zarra* delakoa *Sebastian* zen izenez, eta *Artxaiaren semea*, hemengo hau, *Jose Antonio*.

Orañ hemen bigar arteko diña¹²⁷¹ mea da, eta kuadro hoiek tiratzen zeñek hasi behar duen edo nola hasi behar den gaztigatu beza. Eta buztandu¹²⁷² hoiek pisatuko diran edo nola egiñ behar duten ere bai.

Larunbatean meza enzuteko jaia da eta astelenean ere bai. Bitarte honetan hasi geldian,¹²⁷³ jan eta lanik¹²⁷⁴ ez egiñen da¹²⁷⁵ hementxeñ.¹²⁷⁶ Zer deritzan gaztigatu beza; eta bial bitzate ogiak. Iruñerako burni hoiek ez dira allegatuko hogeita bat kiñtalera, falta izanzen dira hiru edo lau kintal.

Paskual de Loperena Itxazurikoak¹²⁷⁷ esan dit ez dutela artorik batere eta, arren, egiñ diozala¹²⁷⁸ arto pixka¹²⁷⁹ baten txartela. Orañ egin du.¹²⁸⁰ Hogeï¹²⁸¹ bat karga ikatz omen du gehiago egitekoa ere.

Arranbide, *abril 28 de 1802*

Ignazio.

Karta hau egiñ ezkerro allegatu da mutill hau; entregatu ditu hamalau ogi.

Buruzuri hau¹²⁸² etorzen bada, gaztigatu beza zer egiñ;¹²⁸³ edo bestela, bigar goizean bialdu beharko du norbait zer egiñ behar den edo nola hasi behar den jakin dezagun.

¹²⁷¹ ‘Adina’, ‘bezainbeste’.

¹²⁷² Burdinolan egiten zen peza baten izena, *plantxuela*, *tretxu* edo *txabala* bezala. Uste izatekoa da peza luzekara zela, izenagatik. Ikus JRM (II, 248).

¹²⁷³ Hasi-geldituka.

¹²⁷⁴ Originalean *laquiq* dago, baina testuinguruak *lanik* ikusarazten digu, alegia, hutsa dela pentsarazten digu.

¹²⁷⁵ Ohart bekio ordenari.

¹²⁷⁶ Esaldia puntuatzeko aukera bat baino gehiago daude: «*Bitarte honetan hasi, geldian jan eta lanik ez; [horixe] egiñen da hementxeñ*».

¹²⁷⁷ Oartzunen bada *Etzetxuri* etxea orain, eta denboran *Etzetxuri* zeritzana ere bai (Goikoetxea eta Lekuona, 2007: 135). Goizuetan *Etzetxuri* dugu (Perurena, Salaberri eta Zubiri, 2011: 85).

¹²⁷⁸ ‘(Berorrek) egin diezaiola’.

¹²⁷⁹ Originalean *Pib Ca* dago idatzirik.

¹²⁸⁰ Iduri du *ikatz* egin duela, burdina egiteko, mea urtzeko erabiltzen zen ikatza, alegia.

¹²⁸¹ Azken *i-a* ez da erabat ongi ikusten.

¹²⁸² *Patxiko Ignazio Aranburu*-ren goitizena, beste gutun batzuetan ere edireten duguna. Arruntean *Buruzuria* aurkitzen dugu, baina hemen *hau* du ondoan, ikusten den bezala. Badakigu *karraiadorea* zela eta zaldia zuela. Ikus 1803_1804.01.05eko gutuna.

¹²⁸³ ‘Berorrek esan beza zer egin behar dugun’.

Expensas 6½

1802

Carretero Jose Antonio de Tellitxea
Cuenta en el mes de abril

Carboneros	Cargas
Pastor de Leonet. <i>Suerte de</i>	
<u>Makusula, lo de Arano</u>	<u>05¹²⁸⁹</u>
<u>Danboliñarena</u>	<u>01</u>
Txutarena. <i>Suerte de Oiarzun</i>	
<u>junto de Alzate.</u>	<u>01</u>

Expensas 1

1802

Carretero Ignazio de Arrube
Cuenta en el mes de abril

Carboneros	Cargas
Pastor de Leonet. <i>Suerte de</i>	
<u>Makutsula, lo de Arano.</u>	<u>02</u>
<u>Danboliñarena</u>	<u>01</u>
Txutarena. <i>Suerte de Oiarzun</i>	
<u>junto de Alzate.</u>	<u>01</u>

Expensas 1

¹²⁸⁹ Eskuinean eta orrialdearen azpiko aldean JBMren hainbat apunte dauzkagu.

1802

Carreteros (sic) Bauplista de Tellitxea
Cuenta en el mes de abril

Carboneros *Cargas*
Pastor de Leonet. *Suerte de*
Makutsula, lo de Arano. 03¹²⁹⁰
Txutarena. *Suerte de* Oiarzun 02

Expensas. 1

1802

Carretero Estartakoarena
Cuenta en el mes de abril

Carboneros *Cargas*
Pastor de Leonet. *Suerte de*
Makutsula, lo de Arano. 12¹²⁹¹
Danboliñarena. 02

Ez du espensarik.

1802

Carretero Bordaberrikoarena¹²⁹²
Cuenta en el mes de abril

Carboneros *Cargas*
Pastor de Leonet. *Suerte de*
Makutsula, lo de Arano. 01¹²⁹³

¹²⁹⁰ Eskuinean eta orrialdearen peko aldean olajaunaren hainbat apunte daude.

¹²⁹¹ Eskuinaldean eta orrialdearen azpiko aldean JBMren hainbat apunte dauzkagu.

¹²⁹² *Bordaberri* Goizuetako baseria da (Perurena, Salaberri eta Zubiri, 2011: 64).
Oartzunen ere (Goikoetxea eta Lekuona, 2007: 109) bada izen bereko beste baserri bat.

¹²⁹³ Eskuinean eta orrialdearen peko aldean JBMren hainbat apunte daude.

1802

Carretero Pelipe Erdikoitxekoa¹²⁹⁴

Cuenta en el mes de abril

Carboneros

Cargas

Txutarena. *Suerte de Oiarzun*

junto de Alzate. 08¹²⁹⁵

Expensas. 1

Eta txiki bat ardo¹²⁹⁶

1802

Carretero Buruzuria

Cuenta en el mes de abril

Carboneros

Cargas

Juan Antonio *hijo de Artxaia. Suerte de*

Olzorrotz, lo de Arranbide 27¹²⁹⁷

Juan Antonio de Iribarren 02

Sollarena. *Suerte de Goizarin*

junto de Alzate. 03

Fermin de Zubeldia Tranpa 27

Txutarena. *Suerte de Oiarzun 77*

Derecho por menas Fermin Josepe Moxo

el monte de Yakomeaka. 29 quintales, 2 arrobas ½

Derecho por menas de Zaparro

y su compañero Patxiku Errotaria 09 quintales, 0 arroba ½

Urriztixabalko suertetik

ekarriak bi karga ziri....

Donostiatik ekarriak bi anega baba....

¹²⁹⁴ Oiarzungo *Añarberdikoa* etxekoa, zenbaitetan *Erdikoetxea* deitzen zutenekoa; ikus Goikoetxea eta Lekuona (2007: 69, 72, 126).

¹²⁹⁵ Eskuinean eta orrialdearen peko aldean JBMren hainbat apunte daude.

¹²⁹⁶ Honen ondoko orrialdean testua ageri da, olajaunak idatzi eta gero ixa handi batzuekin baliogabaturik. Izenburuan hau dugu, azpimarraturik: «1801, Gregorio Arozandia Carretero».

¹²⁹⁷ Eskuinean eta orrialdearen peko aldean JBMren hainbat apunte daude.

A Juan Bautista de Minondo.
Que Dios muchos años [guarde].

Goizariñ

1802.06.09. Arranbide

1802

Nagusi jauna:

Fermin Josepe Moxorenak¹³⁰⁶ Yakomeakan
lenbiziko pisatualdian zituan meak dirade:

03 marzo 38 quintales, 1 arroba ½

Bigarren aldikoak:

08 abril 25 quintales, 1 arroba

Hirugarren aldikoak zituan bereak:

08 mayo 39 quintales, 1 arroba

Hoietaz gañera, lagunarekiñ egiñak ditu:

02 junio 45 quintales, 5 arrobas ½

Hoiek dira guziek _____

Arranbide, junio 9 de 1802

Ignazio.

¹³⁰⁶ Originalean *Mochorenaq* dago izkiriaturik.

1802.06.18(A). Arranbide

1801

Razón de los carbones Pastor de Leonet y su compañero¹³⁰⁷
Suerte de Makutsula, lo de Arano.

Nagusi jauna:

Horiek egiñ dituzten ikatz guziek nasteka¹³⁰⁸ etorriak dira. Ez dago taia garbirik,¹³⁰⁹ eta orañ paratzen ditut karga osoak alde batera eta otsabeharriak¹³¹⁰ bestera, eta lepalotu¹³¹¹ guziek bestera. Hor elkari eratsiko diozka.¹³¹² Zenbat karga osatzen diran, guziek:

1802 *Hasta 11 junio*

Horiek dira guziak,¹³¹³ eta horra¹³¹⁴
 hemendik bialdu zazkieten¹³¹⁵ diruak.

242	15	408
-----	----	-----

Beste paper horretan daudenak dira.¹³¹⁶

Arranbide, *junio 18 de 1802*

Ignazio.

Nagusi jauna:

Batere txartelik¹³¹⁷ gabe purrustan heldu ziran,¹³¹⁸ eta eman egin diotet.

¹³⁰⁷ Beste anitzetan bezala, ez dakigu *de falta* den (*Razón de los carbones de...*) edo puntua ezarri behar den (*Razón de los carbones. Pastor de Leonet...*).

¹³⁰⁸ Nahasirik, nahasian.

¹³⁰⁹ Ez dago gauzak nola izan diren garbi esaterik, hots, kontabilitatea ez da argia, ez dago kontu garbirik.

¹³¹⁰ Otsoen belarrien antzeko muturrak dituzten zakuak, lotutakoan.

¹³¹¹ Lepotik lotzen den zakua izena.

¹³¹² 'Elkarri eratsiko dizkio'. JRMk gehienetan *añaditu* ibiltzen du, *eratsi* ere izan arren. IBk arazo gehiago ditu euskararen txistukariak idatziz irudikatze tenorean, eta *erasi* eta *erasi* darabiltza.

¹³¹³ Gehienetan *guziek* (*gucieq*) ibiltzen du IBk, testu honetan berean, goraxeago.

¹³¹⁴ 'Horra hor'.

¹³¹⁵ 'Zaizkien'.

¹³¹⁶ Honen eskuinean JBMren zenbait zenbaki daude.

¹³¹⁷ Testuan *charti liq* dago.

¹³¹⁸ 'Haserre antzean zetozen' («*Pastor de Leonet y su compañero*»).

Asentua:

1800an ez dute hemendik hartutako dirurik.

Egin biozate kontua.¹³¹⁹ Aski dira horrelako batzuek¹³²⁰ iñoren kredita erabillzeko.¹³²¹

A Juan Bautista de Minondo.
Que Dios muchos años [guarde].

Goizariñ

1802.06.18(B). Arranbide

Pastor de Leoneten lagunari hemendik bialdu zaskion diruak:

1801 *Hasta 25 agosto 3 orillos viejos*

 Hasta 18 septiembre 3 orillos viejos

1802 *Hasta 05 junio 4 orillos viejos*

Pastor de Leoneti berari bialdu zaskion diruak:

1802 *Hasta 26 enero 40 pezetas*

Arranbide, junio 18 de 1802

Ignazio.¹³²²

¹³¹⁹ ‘Egin biezaie (berorrek) kontua’.

¹³²⁰ Testuko *bazueq*-en azken letra ez da guztiz garbi ageri, baina segurua da.

¹³²¹ ‘Aski dira horrelako (pertsona) batzuk inoren kreditua (izen ona) erabiltzeko (zikintzeko)’. Nabarmentzekoa da *kredita* aldaera. Honen ondoren olajaunaren zenbait apunte heldu dira; interesgarriena *Macusola* toponimoa dugu.

¹³²² Ondoko orrialdean olajaunaren kontuak ageri dira, *Pastor*-enak eta *Juan Miguel*-enak, eta ematen du, hortaz, *Pastor de Leonet*-en lagunak *Juan Migel* zuela izena.

1802.06.21. Arranbide

1801

*Razón de los carbones Juan Antonio hijo de Artxaia viejo
Suerte de Olzorrotz, lo de Arranbide.*

	Cargas		
	12½		
<u>02 julio. Primera carbonera</u>	16	4	...
<u>28 agosto</u>	25½	1	2
<u>07 diciembre</u>	24	...	2
<u>24 diciembre</u>	16	...	4
<u>1802</u>			
<u>28 mayo</u>	27	...	1½
<u>19 junio</u>	30
	150½		

Hoietaz ganera, izanen ditu presako nazan¹³²³ pasatua[k]¹³²⁴ zazpi egun, eta espensak hamar eta erdi. Eta Urraideko basoa botatzen, egun bat.

Horra hemendik hartu dituan diruan asentua. Paper txiki horretan, hor ditu presako nazako eta Urraideko basoa bota zanezo asentua.¹³²⁵

Arranbide, junio 21 de 1802

Ignazio.¹³²⁶

¹³²³ 'Presako naza, erretena, konpontzen' ulertu behar da. Ikus 1800_1801, 1801.10.09 eta 1802.07.17ko gutunak.

¹³²⁴ Originallean *pasatua* dago.

¹³²⁵ Aski Gipuzkoa aldeko hizkera da hau: *dituan* 'dituen' eta *bota zanezo* 'bota zeneko'.

¹³²⁶ Honen peko aldean eta hurrengo orrialdean olajaunaren hainbat apunte eta kontu daude: «7 dias en naza presa», «1 dia cortando monte en Urraide», «Sebastian Archaia Viejo»...

1802.07.13(A). Arranbide

Nagusi jauna:

Beratar meakari horiek Erbizaño errekan egiñ dituzten meak dirade *64 quintales, 3 arrobas ½*.

Llebarik gabe pisatuak dira.

Arranbide, *julio 13 de 1802*

Ignazio.¹³²⁷

1802.07.13(B). Arranbide

Nagusi jauna:¹³²⁸

Orañ juan diran kabillak¹³²⁹ dirade *27 quintales, 1 arroba, 171 barras*.¹³³⁰

Hoietaz gañera, Pasaiarako egin diranak ... *06 quintales, 1 arroba, 014 barras*.

Entregatu ditu mutill horrek hamar ogi; hoiek bigarko eskas ditugu. Bialdu behar dituzte bigar ere ogi gehiago.

Larunbatean baziran hamabi itzai. Ya juan dira leneko¹³³¹ hillean gelditu ziran hamabi urretxikiak, eta Patxikurekiñ bialdu zuen hogeiz ekutukoia. Eta bialdu beza¹³³² al duen diru guzia, eta bilduko da beste arragoaren mea laster.¹³³³ Arranbide, *julio 13 de 1802*

Ignazio.¹³³⁴

¹³²⁷ Olajaunak gutuna jasotakoan egin erdarazko apunteak ditugu ondoren. Interesgarria izan daitekeen bakarra hau: «*Pague esta partida consta en adjunto papel*».

¹³²⁸ Lehen lerroko letra batzuen gainean olajaunak, gutuna jaso eta gero, idatzitako zenbaki solte batzuk daude. Akabailan, gutunaren testua bukatuta, Juan Bautistak egindako beste kontu mordoxka dago, inolako ekarpenik egiten ez dutelako hona ez dakartzagunak. Halaber hurrengo orrialdean.

¹³²⁹ Kabila, burdinazko ziri biribila edo. Ikus JRM (II, 307).

¹³³⁰ Originalean *B.* dago, eta guk *barras* irakurri arren, ez da hori apika laburtzapena ulertzeko era bakarra.

¹³³¹ 'Lehengo', 'aurreko'.

¹³³² 'Bidal beza berorrek'. Hemen partizipioa dago, ez arruntean agertzen den aditzoina.

¹³³³ 'Beste arragoa bat erretzeko bezainbeste mea'. *Arragoa* burdinolan mea erretzen zen aparteko eraikina zen. Ikus JRM (II, 220).

¹³³⁴ Honen azpian eta hurrengo orrialdean olajaunaren apunteak dauzkagu: *hijo Basilio, Joaquín Leonet, Pepe Erreanea, Bordaverria, Ansosaro(be)* eta abar. Hauek gutunen akabailan agertu ohi den «*A Juan Bautista Minondo. Que Dios muchos años (guarde). Goizariñ*» hartzailearen eta helbidearen gainean idatzirik daude.

A Juan Bautista Minondo.
Que Dios muchos años (guarde).

Goizariñ

1802.07.17. Arranbide

1801

Razón de los carbones Juan Antonio de Iribarren '1
Suerte de Olzorrotz, lo de Arranbide

	6½		
<u>25 septiembre. Primera carbonera</u>	38	...	3
<u>06 octubre</u>	27	...	2
<u>1802. Hasta ... 19 enero</u>	39		
<u>Hasta ... 04 mayo</u>	23		
<u>Hasta ... 28 mayo</u>	14	...	½
<u>Hasta ... 25 junio</u>	42	...	1
<u>Hasta ... 16 julio</u>	34	...	2
	223½		

Hoietaz ganera,¹³³⁵ baditu presako naza¹³³⁶
 egiten pasatuak 7 días¹³³⁷

Espe[n]sak¹³³⁸ ditu 10½

Urraideko basoa botatzen . . 2 días

Diru hartuak ditu:

1802. Hasta 26 enero 40 pezetas, 5 cuartos

Hasta 13 abril 40 pezetas

¹³³⁵ Testuan «oyetaz ganera» dago, beste batzuetan bezala. Sudurkariaren palataltasuna ez irudikatzea kontu grafiko hutsa dela dirudi.

¹³³⁶ Ikus 1800_1801, 1801.10.09 eta 1802.06.21eko gutunak.

¹³³⁷ Honen eskuinaldean JBMren apunteren bat bada.

¹³³⁸ Originalean *Espesaq* daukagu.

Arranbide, *julio 17 de 1802*

Ignazio.¹³³⁹

1802.07.21. Arranbide

1801

*Razón de los Carbones Agustin de Ubitzi
Suerte de Olzorrotz, lo de Arranbide*

	'	Cargas	
<i>01 septiembre. Primera carbonera . . .</i>	30		
<i>21 noviembre</i>	34½	1	
<i>14 diciembre</i>	27½		
<u>1802</u>			
<i>06 febrero</i>	50½		
<i>01 junio</i>	27		
<i>15 junio</i>	51	...	1
<i>04 julio</i>	41	...	1
<i>19 julio</i>	31	...	2
	296½		

Hoietaz ganera,¹³⁴⁰ baditu presako nazan sartuak
aita-semean artean. 9 días

Espensak dituzte 13½

Hoietaz gañera, badituzte

Urraideko basoa botatzen 2 días

Eta bide egiten 1 día

¹³³⁹ Honen azpian eta hurrengo orrialdean olajaunaren apunteak ditugu, besteak beste «suerte Olzorroz», «Abono 9 días en la Naza y Teresanea» (Terresanea Aranoko etxea da) y «Juan Antonio Yribarren alcanza...».

¹³⁴⁰ Testuan oyetaz ganera dago.

Diru hartua:

1802. Hasta 13 abril 40 pezetas

Arranbide, julio 21 de 1802

Ignazio.¹³⁴¹

1802.08.21. Arranbide

Nagusi jauna:

Patxiku Malet¹³⁴² horrek leneko lagunarekin kontua garbitu ezker, lagun berriarekin *26 de juliotik* hasi eta...*2 de agostoraño* Erbizaño errekan egiñ dituzten meak dirade *31 quintales, 2 arrobas ½*. Hoietarako beurrek gaztigatu, eta hemen hartua badu *hasta 27 julio... un orillo viejo*.

Arranbide, agosto 21 de 1802

Ignazio.

1802.08.28. Arranbide

1802

Marzanea¹³⁴³

Razón de los carbones Josepe de Olaizola Marzanea¹³⁴⁴

*Propia castañal, junto de Surue*¹³⁴⁵

¹³⁴¹ Honen azpian olajaunaren apunteak ditugu: *Agustin Hubizi, Olzorroz*, «9 dias en la Naza», «Abono 9 dias por teresanea corte monte», «1 dia haciendo caminos», «consta en otra papel»...

¹³⁴² Etxe izengoitia dela dirudi; Beran *Maletenea, Maletenetxeberria* dauzkagu (Esparza, 18964: 122). Goikoetxeak eta Lekuonak (2007: 271) Oiartzungo *Plemunta* baserria aipatzen dute eta esaten 1576. urtean *Pelumaletena* ageri dela, nahiz azken hau iluna zaien eta ez dakiten *Plemunta*-rekin zerikusirik baduen. XVI. mendeko *Pelumaletena* horren oinarrian **Peru Maletena*-ren modukoa egon daiteke, asimilazioz *Pelumaletena* bilaka baitzitekeen. Ez da gardena, baina Erdi Aroan lekukotzen den *Malo* (baita *Malgizon* ere, esaterako) antroponimoaren txikigarria izan liteke, besteak beste.

¹³⁴³ JBMk idatzia.

¹³⁴⁴ Testuan azken -a hori aurreko bokalaren gainean idatzia da, lekurik izan gabez. *Martzenea* Aranoko etxea da, lehenagoko *Martitzenea*-tik atera dena, antza. Jaun hau 1792.03ko eskutitzean *Jose Olaizola Marzanea* da.

¹³⁴⁵ Aranoko auzoa da, gaur egun *Suro*.

	Cargas		
<u>25 agosto</u>	22		

Arranbide, agosto 28 de 1802

Ignazio.

1802. Diciembre 24. Pagué a 4 reales carga.

1802.08.31. Arranbide

1801

*Razón de los carbones Domingo de Loiarde
Suerte de Makutsula, lo de Arano.*

		Cargas	
<u>21 agosto. Primera carbonera</u>	80		
<u>25 septiembre</u>	118	2	2
<u>31 octubre</u>	080		
<u>12 noviembre</u>	104		
<u>1802</u>			
<u>06 febrero</u>	056½		
<u>26 marzo</u>	039		
<u>05 junio</u>	044	...	2
<u>20 julio</u>	103	...	1
<u>18 agosto</u>	104
	734½		

Hoietaz gañera, badu bere gaztañadian egiñ duen ikatza, bere propioa:

1802. Hasta 24 agosto . . . 14 cargas enteras.

Hoietaz gañera, baditu Jose Domíngoren Urraideko basoa botatzen pasatuak 3 días.

Arranbide, agosto 31 de 1802

Ignazio.¹³⁴⁶

1802.09.05. Arranbide

Nagusi jauna:

Horra paper txiki horretan lenbiziko lagunarekiñ egiñ zituan mean asentua, eta geroztik hiru laguneko partiduan¹³⁴⁷ egiñ dituzten meak dirade 72 *quintales*, 1 arroba.

Hoiak dirade hiru laguneko partiduan orañ egiñ dituzten meak.

Hoietaz gañera, meatzean omen dute ekarzekoa...10 *quintales* pasaturik pisatu beharra; hala esan dute.¹³⁴⁸

Arranbide, septiembre 5 de 1802

Ignazio.

A Juan Bautista de Minondo.

Que Dios muchos años [guarde].

Goizariñ

1802.10.13. Arranbide

Nagusi jauna:

¹³⁴⁶ Honen azpian olajaunaren apunteak daude; interesgarri zaigun bakarra «*Juan Domingo Ezquerria*» da.

¹³⁴⁷ 'Hiru laguneko taldean'. *Lagun* anitzetan 'laneguna' zen JRMren gutunetan (II, 319) eta zenbaitetan baita IBrenetan ere (1790.02.09, 1701.04.15(B)), baina kasu honetan 'laguna', 'kide', 'persona' da, 1796.03.23(A) gutunean bezala. *Partidua* 'taldea' da (ikus JRM, II, 350).

¹³⁴⁸ Hau beste gisan ere puntua eta uler daiteke; honela adibidez: «...*meatzean omen dute ekarzekoa 10 kintal pasaturik, pisatu beharra; hala esan dute*».

Fermin de Zubeldia Tranpa¹³⁴⁹ horrek Berdabioko ondoan¹³⁵⁰ egin dituan ikatz guziek dirade honara etorri diranak:

<u>9 octubre</u>		384½		
----------------------------	--	------	--	--

Arranbide, octubre 13 de 1802

Ignazio.

Ogi batzuek bial bitzate horrekiñ.¹³⁵¹

A Juan Bautista de Minondo.
Que Dios muchos años [guarde].

Goizariñ

1802.10.15. Arranbide

1802

Martinkalenea

Nagusi jauna:

31 de mayotik hasi eta honaraño Martikaldeneko¹³⁵² mutill horrek egiñ dituen ikatzak dirade:

¹³⁴⁹ *Tranpa* aipatzen den *Fermin de Zubeldia* horren goitizena zen. Olajaunaren oharretan ikusten den eran, *Juan Fermin (Zubeldia) Tranpa* zen gizona. Lehenago *Anbrusio (de) Zubeldia Tranpa, Anbrusio Tranpa* aurkitzen dugu, *Juan Fermin*-en aita edo anaia.

¹³⁵⁰ *Berdabio* Goizuetako baserria da. Ikus Perurena, Salaberri eta Zubiri (2011: 58). Nabarmentzekoa da *-ko ondoan* daukagula, egun ohikoa den *-ren ondoan* edo *-ø ondoan*-en ordez.

¹³⁵¹ Honen peko aldean eta azken orrialdean olajaunaren apunte batzuk daude. Hondarreko orrialdean *Juan Fermin Tranpa* ageri da.

¹³⁵² *Martikaldene, Marticaldene* 1726an, Aranoko etxea da. JBMk idatzi *Martincalenea* hori bera dugu.

	Cargas		
Hasta 26 agosto	20	4
Arranbide, <u>septiembre 27 de 1802</u>			

Olioa etorri bada, bial bezate olio eta ogi batzuek.

Olatxoko kabia behatzetik¹³⁵³ ere hausten hasia dago; izanen du honek egi[te]ko franko.¹³⁵⁴ Sutegia urratu gabe ez dakit egiñen den. Enfiñ, saiatuko gera, sutegia urratu gabe egin al baliteke.

Arranbide, octubre 15 de 1802

Ignazio.

A Juan Bautista de Minondo.

Que Dios muchos años [guarde].

Goizariñ

1802.11.19. Arranbide

1802 _____ *Noviembre 22*

Descalzo¹³⁵⁵

Nagusi jauna:

Praide horri emateko:

¹³⁵³ Originalean *veazetiq* dago. Iduri du *kabiaren behatza* dugula hemen, baina ez dakigu xuxen zer den, pezaren zer zati den.

¹³⁵⁴ Testu originalean *EguicofranCo* dago.

¹³⁵⁵ 'Karmeldar oinutsa' esan nahi da.

Pello maisuak.	1 real	Matias maestro ¹³⁵⁶
Kaperok	1	Musillo.... ¹³⁵⁷
Mealleak	1	Gipuzkoa....
Neretzat	1	Juan Fermin
		Agustin....
		Manuel Juakin....

Arranbide, *noviembre 19 de 1802*

Ignazio.

Lukel¹³⁵⁸ igelearena orobat izanen da noski. Urzalle berriarena ere bai. Utzi ditu eskupularioak guzientzat.¹³⁵⁹ Gregori[o]¹³⁶⁰ Danborenak orobat.¹³⁶¹

1802.12.15. Arranbide

Juan Domingo en Urriztixabal

1802

*Razón de los carbones Juan Domiño de Ubitzi
Suerte de Urriztixabal, lo de Arranbide*

¹³⁵⁶ *Maisu* eta *maestro* burdinolako ofiziale zenbaiten «titulua» da, lanbide maila adierazten duen izena.

¹³⁵⁷ Zutabe honetako izenak, beste letra mota batekin idatzirik daudenak, olajaunaren eskuari zor zaizkio, baita goiko data eta *descalzo* hitza ere. *Musillo* eta *Gipuzkoa* goitizenak dira; gainerakoak ponte izenak. Gorago *Musilla* edo *Muxilla* irakurri dugun goitizena dago, *Musillo* honekin identifikatu behar bide dena.

¹³⁵⁸ Argi irakurtzen da, baina garbi dago *Lukes*-en ordezt dagoela, segur aski ondoko hitzeko albokoak eraginda.

¹³⁵⁹ ‘Karmeldar oinutsak utzi ditu eskapularioak guzientzat’.

¹³⁶⁰ Hemen tita dago eta ez da ikusten azpikoa, baina uste izatekoa da *o* dagoela.

¹³⁶¹ Honek ere fraideari emateko dirua paratu duela esan nahi du, ez honek ere eskapularioak utzi dituela.

	<i>Cargas</i>		
	7		
<u>9 julio. Primera carbonera</u>	20	...	3
<u>9 agosto</u>	36	040	1
<u>23 septiembre</u>	30	...	1
<u>16 octubre</u>	27	.1.	
<u>22 noviembre</u>	28	...	2
<u>15 diciembre</u>	27	...	1
	175		

Arranbide, deciembre 15 de 1802

Ignazio.¹³⁶²

1802.12.31. Arranbide

Nagusi jauna:

Bordaxarkoak¹³⁶³ beren bordapean egiñ duten ikatza dute, beren propioa:

	<i>Cargas</i>	
<u>29 diciembre</u>	25½	1

Arranbide, deciembre 31 de 1802

Ignazio.

1802 enero 2. Pagué a 4 reales la carga.¹³⁶⁴

¹³⁶² Honen azpian eta hurrengo orrialdearen hastapenean olajaunaren oharrak eta kontuak ageri dira, besteak beste *Juan Domingo (de) Ubizi*.

¹³⁶³ Originalean *Borda char* dago; *Bordazar* edo *Bordaxar* Goizuetako Berazkuren auzoko baserria zen; orain hondakinak besterik ez da gelditzen.

¹³⁶⁴ JBMk egin oharra.

1803.01.11. Arranbide

1801 *Cuenta nueva*

Sebastian de Etxeberriak Arranbidera ekarzen dituen¹³⁶⁵ ardoak:¹³⁶⁶

<u>12 enero</u> 1 pellejo 15 docenas 8 libras
<u>26 enero</u> 1 pellejo 15 docenas 5 libras
<u>18 febrero</u> 1 pellejo 16 docenas 2 libras
<u>26 febrero</u> 1 pellejo 15 docenas 8 libras
<u>05 marzo</u> 1 pellejo 15 docenas 3 libras
<u>11 marzo</u> 1 pellejo 15 docenas 6 libras
<u>19 marzo</u> pellejo 15 docenas 9 libras
<u>28 marzo</u> 1 pellejo 15 docenas 6 libras
<u>09 abril</u> 1 carga 31 docenas 6 libras
<u>23 abril</u> 1 carga 31 docenas 0
<u>6 mayo</u> 1 pellejo 15 docenas 5 libras
<u>12 mayo</u> 1 pellejo 15 docenas 8 libras
<u>20 mayo</u> 1 pellejo 15 docenas 9 libras
<u>03 junio</u> 1 pellejo 15 docenas 5 libras
<u>10 junio</u> 1 pellejo 15 docenas 9 libras
<u>17 junio</u> 1 pellejo 15 docenas 5 libras
<u>08 julio</u> 1 pellejo 17 docenas 4 libras
<u>19 julio</u> 1 pellejo 15 docenas 5 libras
<u>31 julio</u> 1 pellejo 15 docenas 4 libras
<u>03 agosto</u> 1 pellejo 12 docenas 2 libras
<u>06 agosto</u> 1 pellejo 14 docenas 9 libras
<u>10 agosto</u> 1 pellejo 16 docenas 9 libras
<u>18 agosto</u> 1 pellejo 16 docenas 4 libras
<u>22 agosto</u> 1 pellejo 16 docenas 3 libras
<u>27 agosto</u> 1 pellejo 16 docenas 10 libras
<u>30 agosto</u> 1 pellejo 16 docenas 08 libras
		„433 docenas	08 libras ¹³⁶⁷

¹³⁶⁵ Gero, gutun honetan berean, *dituan* darabil IBk.

¹³⁶⁶ Azkeneko silaba, *aq* originalean, *Ardo*-ren gainean izkiriaturik dago, lekurik izan gabez.

¹³⁶⁷ Ezkerraldeko orrialdean ola jaunaren apunteak daude: «*Domingo Echeuerria carpintero hermano de Sebastian Larrachuri*», *Pasqual Yribarren*, *Pepe Escarranea* (ustez), *Lucas Yraola*, *Barachuri*, *Macusola*, *Pastor Leonet*. Gutuneko *Esscarranea* hori ez da argi-argia, eta seguruenik *Esscurranea* irakurri edo ulertu beharko dugu, *Pepe Exkurrenea* alegia, *Exkurrenea* (*Exkurrene* orain) Goizuetako etxea delako.

1802

Nagusi jauna:

Sebastian de Etxeberriak urte honetan Arranbidera ekarri dituan ardoak dirade:

<u>9 enero</u>1 pellejo15 docenas,	7 libras y 7½ reales
<u>16 enero</u>1 pellejo15 docenas,	7 libras... 7½
<u>29 enero</u>1 pellejo14 docenas,	4 libras... 7½
<u>24 febrero</u>1 pellejo15 docenas,	10 libras... 7½
<u>16 marzo</u>1 pellejo15 docenas,	08 libras... 7½
<u>27 marzo</u>1 pellejo16 docenas,	02 libras... 7½
<u>07 abril</u>1 pellejo15 docenas,	07 libras... 6½
<u>14 abril</u>1 pellejo15 docenas,	06 libras... 6½
<u>24 abril</u>1 pellejo16 docenas,	01 libras... 6½
<u>07 mayo</u>1 pellejo15 docenas,	10 libras... 6½
<u>25 mayo</u>1 pellejo15 docenas,	08 libras... 6½
<u>10 junio</u>1 pellejo15 docenas,	09 libras... 6
<u>18 junio</u>1 pellejo15 docenas,	08 libras... 6 ^l (sic)
<u>24 junio</u>1 pellejo15 docenas,	05 libras... 6
<u>03 julio</u>1 pellejo15 docenas,	08 libras... 6
<u>08 julio</u>1 pellejo15 docenas,	08 libras... 6
<u>13 julio</u>1 pellejo16 docenas,	03 libras... 6
<u>18 julio</u>1 pellejo16 docenas,	04 libras....6
<u>22 julio</u>1 pellejo15 docenas,	08 libras....6
<u>29 julio</u>1 pellejo15 docenas,	05 libras....6
<u>05 agosto</u>1 pellejo15 docenas,	09 libras....6
<u>09 agosto</u>1 pellejo15 docenas,	10 libras....5½
<u>12 agosto</u>1 pellejo16 docenas,	06 libras....5½

Vuelta

361 docenas, 09 libras¹³⁶⁸

¹³⁶⁸ Ezkerraldeko orrialdean JBMren oharrak eta kontuak daude: «Sebastian Echeverria Larrachuri», «le di en Yñarra», «Jph. Antonio en Pamplona».

1802 Sebastian de Etxeberriak Arranbidera ekarri dituan ardoak

Hasta 12 agosto suma [a]trás.....

	[a]trás361 docenas	9 libras
<u>17 agosto</u> 1 pellejo 15 docenas,	6 libras...y... 5½ reales
<u>21 agosto</u> 1 pellejo 15 docenas,	9 libras 5½
<u>28 agosto</u> 1 pellejo 17 docenas,	3 libras 5½
<u>02 septiembre</u> 1 pellejo 15 docenas,	9 libras 5½
<u>06 septiembre</u>1 pellejo 15 docenas,	10 libras 5½
<u>12 septiembre</u>1 pellejo 16 docenas,	08 libras 5½
<u>18 septiembre</u>1 pellejo 15 docenas,	09 libras 5½
<u>23 septiembre</u> 1 pellejo 15 docenas,	00. 5½
<u>29 septiembre</u> 1 pellejo 15 docenas,	09 libras 5½
<u>05 octubre</u> 1 pellejo 14 docenas,	00. 5½
<u>12 octubre</u> 1 pellejo 14 docenas,	08 libras 5½
<u>20 octubre</u> 1 pellejo 14 docenas,	00. 5½
<u>28 octubre</u> 1 pellejo 16 docenas,	01 libra 5½
<u>15 noviembre</u> 1 pellejo 15 docenas,	06 libras 4
<u>27 noviembre</u> 1 pellejo 16 docenas,	06 libras 3½
<u>06 diciembre</u> 1 pellejo 15 docenas,	10 libras 3½
<u>13 diciembre</u> 1 pellejo 15 docenas,	11 libras 3
<u>20 diciembre</u> 1 pellejo 15 docenas,	09 libras 3
<u>30 diciembre</u> 1 pellejo 14 docenas,	11 libras 2½
	Abono a la vuelta 660 docenas,	02 libras

Hoietaz gañera, badira lau gurbill ardo.¹³⁶⁹

Hoietaz gañera, badu gaztañadian egindako ikatza:

1802. Hasta 22 de julio. 24 cargas enteras

Vuelta

¹³⁶⁹ Gurbila 16 litroko pegarra da (EH).

1802

Hoietarako hartuak ditu:

11 junio, hiru anega baba eta

02 julioan perra egiteko burniñtxoa. 1 quintal 0...

Diru hartuak ditu:

22 julio 40 pesos fuertes **Asenté en cuenta de 1801**

04 septiembre 20 pesos fuertes

23 septiembre 20 pesos fuertes

12 noviembre 60 pesos fuertes oro viejo.

Hoietaz gañera, badute santiagoetan Makutsulatik ekarria karga bat ikatz
kon Konsejurako.¹³⁷⁰

Arranbide, enero 11 de 1803

Ignazio.¹³⁷¹

A Juan Bautista de Minondo.

Que Dios muchos años [guarde].

Goizariñ

1803.01.28. Arranbide

Nagusi jauna:

Patxiku Maleten meatzean, Erbizaño errekan, Patxiku Errotariak eta bere lagunak egiñ dituzten meak dirade... 91 quintales, 5 arrobas ½.

Llebarik gabe pisatuak dira.

¹³⁷⁰ Herriko etxerako.

¹³⁷¹ Honen peko aldean olajaunaren apunte batzuk daude: «*Son 21 cargas vino pesan 660 dozenas 2 libras / Revajo por la tara en cada carga 50 libras / que son la tara 052 dozenas 6 libras / son en limpio 607 dozenas, à 32 libras / cada cantaro son... 227 cantaros, 28 libras [...]*».

Eta meatze saria¹³⁷² zenbat utzi behar duten, nik ez dakit nola konponduak diran.

Arranbide, enero 28 de 1803

Ignazio.¹³⁷³

A Juan Bautista de Minondo.
Que Dios muchos años [guarde].

Goizariñ

1803.02.01. Arranbide

1802

Nagusi jauna:

Martxaren suñaren¹³⁷⁴ basoan Arolako mutillak¹³⁷⁵ eta Martxaren suñaren semeak egiñ dituzten ikatzak dirade:

	Cargas		
<u>29 noviembre. Primera carbonera...</u>	24
<u>09 diciembre</u>	21	...	2
<u>1803</u>			
<u>05 enero</u>	22	...	4
<u>15 enero</u>	30
<u>22 enero</u>	28
<u>28 enero</u>	20		
	150,		

¹³⁷² Originean *Sarria* dago. *Sarria* berez ‘(baso) usua’, ‘(baso) itxia’, ‘tapitua’ da, baina hemen ez dakigu *saria*-ren ordeez ez ote dagoen, alegia, ez ote den momentuko, idazteko tenoreko hutsa. Baietz iduri du. *Malet* dela eta, ikus 1802.08.21eko gutunean dioguna.

¹³⁷³ Honen azpian badira olajaunaren apunte bakan batzuk.

¹³⁷⁴ *Martxa* (*Marcharena* inoiz, dokumentazioan) Aranoko etxea da, eta etxe horretakoen izengoitia. *Suñá*, bestalde, ‘suhia’ da, alabaren senarra.

¹³⁷⁵ *Arola* Aranoko etxea da.

Arranbide, *febrero 1 de 1803*

1803

Ignazio.¹³⁷⁶

A Juan Bautista de Minondo.
Que Dios muchos años [guarde].

Goizariñ

1803.02.10. Arranbide

1803 febrero 10.¹³⁷⁷

Nagusi jauna:

Horra leneko hilleko karreteroan¹³⁷⁸ eta¹³⁷⁹ itzaien asentuak.

Aranoar karreteroak, gehiena eskas dabilzenak,¹³⁸⁰ dirade Arotzandikoa eta Motelarena,¹³⁸¹ Gregorio Eskudero eta Estartakoa,¹³⁸² hoiek dauzkite zaku eskasak eta zarrak, zaku hoiekiñ beñere konportarik¹³⁸³ eziñ¹³⁸⁴ bete dezaketanak. Hoiien laueñ kargak,¹³⁸⁵ bana beste,¹³⁸⁶ beñere ez dira allegatzen

¹³⁷⁶ Honen azpiko aldean eta hurrengo orrialdean badira olajaunaren zenbait apunte: «Lorencho Ansa Arolaco(a)», «19 maio hijo Basilio padre», «1803 hijo de hijo de Basilio (sic) y hijo Arolacoa».

¹³⁷⁷ Beste izkirio bat da hau, ez Ignazio Bergararena, seguru asko –baina oraingoan ez gaude txoil ziur– olajaunarena.

¹³⁷⁸ ‘Karreteroan’ ustez. Nolanahiko gisan, argi dago *karretero*a gauza bat zela eta *itzai*a beste bat. JRMk (II, 311) arruntean *karraidore* ohi du (*karraidore* eta *karreadore* ere bai, gutxiagotan), eta behin *karromatodun* dauka, baina *karretero* ez du behin ere erabiltzen.

¹³⁷⁹ Bukaerako *a* hori ez da guztiz garbi ageri.

¹³⁸⁰ ‘Eskasen, okerren dabilzanak’ ala ‘gehiena[k] eskas dabilzanak’? Lehen, iduriz. Beste gisa honetara ere puntua eta uler daiteke, letraren bat «bidean» gelditu dela onartzen bada: «Aranoar karreteroak, gehiena[k], eskas dabilzanak dirade [...]».

¹³⁸¹ Lehenago ere erran dugun moduan, *Arotzandia* Aranoko etxea da; *Motelarena*-ren berririk ez dugu, baina hori ere aipatu herriko etxea zatekeen.

¹³⁸² *Estarta* ere Aranokoa etxea da. *Eskudero*, berriz, alderdi honetako deitura ezaguna dugu; 1726an (NEAN, Estatistika saila 4, 31) *Pedro de Escudero* eta *Juachin de Escudero* bizi ziren Goizuetan.

¹³⁸³ Hemen *konporta* ez da, oker ez bagaude, OEHn biltzen den *errotako ubarka*, A. M. Mitxelenak (2020: 35) dakarren *konporta* ‘zaku ikatzaren neurria’ baizik. Ikus JRM (II, 314).

¹³⁸⁴ Originalean bukaerako *-ñ* hori goratua dago.

¹³⁸⁵ ‘Lau hauen kargak’. Ez dakigu zergatik idatzi duen *laueñ*, *ñ*-rekin; *egiñ*, *eziñ* eta besterekiko analogiaz seguruenik. Ikus grafiari eskaini atalean honetaz dioguna.

¹³⁸⁶ ‘Batez beste’. OEHn biltzen diren lekukotasun guztiak Iparraldekoak dira.

otsabeharriko¹³⁸⁷ neurrira. Hortxe beurrek deritzan errebaja egiñen diote.¹³⁸⁸ Egiñalak egiten dituzte, baña ez da posible zaku eskasarekiñ konportarik betetzea. Bial bitza zaku neurrikoak¹³⁸⁹ Gregorio Eskuderorenzat eta Estartakoarenzat eta Motelarenzat.¹³⁹⁰

Beste karreteroak zerbait badabillza;¹³⁹¹ Tranparen¹³⁹² eta Txarakoak¹³⁹³ eta Sollarenak¹³⁹⁴ eta besteak zaku onak dauzkite. Hoiiek denbora onetan zerbait hurranzen¹³⁹⁵ dira neurrian, baña denbora txarretan ez du iñork ere konporta hau beteko. Nik agiñze[n] dut,¹³⁹⁶ eta egiten dut egiñ al dezakedan¹³⁹⁷ guzia; ez dezaket nik gehiago egiñ egiten dudana baño. Itzaien leneko hilleko asentua kuadreno¹³⁹⁸ berrian paratu dut; horra zarra ere. Bakeanoren¹³⁹⁹ honek entregatu ditu zorzi ogi. *Vuelta.*¹⁴⁰⁰

Pello maisuak esan zidan kontuak egiñ zituala taia txikiko ardoak¹⁴⁰¹ sartu gabe, eta bialzeko beurri zenbat ardo zituan. Bada, Pello maisu Irun¹⁴⁰² horren taia txikiko ardoak dira, leneko kontua egiñ ezkerokoak, 41 pintas. Gurdi burnia¹⁴⁰³ bazuen hartua, 9 octubrean, 4 arroa. Honen kontua egiñ zuela esan zidan,¹⁴⁰⁴ eta geroztik egiñ du palanka bat. 22 de diciembrean 1 arroba, 4 libras. Hau kon[tu]an¹⁴⁰⁵ sartua bada jakiñgo du asentutik.

¹³⁸⁷ Zaku mota da hau, *lepalotua*, *kostala* eta beste bezala.

¹³⁸⁸ ‘Berorrek egoki iruditzen zaion errebaja eginen die’.

¹³⁸⁹ Originalean *neurri Coaq* dago, *r* bakar batekin.

¹³⁹⁰ Lehen *Motelarena*, orain *Motela*. Bigarren hau etxe izengoitia dateke, nahiz eta oikonimoaren oinarrian hori bera, *Motela*, egon.

¹³⁹¹ ‘Lan zerbait egiten ari dira’.

¹³⁹² Arruntean *Tranpa* azaltzen da eskutitzetan; ‘Tranparen karreteroak’ ulertu behar dela dirudi. Bi ziren: *Anbrusio (de) Zubeldia* eta *(Juan) Fermin de Zubeldia*.

¹³⁹³ *Txara* Aranoko etxea dugu.

¹³⁹⁴ ‘Sollaren karreteroak’ esan nahi duela ematen du.

¹³⁹⁵ ‘Hurbiltzen’.

¹³⁹⁶ Testuan *Agiñze dut* dago.

¹³⁹⁷ Klasikoetan ohikoa den *AN + abal + -ke*-dun *AL* dugu hemen, ikusten den bezala.

¹³⁹⁸ ‘Koaderno’, ‘kaiera’. Ez dakigu idaztean egindako hutsa den ala Ignaziok eskuarki forma hori erabiltzen zuen. *Predo* adibidez frankotan agertzen da, *Pedro*-ren ordainez.

¹³⁹⁹ *Bakedano* dea oinarrian?

¹⁴⁰⁰ *Vuelta* honek idazkiak binperrean jarraitzen duela esan nahi du.

¹⁴⁰¹ Ikus 1787.02.09ko eta 1792_1897ko gutunetan dioguna.

¹⁴⁰² *Irun* hau olajaunak izkiriatur da, ez Ignazio Bergarak berak.

¹⁴⁰³ ‘Gurdikada burdina’, ‘orgatara burdina’.

¹⁴⁰⁴ ‘Berorrek’ segur aski.

¹⁴⁰⁵ Testuan *Conan* dago.

Buruzuriak kiñtal bana burnia eramanen dutela,¹⁴⁰⁶ denbora onzen badu. Hoiek ere, eta nahi badu bere mandoak bial ditzala, bederatzina arroa eramateko ez dirala honen abereak gauza.¹⁴⁰⁷ Hau da esan didana.

Arranbide, ~~enero~~ febrero 10 de 1803

Ignazio.

1803.02.17. Arranbide

1803

Nagusi jauna:

Patxiku Maletetik eta bere sunak,¹⁴⁰⁸ Paskual de Insauspek, Erbizaño errekan egiñ dituzten meak dirade 75 quintales, 5 arrobas ½.

Arranbide, febrero 17 de 1803

Ignazio.

1803.03.28(A). Arranbide

1803

Nagusi jauna:

Sebastian de Iribarrenen basoan, Makutsulan,¹⁴⁰⁹ Domiño Estartako¹⁴¹⁰ horrek egiñ duen ikatz da, hasta 22 de marzo...

¹⁴⁰⁶ *Dio, esan dit* edo hauen erako adizkia eskas da hemen.

¹⁴⁰⁷ Azken lerroaldea beste gisa batean ere puntua daiteke: «*Buruzuriak kiñtal burnia eramanen dutela, denbora onzen badu hoiek ere. Eta nahi badu [...]*», «*Buruzuriak kiñtal burnia eramanen dutela denbora onzen badu. Hoiek ere, eta nahi badu [...]*», etab.

¹⁴⁰⁸ «*Patxiku Maletetik eta bere suñak*» alegia, 'Patxiku Maletetik eta bere suhiak'. *Malet* dela eta, ikus 1802.08.21eko gutunean dioguna. Bestalde, *n / ñ* bikoiztasunen kariatara, ikus grafiari eskainitako atala.

¹⁴⁰⁹ *Makutsolo* Aranoko aurkintza da (NTEM 47: 42), *Macusola*(-) dokumentatua XVIII. gizaldian.

¹⁴¹⁰ *Estarta* Aranoko etxea da, beheko herrikoa. Olajaunak eskutitza jasotakoan egindako erdarazko apunteetan ere *Domingo Estartacoa* eta *Estartacoa* ageri dira. Goizuetan ere bazen, behinola, izen horretako etxea.

Cargas

37	1	3
40½		

Arranbide, marzo 28 de 1803

Ignazio.¹⁴¹¹

1803.03.28(B). Arranbide

1802

Razón de los carbones Domingo de Loiarde

Suerte de Urraide,¹⁴¹² *lo de Arranbide*

		<i>Cargas</i>	
<u>19 octubre</u> . Primera carbonera.....	35		
<u>17 noviembre</u>	27		
<u>30 diciembre</u>	57	...	
<u>1803</u>			
<u>17 febrero</u>	77½	...	3
<u>17 marzo</u>	29		
<u>26 marzo</u>	38		
	266		

Hoietaz gañera, bideak egiten. . . 2 días

Diru hartua:

1803. Hasta 15 enero 10 pesos fuertes viejos

¹⁴¹¹ Honen azpian olajaunaren zenbait apunte daude: *Sebastian Yribarren, Domingo Estartacoa, Estartacoa...*

¹⁴¹² Ikus 1793.10eko gutuna.

Arranbide, marzo 28 de 1803

Ignazio.¹⁴¹³

A Juan Bautista de Minondo.
Que Dios muchos años [guarde].

Goizariñ

1803.03.31. Arranbide

1802

Razón de los carbones Juan Antonio de Iribarren
Suerte de Urrizitxaba[l],¹⁴¹⁴ lo de Arranbide

	Cargas		
<u>7 septiembre. Primera carbonera . . .</u>	35		
<u>22 octubre</u>	40		
<u>02 diciembre</u>	26	...	1
<u>1803</u>			
<u>14 enero</u>	27½		
<u>16 marzo</u>	37		
<u>30 marzo</u>	23		
	189½		

Diru hartua, hemen dagoena:

1802. Hasta 16 octubre10 pesos fuertes

¹⁴¹³ Peko aldean olajaunaren hainbat ohar eta kontu daude: «suerte de Urraide», «consta en otra papel»...

¹⁴¹⁴ Testuan *urrizitxava* dago.

Arranbide, marzo 31 de 1803

Ignazio.¹⁴¹⁵

A Juan Bautista de Minondo.
Que Dios muchos años [guarde].

Goizariñ

1803.04.07. Arranbide

1803

Nagusi jauna:

Leneko kontua bialdu ezkerro Patxiku Errotari horrek Erbizaño errekan egiñ dituen meak dirade, *18 febrerotik* hasi eta honaraño egiñak dituenak dirade . . . 115 quintales, 2 arrobas ½.

Arranbide, abril 7 de 1803

Ignazio.

A Juan Bautista de Minondo.
Que Dios muchos años [guarde].

Goizariñ

1803.04.25. Arranbide

Nagusi jauna:

Patxiku Malet beratar horrek eta bere anaieak Erbizaño errekan egiñ dituzten meak dirade:

¹⁴¹⁵ Honen azpiko aldean eta ondoko orrialdearen lehen zatian JBMren hainbat apunte daude. Interesgarrienak bi hauek: «*Juan Antonio Yribarren en suerte Urriztichaval*», «*Agustin Hubizi por el corte y labor de la Lantegua de Sorosgarate*».

1803 *Hasta 18 de marzotik* hasi eta honarano (*sic*) egiñak dituzte 110 quintales, 1 arroba.¹⁴¹⁶

Hoietarako hartua dute pinta bat eta erdi ardo.

Arranbide, abril 25 de 1803

Ignazio.

Bart arratseko edo goizeko¹⁴¹⁷ anaia ekarriko zutelakoan atzo gelditu niñzan, baña ez da iñor ere agertu egun bederatzia arten (*sic*).¹⁴¹⁸ Ez dakit deusen berri[ri]k;¹⁴¹⁹ ekarzen badute nahi nuke ekusi,¹⁴²⁰ eta arratseko juane[n] naiz¹⁴²¹ itxera. Etorriko naiz bigar atzera.

A Juan Bautista de Minondo.
Que Dios muchos años [guarde].

Goizariñ

1803.05.03. Arranbide

1801

Nagusi jauna:

Sebastian Iribarren Atajuren horrek¹⁴²² Makutsulan¹⁴²³ berak egiñ duen ikatza du:

¹⁴¹⁶ Ondoan eta hurrengo orrialdean badira olajaunaren apunte batzuk, gaztelaniaz; interesgarriena «*Pachico Malet y su compañero beratarra*» da, bukaeran -o duen aldaera dagoelako (*Patxiko*), ez IBren testuko -u-duna (*Patxiku*).

¹⁴¹⁷ 'Bart arratserako edo [egun] goizerako'.

¹⁴¹⁸ Gehien-gehienetan *artea* aurkitzen dugu, eta behin *artean*.

¹⁴¹⁹ Testuan *verriq* dago; Goizuetan honela (*berrik*) orain. Erka bedi paragrafo bereko *arten* 'artean' horrekin.

¹⁴²⁰ '(Haien) anaia nahi nuke ikusi', itxuraz. Hala ere, azken esaldia honela ere puntua eta uler daiteke: «*Ez dakit. Deusen berri[ri]k ekarzen badute, nahi nuke ikusi*».

¹⁴²¹ Testuan *Juanenaiz* dago. Oroit bedi irakurlea lehen gutunean *yonen naiz* dugula.

¹⁴²² *Ataju* lagun baten goitizena zen; gehiagotan ere agertzen da gutun hauetan.

¹⁴²³ Aranoko dermioa. Ikus gorago esan duguna.

	5½ Cargas		
<u>27 agosto. Primera carbonera</u>	36		
<u>24 octubre</u>	74	4	3
Hoiek dira Makutsulan berak eginak	115½		
Hoietaz gañera, badu bere gaztañadian bere propioa, berak egiña:			
<u>1802. Hasta 28 enero</u>	28		
Diru hartuak hemen badaude:			
<u>1801 hasta 23 julio</u> 8 orillos viejos			
<u>1802 hasta 18 noviembre</u> . . . 5 pezetas			
Hoiek dira Sebastian Iribarren horren berarenak ¹⁴²⁴			

Eta Paulo de Ansa Artetxeko¹⁴²⁵ horrekiñ erdi bana, biek¹⁴²⁶ horren basoan, Makutsulan, egiñ dituzten ikatzak dirade:

<u>1803</u>	(8		
<u>26 de marzo. Primera carbonera</u>	38½	1	
<u>13 abril</u>	26	2	1
<u>23 abril</u>	36	2	3
	108		

Hau da horiek biek erdi bana egiñ dutena.

Guziek horiek dirade.

Arranbide, mayo 3 de 1803

Ignazio.¹⁴²⁷

¹⁴²⁴ Originalean *vera / renaq* dago, bi lerrotan. Arteka badira olajaunaren apunte bakan txiki batzuk.

¹⁴²⁵ *Artetxea* (egun -a gabe ibiltzen da) Aranoko etxea da.

¹⁴²⁶ Ikus 1800.07.23ko gutunean *baiek biek* formaz esan duguna.

¹⁴²⁷ Ondoko orrialdean JBMren apunteak eta kontuak daude: «1801, 1802, 1803 *Sebn Yribarren Ataju*», «*en Macusola mi lantegua* [...] *cargas de solo Ataju*», «*cargas de Ataju y Paulo Ansa*», «*Abono 28 cargas á Ataju de su castañal*», «*Juan Domingo Estartacoa cocio la 1/8 Parte de 40½ cargas á pezeta*».

A Juan Bautista de Minondo.
Que Dios muchos años [guarde].

Goizariñ

1803.06.02. Arranbide

1803

Nagusi jauna:

24 linea zabal eta 3½ linea¹⁴²⁸ lodi ziran txabal¹⁴²⁹ haietatik juan ziran 82 *quintales*, 5 *arrobas*, 940 *barras*.¹⁴³⁰

Eta 25 linea zabal eta 5 linea¹⁴³¹ lodi Donostiarakoak zirala, juan ziran..21 *quintales*, 5 *arrobas* ½, 200 *barras*.

Eta beste Pazko ondoan hasi giñan txabal haietatik juan dira...46 *quintales*, 2 *arrobas* ½, 383 *barras*.

Burniñtxo begidunak¹⁴³² dirade...40 *quintales*, 0 *arroba* ½, 133 *barras*.

Eta Artantxurenzat¹⁴³³ Irunerako Goizuetara eraman dituzten burniak dirade 27 *quintales*, 4 *arrobas* ½...190 *barras*.

Eta Sebastianek eraman zituanak ziraden...03 *quintales*, 0...021 *barras*.

Arranbide, junio 2 de 1803

Ignazio.

¹⁴²⁸ *Linea* egiten ziren pezen luzelaburra eta lodiera neurtzeko «unitatea» zen, ontzaren hamabirena. Ikus JRM (II, 325).

¹⁴²⁹ Ohart bedi irakurlea *zabal* eta *txabal*-en arteko aldeaz: lehena, *zabal*, adjektiboa da, eta bigarrena, *txabal*, aldiz, pezaren izena, hola deitua zabala zelako.

¹⁴³⁰ Originalean *B.º* dago. Hau guk beti *barras* irakurri dugu, baina ez dakigu seguru (beti) hola ulertu behar den.

¹⁴³¹ IBri hasmentan tarteko *e* bokala izkiriartzea ahanzi eta *lina* idatzitakoan sartu du, hitzaren gaineko aldean.

¹⁴³² *Burdintxo* bereziak ziratekeen hauek, zulodunak. *Burniñtxo moxbedigunak* ere baziren (1801.11.10). Ikus JRM (II, 248, *burnitxo* sarrera).

¹⁴³³ Goizuetako baserria dugu *Artántxù* eta bertakoa *Artàntxú*. Kasu honetan bigarrena da, etxe izengoitia.

1803.06.06. Arranbide

Nagusi jauna:

Sebastianek bialdu ditu txartel horiek. Ogiak badira hiru egun hoietako diña.

Arranbide, *junio 6 de 1803*

Ignazio.¹⁴³⁴

A don Juan Bautista de Minondo.

Goizarin

1803.06.21. Arranbide

Nagusi jauna:

Horra leneko hilleko itzaien asentua:

Ignazio Loidikoak¹⁴³⁵ entregatu zituan sei bost ezkutuko,¹⁴³⁶ eta zorzi urretxiki eta bi pezeta, eta dezitxano¹⁴³⁷ bat, eta bost ogi. Eta igandean mealleak eta urzalle berriak entregatu zituzten hamabi ogi eta errugu erdi bat¹⁴³⁸ baba; horra¹⁴³⁹ haiekiñ ekarri zuten zakua. Eta leneko astean gaitziru¹⁴⁴⁰ bat babarekiñ bialdu zutena zaku txiki bat,¹⁴⁴¹ eta Ignazio Loidikoak bost ogikiñ ekarri zuen zaku txiki bat, eta Jose Domingo Teresaneakoak¹⁴⁴² hamar ogirekiñ

¹⁴³⁴ Gutunaren hastapenean zenbait kontu daude. Honen azpian eta ondoko orrialdean, aldiz, JBMren anitz ohar eta apunte ageri dira. Interesgarrienak hauek: *Sanzena*, «*mena Lesaca malcorra*», *Pello Elizondo*, «*de buelta de Elama*», *Basayoneguia*, «*Bautista Sanzena de Aranaz*», «*mena Malcorra*» eta «*un quintal quadradrillo llebo*».

¹⁴³⁵ *Loidi* Goizuetako etxea da (*Lòidine* egun; ikus Perurena, Salaberri eta Zubiri, 2011: 128). Etxe honetan bizi zen, hain zuzen ere, *Ignazio Bergara* izenekoa 1786an (Perurena, 2017: 251). Ikus gutun hauen egilearen biziaz mintzatzean honetaz dioguna.

¹⁴³⁶ Alegia, bost ezkutuko sei txanpon.

¹⁴³⁷ Originalean *dezichano* dago, eta oso ongi irakurtzen da. Diru baten izena da, betiere pezeta baino txikiagoa, balio gutxiagokoa. Hitzaren jatorria *dieciocheno* dugu (ikus hiztegia).

¹⁴³⁸ 'Erregu erdi bat'.

¹⁴³⁹ 'Horra hor'.

¹⁴⁴⁰ 'Gaitzerua'.

¹⁴⁴¹ *Izan zen, zen*-en moduko adizkia falta dela dirudi.

¹⁴⁴² *Teresanea* edo *Teresenea* (*Tesene* egun) Aranoko etxea da.

ekarri duen kostala bat,¹⁴⁴³ eta horra botilla leneko astean libra bat eta erdi oliorekiñ bialdu zutena; orañ hemen ez dago olioren tanta bat ere. Bial bezate olioia, hor da bada aspaldian olio txarroa; hartan bial bezate olioia.

Jose Domingo Teresenakoaren Urraideko basoa bota zen jornaleroan egunak dirade,¹⁴⁴⁴ *1802 hasta 24 abril semana:*

Domiño de Loiarde	3 días
Sollarenak	4
Anzizarrenak	2
Juan Antonio Iribarren.	2
Agustin de Ubitzi	2
Danboliñak	2
Juan Antonio <i>hijo de</i> Artxaia	1
Lukas de Iraola	4

Hoiek dira basoa botatzeko jornaleroan egunak.

Gaztigatu beza burni hoiek Erreteriarara behar duten. Hara beharko dutela ustean¹⁴⁴⁵ egun¹⁴⁴⁶ baziran lau itzai astiarragatarrak. Ez diotet burnirik eman, Erreterian, nola mearik ez dagoan, ez dituztela entregatuko.¹⁴⁴⁷ Ez diotet burnirik eman; gaztigatu beza¹⁴⁴⁸ zer egiñ edo burniak Erreteriarara behar duen.

Arranbide, *junio 21 de 1803* / Ignazio.

A Juan Bautista de Minondo.
Que Dios muchos años [guarde].

